

**JESU-KRISTO
GURE-JAUNAREN**



BARI-ONA

NIHIL OBSTAT
Dr. A. Cruz de Omaetxebarria,
Censor Ecc.

IMPRIMATUR
✠ *Paulus, Episcopus Flaviobrigensis*
Bilbao, 27 Maii 1960

Depósito Legal. - S. S. 802 - 1960

GOTZAIN JAUNAREN IDAZKIA

Poz aundiz ikusi dogu benetan «Jesu-Kristo'ren Barri Ona» (Ebanjelioa) euskeraz, gure Elizbarrutiko Ke-rexeta'tar Jaime abadearen lan oso bikain eta begikoa.

Zorionez beterik gagoz bizkaierazko argitarapen au dala-ta. Abadeen eta prailleen aldetik bakarrik ez, bai-ta eliztarren aldetik be abegi onez artua izango dala, ez dogu ezpairik.

Txalogarria benetan egillearen lana; bere abade-tza-eginbearrak betez gaiñera, ez da aztu arimen onerako dan beste kristau-ekintza onetzaz, gurari zintzoenez Jaungoikoaren itza eliztarrai jakiñerazo nairik.

Asmorik zabalenez, zorion-agurrik gartsuena da-motsagu ta biotzez eskartzen dogu gure Elizbarruti mai-teari dagokion aldetik.

Liburu au, edozein bizkaitar euskaldunek arduraz artzekoa da. Ziur gagoz egillearen alegiñak eta gogo zu-zena, eurrez onartuko dabezala eliztarrak; eta izan dadi-lla idazti au Barri Onaren irakatsiak albait ondoen eta artezen ezagutzeko biderik argienetarikoa.

Bilbao'n, 1960, Orrillak 27

✠ **Paulo, Bilbo'ko Gotzaiña**

NIRE ESKARRONIK GARTSUENA

AGIRIZ AGERTU NAI DAUTSET

BIZKAITAR EUSKALTZALE

ZINTZO BATZUI:

EURAI ESKER,

ARGITARAPEN AU ASKOZAZ

MERKEAGO SALDU AL IZANGO DA.

JAUNGOIKOAK EURREZ

SARIZTU DAGIZALA!

A T A R I A

JESU-KRISTO GURE JAUNAREN BARRI ONA

EVANGELIUM itzak, *BARRI ONA* adierazoten dau. Kristau-aldetara, barriz, Jaungoikoaren Seme Jesu-Kristo'k ekarri euskun Barri Ona, OSASUNEKO BARRIA.

Lenen, Kristo'k Berak iragarri ta irakatsi eban bere bizitzaldian. Gero, Aren aukeratuak edo Apostoluak zabaldu eben. Eta, azkenez, Apostoluak iragarritako Kristo'ren bizitzako irakaskintza ori, lau idazlek azaldu eben: Mateo ta Jon Deunak (Apostoluak biak), eta Markos ta Lukas Deunak (Apostoluen ikasleak), bakoitzak bere idaztia egiñik. Eta lau liburuok, idazti bat dague: Jesu-Kristo'ren Barri Ona, iñoiz idätzi dan libururik ederrena, bikaiñena ta jaungoikozkoena, ta gure Eliza Amak eskuetan jarten daukun idaztirik begikoena, maitekorrena ta irakurgarriena.

Ori dala-ta, alegin biziak egin dodaz, euskeraz jartean, albait ulerterrazena izan dadin. Alan be-

re, ba-dakit guztien gogoia beteko ez dodana, guztioak azibide bardiña ez dogu-ta, euskerari buruz batez bere.

Darabildazan itz batzui buruz, barriz, ez diñot guztiak len zuzen sortuak izan ziranik, (beste izkuntzetan, bere, bardin jazoten da); baiña gure arteko idazlerik geienak onartu ta erabilli dabezan ezkerero, neuk bere ba-darabildaz. Orraitiño, obeto ulertzearren, —naiz-ta azaleko lanaren itxura ta dotoretasuna zerbait galdu—, sarritan mako-barruetan itz errezagoa-edo jarten dot, batzui ta besteai eder egin naiez, ta erri xeari onurakorragoa izan dakion, batez bere.

Ta besterik ez.

Zerurako bide izan dakizula lan au, irakurle, opa dautsu

EGILLEAK

Elorrio'n, 1960, Otsailak 14.

JESU-KRISTO'REN BARRI ONA

1. Lukas Deunaren sarrera.

(Lk. 1, 1-4)

Asieratik ikusle ta itz-irakasle izan diranak azaldu dauskuenez, gure artean jazotakoen azalpena atontzen ainbatek alegiñak egin dabez. Beraz, asieratik guztiak zeatz aztertuta gero, neuk be zuri, Teopilo bikain orri, artez idaztea erabagi dot, artu dozun irakaskintzaren egia obeto ezagutu dagizun.

2. Eta Itza aragi egin zan.

(Jon, 1, 1-18)

Asieran Itza (1) ba-zan, eta Itza Jaungoikoa-gaz zan, eta Itza Jaungoikoa zan. Asieran *Itza* Jaungoikoagaz zan. Guztia Berak egiña da (2). ta egindakorik Bera bagarik ez da egin. Beragan bizitza zan, eta bizitza au gizonen argia zan: eta argiak illunetan argi dagi, ta illunak (3) ez eben artu.

Jaungoikoak bialduriko gizon bat izan zan, Jon eritzona. Au sinispidetzat (*testigutzat*) etorri zan, argi-autorle, bere bidez guztiak sinistu

(1) Itza: Jaungoikoaren Semea.

(2) Itza, bizitzaren iturburua da.

(3) Illunak: okerkeria, gaiztakeria, ezjakitea.

egien (1). Bera ez zan argia, argiari sinispidea emon bear eutsana baiño.

Egiatzko argia zan, lur onetara datorren edozein gizakume argitzen dauan argia. Lurrean zan (2), eta lurra Berak egiña da, ta lurrak ez eban Bera ezagutu.

Bereakana etorri zan eta bereak ez eben artu (3). Baiña Bera artu eben guztiai, Bere izena sinistu eben guztiai, Jaungoikoaren seme biurtzeko eskubidea emon eutsen (4): oneik ez dira odoleetik sortu, ez aragi-senetik, ez gizonaren naitik, Jaungoikoagandik baiño.

Eta Itza gizon egin zan, eta gugaz bizilagun izan zan eta Aren aintza ikusi dogu, Aitagandiko Seme bakarrari dagokion aintza, eskar eta egiz bete.

Aretzaz Jon'ek autortzen dau, aldarrika esanez: "Auxe da nik niñoana: nire ondoren datorrena, nire aurrean jarria izan da, ni baiño lenago Bera ba-zan-eta. Eta guztiok Aren betetasunetik artzen dogu, esker ondoren esker (5). Legea Moises'en bitartez emona izan zan-eta, esker

(1) Kristo'ren testigu Jon izan zan, Mesias ta Jaungoikoaren Semea zala judarrak irakatsiz.

(2) Izakiak egiten eta zaintzen.

(3) Bereak be ez, "bere erriak", judarrak.

(4) Graziaren bidez Jaungoikoaren seme-ordeko egiten gara.

(5) Itzak goi-eskar bete ta gainezka dau Beragan, eta Aregandik artzen dogu guk.

eta egia Jesu-Kristo'ren bitartez ekarriak. Jaungoikoa ez dau iñok bein bere ikusi; Jaungoiko-Seme bakarrak, Aitaren altzokoak, onexek eza-guerazo dausku.

L E N E N G O Z A T I A

JESU-KRISTO'REN AURTZAROA

3. *Jon Bateatzaillearen sorrera*

(Lk. 1, 5-25)

Judea'ko Erodes erregeren egunetan, Abia'ren sailleko abade bat zan, Zakarias izenez; ta onen emaztea, Aaron'en alabetarikoa zan, Elisabet izenez. Biok Jaungoikoaren begietan zintzoak ziran, eta Jaunaren agindu ta zuzenbide guztietan artez ebiltzan. Eta umerik ez eben, Elisabet agorra (*legorra*) zan-eta; biak, barriz, urtez aurrerratuak.

Bere sailleko txanda zala-ta (1), Jaunaren aurrean abade-egikizunetan ziarduan baten, abadeen artean oi zanez, zotz egin eben (2), eta lurriña (*intzentzua*) eskeintzeko Jaunaren etxean sartu zan; eta erriko talde guztia otoitzetan ziarduan kanpoko aldean. Eta Jaunaren aingerua agertu yakon lurrin-altarako eskumaldean zutik. Eta a ikusiz, Zakarias larritu egin zan, eta bildu-

(1) Abade-sail bakoitzak Jaunaren etxeko egikizunak aste guztian bete bear ebazan, txandaka.

(2) Goiz ta arratsero sartzen zan elizan abade bat Jaunari intzentzua eskeiñi ta erretera; ta zein abadek joan bear eban jakiteko, zotz egiten eben.

rrak artu eban. Baiña aingeruak esan eutsan: "Zakarias, ez bildurtu, zure otoia entzuna izan da-ta; zure emazte Elisabet'ek sein bat egingo dautsu, ta Jon izena ezarriko dautsazu. Atsegiñez ta pozez izango zara, ta aren jaiotzaz asko alaituko dira, Jaunaren aurrean aundia izango da-ta; ardorik, ez sagardorik ez dau edango; ta bere amaren sabelean bertan Espiritu Santuz beteko da. Israel'go seme asko euren Jaungoiko Jaunagana bihurtuko dauz. Elias'en adorez ta indarrez Aren aurrean joango da, "gurasoen biotzak semeakana ta sinisgabeak zintzoen senera ekartera (Malk. 4, 5-6), Jaunari erri bikain bat atontzera".

Eta Zakarias'ek aingeruari esan eutsan: "Ori nundik ezagutuko dot nik? Zaarra naz ni, ta nire emaztea urtez naiko aurreratua".

Aingeruak erantzun eta esan eutsan: "Ni Gabirel naz, Jaungoikoaren aurrean egoten nazana; ta zuri itz egin eta barri on au ekartera bialdua izan naz. Eta begira: aldi egokian nire itzak beteko dira; bete artean, barriz, mutu egongo zara sinistu ez nozulako, itzik ezin egiñik" (1).

Bitartean, erria Zakarias'en zain egoan, Jaunaren etxean ain aldi luzean egoala-ta arriturik. Urten zanean, ezin itzik egin eutsen, eta agerpenen bat ikusi ebala igarri eben. Arek, barriz, kiñuka zirautsen, eta mutututa gelditu zan.

(1) Aingeruak dirautsana, Zakarias'ek sinistu ez daualako, Jaungoikoak zigortu egiten dau.

Eta elizako jardun-egunak bete ebazanean, etxera biurtu zan. Eta andik laster, Elisabet, aren emaztea, seindun egin zan, eta bost illebetez ezkutuan egoan (1), esanaz: "Auxe egin daust Jaunak egunotan, nire lotsakizuna gizartetik kentzeko, Bere begiak nigan ezarririk".

4. *Aingeruak Maria'ri Jesus'en jaiotza iragarten dautso.*

(Lk. 1, 26-38)

Seigarren illebetean, Jaungoikoak Gabirel aingerua Nazaret eritzan errira bialdu eban, neska bategana. Neskatilla au, Jose izeneko Dabid'en jatorriko gizonezko baten emaztegia zan, eta neskaren izena, Maria. Eta onegana sarturik, aingeruak esan eutsan: "Agur!, eskarrez bete ori; Jauna da zugaz; onetsia zu emakumeetan".

Itz oneik entzunda, Maria larritu zan, eta arelako agurrez zer esan nai ete-cutsan egoan.

Baiña aingeruak esan eutsan: "Ez bildurtu, Mari, Jaungoikoaren gogoko zara-ta; begira: sabelean sortu ta seme egingo dozu, ta Jesus izena ezarriko dautsazu. Aundia izango da Bera, ta Altsuaren seme dei egingo dautse, ta Jaungoiko Jaunak Aita Dabid'en aulkia (*jarlekua*) emongo dautso. Jakob'en etxeko buruzagia izango da betiko; ta Aren aginpideak ez dau amairik izango".

Maria'k aingeruari esan eutsan: "Ori ze-

(1) Umetxorik ez eukitea, lotsagarria zan; aregaitik Elisabet'ek Jaunari eskerrak damotsaz.

lan izan daiteke, gizonezkorik ez dot ezagutzen-eta?" (1).

Eta aingeruak, erantzunik, esan eutsan: "Espiritu Santua etorriko da zugana, ta Altsuaren indarrak bere gerizpetan artuko zaitu. Eta beraz, zugandik jaioko dana, Jaungoikoaren Seme deituko dabe (2). Orra, bestela, zure senide Elisabet be: zartzaroan seme bat sortu dau, ta agorra* zana, sein egiteko seigarren illebetera eldu da; Jaungoikoarentzat eziñik ez dago-ta".

Orduan Maria'k esan eban: "Ona emen Jau-naren mirabea; egin bedi nigan zeuk diñozunez".

Eta aingeruak aregandik alde egin eban.

5. *Maria'k Elisabet'i egin eutsan ikustaldia.*

(Lk. 1, 39-45)

Egun areitan Maria jagi ta mendiruntz arin joan zan, Juda'ko erri batera; ta Zakarias'enean sartuaz, Elisabet'i agur egin eutsan.

Eta ara!, Mari'ren agurra Elisabet'ek entzunaz batera, sabelean seiña poz-jauzika (*saltoka*) asi yakon, eta Elisabet Espiritu Santuz bete zan; eta deadarka esan eban: "Onetsia zu emakumeetan, eta onetsia zure sabeleko umea bere. Nor naz ni, baiña, nire Jaungoikoaren Ama etorri dakidan? Begira, bada: zure agur-otsa nire be-

(1) Maria'k ez eban ezpairik izan; baiña bere garbitasun-eskeintzaren arduraz egoan.

(2) Eberkerren esuera, **izango da** adierazoteko.

* Agorra: umerik izan ez dauan emakumea: estéril.

larrietara elduaz batera, seintxoa nire erraietan poz-jauzika asi yat. Zorionekoa, barriz, zu, Jau-naren alde Zuri esanak beteko dirala sinistu dozun ori!" (1).

6. *Andra Mari'ren abestia.*

(Lk. 1, 46-55)

Eta Maria'k esan eban: "Gogotik goستن dot Jauna, ta biotza pozez dagokit Jaungoikoa osagarri yatalako. Bere mirabe onen txikitiasuna begiratu daualako, gizaldi guztiak zorionsua deituko nabe. Benetan, nigan arrigarriak egin dauz guztiz altsuak; eta Aren izena Deuna da. Aren errukia gizaldiz-gizaldi bildur dautsoenentzat (2), Bere besoaren indarra erabilli dau: biotz ar-rokoak ondatu dauz. Altsuak aulkitik lurreratu, ta apalak gora jaso dauz. Gose ziranak ogasunez bete, ta aberatsak esku-utsik bialdu dauz. Bere otsein Israel bere babespean artu dau, bere erukiaz gomutaturik, gure gurasoai, Abraham'i ta onen ondorengoai betiko arelaxe agindu eutsen-eta".

7. *Jon Bateatzaillearen jaiotza.*

(Lk. 1, 56-66)

Eta iru illebetez aregaz (*Elisabet'egaz*) egonda, Maria bere etxera biurtu zan.

(1) Maria'ri zorionak emon eta Zakarias'en ezpaia adierazten dau.

(2) Jaungoikoaren errukiak ez dau amairik.

Seiña egiteko aldia eldu yakonean, Elisabet'ek seme bat egin eban. Eta Jaungoikoak ain erruki aundiak egin eutsazala jakinda, bere auzoko ta senideak zorion-agurrak emoten eutsoezan.

Zortzigarren egunean, seiña erdaintzera* eroan eban, eta aitaren izena, Zakarias, ezarri nai eutsoen.

Baiña amak esan eutsen: "Ez orixe!, Jon izango dau izena". Eta erantzun eutsoen: "Baiña zure senitartean ez dau izen ori dauanik-eta!"

Orduan aitari kiñuka itandu eutsoen, zelan nai eban umeari dei egitea. Onek, barriz, idaztola eskaturik (1), idatzi eban: "Jon da orren izena". Ta guztiak arritu ziran. Eta bat-batean ago ta miña askatu yakozan eta Jauna goratzen asi zan.

Orduan, auzoko guztiak bildurrak artu ebazan eta Judea'ko mendi-alde guztietan barri oneik zabaldu ziran, eta entzuten ebezan guztiak, biotz-barrenean ausnartzen ebezan, alkarri esanaz: "Nor ete-dogu ume au?" Jaunaren eskua aren alde egoan-eta.

8. Zakarias'en abestia

(Lk. 1, 67-80)

Eta Zakarias, aren aita, Espiritu Santuz bete

(1) Len, oltxoetan idazten eban, orain ingietan (papeletan) egiten danez; oltxo-gaiñean argizaria ezarri ta ezten bataz idatzi.

* Erdaindu: circuncidar.

zan, eta olantxe iragarri eban (1): "Onetsia Jauna, Israel'en Jaungoikoa, Bere erria agurtu ta birrerosi daualako. Eta bere morroi Dabid'en etxean osasun-endarra sortu dausku. Bere igarle deumen bidez aspaldietatik esan euskunez, gure arerio ta gorrotatzaille guztiakandik atarako genduzala. Gure gurasoai errukia agertuko eutsela, ta gogoratuko ebala bere alkartasun santua. Gure Aita Abraham'i emon eutsan zin-itza (agindurikoa) beteko euskula. Bildurrik baga, gure arerioen eskuetatik aterata, otseindu daigun. Gure bizitzako egun guztietan Aren aurrean zintzo ta zuzen ibilliaz.

Eta zu, Umetxo ori, Altsuaren Igarle deituko zaitue (2); Jaunaren aurretik joango zara-ta, Ari bidea gertatzen. Aren erriari osasun-jakintza erakusten, euren pekatuen parkamen bitartez; gure Jaungoikoaren errukiari esker, goitik etorri yaku-ta, artizarra legez. Illunpetan eta eriotz-gerizpetan dagozanai argi egitera, gure oiñak bake-bitetik zuzentzeko".

9. Jesus'en Sorkundea.

(Mat. 1, 18-25)

Kristo'ren sortzea, barriz, olantxe izan zan. Aren Ama Maria Jose'gaz ezkondata egoala, al-karganatu baiño len, Espiritu Santuaren egitez

(1) Iragarri eban: Jaungoikoaren argiaz aurretiaz esan eban.

(2) Edo-ta bardin dana: izango zara.

seindun aurkitu zan. Aren senar Jose'k, zuzena izanik, salatu nai ez-ta, ixillean itzi nai izan eban. Baiña asmo onetan ziarduala, amesetan Jaunaren aingerua agertu yakon, esanaz: "Jose, Dabid'en seme: ez bildurtu Maria emaztetzat artzen; beregan sortu dana, Espiritu Santuagandik dau-ta. Seme bat be izango dau, ta JESUS izena ezarriko dautsazu (1): bere erria pekatuetatik Arek atarako dau-ta".

Guzti au, barriz, Jaunak igarlearen agoz esandakoa bete zedin jazo zan: "Ara, birjiña batek sabelean semea sortu ta argitara ekarriko dau; ta Aren izena Emmanuel izango da" (2). Izen onek "Jaungoikoa gugaz" esan nai dau-ta.

Beraz, Jose'k, amesetatik jagita, Jaunaren aingeruak agindu eutsanez egin eta bere emaztea beregana artu eban (3). Eta onek, Jose'k ezagutu baiño len, semea egin eban (4). Eta JESUS izena ezarri eutsan.

(1) Jesus itzak, "Salbazaille" adierazoten dau.

(2) Emmanuel: Jaungoikoa gugaz.

(3) "Beregana artu eban", au da, agirizko ezkontza egiñik, Jose'k bere etxera eroan eban.

(4) Jose'k Maria "ezagutu baiño len", au da, ez eben aragizko artu-emonik inoiz bere izan, ez seiña egin baiño len, ez gero bere; Maria beti garbia, nesku-tza (birjiña) izan zan. "Ezagutu baiño len" esakuntzak, gero ezagutu ebala ez dau adierazoten, beste au baiño: Idaztiak (Idazti egilleak) egin ez zana agertzen dau (Jeronimo Deuna). Jose'k ez eban inoiz bere emaztea erruduntzat izan; eta Maria'gan egin zan miragarria ikusirik, ixilpean bialtzeiko asmotan ziarduan; baiña Aingeruak azaltzen dautso guztia.

10. Jesu-kristo'ren narea*.

(Mat. 1, 1-17)

Abraham'en belauneko Dabid'en seme dan Jesu-Kristo'ren nare-idaztia. Abraham'ek Isaak sortu eban; Isaak'ek Jakob sortu eban; Jakob'ek Juda ta onen anaiak sortu ebazan. Juda'k Tamar'egandik Pares ta Sara sortu ebazan; Pares'ek Esron sortu eban; Esron'ek Aram sortu eban; Aram'ek Aminadab sortu eban; Aminadab'ek Naason sortu eban; Naason'ek Salmon sortu eban; Salmon'ek Errahab'egandik Booz sortu eban; Booz'ek Errut'egandik Obed sortu eban; Obed'ek Jese sortu eban; Jese'k Dabid erregea sortu eban. Dabid erregek Uriaren emazte izan zanagandik Salomon sortu eban; Salomon'ek Erroboam sortu eban; Erroboam'ek Abia sortu eban; Abia'k Asa sortu eban. Asa'k Josapat sortu eban; Josapat'ek Joram sortu eban; Joram'ek Ozia sortu eban; Ozia'k Joatam sortu eban; Joatam'ek Akaz sortu eban; Akaz'ek Ezekias sortu eban; Ezekias'ek Manases sortu eban; Manases'ek Amon sortu eban; Amon'ek Josias sortu eban; Josias'ek Jekonias ta onen anaiak sortu ebazan, Babilonia'ko atzerraldian*. Eta Babilonia'ko atzerraldi ondoren, Jekonias'ek Salatiel sortu eban; Salatiel'ek Zorobabel sortu eban; Zorobabel'ek Abiud sortu eban; Abiud'ek Eliakim sortu eban; Eliakim'ek Azor sortu

* Nare: jatorria (linaje, genealogía).

* Atzerraldi: destierro.

eban; Azor'ek Sadok sortu eban; Sadok'ek Akim sortu eban; Akim'ek Eliud sortu eban; Eliud'ek Eleazar sortu eban; Eleazar'ek Matan sortu eban; Matam'ek Jakob sortu eban; Jakob'ek Maria'ren senar Jose sortu eban. Eta Maria'gandik Kristo deritxon JESUS jaio zan (1).

Beraz, Abraham'egandik D a b i d'eganaiño, amalau belaunaldi (2): ta Dabid'egandik Babilonia'ko atzerraldiraño, amalau belaunaldi: ta Babilonia'ko atzerralditik Kristo'ganaiño, amalau belaunaldi*.

11. Jesu-Kristo Gure Jaunaren jaiotza.

(Lk. 2, 1-17)

Egun areitan, Kaisar Augusto'k lurralde osoa izentatzeko agindu eban. Lenengo izen-batze au, Siria'ko agintari Kirino'k egin eban. Eta ba-joiazan guztiak, bakoitza bere errira, izena emotera.

Dabid'en ondorengo ta jatorriko zan-eta, Jose be Galilea'ko Nazaret uritik Betlen urira igo zan, izena emotera, bere emazte Mari seindunaz (3).

(1) Kristo itzak, gerkeraz gantzatua, igurtzia (ungido) adierazoten dau, eberkerazko MESIAS legez.

(2) Izan, diñozan belaunaldiak baiño geiago dira. Eta obeto gogoratzeko, amalau jarri dauz, iru scilletan. Jose, berez aitordoko izanarren, Legearen aurrean Jesus'en aita da. Eta Jose'k damotso Dabid'en seme izena.

(3) MESIAS BETLEM'EN JAIOKO ZALA, iragarrita egoan-eta, Jaungoikoaren arduratasunak orretarako bideak zabaltzen dauz.

* Belaunaldiak: generaciones.

Eta an egozala, seiña egiteko egunak Maria'ri bete yakozan. Eta lenengo semea izan eban (1), eta oialez baturik, estalpe baten ezarri eban, ostatuan tokirik areintzat ez zan-eta.

12. Aingerua ta artzaiñak.

(Lk. 2, 8-14)

Alde aretan artzain batzuk egozan izarpean, aldizka iratzarrik, euren artaldea gabez zaintzen. Eta bat-batean Jaunaren aingerua agertu yaken, eta Jaungoikoaren argitasunak inguratu ebazan, bildur aundiz itzirik. Baiña aingeruak esan eutsen: "Ez larritu: erri osoaren pozgarri izango dan barri emotera natorkizue: Salbatzaillea, Kristo Jauna, gaur jaio yatzue Dabid'en errian. Eta ona emen zuentzat ezaupidea: seiña oialez batuta, estalpean ipiñita idoroko dozue".

Eta bereala, zerutar talde aundia aingeruagaz alkartu zan, Jaungoikoa goستن, iñoela: "Aintza Jaungoikoari zeru goietan, eta bakea lurrean gogo oneko gizonai" (2).

13. Artzaiñak Jesus gurtzera.

(Lk. 2, 15-20)

Eta aingeruak zerura alde egin ebenean, artzaiñak alkarri iñotsen: "Goazan Betlen'eragiño,

(1) Lenengo semea. au da: lenen jaioa esaten dan semea.

(2) Edo-ta "bakea lurrean Jaungoikoak maite dauzan gizonai", edo-ta "Jaungoikoaren begiko diran gizonai".

ta Jaunak jakiñerazo dauskun jazo miragarri au ikusi daigun”.

Lenbaitlen joan ziran, eta Maria ta Jose idoro ebezan, umetxoa askan etzunda eukela. Au ikusirik, seintxoaz esan yakena egia zala ezagutu eben: eta entzuten eben guztiak artzaiñak zirautesenaz arritzen ziran. Maria’k, barriz, gorderik eukazan itz guztiok, bere biotz barrenean ausnartzen ebazala.

Eta artzaiñak, ikusi ta entzundakoaz Jaungoikoari aintzaka ta goraka biurtu ziran.

14. *Jesus'en Erdainkuntza.*

(Lk. 2, 21)

Seiña erdaintzeko zortzi egunak bete ziranean (1), JESUS izena ezarri eutsoen, amaren sabelean sortu baiño len aingeruak emondakoa.

15. *Jesus'en elizan sartzea.*

(Lk. 2, 22-24)

Eta Moises'en legez Maria'ren garbikuntza -egunak bete ziranean, Jesus Jerusalem'era eroan eben, Jaunari aurkezteko, Jaunaren legean idatzita dagoanez (2): “Amabarriaren gizakumea, Jaunarentzat autetsia* izango da, ta oparizat usa-

(1) Billebaiketa edo erdainkuntza: circuncisión. Israel'dar mutikoiak egiten eutsen zeremoni mingarri bat zan; narru apurtxo bat ebagiten eutsen, seiñari izena ezarririk.

(2) Ex. 13, 2. 12. 15.

* Autetsia: consagrado, dedicado.

pal* biko bat, edo usakume bi eskeintzeko (1), Jaunaren legeak diñoanez (2).

16. *Simeon zaarra.*

(Lk. 2, 25-28)

Simeon izeneko gizon bat bizi zan Jerusalem'en, gizon zintzo ta Jaungoikozalea, Israel'en pozkillearen zain; eta aregan Espiritu Santua egoan. Eta ez zala ilgo Jaunaren Kristo'a ikusi baiño len, Espiritu Santuak adierazo eutsan. Eta elizara etorri zan Gogoaren eragitez. Jesus'i buruz agindu-arauak betetera, Aren gurasoak elizan sartzean, Simon'ek bere besoetan umetxoa arturik, Jaungoikoa onetsi eban, esanaz:

17. *Simeon'en abestia.*

(Lk. 2, 29-35)

“Orain, Jauna, zure otsein au bakean izten dozu, itz emon zenduanez; Zugandiko osasuna nire begiok ikusi dabe-ta, erri guztiaren aurrean agertu dozuna. Atzerriak argitzeko argizuzi ta zure erri Israel'en aintzarako”.

Arriturik egozan Jesus'en gurasoak, Beroneztaz iñoena entzunda. Simeon'ek biak bedeinka-

(1) Lev. 12, 8; 5, 11.

(2) Emen Maria'k lege bi bete ebazan: 1) bere buuraren garbitzea, ta 2) Jesus Umetxoaren eskeintea.

* Usapal: tórtola (usoa).

tu ebazan, eta umearen Ama Maria'ri esan eutsan: "Entzun: askoren ondamentirako ta askoren osasunerako da Ume au ipiñia Israel'en, baita ukatuko daben ezaupiderako bere. Zure biotza, barriz, ezpata batek zulatuko dau, askoren biotzak gordeten dabezan asmoak agertu daitezán" (1).

18. *Ana igarlemea.*

(Lk. 2, 36-38)

Emakume igarle bat bere bazan, Ana, Pannuel'en alaba, Aser'en erkikoa. Oso zaarra zan, ezkonduta zazpi urtez bere senarragaz bizi izan zan eta larogei ta lau urteragiño alargun egoana: elizatik alde egiteke, barau ta otoitz, gau ta egun Jauna goresten ziarduan. Eta ordu aretan etorri-rik, Jauna goresten asi zan, eta Israel'en Salbatzaille-zain egozan guztiai, Umetxoatzaz itz egiten.

19. *Aztien (Erregeen) gurtza.*

(Mat. 2, 1-12)

Erodes erregearen egunetan, Juda'ko Betlem'en JESUS jaio zanean, azti batzuk eguzki-sortzal-

(1) Kristo, guztiok salbatzearren etorri zan; baiña Ari jarraitu nai dagiona bakarrik gaizkatzen da; jarraitu ezik, barriz, au da: Aren irakatsiak bete ezik, betiko gaidu. Onegaitik amaren oiñaze, ta ezpata.

detik Jerusalem'era etorri ziran (1), esanaz: "Nun dago judarren errege jaiobarria? Eguzki-sortzaldean Aren izarra ikusi dogu-ta, gur egitera gatorkioz".

Au entzunik, larritu zan Erodes erregea ta onegaz Jerusalem osoa. Ta abade-nagusi ta erriko idazlari guztiak batu-erazorik, Jesus non jaiobearra zan itandu eutsen. Eta areik esan eutsoen: "Juda'ko Betlem'en; igarleak onela idatzita daukanez: "Eta zu, Betlem, Juda'ko bazter ori, ez zara iñola be Juda'ko nagusietan txikiena; zugandik sortuko da-ta Israel nere erria zuzenduko dauan buruzagia" (2).

Orduan Erodes'ek, aztiai ixillean dei eginda, izarra noiz agertu yaken areikandik jakin eban. Eta Betlem'era bialtzen ebazala, esan eutsen:

(1) Itxuraz, aztiok Persi'tarrak ziran; aundiki artekoak. Izar-gaietan asko ekenak; baiña ez ziran, antza, erregeak, ezta sorgiñak eta izarteriak bere. Eguzki-sortzaldean ikusitako izarra, jazopen miragarria zan; eta orrelaxe autortzen dabe aztiak, goi-eskarraren (graziaren) indarrez, jaiobarriaren ezaupidetzat. Persia'n Salbatzaille baten ustez bizi ziran, eta ba-ekien, gaiñera, Israeldarrak be itxaropen antzekoa ebela.

(2) Mik. 5, 2.

* Guztiok dakigunez, "arek arei esateko, arek ari ta arek arei", erri geienak era bat darabille: dirautse, esan dautse (edo-ta eroan dautse, ekarri dautse). Orraitiño, askok beste onetara bereizten dabe: arek arei dirautse (esan dautse), arek ari dirautsoe (edo eroan dautsoe), ta arek arei dirautsee (edo ekarri dautsee, emon dautsee ta abar). Olanxe bereiztuko dot nik bere, argitasunaren onerako.

“Zoaze, ta jakin egizue umea nun dagoan; eta idoro dagizuenean, iragarri egidazue, neu bere ara joan eta gurtu dagidan”.

Areik, bada, erregearen itzak entzunda, joan ziran. Eta sortzaldean ikusiriko izarra aurretik joakien, Umea egoan toki-gaiñean gelditu arte. Izarra ikusirik, pozez bete ziran. Eta etxean sartuta, Umea idoro eben bere Ama Maria'gaz; ta lurrean auzpezturik gurtu eben, eta euren kutxak edegirik, opariak eskeiñi eutsuezan: urrea, kedatza (*intzentzua*) ta mirra.

Eta lo egozala, Erodes'egana ez biurtzeko aolkua (*kontzejua*) artuta, beste bide batetik barriro euren errialdera joan ziran.

20. *Ejipto'ra iges.*

(Mat. 2, 13-15)

Areik joan ziranean, Jaunaren aingerua Jose'ri amesetan agertu yakon, esanaz: “Jagi zaitez, Ama-Semeak artu ta Ejipto'ra iges egizu, ta zagoz an, neuk esan arte; Umea galtzarren, Erodes Aren billa ibilliko da-ta”.

Jose'k, beraz, jagirik, Umea ta Onen Ama artu ebazan gabez, ta Ejipto'ra baztertu zan. Eta antxe egon zan Erodes'en eriotza arte: Jaunak igarlearen agoz esandakoa bete zedin:

“Nire Semeari Ejipto'tik dei egin dautsat” (1).

(1) Os. 11, 1.

21. *Umetxo errubageen iltea.*

(Mat. 2, 16-18)

Erodes'ek orduan, aztiak iruzur (*engaño*) egin eutsuela oarturik, asarre gorritan jarri zan, eta Betlem'en eta inguruetan zeitekezan urte bitik beerako ume guztiak ilteko agindu eban, aztiak esandako sasoi gogoan artuaz. Orduan bete zan Jeremias igarleak esan ebana:

“Aboisa Errama'n entzun da, negar ta karrazi ugari; Errakel bere umeakaitik negarrez, eta ez dau pozbiderik nai, ez dira bizi-ta” (1).

22. *Jose Nazaret'era biurtzen da.*

(Mat. 2, 19-23)

Eta Erodes il zanean, Jaungoikoaren aingerua Ejipto'n Jose'ri amesetan agertu yakon, esanaz: “Jagi zaitez, Ama-Semeak artu egizuz ta Israel-aldera zoaz; Umea il nai ebenak il dira-ta”.

Beraz, Jose, jagirik, Umea ta Onen Ama arturik, Israel-alderuntz joan zan. Baiña Erodes'en ondorengo, Arkelao, aren semea, Judea'n errege zala entzunda, ara joateko bildur izan zan, ta amesetan aolkua (*kontzejua*) artuta, Galilea-alde-tara baztertu zan. Eta ara ezker, Nazaret izeneko errian bizilagun gelditu zan, igarleen esana bete zedin:

“Nazaretarra dei egingo dautse” (2).

(1) Jer. 31, 15.

(2) Jesus jaio, Betlen'en jaio zan; baiña gero Nazaret artu eben euren errizat: Nazaret'eko bizilagun egin ziran. Aurrerantzean, beti “Jesus Nazaretarra” eritzen.

23. *Jesus irakasle-artean — Ixilleko bizitza.*

(Lk. 2, 40-52)

Eta Umea azi ta gogortzen joian, senez bete-rik, eta Jaungoikoaren eskarra Aregan egoan.

Pazko-jaitan Jesus'en gurasoak urtero Jeru-
salem'era joaten ziran. Eta amabi urteko zala,
areik ara (*Jerusalem'era*) joan ziran, jaiegun are-
tako oitura zanez (1). Jaiegunok anaiturik,
etxerakoan, Jesus Umea Jerusalem'en gelditu zan,
gurasoak igartzeke. Beste lagunen artean izango
zalakoan, egun bateko bidea egin ondoren, seni-
de ta ezagunen artean Aren billa asi ziran. Baiña
idoro ez ebenean, Aren billa barrero Jerusalem'
era biurtu ziran. Iru egunen barruan, eliza-nagu-
sian idoro eben irakasleen artean jezarrita, ba-
tean arei entzuten, bestean itaunka; entzule guz-
tiak arrituta egozan, Aren jakituri ta erantzunez.
Arela ikusirik, Aren gurasoak be arritu ziran.
eta Amak esan eutsan: "Seme!, zergaitik egin
dozu ori? Begira, zure aita ta ni estu ta larri
ibilli gara zure billa".

Eta erantzun eutsen: "Zertarako nire billa
ibilli? Ez zekien Nire Aitaren lanetan jardun
bear dodala?" (2).

(1) Amabi urtetik gorakoak iru bidar urtean Je-
rusalem'era joan bear izaten eben; eta arrezkero muti-
koak askatasun apur baten gei egiten ziran.

(2) Itzok azalez gogortxoegien antza ba'dabe be-
re, Jesus'en esacera ta irri-barreak bigunduko ebazan,
ziur.

Baiña areik ez eben ulertu esan eutsena. Eta
alkarregaz Nazaret'era jatsirik, bere gurasoen
menpean bizi zan. Aren Amak, barriz, itz guz-
ti oneik biotz barruan gorde ebazan.

Eta Jesus geroago ta beteago agiri zan jakitu-
riz, adimenez ta doáiez Jaungoiko ta gizonen au-
rrean.

B I G A R R E N Z A T I A

BARRI ONAREN IRAGARTEA

GERTAKERA-ALDIA

24. *Jon Bateatzaillea Jordan'en agertzen da.*

(Lk. 3, 1-6. Mat. 3, 1-6. Mk. 1, 1-6)

Jaungoikoaren Seme Jesu-Kristo'ren Barri Onaren asiera.

Tiberio Kaisar'en agintzaldiko amabosgarren urtean, Judea'n Pontzio Pilatos erri-buru zala, Galilea'n buruzagi Erodes, onen anai Pilipo buruzagi Iturea'n eta Trakomitida-aldean, Abilene'n Lisantias buruzagi, Anas ta Kaipas abade-nagusien agintaritza-aldian, Zakarias'en Seme Jon'i basoan Jaunak itz egin eutsan.

Eta etorri zan Jon Jordan-inguruko errietara, pekatuen parkamena jadesteko damu-bateoaren bearra iragarten, esanaz: "Garbai zaiteze, zeruko erreñua urrean dago-ta" (1); Isaias Igarlearen liburuan idatzita dagoanez: "Ara, nire aingerua

(1) Jon Bateatzaillearen itzaldiaren lenengo itzak, auxe adierazoten dabe: "zuen pentzakera aldatu egizue". Lenen, barruko garbiketa; gero, —agiriko agerpenez— pekatuen autorra ta bateoa. Ez eban bateo arek grazi-donetzailea emoten, orretarako gertatu baiño.

biiltzen dot zure aurrean, bidea zure aurretik gertatu dagitzun" (1). "Basamortuan oiuka diarduanaren abotsa: atondu egizue Jaunaren bidea: zuzendu Aren zidorrak. Sakon guztiak beteko dira, ta mendi ta mendi-bizkar guztiak zapalduak izango dira. Bide okerrak zuzenduak eta bide latzak hardinduak; eta gizaki guztiak Jaungoikoaren Osasuna (*Salbatzaillea*) ikusiko dabe" (2).

Eta Jordan-aldeko guztiak, eta Jerusalem dar guztiak, eta Judea-aldeko guztiak aregana (*Jon Bateatzailleagana*) urteten ziran, eta euren pekatuak autortuaz, Jordan ibaian aregandik bateoa artzen eben. Eta Jon bera gamelu-ulez jantzita ebillen, eta gerrian narruzko gerriko bat, eta aren janaria otiak (*basoko langostak*) eta baso-etzia ziran.

25. *Garbairako deia.*

(Lk. 3, 7-9. Mat. 3, 7-10)

Pariseo ta sadukeotar asko bere bateoa artzera etorri zirala ikusirik, esan eutsen: "Nok erakutsi dautsue, sugekumeoi, etorteko dan asarreari iges egiten? Ekarri egizuez, beraz, damu-arnari egokiak. Eta ez egizue esan nai zeuen barruan, Abraham dogu aita. Ba-dirautsuet, bada: orko arrietatik be Abraham'i semeak aterateko lain da Jaungoikoa. Aizkora onezkero zugatz

(1) Mat. 3, 1.

(2) Is. 40, 3-5.

-zusterrari ezarrita dago-ta: arnari onik ez dakarren zugatza, ebagi ta sutara jaurtiko dabe".

26. *Maitasunaren eta zuzentasunaren ardura eskatzen dau.*

(Lk. 3, 10-14)

Eta gizataldeak itantzzen eutsan, esanaz: "Zer egin bear dogu, bada?"

Ta arek, erantzunik, zirautsen: "Soiñeko bi euki dagizanak, ez daukanari emon begio, ta jatekoa euki dagianak, bere, bardin egin begi".

Zergari batzuk bere, bateatuak izateko urreratu ta esan eutsoen: "Irakasle: zer egin bear dogu guk?"

Eta arek esan eutsen: "Erabagitakoa baiño geiago ez kendu".

Baita gudari batzuek bere itandu eutsoen, esanaz: "Eta guk zer egingo dogu?"

Ta esan eutsen: "Indarkeririk iñori ez egin, ezta iñor zuzenbage salatu bere, ta zuen sariaz naiko izan".

27. *Jon'ek Kristo iragarten dau.*

(Lk. 3, 15-18). Mt. 3, 11-12. Mk. 1, 6-8)

Baiña Jon'i buruz erriko guztiak ia Kristo'a ete zan biotz-artegaz ibillirik, Jon'ek erantzun eta guztiari esan eutsen: "Nik, bai, urez bateatzen zaituet damurako; baiña nire ondoren datorrena, ni baiño altsuagoa da, ta Aren oiñeta-koak eroateko bere ez naz ni duin: Berak batea-

tuko zaitue Goteunez (*Espiritu Santuz*) ta suz (1). Baea eskuan dakar, eta bere arloa garbituko dau, ta bere garia aletegian (*garautegian*) batuko dau; lastoa, barriz, itzungi (*amatau*) ez daiteken sutan erreko dau" (2).

Aolku (*kontzeju*) oneikaz ta beste askoaz, Barri Ona erriari azaltzen eutsan.

28. *Jesus'en bateoa.*

(Mt. 3, 13-17. Lk. 3, 21-22. Mk. 1, 9-11)

Egun arcitan, erri guztia bateoa artzen ziar-
duan artean, Jesus Galilea'ko Nazaret'etik Jordan'era etorri zan Jon'egana, onek bateatu egian. Jon'ek, barriz, debekutzen eutsan, esanaz: "Neu naz ni Zuk bateatu bear nozuna; ta nigana zatoz Zu?"

Baiña Jesus'ek erantzun eta esan eutsan: "Oraingoz itzi; zuzenbide osoa onela betetea da-gokigu-ta".

Orduan, Jon'ek itzi egin eutsan. Bateoa artu-ta berealaxe Jesus uretatik urten zan; eta ortzea (*zerua*) zabalduaz, Jaungoikoa'ren Gogoa uso-irudiz jatsiten eta Aren gaiñera etorten ikusi

(1) Jon'en bateoak ez eban pekaturik parkatzen, gorputza garbitu baiño, damurako gertakera adierazorik. Espiritu Santua'k, barriz, gogoak sutu, garbitu ta donetu (santutu) egingo dauzala.

(2) Munduan onak eta gaiztoak nastauta dagoz; azkeneko epai-egunean bananduko dauz: batzuk alete-girako (zerurako), besteak sutarako (inpernurako).

eban (1). Eta abots bat zerutik esaten: "Nire Seme kutuna Zeu zara: Zeugan dot nire atsegin-betea".

29. *Kristo'ren barau ta zirikal-diak.*

(Mt. 4, 1-11. Mk. 1, 12-13. Lk. 4, 1-13)

Jesus Jordan'dik Espiritu Santuz beterik biur-tu zan; eta Goteunak basamortura eroan eban (2), txerrenak zirikatu egian. Basamortuan berrogei egunez ta berrogei gauzez pristien artean egon zan, txerrenaren zirikal-diak jasanik. Aldi guzti aretan ez eban ezer jan; azkenez, berrogei egunok igaro ziranean, gose izan zan (3). Eta urreratu yakon zirikal-aria (*tentatzaillea, txerrena*) ta esan eutsan: "Jaungoikoaren Seme ba'zara, arriok ogi hiurtzeko esan egizu".

Jesus'ek erantzun eta esan eutsan: "Idatzita yagok: Ez dok gizona ogi utsez bizi, Jaungoikoa'ren agotik urtendako edozein itzez baiño" (4).

Orduan, txerrenak Uri Santura (*Jerusalem'era*) eroanda, eliza-nagusiko gaillurrean jarri eban, eta

(1) Irutasun Deuna agertzen da emen: Aita, Semea ta Espiritu Santua, iru notin edo persona ezbar-diñak, eta Jaungoiko bakarra.

(2) Jerusalem eta Itxaso Illa'ren bitartean, basamortua dago. Ez zan toki atsedengarria izango, abereak be ba-ziran bertan-eta.

(3) Moises eta Elias'en antzeko barau gelditu bagakoa izan zan, mirariz egindako baraua. Txerrenari zirikatzen iztean, pekatuan izan ezik, gizez geu laxeoa zala adierazoten dausku Jesus'ek.

(4) Deut. 8, 3.

esan eutsan: "Jaungoikoaren Seme ba'zara, amil-
du zaitez goitik beera: idatzita dago, bada: "Be-
re aingeruai agindu dautse zaindu zagiezan; eta
eskuetan artuko zaitue, arriren baten oiña mindu
ez dakizun" (1).

Jesus'ek esan eutsan: "Baita idatzita bere ba-
-yagok: Ez dok eure Jaungoiko Jauna zirika-
tuko" (2).

Barriro be txerrenak mendi-goi batera eroan
eban, eta lureko alderdi guztiak eta arein eder-
tasuna erakutsi eutsazan, eta esan eutsan: "Guz-
tiok emongo dautsudaz, auzpezturik gurtu ba'na-
gizu".

Jesus'ek esan eutsan: "Ken akit ortik urrun,
Satanas: idatzita yagok-eta: Eure Jauna gurtuko
dok, eta Axe baiño beste Jaunik ez dok izan-
go" (3).

Orduan, txerrenak itzi eban ordukoz; ta ain-
geruak urreratu ta morroiketari asi yakozan.

30. *Batzarre Nagusiaren ordezkariak Jon'egana:*
Jon'en autorra.

(Jon 1, 19-29)

Eta auxe da Jon'en autorra, judarrak Jerusa-
lem'dik abade ta lebitarrak bialdu eutsoezanean,
"nor zara zu?" itaunez. Eta autortu eban, bai, ta
ukatzeke autortu eutsen: "Ez naz ni Kristo'a".

(1) Er. (Ps.) 90, 11-12.

(2) Deut. 6, 16.

(3) Deut. 6, 13.

Ta barriro areik: "Nor zara, bada? Elias al
zara?"

Ta arek: "Ez".

"Igarlea ete-zara?" Ta arek: "Ezta".

Areik esan eutsoen: "Beraz, nor zara, ba,
bialdu gaituenai erantzun dagiegun? Zer diño-
zu zeutzaz?"

Orduan, esan eutsen: "Basamortuan oiuka
diarduan abotsa naz ni: *Zuzendu egizue Jauna-
ren bidea*, Isaias igarleak iñoanez" (1).

Bialduak, barriz, pariseotartekoak ziran, eta
itandu eutsoen: "Zer dala-ta bateatzen diarduzu.
ba, ez Kristo, ez Elias, Igarle bere ez izanik?"

Jon'ek erantzun eutsen: "Nik urez bateatzen
dot, baiña zuen artean dago zuek ezagutzen ez
dozuen norbait. Orixe da nire ondoren datorre-
na, ni baiño lenago sortua, ta aren oiñetako
lokarrria askatzeko be ni ez naz duin".

Gertari oneik Betania'n, Jordan aruzko er-
tzean jazo ziran, Jon bateatzen ziarduala.

31. *Jon'en beste autorkuntza batzuk.*

(Jon 2, 29-34)

Biamoncean, Jon'ek Jesus beregana etorten

(1) Is. 40, 3.—Jon Bateatzailearen arazo edo egin-
bearra, auxe da: Kristo'ri, Mesias'i, bidea gertatu. One-
tarako, auxe egin bear eben: lenengo, euren pentzake-
ra aldatu ta barruko garbitzea egin; gero, agirizko
ezaupidetzat, euren pekatuen autortza egin eta bateoa
artu. Jon'en bateoak, ez eban grazi donetzaillea emen-
ten, artzako gertatu baiño.

ikusi ta esan eban: "Orra, gizonen pekatuak kentzen dauzan Jaungoikoaren Bildotsa. Orix da nik orretzaz esan nebana: Nire ondoren dator aurretik jarri yatan gizona, ni baiño lenago ba-zalako. Ta nik ez nezauan (*ez neban ezautzen*); baiña Israel'en agertu dadin, urez bateatzera etorri naz ni".

Eta Jon'ek autortu eban, esanaz: "Uso-irudiz goiko Gogoa (*Espiritu Santua*) zerutik jatsiten eta Aren gaiñean ezarten ikusi dot. A (*Jesus*) nik ez neban ezagutzen; baiña urez bateatzera bialdu nauanak Berak esan eustan: "Norbaitegana Gogoa (*Espiritua*) jatsiten eta aren gaiñean ezarten ikusiko dozu: Axe da Espiritu Santuz bateatzen dauana". Eta neronek (*neuk*) ikusi dot, eta autortu dot Axe dala Jaungoikoaren Semea".

32. *Jesus'en lenengo ikasleak.*

(Jon 1, 35-40)

Biamonean bere, Jon'ek, bere ikasletariko bigaz egoala, Jesus ibilten joiala ikusirik, ba-diño: "Orra Jaungoikoaren bildotsa". Itzok entzunik, ikasle biak Jesus'i jarraitu eutsoen.

Jesus'ek, atzerantz biurtuta, jarraitzen eutsoela ikusirik, esan eutsen:

"Zeren billa diarduzue?"

Areik erantzun eutsoen: "Rabi (au da: Irakasle), non bizi zara?"

"Zatoze —dirautse— ta ikusi egizue".

Joan ziran, bada, ta ikusi eben nun bizi zan;

eta egun aretan Aregaz gelditu ziran. Amarrak-edo ziran (1). Jon'en itzak entzunda jarraitu eutsan biotariko bata, Ander zan Simon Pedro'reu anaia.

33. *Pedro'k Jesus lenengoz ikusten dau.*

(Jon 1, 41-42)

Ander'ek lenengo idoro ebana, Simon bere anaia izan zan, eta dirautso: "Mesias (edo Kristo'a) aurkitu dogu".

Eta Jesus'egana eroan eban. Jesus'ek aregan begiak ezarririk, esan eutsan: "Simon zara zu, Jonás'en semea; zure izena, barriz, Kepa izango da", arria, nonbait.

34. *Felipe ta Natanael'i deia.*

(Jon 1, 43-51)

Biamonean, Galilea'ra joatea erabagiteu dau; ta bidean Felipe aurkitzen dau, ta dirautso: "Jarraitu egidazu".

Felipe au Betsaida'rra zan, Ander eta Pedro'ren erritarra.

Felipe'k Natanael aurkitzen dau, ta dirautso: "Moises'en Legean eta igarleak idatzi ebena aurkitu dogu: JESUS, Jose'ren semea, Nazaretarra".

Eta Natanael'ek esan eutsan: "Nazaret'etik ezer onik etorri daiteke?"

Felipe'k dirautso: "Zatoz ta ikusi egizu!"

(1) Arratsaldeko laurak.

Natanael Jesus'ek Beregana etorten ikusi ebanean, aretzaz esan eban: "Orra iruzurrik (*engaiñurik, maltzurkeririk*) ez dauan Israeldar jator bat".

Natanael'ek dirautso: "Nondik ezagutzen nozu?"

Jesus'ek erantzun eta esan eutsan: "Felipe'k zuri dei egin orduko, pikondo-pean zengozala ikusi zaitut".

Natanael'ek erantzun eta esan eutsan: "Rabi!, Jaungoikoaren Semea zara Zu; Israel'en Errege zara Zu".

Jesus'ek erantzun eta esan eutsan: "Pikondo-pean ikusi zaitut esan dautsudalako, sinisten dozu? Aundiagoak ikusteko zagoz".

Eta ba-dirautso: "Bene-benetan dirautsuet: Zerua zabalik laster ikusiko dozue, ta Jaungoikoaren aingeruak Gizasemearen gainera igo ta jatsiten".

35. *Kana'ko ezteguak.*

(Jon 2, 1-11)

Eta iru egun geroago, Galilea'ko Kana'n ezteguak ziran, eta Jesus'en Ama antxe zan. Jesus eta Onen ikasleak be ezteguetara deituak izan ziran.

Eta ardoa amaiturik, Jesus'i bere Amak dirautso: "Ardaorik ez dauke".

Eta Jesus'ek dirautso: "Emakume! Zuri ta Ni-

ri zer?(1). Ez da oraindagiño nire garaia (*aldia*) eldu".

Orduan, Aren Amak morroiari dirautse: "Esan dagitzuena, egizue".

Judatarren garbiketarako oi danez, sei arrizko ontzi egozan bertan (2), bakoitzak bi edo iru neurri artzen ebazanak. Jesus'ek dirautse: "Ontziok urez bete egizuez".

Eta goragiño bete ebezan. Gero dirautse: "Orain atera ta mai-zaiñari eroan egiozue".

Ta eroan eutsoen. Mai-zaiñak ardao biurtu zan ura txastatu (*artu*) ebanean, nondik atera zan ez ekian-ta, (bai orregaitiño morroiak), senar-barrari dei egiñaz, dirautso: "Ardao ona, guztiak asierarako ateraten dabe; ta gero, maikideak berotuta dagozanean, txarra. Zuk, barriz, ardao ona oraintxe arte gorde dozu".

Orrela emon eutsen asiera mirariai Jesus'ek Galilea'ko Kana'n, bere aintza erakutsiz; eta arrezkero Aren ikasleak ezarri eben Aregan sinistea.

(1) Itzok, azalez, gogortxoak dirudie; baiña Jesus'ek esandako eraz, samurragoak biurtuko ziran, ziur. Andra Mari'k ez dau itxaropena galtzen, eta aurrera doa, bere eskaria lortu arte. Beraz, Jesus'ek ez eutsan ezezkorik emon.

(2) Ontzi oneik "metretak" ziran: bakoitzak 40 litro artzen ebezan.

36. *Jesus, Kaparnaum'era.*

(Jon 2, 12)

Gero, bere Ama, senide ta ikasleakaz Jesus Kaparnaum'era jatsi zan, naiz-ta egun gutxi-rako.

LENENGO URTEA

I. JERUSALEM'EN ETA JUDEA'N

37. *Eliza-nagusiko salerosleak.*

(Jon 2, 13-22)

Judatarren Pazko-jaiia laster zan, eta Jesus Jerusalem'era igo zan. Eliza-nagusian idi, ardi ta usoen saltzaille ta diru-aldakariak jezarrita ikusirik, lokarrizko zardai bat egiñik, guztiak elizatik jaurti ebazan, ardi ta idiakaz batera, diru-aldakarien txanponak lurrean zear zabalduaz ta maiak itzuliz. Eta uso-saltzailleai esan eutsen: "Kendu emendik guzti au, ta ez biurtu nire Aitaren etxea salerosketa-etxe".

Aren ikasleak idatzita egoana gogoratu eben: "Zure etxeaganako garrak iruntziten nau" (1).

Judatarrak, erantzunik, esan eutsoen: "Orrela egiteko, ze ezaugarri erakusten daukuzu?"

Jesus'ek erantzun eta esan eutsen: "Eliza au ondatu egizue, ta iru egunean egingo dot" (2).

(1) Ps. 68, 9.

(2) Eliza au egiten 46 urte ziarduen, eta oraindik amaitzeke egon.

Judarrak erantzun eutsoen: "Berrogei ta sei urtean egin izan da eliza au, ta iru egunean zuk jaso?"

Baiña (*Jesus'ek*) bere gorputz-elizaz itz egiten eutsen.

Aren ikasleak, illen artetik biztu zanean gogoratu eben ori esan ebalaz; ta idatzirik egoana sinistu eben, baita Jesus'ek esandakoa bere.

38. *Jesus'i buruz judar askoren sinismen otza.*

(Jon 2, 23-35)

Pazko-jaietan Jesus Jerusalem'en zan artean, Aren izena askok sinistu eben, egiten ebazan mirariak ikusirik. Baiña Jesus bera ez yaken guztiz zabaltzen, guztiak ondo ezagutzen ebazan-eta; gaiñera, gizakiaz ez eban iñoren autorrik bear, gizabarrua berez ezagutzen eban-eta.

39. *Nikodemo'gaz ikustaldia.*

(Jon 3, 1-21)

Pariseotarren artean Nikodemo izeneko gizon bat zan, judarren nagusietarikoa. Onek, Jesus'egana gaez etorrira, esan eutsan: "Rabi (*Irakasle*), ba-dakigu Jaungoikoagandik Irakasle legez zatozala; Zuk dagizuzan mirariok, Jaungoikoa aregaz izan ezik, iñok ezin egin daikez-ta".

Jesus'ek erantzun eta esan eutsan: "Bene-benetan dirautsut: Jaungoikoaren Erreñua iñok ezin ikusi daike, barrero jaiio izan ezik".

Nikodemo'k dirautso: "Baiña aguratu ezke-
ro, zelan jaio? Amaren sabelean iñor barriro sar-
tu ta jaio al-daiteke?"

Jesus'ek erantzun eutsan: "Bene-benetan di-
rautsut: Urez ta Goteunez barriro biztu ez daite-
na, Jaungoikoaren Erreiñuan iñor ezin sartu dai-
teke (1). Aragitik jaiotakoa, aragi da. Aizeak
nai dagian tokian putz egiten dau, ta aren otsa
dantzuzu (*entzuten dozu*), ta ez dakizu nondik
nora doan. Arelakoa da Gogoagandik jaio dana".

Nikodemo'k erantzun eta esan eutsan: "Ori
zelan izan daiteke?"

Jesus'ek, erantzunik, esan eutsan: "Israel'en
irakasle zu, ta gai oneik ez dakizuz? Bene-bene-
tan dirautsut: ba-dakiguna diñogu ta ikusi do-
guna autortzen dogu; ta ez dozue gure autorra
artzen. Lurreko gaiak azalduaz, ez daustazuez
sinistu; ta zelan sinistu zeruko gaietaz itz ba'da-
gitzuet? Eta ez da iñor zerura igo, zerutik jatsi
dana baiño, zeruan dagoan Gizasemea. Eta sugea
basamortuan Moises'ek gora jarri ebanez, Gi-
zasemea be gora jaso bearra da (2), siniste-
dun gizaki guztiak Aren bitartez betiko bizitza
lortu dagien, iñor bere galtzeke. Izan bere, Jaun-
goikoak gizadia oso maite dauala-ta, Bere Seme

(1) Jaungoikoaren Erreiñua, zeruko erreñua, Kris-
to'ren erreñua edo agintaritza edo jauntza, guztiak bat
dira, ta geienetan Jesu-Kristo'ren Eliza adierazten dabe.

(2) Gurutzeko eriotza jasango dauala adierazten
dau, guztiak salbatu daitezcan.

bakarra emon dautso, Aregan sinistea dagianik
galdu ez daiten, betiko bizitza izan dagian baiño.
Jaungoikoak bere Semea lurrera ez dau lurtarrak
epaitzeko bialdu: Aren bitartez gizadia gaizkatu
(*salbau*) dadin baiño (1). Aregan sinistea daga-
na, ez da galdua izango; sinistu ez dagiana, barriz,
galdua da, Jaungoikoaren Seme bakarraren ize-
nagan sinisterik izan ez daualako. Epaia, barriz,
auxe da: lurrera argia etorri da, ta gizakiak Ar-
gia baiño illuna maiteago izan dabe, arein egiñ-
tzak okerrak ziran-eta. Gaiztakeria dagien guz-
tiak, argiari gorroto dautse-ta; ez datoz, barriz,
argitara, arein egiñak gaiztetsiak ez izateko.
Egiaren bidetik ibilli daitena, barriz, argitara
dator, aren egintzak Jaungoikoagan egiñak izan
dirala agertu daiten".

40. *Jesus Judea'n Barri Ona irakasten.*
Jon'en azken-autorra.

(Jon 3, 22-36)

Onen ondoren, Jesus bere ikasleakaz Judea
alderdira joan zan, eta an bizi zan areikaz, ba-
teatzen. Jon'ek be Aion'en, Salim-ondoan, ba-
teatzen ziarduan, an ura ugari zalako. Eta askok
araxe joan eta bateoa artzen eben, oraindik Jon
ez eben giltzapean sartu-ta.

Bateoa zala-ta, Jon'en ikasleak eztabaidan asi
ziran judar batzukaz. Eta Jon'egana etorrita,

(1) Euren eskuan dabe gizonak betiko gaizkatzea,
ta betiko galtzea.

esan eutsoen: "Rabi, (*Irakasle*), Jordan aruzkoan zugaz egoala, Aren alde autorra emon zenduan beraxe, bateatzen asi da, ta guztiak Aregana doaz".

Jon'ek erantzun eta esan eutsen: "Iñok ezin daike ezer beretzat artu, zerutik emondakoa ezik (1). Zeuok zaree nik esandakoaren autorle (*testigu*): "Ez naz ni Kristo'a, Aren aurretik bialdua baiño". Emaztea dauana, senarra da; senarraren adiskidea, barriz, onen laguntzaille ta esanaren zain dagoana, poz-pozez jarten da senarraren abotsa entzunik. Ona, ba: nire poza orain bete-betea izan da. Ari, aztea (*geitzea*) dagokio; niri, ostera, gutxitzea. Goitik datorrena, guztien gaiñean dago; lurretik sortua, lurrekoa da, ta lurrekoetaz itz dagi. Zerutik etorri yaku-na, guztien gaiñean dago, ta ikusi ta entzun dauanaren autorra dakar; eta alan bere, iñok ez dau Aren autorra artzen. Aren autorra artu dagianak, barriz, Jaungoikoa egiti dala autortzen dau. Jaungoikoak bialdu dauana, Jaungoikoaren itzez berba egiten dau-ta; Jaungoikoak ez dautso Bere Gogoa (*Espiritua*) neurriz emoten-eta. Aitak Semea maite dau, ta dana eskuan ipiñi dautso. Semearen sinistea dagianak, betiko bizitza dau; baiña Semearen sinistea ukatu dagianak, ez dau

(1) Gizonak izan daiken ontasun guztia, Jaungoikoagandik datorkio. Ementxe dago benetako apaltasunaren egia.

bizitzarik ikusiko; bestetara baiño: Jaungoikoaren asarrea aregan dago".

II. BARRI ONAREN ZABALTZEA GALILEA'N

41. *Jon espetxean, eta Jesus Galilea'ra biurtzen da.*

(Lk. 3, 19-20. 4, 14. Jon 4, 1-3. Mk. 1, 14. Mt. 4, 12)

Erodes erki-buruak*, bere anaiaren emaztea Erodias'egaitik eta berak egindako gaiztakeri guztiakaitik Jon'ek agiraka egin eutsala-ta, gaiztakeri barri bat lengoai ezarri eutsen, Jon espetxean sarturik.

Jon'ek baiño Jesus'ek ikasle geiago bereganatu ta bateatzen ebazala, pariseotarrak jakin eben. (Orraitiño, bateatzailleak ikasleak ziran, ez Jesus bera). Barri au entzun eta Jon giltzapera eroana zala Jesus'ek jakin ebanean, Judea itzirik, Goteunaren eragitez Galilea'ra baztertu zan.

42. *Jesus eta samaritar emakumea.*

(Jon 4, 4-26)

Galilea'ra joateko, Samaria zear igaro bear eban. Ba-dator, bada, Sikar deritzan Samaria'ko erri batera, Jakob'ek bere seme Jose'ri emondako solo-ondora.

* Erki-buru: tetrarca (agintaria).

Antxe egoan Jakob'en iturria. Jesus, bidean nekatuta, iturri-ondoan jazarri zan: seirak-edo ziran (1).

Samaria'ko emakume bat ur-eske dator, eta Jesus'ek dirautso: "Ura ekazu". Ikasleak errira jateko-billa joanak ziran-eta. Samaritar emakumeak dirautso: "Zelan zu, judarra izanik, niri, samaritar emakume oni, ur-eske zatorkidaz?" (Judarrak samaritarraz artu-emonik ez dabe-ta).

Jesus'ek erantzun eta esan eutsan: "Jaungoikoaren doaia ezautu ba'zengi, ta "ura ekazu" esan dautsuna nor dan ba'zeki, ur bizia zeuk eskatuko zeuskio, ta Arek bai emon bere!" (2).

Emakumeak dirautso: "Jauna, ezer bere ez dozu aterateko, ta oxina barrenean dago: nundik daukazu, ba, ur bizi ori? Jakob gure aita baiño aundiagoa ete-zaitugu? Oxin au arek emondakoa dogu, ta arek eta here seme ta abereak oxin onetatik edan eben".

Jesus'ek, erantzunik, esan eutsan: "Ur au edan dagien guztiak, barriro be egarri izango dira; baiña nik emon dagiodan uretik edan dagiana, ez da inoiz egarri izango (3); ta Nik emon dagiodan ura, betiko bizitzaragiño txirristaka darrion ur-iturri izango yako".

(1) Egurdiko amabiak. Jesus izarditan eta nekatuta dago oxin-ondoan, arima bat irabazi naiez.

(2) Ur bizia: grazi donetzaillea.

(3) Ur onek, grazi donetzaille onek bakarrik kentzen dauz biotzeko gurari okerrak.

Emakumeak dirautso: "Jauna, ekazu ur ori, egarri ez izateko, ta ona ur-billa ez etorteko".

Jesus'ek dirautso: "Zoaz, zure senarrari dei egiozu ta zatoz ona".

Emakumeak erantzuten dautso: "Ez dot senarrik".

Jesus'ek dirautso: "Ondo esan dozu "ez dot senarrik", bost gizon izan dozuz-ta; orain dozu-na, barriz, ez dozu senar: orretan egia esan dozu".

Emakumeak dirautso: "Jauna, ba-dakust igar-le zarana. Gure gurasoak mendi onetan Jaungoikoa gurtu eben; zuek, barriz, Jerusalem'en gurtu bear dala diñozue".

Jesus'ek diñotso: "Emakume, sinistu egidazu: ez mendi onetan, ez Jerusalem'en Jaungoikoa gurtzeko sasoa ba-dator. Ez dakizuena gurtzen dozue zuek; ba-dakiguna gurtzen dogu guk; osasuna judarrakandik da-ta. Baiña garaia ba-dator, eta auxe da, gurtzaille jatorrak Aita gogoz ta egiz gurtuko dabe-ta. Jaungoikoa gogo (*espíritu*) da; ta gogoz ta egiz gurtu bear dabe Aren gurtzailleak".

Emakumeak dirautso: "Ba-dakit Kristo'a deritzan Mesias etorteko dana. Etorri daitenean, Berak erakutsiko dausku dana".

Jesus'ek diñotso: "Neu naz: itz egiten dautsun au".

43. *Samaritar askok Kristo sinisten dabe.*

(Jon 4, 27-42)

Ikasleak une berean eldu ziran, eta emakumeagaz izketan ziardualako arritu egin ziran. Alan bere, ez eutsan inok esan: "Zer itantzen dautsazu?", edo "zertaz itz dagizu orregaz?".

Emakumea, edarra (*cántaro*) itzirik, errira joan zan eta gizonai dirautse: "Zatoze!, ikusi egizue egin dodan guztia esan daustan gizon bat. Kristo ete-da?".

Beraz, erritik urtenda, Aregana joan ziran.

Bitartean, ikasleak zirautsoen: "Rabi, jan egizu".

Baiña Arek esan eutsen: Ba-dot Nik jateko, zuek ez dakizuen janari bat".

Ikasleak alkarri zirautsen: "Norbaitek janaria ekarri ete-dautso?".

Jesus'ek dirautse: "Nire janaria auxe da: bialdu nauanaren naia egin eta Aren asmoa betetea. Ez dozue esaten zuek: lau illebete barru, gari-igitea (*ebagitzea*)? Ara barriz, Nik dirautsuedana: jaso begiok eta begira soloak, onezkero igiterako orituak. Igitariak* egunsaria artzen dau, ta betiko bizitzarako arnaria (*frutua*) batzen, ereillea ta igitaria batera poztu daitezaz. Onetan bere, egia da esakera au: bat da ereillea, ta beste bat igitaria. Landu ez dozuena batzera bialdu zai-

* Igitari: igitaiez ebagiten dauana: segador.

tuet; besteak lan egin, eta zuek arein arlo landuan sartu zaree".

Bitartean, erri aretako samaritar askok, emakumeari "egin dodan guztia esan daust" autor au entzunda, Jesus'en sinisterra jo eben, eta Aregana urreraturik, eurakaz gelditu zedilla zirautsoen; eta egun bitan gelditu zan.

Ari entzunaz, sinistea asko geiagok artu eben, eta emakumeari zirautsoen: "Onezkero ez dogu zure esanagaitik sinisten, gizadiaren Salbatzailea Auxe dala geuk entzun eta ikusi dogu-ta".

44. *Jesus Galilea'n.*

(Jon 4, 43-45)

Egun biak igarota, andik urten eta Galilea'ra joan zan; igarleak bere errian entzute onik ez dauala, Jesus'ek Berak esan eban-eta. Galilea'ra eldu zanean, bada, galilearrak abegi onez artu eben, jai-egunean Jerusalem'en Arek (*Jesus'ek*) egindako guztia ikusi izan ebelako; eurak, be, jaitara joan ziran-eta.

45. *Jesus'ek errege-etxeke baten semea osatzen dau.*

(Jon 4, 46-54)

Jesus, ura ardao biurtu eban Galilea'ko Kana'ra eldu zan, ba. An aurkitzen zan Kaparnaum'en semea geisorik eukan errege-etxeke bat. Jesus Judea'tik Galilea'ra eldu zala entzun ebanean, Are-

gana joan zan, eta semea osatzera jatsiteko esan eutsan, il-zorian egoala-ta. Jesus'ek esan eutsan: "Mirari ta egintza arrigarriak ikusi ezik, ez dozue sinisten" (1).

Errege-etxeakoak dirautso: "Jauna, jatsi zaitetz, nire semea il baiño len".

Jesus'ek dirautso: "Zoaz, semea bizi dozu".

Jesus'ek esandakoa sinisturik, ba-joian gure gizona. Eta bidean joiala, morroiak aregana etorri ta barri au dakarkioe: "Zure semea bizi da". Zein ordutan bizkortu zan itandu eutsen; eta esan eutsoen: "Atzo zazpiretan (2) alde egin eutsan sukarrak*".

Orrela igarri eutsan aitak, ordu aretan bertan Jesus'ek esan eutsala: "Zoaz, semea bizi dozu". Orduan, bera ta etxeako guztiak fededun egin ziran.

Jesus'ek Judea'tik Galilea'ra biurtu zanean egindako bigarren miraria da au.

46. *Jesus Jaungoikoaren Erreiñua zabaltzen asten da.*

(Mt. 4, 13-17. Mk. 1, 14-15. Lk. 4, 14-15)

Eta Nazaret itzirik, Itxasaldeko Kaparnaum'era eldu zan, eta an Zabulon eta Neptali'ren mugetan errikotu zan, Isaias igarleak esandakoa bete zedin:

(1) Jesus'ek sinismen bizia, gartsua, eskatzen dau.

(2) Eguerdiko ordu batetan.

* Sukarra: fiebre.

"Zabulon lurraldea, ta Neptali lurraldea, Jordan aruzkoa, itxashidea, atzerritarren Galilea. Illunik ebillen erriak argi aundi bat ikusi dau; eriotz-gerizpeko lurrean bizi ziranai, argia sortu yake" (1).

Arrezkero, Jesus Jaungoikoaren Erreiñuaren Barri Ona zabaltzen asi zan, esanaz: "Epe*-aldia bete da, ta Jaungoikoaren Erreiñua urrean dago: garbai izan zaiteze, ta Barri Ona sinistu egi-zue".

Eta Jesus'en izen ona bazterralde osoan zabaldu zan. Bera, barriz, arein sinagogetan (2) irakasten ziarduan, eta guztiak goresten eben.

47. *Lenengo ikasleak. — Arraintza (arrain-artze) arrigarria.*

(Mt. 4, 18-22. Mk. 1, 16-20. Lk. 5, 1-11)

Eta Jenesaret'eko aintzira (*lago*) ondoan zutik egoala, gizataldea urreratu yakon, Jaungoikoa'ren itza entzutera. Onetan, Jesus'ek txalupa bi ikusi ebazan; arrantzaleak, areitatik urtenda, sare-garbiketan ziarduen. Bata Simon'ena zan; eta bertara igonik, legorretik apur bat alde egiala eskatu eutsan. Eta jezarririk, txalupatik erriari irakasten asi zan.

(1) Is. 9, 1-2.

(2) Larunbatero erria sinagogetan batzen zan. Legeko ta Igarleen zerbait irakurten zan. Orduko izkera-ra biurtu ta azalpena, irakaslariak egiten ebezan.

* Epe: plazo.

Itzaldia amaitu ebanean, Simon'i esan eutsan: "Itxaso zabalera jo ta arrain-sareak bota egizuez".

Simon'ek erantzun eta esan eutsan: "Irakasle, gau osoan ekin dautsagu, ta ez dogu ezer atera; orraitino, Zuk esan ezkerro, sarea botako dot".

Au eginda, arrain pillo aundia batu eben, eta sarea urratzen yaken. Beraz, beste txalupako adiskideai lagun egitera etorteko kiñuz eskatu eutseen. Etorri ziran, eta txalupa biak ondatzeko zorian bete ebezan.

Au ikusirik, Simon Kepa Jesus'en oiñetan auzpeztu zan, esanaz: "Alde egizu Jauna, nigandik, gizon pekataria naz-ta". Arelako arrainketaz, bera ta lagun guztiak arrituta egozan-eta; berebat Jakob eta Jon, Zebedeo'ren seme ta Simon'en lagunak bere.

Jesus'ek, barriz, Simon'i esan eutsan: "Ez ikaratu; aurrerantzean gizon-arrantzale izango zara".

Gero, oni ta onen anai Ander'i, esan eutsen: "Jarraitu egidazue, ta Nik gizon-arrantzale egin-go zaituet". Eta bertantxe areik, txalupak legorretaturik eta sareak itxita, jarraitu eutsoen. Baita Santiago ta Jon'i be dei egin eutsen; eta oneik bere, bertantxe ontzia ta sareak itzita, jarraitu eutsoen.

48. *Kaparnaum'go sinagogan irakasten.*
Txerrendun bat osatzen dau.

(Mk. 1, 21-28. Lk. 4, 31-37)

Eta Kaparnaum'era joan ziran; eta larunbate-tan sinagogetan sartuta, irakasten asi zan. Aren irakasteaz arriturik egozan, eskubidea dauanari dagokionez irakasten eutsen-eta, ez idazlariak legez.

Txerren zikiñaren gogoia beregan eban gizon bat sinagogan zala, deadar egin eban, esanaz: "Jesus Nazaretar ori: guri ta Zuri zer? Gu galtzera etorri zara? Ba-dakit nor zaran: Jaungoikoa-ren Deuna".

Jesus'ek, agindurik, esan eutsan: "Isilik ago!, ta urten adi orregandik".

Ta txerren zikiña, gizona erdira jaurtirik, astindurik eta orro aundiak egiñaz, aregandik urten zan, ari kalterik egiteke. Eta guztiak arrituta alkarri zirautsen: "Zer da au? Ze irakaspen barri da au? Txerren zikiñai eurai be, aginbidez ta indarrez agintzen dautse, ta areik, esana egiñik, urten!" (1).

Ta Aren ospea Galilea'ko bazterralde guztietara laster zabaldu zan.

(1) Txerrenak, Jesus'en jaungoikozko indarra ta aginpidea autortzen dauz.

49. *Jesus'ek Pedro'ren amagiñarreba osatzen dau.*

(Mt. 8, 14-15. Mk. 1, 29-31. Lk. 4, 38-39)

Eta bereala jagirik eta sinagogatik urtenda, Simon eta Ander'en etxera Santiago ta Jon'egaz joan zan. Simon'en amagiñarreba sukarrez* ogean zetzan, eta bereala guztiak aren alde otoi egin eutsoen. Eta aregana urreraturik eta aldemenean zutik, eskutik artu ta jaso eban; eta sukarrari agindurik, bertantxe sukarrak itxi eban; eta emakumea, berealaxe jagirik, mirabe-lanetan asi yakou.

50. *Beste osakuntza batzuk.*

(Mt. 8, 16-17. Mk. 1, 32-34. Lk. 4, 40-41)

Arratsalderuntz, eguzkia ostendu ondoren, edo zelako gaitzez makalen bat euken guztiak, Jesus'i ekarri eutsoezan; eta Onek, bakoitzari eskuak ezarririk, guztiak osatu ebazan. Isaias igarleak esandakoa bete zedin: "Arexek artu ebazan gure nekeak, eta eroan gure oiñazeak (1).

Baita txerrendun asko, bere, ekarri eutsoezan, eta txerrenak itzez jaurten eutsezan, urtekeran deadarrez esanik: "Jaungoikoaren Seme zara Zu". Eta Arek agiraka isillerazten ebazan, Bera Kris-to'a zala ba-ekien-eta (2).

(1) Is. 53, 4.

(2) Jesus'ek ez eban nai Bera Kristo zala gizatideak jakin egian: egi ori artzeko, oraindik gertu ez egozan-eta. Gaiñera, txerrenaren autorrik ezetarako bere ez dau bear.

* Sukar: fiebre.

51. *Kaparnaum'dik urten eta otoi egitera baso-ekzutura doa.*

(Mt. 1, 35-38. Lk. 4, 42-43)

Egunduaz gero, goiz jagi zan Jesus; ta uritik urtenda, baso-ekzutura joan zan, eta an otoiketant ziarduan. Simon eta onegaz ziranak, Aren billa urten eben; eta idoro ebenean, esan eutsen: "Guztiak zeure billa dabiltz".

Jesus'ek dirautse: "Goazan emendik basarri ta alboko errietara, an bere irakatsi dagidan: orretarako etorri naz-ta".

Baita gizataldea, be, Jesus'en billa ebillen, eta Aregana elduta, eurakaz gelditzeko eskatzen eutsoen. Baiña Jesus'ek esan eutsen: "Jaungoikoaren Erreñua beste erriai bere iragarri bear dautset; orretarako bialdua izan naz-ta".

52. *Jesus Galilea-zear irakasten.*

(Mt. 4, 23. Mk. 1, 39. Lk. 4, 44)

Eta Jesus Galilea-zear ebillen (1), ango sinagogetan irakasten eta zeru-erreñurako Barri Ona iragarten, eta erritarren gaitz eta geiso guztiak osatzen, eta txerrenak jaurtzen.

53. *Legenarduna* osatzen dau.*

(Mt. 8, 1-4. Mk. 1, 40-45. Lk. 5, 12-16)

Galilea'ko erri baten Jesus egoala, legenarrez*

(1) Kodize batzuek, **Judea** dakarre; bestetzek, **Galilea**. Ba-daiteke Judea Palestina osotzat artzea.

* Legenardun: leproso.

* Legenar: lepra.

jositako gizon bat urreratu yakon; eta belaun-
koturik, gurtu eban esanaz: "Nai ba-dozu, osa-
tu naikezu".

Aretzaz errukiturik, Jesus'ek eskua luzatuaz,
gizona ikutu eban, esanez: "Nai dot; garbi izan
zaitez". Eta bat-batean legendarrez garbi aurkitu
zan. Eta bereala Jesus'ek bialdu eban, aginduz
zirautsala: "Begira, gero!; ez iñori aitatu. Baiña
zoaz abadeakana, ta Moises'ek aginduriko oparia
eskeiñi egiezu, sinistu dagien" (1).

Baiña aldendu zaneko, asi zan goraka esaten
eta jazioa zabaltzen. Eta arrezkero Jesus urietan
ezin zeitekean agirian sartu, ta baso-ekzutuetan
gelditzen zan. Eta Aren (*Jesus'en*) ospea gero ta
geiago zabaltzen joian; eta erritaldeak parrasta-
ka edonondik etorkiozan entzutera ta geisoen osa-
kuntza jadedestera.

Bera, barriz, baso-ekzutuetan bazterturik, otoi-
ketan ziarduan.

54. *Kaparnaum'go elbarria** osatzen dau.

(Mt. 9, 1-8. Mk. 2, 1-12. Lk. 5, 17-26)

Egun batzuk geroago, Jesus bere bizitoki-uri-

(1) Moises'ek "Abade-Idaztarian" (*Leviticum*) agin-
dutakoa beteteko dirautso. Jesus'ek, Legeari ta aba-
deai lotsa ta dedu eutsen. Oneik, osatuari osatze-agi-
ria emon bear eutsoen, au barriro gizarteko artu-emo-
netan asi zedin. Gaiñera, onela abadeak Jesus'en nor-
tasunaren ezaupidea artzen eban: euren onerako, onar-
tu ezkerro; euren ondamererako, Jesus'en aurka jarri
ezkerro.

* Elbarria: paralítico.

ra, Kaparnaum'era, biurtu zan (1). Eta arela-
ko egun baten, irakasten ziarduan. Etxean egoala
jakiñik, lagun asko batu ziran, ataurrea be arein-
tzat txiki zala. Ba-ziran an jezarrita pariseotar
eta lege-gizonak bere, Galilea ta Judea'ko erri
guztietatik, baita Jerusalem'dik be etorriak.
Eta Jaunak geisoak osatzeko indarra agertzen
eban.

Onetan, elbarri bat aurkeztu eutsoen, zerral-
doian (*ogetxoan*) lau gizonek ekarria; ta barrura
sartu ta Jesus'en aurrean ipiñi nai eban. Baiña
gizataldea zala-ta sarbiderik ezin ikusirik, sabai-
gaiñera igo ta tellartetik zerraldoian jatsi eban
erdira, Jesus'en aurrera (2).

Jesus'ek gizon arein sinistea ikusirik, elba-
rriari esan eutsan: "Seme, zure pekatuak parka-
tzen dautsudaz".

Orduan, idazlari ta pariseotarrak eurokautan
asmatzen asi ziran, esanaz: "Nor da birao esan
dauan ori? Pekatuak nok parkatu daikez, Jaun-
goikoak bakarrik baiño?".

Baiña, Jesus'ek, bere argiz arein asmakeriak
ezagaturik, dirautse: "Zer dala-ta darabizuez as-
makeriok zuen biotzetan? Zer da errazago?, "pe-
katuak parkatzen dautsudaz" elbarriari esatea,

(1) Jesus'ek beretzat aukeratutako uria, Kapar-
naum zan.

(2) Palestina'ko etxeen gaiñekaldea, lur-zapalduaz
egiten eban. Gaiñera igoteko, kanpokaldetik mailladia
euken. Etxeak txikiak ziran geienetan.

ala "jagi, zure zerraldoia artu ta zoaz" esatea? Beraz, pekatuak parkatzeko eskubidea Gizasemeak lurgaiñean ba-dauala ikusi dagizuen, —elbarriari dirautso—: Zeuri dirautsut: jagi, ogetxo artu ta zoaz etxera".

Eta bertantxe, arein aurrean jagirik, zetzan zerraldoia artu ta bere etxera joan zan, Jaungoikoa goretsiz.

Orduan, guztiak arrituta, arenbesteko eskubidea emon eutsen Jaungoikoa gorensten eben, eta bildurrez heterik, iñoen: "Arritzekoak ikusi doguz gaur: iñoiz ez dogu orrelakorik ikusi".

55. *Mateo'ri deia.*

(Mt. 9, 9-13. Mk. 2, 13-17. Lk. 5, 27-32)

Onein ondoren, barriri itxasalderuntz urten zan, eta gizatalde guztia Aregana joian, eta irakatsi egiten eutsen. Eta andik joiala, Mateo edo Lebi eritxan gizon bat zergategi*-ondoan jazarrita ikusi eban, eta esan eutsan: "Jarraitu egidazu" (1).

Ta dana itzirik, jagi ta jarraitu eutsan.

Mateo'k bere etxean oturuntza (*bazkari*) eder bat egin eutsan; eta zergari* ta gizon gaizto asko

(1) Fariseotarrak zergaria agiriko pekatarizat eukenen, eta ez eben nai izaten areikaz artu-emonik, loitu egiten ei ziran-eta. Loitu ez baiña, Jesus'ek osatu egiten ebazan. Errukia naiago dau opariak baiño.

* Zergari: zergak batzen ebezan gizonak: publicanos.

Jesus'egaz ta Onen ikasleakaz maikide ziran, erraiozanak (*jarraitzen eutsoenak*) asko ziran-eta.

Zergari ta pekatariakaz bazkaltzen ziarduala ikusita, idazlari ta pariseotarrak Aren ikasleai zirautesen: "Zegaitik zergari ta pekatariakaz jan edaten dozue?".

Jesus'ek, au entzunda, esan eutsen: "Osasunekoak eta sendoak ez dabe osagillerik bear, makalak baiño. Zoaze, ba, ta ikasi egizue zer dan arelako a: "Errukia nai dot, oparirik ez (1). Ez naz garbai-deika zintzoakana etorri-ta, pekatariakana baiño".

56. *Baraua zala-ta.*

(Mt. 9, 14-17. Mk. 2, 18-22. Lk. 5, 33-39)

Jon'en ikasleak eta pariseotarrak barau egiten ziarduen; eta Jesus'egana urreraturik, esan eutsen: "Zegaitik guk eta pariseotarrak sarritan barau ta otoitzak egiten doguz, ta zure ikasleak, ostera, jan eta edaten diardue?".

Eta Jesus'ek esan eutsen: "Eztegu-lagunak ezkonbarria areikaz dagoan artean, barau ta negar egin ete-daikee? Ezkonbarria areikaz dagoan artean, ezin dabe baraurik egin. Ezkonbarria aldenduko yaken egunak etorriko yakez; eta egun areitan, bai, barau egingo dabe".

(1) Os. 6, 6.

Beste ipuin au, bere, ekarri eutsen: "Iñok ez dautso soñeko zaarrari oial gogorreko ipingirik ezarten; ezarritako txatalak soñekoa urratu, ta oni tarratada aundiagoa egiten yako bestela-ta. Eta zaragi zaarretan bere, ez dabe ardao barririk sartzen; bestela, zaragiak eztanda egin, ardao isuri ta zaragiak galdu egiten dira. Ardao barria, barriz, zaragi barrietan sartzen dabe, ta biak dirae (*irauten dabe*). Eta zaarra edan-barrian, ez dau iñok barririk nai: "zaarra ohea da" diño-ta".

B I G A R R E N U R T E A

I. JERUSALEM'EN

57. *Jesus'ek urtegiko elbarria osatzen dau.*

(Jon 5, 1-18)

Judarren jaia zala-ta, Jesus Jerusalem'era igo zan. Jerusalem'en, Ardiate-ondoan, eberkeraz Betesda (1) deritzan urtegi bat dago bost aterpe daukazana (2).

Jaungoikoaren aingeruak, urtegiara noizean bein jatsirik, ura idarrostent* eban-eta, idarrosi-

(1) Olantxe eritzen abereak (ganaduak) oparirako igaro bear eben atean.

(2) Aterpe onetan ainbat geiso, itsu, erren eta elbarri egozan, ura noiz idarrosiko zan begira.

* Idarrosi: urari edo beste edozein lobeli (likidori) erain.

tako uretan lenen sartzen zana, edozein gaitzez egoana bere, osatzen zan.

Areitako gizon bat, an eukan bere gaitzak ogeta amazortzi urte areitan.

Jesus'ek, gizon a lurreean etzanik ikusirik eta aspaldirik egokera aretan egoala jakinda, dirautso: "Osatu nai dozu?".

Geisoak erantzun eutsan: "Jauna, ur idarrosaldian urtegiara eroan nagian gizonik ez dot; eta ni ara orduko, ni baiño len besteren bat jatsiten da".

Jesus'ek dirautso: "Jagi zaitetz, zure zerraldoia artu ta zabiltz".

Ta bat-batean osatu zan gizon a; ta zerraldoia arturik, ba-ebillen.

Egun a larunbata zan; eta judarrak osatuari zirautsoen: "Larunbata da; ez yatzu zillegi* ogetxo eroatea".

Arek erantzun eutsen: "Osatu nauanak esan daust: artu zure zerraldoia ta zabiltz".

Eta itandu eutsoen: "Nor da "zure zerraldoia artu ta zabiltz" esan dautsun gizon ori?".

Baiña osatuak ez ekian nor zeitekean; ango gizataldetik Jesus baztertu egin zan-eta.

Geroago, Jesus'ek gizona eliza-nagusian aurkituta, esan eutsan: "Entzun: osatu zara; aurreantzean ez pekaturik egin, okerragoren bat etorri ez dakizun".

* Zillegi izan: ser lícito.

Joan zan, orduan, gizona, osatu ebana Jesus zala judarrai esatera.

Larunbatez onelakoak egiten ebalako, jazar-
tzen* eben judarrak Jesus.

Baiña Jesus'ek erantzun eutsen: "Nire Aitak orain, bere, ba-diardu; ta Nik bere ba-diardut".

Orrexegaitik, batez bere, Jaungoikoari bere Aita esanaz bere burua Jaungoikoaz bardintzen ebalako, ta larunbata austen ebalakoan bakarrik ez, judarrak bizia Ari kentzeko amorratuta ebiltzan.

58. *Jesus'ek bere buruaren alde egin eban itzaldia.*

(Jon 5, 19-47)

Beraz, Jesus'ek erantzun eta esan eutsen: "Bene-benetan dirautsuet: Semeak, bere buruz, ezin ezer egin daike, Aita egiten dakusana (*ikusten dauana*) baiño (1); Onek dagiana bera, Semeak be ba-dagi-ta. Aitak Semea maite dau-ta, eta Berak dagian guztia erakusten dautso; egiteko aundiagoak bere, erakutsiko dautsaz. zuek ikaratu zaitezten: Aitak illak berbiztu ta bizitza damotsenez, Semeak be nai dauzanak bizten dau-ta (2). Izan bere, Aitak ez dau iñor bere epaitzen; epaibide guztia barriz, Semeari emon dau-

(1) Beraz, Aitaren egintzak Semearenak bere ba-dira; izate bat dabe biak.

(2) Jesu-Kristo'k berbizten dauz graziazko bizitzan ilda dagozanak.

* Jazartu, jazarri: aurrean erabilli: perseguit.

tso, Semea guztiak goretsi dagien, Aita goratzen dabenez. Semea gorenen ez dauanak, Bera bialdu dauan Aita be ez dau goratzen. Bene-benetan dirautsuet: nire itza aditu ta bialdu nauana sinistu dagianak, betiko bizitza dau, ta arelakoagana epaibidea ez dator; eriotzatic bizira aldatzen da, ostera. Benetan dirautsuet: Jaungoikoaren itza illak entzungo daben aldia eldu da, ta oraingoa da gero; ta aditu dagienak, biziko dira. Aitak Beregan bizia dauanez, Semeari be bizia Beregan izatea emon dautso-ta. Baita Gizaseme (1) dan ezkeru, epaitzeko eskubidea bere emon dautso. Ez ikaratu onetzaz; illobietan dartzazan guztiak, Jaungoikoaren Semearen deira urtengo diraneko sasoa ba-dator-ta; eta zuzen ibilli diranak, biziteko biztuko dira; oker ibilli diranak, barriz, galduak izateko. Nire buruz ezin ezer egin daiket. Dantzudanez (*entzun dodanez*) erabagiten dot; eta nire epaia zuzena da; ez dot nire naia billatzen-eta, bialdu Nauanarena baiño. Nitzaz Neuk autor ba'dagit, nire autorra ez da sinisgarri. Nitzaz autor dagiana beste bat da; ta ba-dakit Nitzaz dagian autorra, sinisgarri dana.

Zuek Jon'i itaunlariak bialdu zeutsezan, eta arek egiaren alde autor egin eban. Nik, barriz, autorrik ez dot gizagandik artzen; onela itz ba'dagit, zeuen osasun-crako da. A (*Jon*), zuzi iziotu

(1) Gizasemea: Mesias, Kristo, Jaungoikoaren Semea gizon egiña. Berari dagokio epaitzeko eskubidea, Eroskudearen egintzari amaia emoteko.

ta argitsu zan, eta aren argitan zuek apur baten poza artu nai zenduen. Baiña ba-dot Nik Jon'ena baiño autor altsuagoa: Aitak Nik egiteko itzi eustazan egintzak eurak dagoz nire alde, Aitak bialdu nauala autortzen. Bialdu nauan Aitak Berak autor egin daust. Aren itza zuek ez dozue bein bere entzun, ezta Aren arpegia ikusi bere. Ezta Aren itza zuekan izan bere, Arek bialduta-koaren esana ez dozue sinisten-eta. Idaztiak az-tertu egizuez, betiko bizitza areixetan dozuela uste dozuen ezker; onexeik dira Nitzaz autor dagienak. Zuek, barriz, ez zaree Nigana etorri bi-zitza lortzeko.

Ez dot gizagandiko aintzaren ardurarik. Baiña ezagutzen zaituet; Jaungoikoaganako maitasunik zuekan ez dago. Ni Aitaren izenean etorri naz, ta ez nozue onartzen; beste norbait bere buruz ba'letor, au onartuko zeukee. Zelan sinistu daike-zue zuek, alkarrengandik ospea artzen dozuenok, eta Jaungoikoagandik bakarrik datorren ospe-bi-lla ez zabiltzenok? (1). Ez uste Nik Aitaren au-rrean salatuko zaituedanik; ba-dago salatuko zai-tuena, zeuen ustea jarri dautsazuen Moises berbe-ra. Moises'ek idatzitakoa sinistu ba'zengie, Ni be-re sinistuko nendukezue, urrean; arek Nitzaz idatzi eban-eta. Baiña arek idatzirikoa sinistu ez

(1) Sinismena, griña txarrak eta lur-zalekeriak galerazcten dabe.

ba'dagizue. Nire esana zelan sinistuko do-zue?" (1).

II. GALILEA'N BIGARRENEZ

59. *Ikasleak larunbatez galburu batzuk artzen dabez.*

(Mt. 12, 1-8. Mk. 2, 23-28. Lk. 6, 1-5)

Beste bein, ereindako solo-zear larunbatez Jauna igarotzean, Aren ikasleak galburuak artu ta urkuldurik, jaten joiazan. Pariseotarrak, a ikusita, esan eutsoen: "Begira: zer dala-ta da-gie zure ikasleak larunbatez zillegi* ez dana?". Eta beste pariseotar batzuek arei zirautsen: "Ze-tan diarduzue, larunbatez zillegi ez dana egi-ten?".

Jesus'ek erantzun eta esan eutsen: "Ez dozue iñoiz irakurri Dabid'ek bearraldian egin ebana, berak eta aregaz ziranak gose izan ziranean? Abade-nagusi Abiatar'en egunetan, Jaungoikoaren etxean zala, ta abadeak baiño besterik iñok ezin jan zeikezan eskein-ogiak jan ebezala, ta aregaz egozanai emon eutsezala? Ez dozue Legean iraku-rri abadeak larunbatez, eliz-nagusian larunbata austen dabela, pekaturik bage? Begira, bada: Neuk dirautsuet: ba-dago emen norbait eliz-na-gusia baiño altsuago dana. Ta "errukia nai dot,

(1) Maite dabela diñoen Moises sinistu ez ba'da-gie, zelan sinistuko dabe gorroto dautsoen Jesus?

* Zillegi izan: ser lícito.

oparirik ez" (1) zer dan ba'zekie, ez zendukee bein bere errugabekorik gaiztetsiko".

Eta geitu eutsen: "Larunbata gizonarentzat egin da; ez, ostera, gizona larunbatarentzat. Beraz, Gizasemea larunbataren jabea bere bada" (2).

60. *Beste larunbat batez gizon esku-igarra osatzen dau.*

(Mt. 12, 9-13. Mk. 3, 1-5. Lk. 6, 6-10)

Andik alde eginda, beste larunbat baten arein sinagogan sartu ta irakasten ziarduan. Ain zuzen bere, eskumako eskua igartuta eukan gizon bat zan an. Ta idazlari ta pariseotarrak Jesus zaintzen ziarden, larunbatez osatuko ete-eban, A (*Jesus*) salatzeo gai-billa. Eta itantzen eutsoen, esanaz: "Larunbatez norbait osatzea zillegi da?".

Arek, barriz, arein asmakeriak ikusita, gizon esku-igarrari esan eutsan: "Jagi ta erdian zutik jarri zaitetz".

Gizona zutik jarri zan. Orduan, Jesus'ek esan eutsan: "Itaun au dagitsueta: Zillegi da larunbatez ondo ala txarto egitea? bizia gaizkatzea ala galtzea?".

Areik, barriz, itzik bere ez. Ta Jesus'ek esan eutsen: "Zuetariko batek ardi bakarra euki ez-

(1) Os. 6, 6.

(2) Larunbatez garia jotea debekatuta egoan; ez erraitiño gosea asetzeko galburu batzuk artzea, naiz-ta pariseotarrak baietz esan.

kero, ta larunbatez zulora jausi ba'lekio, ez ete -leuke artu ta aterako? Eta ez dau balio gizonak ardi batek baiño geiago? Beraz, zillegi da larunbatez on egitea".

Ta inguruko guztiak asarrez begiraturik, eta arein biotz-itsukeriaz naigabetuta, gizonari esan eutsan: "Zabaldu egizu esku ori".

Arek zabaldu eban; eta osatuta gelditu yakon, beste eskua baizen ondo.

61. *Pariseotarrak Jesus galtzea erabagiten dabe.*

(Mt. 12, 14. Mk. 3, 6. Lk. 6, 11)

Areik (*pariseotarrak*), barriz, zoro-zoro eginda, Jesus'en aurka zer egin zeitekean alkarriz zirautesen. Eta Erodes'tarrakaz batu ziran, eta Jesus galtzeko bidea artu eben.

62. *Jesus Jenesaret'eko aintzira*-ondoan: ainbat osakuntza.*

(Mt. 4, 24-25; 12, 15-21. Mk. 3, 7-12. Lk. 6, 17-19)

Baiña Jesus, au jakinda, bere ikasleakaz itxasoruntz baztertu zan; eta gizatalde aundiak Galilea'tik jarraitu eutsan, baita Judea'tik bere, ta Jerusalem'dik, Idumea'tik, Jordan-aruzkotik eta Tiro ta Sidon itxas-aldeetatik; eta guztiak Aregana joiazan. Arek egindakoak entzunik; eta bere ospea Siria osoan zabaldu zan.

Eta gizataldearren, ontzizka bat Arentzat geriturik izateko esan eutsen ikasleai, bultzaka za-

* Aintzira: lago.

paldu ez egien: geiso asko osatzen ebazala-ta, guztiok oldarka* etorkiozan, A ikutu nairik; Are-gandik indarra sortu ta guztiok osatzen eba-zan-eta.

Eta txerren zikiñak, A ikusiz, auzpeztuta dea-darrez iñoen: "Jaungoikoaren Semea zara zu". Ta gogorki agintzen eutsen Bera nor zan ez-gutu ez egien (1). Eta txerren zikiñok larri era-billezanak bere, osatzen ziran, Isaias igarleak esandakoa bete zedin: "Emen!, aukeratu dodan nire morroia, nire biotzaren atsegin betea. Nire Gogoa (*Espiritua*) Aren gañean jarriko dot, eta zuzenbidea erriai azalduko dautse. Ez dau ezta-baidarik, ez deadarrik aterako; ta iñok be ez dau Aren abotsa enparantzetan entzungo. Kaiña-bera brintzatua ez dau apurtuko, ta kea dariola dagoan zuzi-galartzua* ez dau itzungiko, zuzenta-suna garaille jarrerazo arte: ta aren izenean izan-go dabe itxaropena erriak" (2).

63. *Amabien aukeraketa.*

(Mt. 5, 1; 10, 1-4. Mk. 3, 13-19. Lk. 6, 12-16)

Egun areitan, Jesus, gizataldea ikusita, erri-tik urten eta mendira baztertu zan otoi egitera, ta Jaungoikoari otoiketean gau osoa igaro eban. Eta egundu zanean, bere ikasleai Beregana dei

(1) Jesus'ek ez eban nai oraindik Bera Kristo za-la gizataldeak jakin egian, erriak ez eban ulertzen Mesias'en egikizuna-ta.

(2) Is. 42, 1-4.

* Oldarka: impetuosamente.

* Zuzi-galartzua: la mecha de la antorcha.

egin eutsen, eta Aregana etorri ziran, eta arein artetik nai izan ebazan amabi aukeraturik, "Bialdu" izena emon eutsen arei. Aregaz (*Jesus' egaz*) ibilteko aukeratu ebazan, eta Barri Ona irakastera bialtzeko. Eta geisoak osatu ta txerre-nak jaurteko aginbidea emon eutsen.

Amabi aukeratutakoen izenak, onexeik dira: Simon (eta oni Kepa izena ezarri eutsan), Jakob (*Santiago*) Zebedeo'rena, Jakob'en anai Jon (bioi Boanerges, edo bardin dana, oztots edo trumoi -seme izena ezarri eutsen), Ander eta Felipe, ta Bartolome, Tomas, ta Mateo zergaria, Jakob Al-pai'rena, Tadeo, Simon Kananea'koa, ta Judas Iskariote, saltzaille izango yakona.

64. *Mendiko itzaldia: gertaera.*

(Mt. 5, 1-2. Lk. 6, 17-20)

Jesus, bere ikasleakaz jatsirik, zelai baten gel-ditu zan. Antxe egozan bere ikasleak eta gizatal-de aundia, Judea'tik, Jerusalem'dik eta Tiro ta Sidon itxasaldeetatik etorri ziranak, Jesus'en itza entzun eta euren gaitz eta geisoetatik osatzera etorri ziranak. Eta Jesus jzarri zanean, ikasleak urreratu yakozan. Orduan, bere ikasleakana be-giak jasorik eta agoa zabaldurik, irakasten asi yaken, esanaz:

65. *Zorionak eta zoritxarrak.*

(Mt. 5, 3-12. Lk. 6, 20-26)

Zorionekoak biotzez txiroak, zeruetako erre-iñua eurena dabe-ta.

Zorionekoak otzanak, lurraren jabe egingo dira-ta.

Zorionekoak negar dagienak, poztuak izango dira-ta.

Zorionekoak zuzentasunaren gose-egarri diranak, aseak izango dira-ta.

Zorionekoak errukiorrak, errukia jadetsiko dabe-ta.

Zorionekoak biotz-garbiak, Jaungoikoa ikusiko dabe-ta.

Zorionekoak baketsuak, Jaungoiko-seme izena emongo yake-ta.

Zorionekoak zuzentasunagaitik jazartuak*, zeruko erreñua euren dabe-ta.

Zorionekoak zuok, Nigaitik biraoka ta mada-rikatuka guzurrez zuen aurka nai dagiena esan dagienean.

Zorionekoak zuok, Gizasemeagaitik gizonak gorroto, iraindu ta jazartu zaizenean, eta zuen izena gaiztotzat artu dagienean! Poztu ta alaitu zaitezte arelako egunean: zuen saria zeruan oso ugaria izango da-ta; arein gurasoak igarleai, bere, beste arenbeste egin eutseen.

Zuen zoritxarra, barriz, aberatsok; zuen atsegin-aldia onezkero ba-dozue-ta!

Zuen zoritxarra, ase zaranok; gose izango zaree-ta!

Zuen zoritxarra, orain barre dagizuenok; samieñez ta negarrez izango zaree-ta!

* Jazartu, jazarri: aurrean erabili: persejuir.

Zuen zoritxarra, gizonak zuetaz ondo esan dagienean; sasi-igarleai, bere, arein gurasoak orrelaxe egin eutsen-eta" (1).

66. *Gatz eta Argi.*

(Mt. 5, 13-16)

"Lurrarentzat gatz zaree zuek. Ta gatz ga-zatu ba'dadi, zerez gazitu? Ezetarako be ez da, kanpora jaurtiteko ta gizonen ankaperako izateko baiño.

Gizonen argi zaree zuek. Mendi-tontorrean da-goan uria, ezin gorde daiteke. Argi-zuzi iziotua bere, ez dabe lakaripean ipinten (2), argimutil-gai-ñean baiño, etxeko guztiai argi egin dagioen. Be-go orrela ditziz zuen argia gizonen aurrean, zu-en egintza onak ikusi dagiezan, eta zuen Goiko Aita goretsi dagien".

67. *Kristo ta Legea: Aginduak bete.*

(Mt. 5, 17-20)

"Ez uste izan Legea edo Igarleak baztartzera etorri nazanik; baztartzera ez, betetera baiño. Be-

(1) Itzaldi onetan, Jesus'ek bere irakaskintzaren gai berezienak irakasten dautsez bere ikasleai. Iñun ikustekotan, ementxe ikusten da argien Kristo'ren irakaskizunak eta munduarenak aurrez-aurre dagozala: len ontzat artzen ebena, Jesus'ek txartzat dauko; ta Jesus'ek ontzat dauana, munduak txartzat artzen dau. Barri Onaren mamiña zorientasunetan datza.

(2) Lakari: celemin edo modio, au da: 9 litro artuko leuken neurria; beraz, ondo sartuko litzake bertan argi-zuzi iziotu bat.

ne-benetan dirautsuet: zeru-lurrak dirauen (*iraun dagien*) artean, ez "i" bat, ez izpitxo bat bere ez da legetik galduko, guztia bete arte.

Beraz, agindurik txikiena baztatu ta baztar-zen irakatsi dagiana, kaskarrena izango da Zeruko erreinuan. Bete ta irakatsi dagiana, ostera, Zeru-erreinuan aundi izango da. Ba-dirautsuet, bada: zuen zuzentasuna idazlari ta pariseotarrena baiño ugariago ez izatekotan, ez zaree zeruko erreinuan sartuko".

68. *Gizerailtza* ta aserrekeria.*

(Mt. 5, 21-26)

Entzun dozue antxiñakoai esandakoa: "ez iñor il", iltzaillea epaigarri da-ta. Nik, barriz, ba-dirautsuet: bere senideaz asarretu daitena, auzitegian errudun izango da; eta bere senideari *kiriten* (1) dirautsana, batzarrean errudun izango da; ta *zoro* dirautsana, barrendiko (*inpernuko*) sugarri izango da.

Beraz, zure oparia altarara eroan ba'dagizu, ta an zure anaiak zure aurka zerbait ba-dauala gogoratu ba'dagizu, oparia altara-ondoan itzirrik, zoaz lenengo zeure aniaz adizkidetzera, ta orduan, etorririk, eskeñiko dozu zure oparia.

(1) "Raca", berez *buruarin* da, burua utsik dauana. *Zero* esatea bere, beste irain bat da; ta emen *don-gea*, Jaungoikoa ezagutzen ez dauana.

* Gizerailtza: norbaiti bizia kendu: homicidio.

Zure arerioari amor egiozu* lenbaitlen, bidean aregaz zoazan artean: arek epailleari, ta epailleak txiñelari emonda, giltzapean sartu ez zagiezan. Benetan dirautsuet: ez zara andik urtengo azken eunena (*zentimoa*) ordaindu arte".

69. *Ezkontza-loitze* ta gogapen (pentsamentu) lizunak.*

(Mt. 5, 27-30)

"Antxiñakoai esanda dagoala entzun dozue: "Ez loitu ezkontza besterenganatuaz (*beste bate-gana urreraturik*) (1). Nik, barriz, ba-dirautsuet: emakumea lizunkeriz norbaitek begiratu ba'dagi, bere biotzean aretzaz ezkontza loitu dau.

Eskumako begiak gaizpide* ba'dagizu, atera ta zugandik jaurti egizu: oba dozu gorputz-atal bat galtzea, zure gorputz osoa su-lezean (*inpernuan*) ondatzea baiño-ta.

Eta zure eskuak gaizpide ba'dagizu, ebagi ta zugandik jaurti egizu: oba dozu gorputz-atal bat galtzea, zure gorputz osoa su-barrendiratu daiten baiño-ta (2).

(1) Ex. 20, 14.

(2) "Bergia atera ta eskua ebagi", sortzaldetarren esakerak dira: pekaturako bide guztietatik alde egin bear dogula adierazten dau, naiz-ta orretarako buru-ukitze gogorrek egin bear.

* Amor-egin: ceder, transjir.

* Ezkontza-loitze: adulterio.

* Gaizpide: escándalo.

70. *Ezkontzaustea**.

(Mt. 5, 31-32)

“Esanda dago: “Bere emaztea iztekotan, ezkontzauste-agiria emon begio” (1).

Nik, barriz, ba-dirautsuet: oakidetasunagaitik* izan ezik (2), bere emaztea itzi ba’dagi, ezkontza loitzera daroa; ta itzitako ori beretzat artu dagianak, ezkontza loitzen dau (3).

71. *Guzur-ziñaltza ta ziña.*

(Mt. 5, 33-37)

“Baita antxiñakoai esan yaken beste arelakoa bere entzun dozue: “Ziñik ez ausi; emon Jaunari zure ziñak” baiño (4). Nik, barriz, ba-dirautsuet: iñola bere ez zin egin (5); ez ortzeagaitik (*zeruagaitik*), Jaungoikoaren aulkia dalako; ez lurragaitik, Aren oiñazpikoa dalako; ez Jerusalem’gaitik, Errege Aundiaren uria dalako. Ezta zure buruagaitik be ziñik ez egin; ule bat bera be zuritu edo baltzitu ezin dozulako. Zure izkera,

(1) Deut. 24, 1.

(2) Au da: emaztea beste baten emaztorde biurzen ez ba’da beintzat...

(3) Jesus’ek, ezkontza ezin ausi daitekela agertzen dau: “Itzitako emazteaz ezkondu daitenak, ezkontza loitzen dau-ta”. Emaztordedunak, banandu egin bear dira.

(4) Ex. 20, 7.

(5) Ziñak (juramentuak) geikeriz ez dirala egin bear diño Jesus’ek.

* Ezkontzauste: divorcio.

* Oakidetasun: amancebamiento.

ostera, bedi beti: “bai, bai; ez, ez”. Onen gaiñerakoa, barriz, gaitzakeritik dator”.

72. *Beste ainbesteko ordain-legea.*

(Mt. 5, 38-42. Lk. 6, 29-30)

“Begi-ordain, begi; agin-ordain, agin” (1). Nik, barriz, ba-dirautsuet: gaizkilleari gogor ez egin; eta eskumako matraillan norbaitek jo ba’zagiz, bestea be eskeiñi egiozu. Eta soiñekoa zuri kentzearren, auzitegira croan nai ba’zagiz, soingaiñekoa bere emon egiozu. Eta soingaiñekoa kendu dagitzunari, soiñekoa be ez ukatu. Eta norbaitek milla oinkadako bidea eragin ba’dagitzu, bi milla egin aregaz.

Eske datorkizun edonori, emon egiozu, ta jesan* dagitzunagandik ez zaitetz atzeratu. Eta zerbait kendu dautsunari, ez biurrerazo”.

73. *Arerio-maitakuntza.*

(Mt. 5, 43-48. Lk. 6, 27-28; 31-36)

Entzun dozue esanda dagoala: Geidea (*lagun-urkoa*) maite egizu, ta arerioari gorroto izan egiozu” (2). Nik, barriz, ba dirautsuet: zuen arerioak maite egizuez; gorroto dautsuenai, on egizue, ta ezetsi* ta iraintzen zaituen alde otoi egizue.

(1) Lev. 24, 19.—Antxiña, eurrez beteten zan lege au Sortzalde-errietan, baita lengo Erroma’n bere. Zuzentasun-erro bat ba-daiteke izan, baiña ez goi-maitasunari dagokiona (yagokona).

(2) Lev. 19, 18.

* Jesan: tomar prestado.

* Ezetsi: despreciar, rechazar.

zue: Bere eguzkia on eta gaiztoen gaiñera atera, ta euria on eta gaiztoen gaiñera eratortzen dauan Goiko Aitaren seme izan zaitezten. Gizonak zuei egitea nai dozuenez, zuek bere arei egin.

Baiña maite zaituenak maite ba'dagizue, zein sari izango dozue? Zergariak* eta pekatariak curak bere ez ete-dabe ori egiten? Eta senideai bakarrik agur egin ba'dagizue, geiegikorik zer dagizue? Atzerritarrak eurak ez ete-dabe ori egiten? Eta ondo dagitzuenai, ondo ba'dagizue, ze sari irabazi dozue? Pekatariak bere ori egiten dabe. Eta atzera bihurtuko dautsuenai aurreratu ba'dagizue, ze sari irabazi dozue? Pekatariak be pekatariari aurreratzen dautsee, beste arenbeste artzekotan.

Zuek, barriz, zuen arerioak maite egizue, ta guztiai ondo egin eta aurreratu egizue, ordaiñaren usterik baga; ta Altsuaren seme izango zaree, esker bageai ta gaiztoai be ongille agertzen yake-ta.

Beraz, errukior izan zaiteze, zuen Goiko Aita errukior danez; oso-osoak izan zadize, zuen Goiko Aita osoa danez.

74. *Limosna egikera.*

(Mt. 6, 1-4)

Aditu egizue zuen egintza onak gizonen aurrean ez egiteko, areik ikusi zagiezan; bestela, zuen Goiko Aitarenean ez dozue saririk izango.

* Zergariak: publicanos.

Beraz, limosna egiterakoan, turuta-otsik ez atera zure aurretik, azalutsak* sinagogetan eta kaleetan oi dabenez, gizonak goretzi dagiezan. Benetan dirautsuet: euren saria artua dabe.

Zuk limosna egitean, barriz, ez dagiala jakin zure ezkerrek, zure eskumak dagiana, zure limosna ixillean izan dadin: eta ixillean dakusan (*ikusten dauan*) zure Aitak ordaiña emongo dautsu.

75. *Otoikera.*

(Mt. 6, 5-7)

Eta otoi dagizuean, azalutsak lege ez izan; orrelakoen atsegiña sinagogetan eta kale-buruetan zutik otoi egitea da, gizonen aurrean agertzeko. Benetan dirautsuet: euren saria artua dabe.

Zu, barriz, otoi dagizuean, sartu zaitez zure gelan, eta atea itxita, zure Aitari ixillean otoi egiozu; ta ixillean dakusan zure Aitak ordainduko dautsu.

Otoitzuean, barriz, ez asi galgal itz-jarioka, atzerritarrak lege; itzaren itzez entzungarri daitkezala uste dabe-ta. Zuek ez izan orrela: badaki zuen Aitak zer bear dozuen-eta, zuek Ari eskatu baiño len.

76. *Aita gurea*

(Mt. 6, 9-15)

Zuek, barriz, onela otoi egizue:

Gure Goiko Aita, goian bego zure Izena, be-

* Azalutsak: hipócritas.

torkigu zure erreinua, egin bedi zure naia, zerruan legez lurtean bere. Emon egiguzu gaur bear dogun ogia. Ta parkatu gure zorrak, geuk gure zordunai parkatzen dautseguzanez; eta ez gaginguz itzi zirikaldian jausten; gaitzetik jagon baiño.

Baiña, gizonai euren zorrak parkatu ba'dagiezuez, zuen Goiko Aitak, be, zuen pekatuak parkatuko dautsuez; gizonai parkatu ez ba'dagiezuez, ostera, zuen Aitak bere, ez dautsuez zuen pekatuak parkatuko.

77. *Barauaz.*

(Mt. 6, 16-18)

Barau egin dagizuenean, ez ibilli itun, azalutsak legez, gizonai barauzale agertzeko, arpegiak makaltzen dabez-ta. Benetan dirautsuet: euren saria artua dabe.

Zuk, barriz, barau egin dagizunean, zure burua usaindu egizu ta garbitu arpegia, gizonai barauzale ez agertzeko, ixillean dan zure Aitari baiño; ta ixillean dakusan (*ikusten dauan*) zure Aitak ordaiña emongo dautsu.

78. *Zeruko altxorra**.

(Mt. 6, 19-21)

Ez hatu ogasunik lur onetan; ugarrak eta sitsak ondutzen dabez-ta, eta lapurrak zulatu ta ostu oi dabez. Ogasunak, ostera, zeruan batu

* Altxorra: ondasuna (tesoro).

egizuez zuentzat; ez dago an ugarrak ez sitsik ondartzeko, ezta zulatu ta ostuteko lapurrak bere.

Zuen altxorra (*ogasuna*) dagizuen tokian, biotza be an izango dozue-ta.

79. *Begia, gorputzaren argi-zuzia.*

(Mt. 6, 22-23)

Gorputzaren argi-zuzia, begia da. Zure begia garbi ba'dadi, zure gorputz osoa argitsu izango da. Zure begia lauso izan ezkeru, zure gorputz osoa illuntsu izango da. Beraz, zuan dagoan argia illuntza ba'dadi, illunpea bera zein bestekoa izango da?

80. *Jaungoikoa bakarrik otseindu.*

(Mt. 6, 24)

Nagusi bien morroi, ezin iñor izan daiteke. Edo batari gorroto izango dautso ta bestea maite izango dau-ta; edo batari eutsi ta besteari jaramonik ez dautso egingo. Jaungoikoaren eta Mammon'en (1) morroi, ezin izan zaitekeze.

81. *Jaungoikoaren arduratasuna.*

(Mt. 6, 25-34)

Beraz, ba-dirautsuet: ez arduraz ibilli zer jango dozuen biziteko, ezta gorputza zeaz jantzi-ko ete-dozuen bere. Ez al da bizitza janaria baiño geiago? Ta gorputza jantzia baiño?

Orra, goiko egaztiak: ez dabe ereiten, ez batzen, ez aletegietan sartzen; eta zuen Goiko Ai-

(1) **Mammon**: arameotarren artean **aberastasuna** adierazoten dau.

tak azten dauz. Ez ete-zaree zuek areik baiño askozaz geiago? Nor da zuen artean bere asmo guttiaz ukondo bete azi daitekenik?

Eta jantziaz, zegaitik zabilte arduratsu? Orra, zelaietako liriokak: begira zelan aunditzen diran. Ez dabe lanik egiten, ez goruetan. Alan bere, ba-dirautsuet: Salomon bera, bere ospe aundienean be, ez zan orreitako bat legez jantzi.

Beraz, gaur zelaian bizi ta biar labara jaurten dan bedarra Jaungoikoak orrela jantzi ba'dagi, zenbat arduratsuago jantziko zaitue zuok, siniste otzeko gizonok? Beraz, ez ardurarik izan "zer jan, zer edan, zer jantzi daikegu" esanaz. Guzti orrein billa siniste bageak dabilte-eta. Zuen Aitak, barriz, ba-daki guzti orrein bearrean zagozena.

Beraz, billatu lenengo Jaungoikoaren erreiñua ta Aren zuzentasuna, ta beste guzti orreik geigarriz emongo yatzuez (1). Eta biarkoaz ardurarik ez izan; biarko ardura, biar: egunari naiko yako eguneko arazoa.

82. Irizkeriaz*.

(Mt. 7, 1-6. Lk. 6, 37-42)

Iñor ez epaitu, epaituak izan ez zaitez. Iñor ez gaitzetsi, ta ez zaree gaitzetsiak izango: epai-

(1) Mundu onetako ondasunak negurriz artu ta erabilli bear dira. Zerurantz begiratzeko eurakan ustea jarrri ezkerro, Jesu-Kristo'k esandakoaren aurka egitea izango litzake.

* Irizkeriak: juicios temerarios.

tu dagizuen epaiiaz, epaituak izango zaree-ta. Parkatu, ta zuek bere parkatuak izango zaree. Emon egizue, ta emongo yatzue: neurri on, sakatua ta gainezka emongo yatzue altzora. Negurtu dagizuen negurri berberaz negurtuko zaitue-ta".

Ipuin au bere esan eutsen: "Itsua itsumutil izan al daiteke? Ez ete-dira biak zulora jausiko?"

Ikaslea ez da irakaslea baiño geiago; baiña ikasle osoa izango da, bere ikaslea lakoxea ba'dadi.

Zer dala-ta zure senidearen begian samarra dakutsun (*ikusten dozun*) orrek, zeure begian abea be ez dozu oartzen? Edo zer dala-ta senideari dirautsazu: "itzi!, begitik samarra kenduko dautsut"; eta or zeure begian abea, ta ez dozu ikusten? Azaluts ori!; zeure begitik abea lenengo atera egizu, ta orduan garbi ikusiko dozu zure senidearen begitik samarra kentzeko.

Ez emon gauza doneak txakurrai; ezta zuen pitxiak be txarrien aurrean ez jaurti: pitxiok oinpean zapalduta gero, zeuen gainera etorririk, zaitu ez zagiezen.

1876

83. Otoitzaren indarra.

(Mt. 7, 7-11)

Eskatu egizue, ta emongo yatzue; zabilte billa, ta idoroko dozue; atea jo, ta edegiko dautsue: eskatzen dauan edonok, artu, ta billatzailleak idoro, ta jotzailleari edegiten dautsoe-ta. Nor da, bestela, zuetarikorik, bere semeak ogia eska-

tu ba'dagio, arria emongo dautsanik? Edo arraiña eskatu ba'dagio, sugea emongo dautsanik?

Beraz, zuek, gaiztoak izanarren, semeai opari onak emoten ba'dakizue, areago zuen Goiko Aitak eske datorkiozanai opari onak ez ete dautsez emongo?

84. *Alkar-maitasun-araua.*

(Mt. 7, 12. Lk. 6, 31)

Beraz, besteak zuei egitea nai dagizuen guztia, zuek bere arei egiezue: Legea ta Igarleak orretan dagoz-ta.

85. *Ate biak eta bide biak.*

(Mt. 7, 13-14)

Ate estutik sartu zaitez; galdutzarako atea aundia da-ta, eta ara daroan bidea zabala, ta andik sartzen diranak asko dira. Bizitzarako atea, barriz, bai dala estua!, ta bai mearra* ara daroan bidea!, ta idoroten dabenak gutxi dira.

86. *Igarle aizun edo guzurrezkoak.*

(Mt. 7, 15-20. Lk. 6, 43-45)

Ernai bizi, barrutik otso-lapurak izanik, ardi-narruz datorkizuezan igarle guzurrezkoai buruz. Arein arnaritik (*egiñetatik*) ezagutuko dozuez. Elorritik matsa, edo sasitik pikoak batzen ete-dira? Alaxe, ba: zuek onak arnari ona emoten dau; zugatz txarrak, arnari txar. Zugatz onak ezin emon daike arnari txarrik; ezta zugatz txarrik

* Mearra: estrecho, angosto.

rrak be arnari onik. Arnari onik ez dakarren zugatz, ebagi ta sutara botako dabe.

Beraz, arelakoak euren arnaritik ezagutuko dozuez: zugatza arnaritik ezagutzen da-ta. Gizon onak bere biotzeko altxor* onetik, ona ateraten dau; ta gaiztoak, bere barru okerretik gaiztakeria ateraten dau. Biotzari gaiñez dariona, agoak diño-ta.

87. *Ikasle jatorrak.*

(Mt. 7, 21-23. Lk. 6, 46)

Zetarako zatorkidaze "Jauna, Jauna" deika, ta diñodana ez dagizue? "Jauna, Jauna" dirausten guztiak, ez dira guztiak zeruko erreñuan sartuko; zeruan dagoan nire Aitaren naia bete dagiana baiño: orixe sartuko da zeruko erreñuan.

Askok egun aretan esango dauste: "Jauna, Jauna!, ez ete-dogu zure Izenean igarketan egin?, ez ete-doguz zure Izenean txerrenak jaurti, ta zure Izenean mirari asko egin?". Eta Nik, orduan, agertuko dautset: "ez zaituet iñoiz bere ezagutu: alde Nigandik, gaizkilleok!" (Ps. 6, 8).

88. *Itzaldiaren amaia: etxea aitz-gaiñean eta are-gaiñean.*

(Mt. 7, 24-29. Lk. 6, 47-49)

Nigana etorrita, diñodana entzun eta egiñez bete dagiana, noren antzekoa dan erakutsiko dautsuet. Etxea egiteko, atxurraz sakondurik, azpia

* Altxor: tesoro.

arkaitz* gaiñean egin eban gizon zurraren antzeko da. Euria jatsi, ta ibaiak etorri, ta aizeak putz-egin eta etxe a jo arren, ez zan jausi, ezta zirkiñik bere ez eutsoen eragin: aitz-gaiñean gogortuta ta ondo egiña egoan-eta.

Nire itzak entzunda bete ez dagizana, barriz, bere etxea are-gaiñean azpi gogorrik bage egin eban gizon tentelaren antzekoa izango da: euria jausi, ta ibaiak etorri, ta aizeak putz-egin eta etxe a jo ebenean, beera jausi zan, eta bere ondapena aundia izan zan”.

Jesus'ek itzok amaitu ebazanean, gizatalde areik Aren irakatsiaz arriturik egozan, eskubidunari dagokionez irakasten eutsen-eta, ez arein idazlariak eta pariscotarrak legez.

89. *Eunburuaren morroia osatzen dau.*

(Mt. 8, 5-13. Lk. 7, 1-10)

Erriaren belarritan esandako itz guztiok amaitu ondoren, Jesus menditik jatsi zan; eta gizatalde aundiaren aurrean joanik, Kaparnaum'en sartu zan.

Eunburu (1) batek, asko maite eban morroi bat eban, eta au il-agiñean geisorik aurkitzen zan. Jesus'en barri entzunda, judarren zaar batzuk Aregana (*Jesus'egana*) bialdu ebazan, bere mo-

(1) Eunburu: eun gudarien buru edo agintari zana. Itxuraz, judarren artekoa zan, naiz-ta atzerritarra izan. Baiña, ori bai, sinismen beroa ta apaltasun aundia agertzen dauz, gero Jesus'ek diñoanez.

* Arkaitz: roca, peña.

roroi a osatzera etorteko erreguz, esanaz: “Jauna, nire morroia elbarrituta ogean datza etxean, oiñaze gorritan”.

Jesus'egana areik etorrira, gartsu erregutzen eutsoen, esanaz: “Arenbeste Zugandik lortzeko duin ba-da: gure erria maite dauanez gaiñera, sinagoga bat be egin dausku-ta”.

Jesus'ek esan eutsan: “Joango nakio ta osatuko dot”.

Eta Jesus areikaz joan zan. Eta etxetik urrean zala, eunburuak adiskide batzuk bialdu eutsazan, esanez: “Jauna!, nekerik ez artu; ni ez naz duin Zu nire etxean sartzeko-ta. Zugana joateko, bere, nor ez nintzalakoan nengoan; baiña esan egizu itz bakar bat, eta nire morroia osatuko da. Neuk, bere, iñoren menpeko izanarren, ba-daukadaz gudariak nire agindupean; eta bati “oa!” dirautsat, eta ba-doa; besteari “ator!”, ta ba-dator; eta nire morroiari “au egik”, ta ba-dagi”.

Itz oneik entzunda, Jesus aretzaz arritu zan; eta jarraitzen eutsan erriagana biurturik, esan eutsen: “Benetan dirautsuet: ez dot onenbesteko sinismenik Israel'en bertan bere idoro. Ta orobat diñotsuet: asko ta asko iparralde ta eguzki-sartzaldetik etorriko dira, ta Abraham, Isaak eta Jakob'egaz jarriko dira maian zeruko erreñuan: erriko semeak, ostera, kanpoko illunpetara jaurtiak izango dira. An izango da negarra ta agin-karraskada!”.

Gero, Jesus'ek eunburuak bialdurikoai esan

eutsen: "Zoaze ta esan egiozue: Jazo bekizu sinistu dozunez".

Eta ordu aretantxe osatu zan morroia.

Eta bialdutako areik etxera bihurturik, geiso egondako morroia osatuta idoro eben.

90. *Naim'go alargunaren semea berbizten dau.*
(Lk. 7, 11-17)

Egun batzuk geroago, Jesus Naim eritzan urira joian, eta Aregaz bere ikasle ta laguntalde aundia. Eta uriko atera urreratuaz batera, ama alargunaren seme bakarra ilda eroien, eta askoak joiazan alargunagaz. Jaunak alarguna ikusi ebanean, aretzaz errukiturik, esan eutsan: "Ez negarrik egin".

Eta urreraturik, ilkutxa ikutu eban, eta eroienak gelditu egin ziran. Orduan, esan eban: "Mutil, zeuri dirautsut: jagi zaitetz!".

Eta ildakoa jagi ta itz-egiten asi zan; eta Jesus'ek amari emon eutsan.

Guztiak ikaratuta Jaungoikoa goresten eben, esanaz: "Igarle aundia agertu da gure artean, ta Jaungoikoak bere erria ikertu* (agurtu) dau.

Eta Judea'n eta inguru guztian zabaldu zan mirari onen ospea.

91. *Jon Bateatzaillearen geznariak* Jesus'egana.*
(Mt. 11, 2-6. Lk. 7, 18-23)

Jon'i, barriz, espetxean* egoala, bere ikas-

* Ikertu: norbaiti ikustaldia egin: visitar.

* Geznariak: mensajeros.

* Espetxe: cárcel.

leak Kristo'ren egintza guztien barri emon eutsen. Eta Jon'ek bere ikasletariko biri dei egiñik. Jesus'egana bialdu ebazan, esanaz: "Zu zara Etortekoa, ala besteren baten zain egon bear dogu?" (1).

Gizon areik Jaunagana eldu ziranean, esan eutsen: "Jon Bateatzailleak bialduta gatorkizuz, itantzera: "Zu zara Etortekoa, ala besteren baten zain egon bear dogu?".

Orduantxe bertan Jesus'ek ainbat geiso, gaitz eta txerrendun osatu ebazan, eta itsu askori ikusmena emon eutsen. Beraz, bialdutakoai erantzunik, Jesus'ek esan eutsen: "Zoaze, ta zeuok entzun eta ikusi dozuen barri Jon'i emon egiozue: itsuak ikusten, errenak ba-dabiltz, legerdunak garbituak, gorrak entzuten, illak berbiztuak, eta txiroai Barri Ona iragarten yake. Ta zorionsua da Nigan galbiderik ez dauana".

92. *Jesus, Jon goratzen.*

(Mt. 11, 7-15. Lk. 7, 24-30)

Jon'en geznariak joan ziranean, Jesus gizataldeari Jon'i buruz itz egiten asi zan: "Zer ikustera urten zarec basamortura? Aizeak darabilen kaiñaberen bat? Zer ikustera urten zarec, bada? Apain jantzitako gizonen bat? Baiña apain jazten

(1) Jesus'ek berak bere buruatzaz autor egian, bialdu ebazan oneik Jon Bateatzailleak; ez, oster, ez-paitan edo zalantzetan egoalako: onen ikasleak eta beste guztiak Jesus Mesias zala ezagutu ta autortu egien baiño.

diranak, errege-etxeetan egon oi dira. Zer ikus-
tera urten zaree, ba? Iragarleren bat? Orixe bai,
Neuk esanda, baita Igarle baiño aundiagoa bere.
Onetzaz esanda dago, bada: "Nire aingerua bial-
tzen dautsut, zure aurretik bidea gertu dagi-
tzun" (1).

Benetan dirautsuet: emakumegandik jaiota-
koen artean, ez da Jon (*Bateatzaillea*) baiño igar-
le aundiagorik sortu; alan bere, zeruko erre-
ñuan txikiena, a baiño aundiago da (2). Eta erri
guztiak, baita zergariak bere, Jon'ek esandakoa
entzunik, Jaungoikoa goretsi eben, aren bateoa
artuaz. Pariseotar eta idazlariak, barriz, Jon'en
bateoa ez artuaz, areinganako Jaungoikoaren as-
moa gutxietsi* eben. Jon'en egunetatik orain ar-
te, zeruko erreñua indarka lortzen da, ta indar-
tsuak dira aretzaz jabetzen diranak (3); Jon'ega-
naiño Legea ta Igarleak, gerokoaren igarle dira-ta.
Eta ulertu nai ba'dagizue, berbera da etortekoa
dan Elias. Entzumenik dagianak, entzun begi".

(1) Mal. 3, 1.

(2) Mesias'en Erreñuan mirari txikienak, Lege Za-
rean aundien diranak baiño gorago dagoz.

(3) Indartsu oneik, Jon Bateatzailleari ta Jesusi
jarraiturik, pekatuen damua ta norbere burua ukatzen
dabezanak dira; judar tematiak, barriz, ez ebezan Igar-
leak ulertu, ta Erreñua zergariak eta pekatariak kendu
eutseen.

* Gutxietsi: menospreciar.

93. *Jesus'ek oraingo gizaldiari asarre
egiten dautso.*

(Mt. 11, 16-19, Lk. 7, 31-35)

Jesus'ek esan eban: "Gizaldi onetako gizonak,
barriz, noren aldean jarriko dodaz? (1). Ta noren
antzeko dira? Eparantzan jezarrita dagozan mu-
tikoen antzekoak dira, deadarka alkarrri dirau-
tsenean: "Guk soiñuak abestu dautsuguz, eta
zuek ez dozue dantzarik egin; guk eresi egin,
eta zuek negarrik ez!".

Ta jan-edan egiten ez eban Jon etorri zan, eta
diñozue: "Txerrena dauko". Gizasemea etorri da,
ta jan-edan egiten dau, ta diñozue: "Ori gizon
jatun eta ardo-zale da; zergari ta pekatarien
adiskidea". Baiña Jakintza zuzen artu eben be-
re seme guztiak" (2).

94. *Emakume pekatari batek Jesus'i oiñak
garbitzen dautsaz.*

(Lk. 7, 35-50)

Pariseotar batek beragaz bazkaldu egiala es-
katu eutsan; eta pariseotarraren etxean sarturik,
maian jarri zan. Jesus pariseotarrarenean bazka-
ritan zala uriko emakume batek jakin ebanean,
usaingarriz beteriko artzuri-ontzi* bat ekarri

(1) Noretzaz bardinduko dodaz.

(2) Jon Bateatzaillearen, Kristo'ren eta laguntzai-
leen bidez Jakintzari jarraitzen dautsenak dira seme ja-
kintsuak, Jaungoikoari errazoa damotsenak; dei samur
ori ezesten dabenak, barriz, burugabeak.

* Artzuri-ontzi: frasco de alabastro.

eban; eta atzetik Aren oin-ondoan jarrita, oiñak bere negar-malkoz garbitu, bere adatsaz* ezeindu (*legortu, sikatu*), oiñetan mun egin eta usaingarriaz igurtzen asi yakon.

Jesus'i dei egin eutsan pariseotarrak, au ikusita, berekotan iñoan: "Au igarle ba'litz, ba-leki-ke nor ta zelakoa dan ikutzen diardutsan emakume ori: emakume galdua da-ta".

Jesus'ek, erantzunik, esan eutsan: "Simon, zerbait ba-dot zuri esateko".

Eta Simon'ek esan eutsan: "Esan, bada, Irakasle".

"Epekari* batek zordun bi ebazan. Batek bosteun denario zor eutsazan; besteak berrogei ta amar. Zorra garbitzekorik ez eben-eta, biai parkatu eutsen. Bietarik nok geiago maite izango dau?".

Simon'ek erantzun eta esan eban: "Nire us-tez, geiago parkatu izan yakonak".

Jesus'ek esan eutsan: "Ondo ebatzi dozu".

Eta emakumeagana bihurturik, Simon'i esan eutsan: "Emakume au ba-dakutsu? Zure etxean sartu naz, ta ez daustazu oiñetara urik bota; onek, ostera, oiñak bere malkoz busti ta bere adatsaz ezeindu daustaz. Ez daustazu munik egin: au, ostera, sartu dan ezker, nire oiñai mun egiten ez da aspertu. Burua ez daustazu orioz igurtzi; onek, ostera, usaingarriaz oiñak igurtzi daustaz.

* Adats: cabellera.

* Epekari: prestamista.

Beraz, ba-dirautsut: gartsu maite izan daualako, bere pekatu ugariak parkatu yakoz; gutxi parkatzen yakonak, barriz, gutxi maite dau" (1).

Eta emakumeari esan eutsan: "Zure pekatuak parkatzen yatzuz".

Orduan, mai-lagunak euren artean esaten asi ziran: "Pekatuak be parkatzen dauzan au, nor da?".

Jesus'ek, barriz, emakumeari esan eutsan: "Zure sinistreak gaizkatu (*salbatu*) zaitu. Zoaz baken".

95. *Emakume on batzuk Jesus'i jarraitzen.*

(Lk. 8, 1-3)

Egun batzuk geroago, uriz-uri ta erriz-erri ebillen, Jaungoikoaren erreñuko Barri Ona iragarri ta irakasten; eta Aregaz amabiak joizan, baita txerren zikin eta geisoetatik osatutako emakume batzuk bere: Madalen eritzan Mari, zazpi txerren zikin urten izan yakozana, ta Jone, Erodes'en otseinburu Kusa'ren emaztea, ta Susana, ta beste asko, euren ogasunez Jesus'i lagun egiten eutsenak.

96. *Kaparnaum'en: etxeokak, kezka.*

(Mk. 3, 20-21)

Eta etxera datoz, ta gizataldea barrero batu

(1) Gure donetasunaren asiera, beti Jaungoikoagandik datorkigu. Ez dakigu zelan eta noiz artuko eban emakume arek lenengo grazia; orain, bere eskarrona agertzen dautso Jesus'i, ta, beraz, mesede ugariagoak artzen dauz.

zan, jatekorik artzen bere izten ez eutseela. Beretararak au entzunda, Aren jabe egiteko urten ziran, "burutik eginda dau" iñoen-eta (1).

97. *Jesus'ek txerrendun itsu ta mutua osatzen dau.*
(Mt. 12, 22-23)

Orduan, txerrendun itsu ta mutu bat ekarri eutsen, ta osatu eban, iztun* eta ikustun* itzirik. Eta gizatalde guztiak arrituta iñoen: "Ez ete-da au Dabid'en semea?"

98. *Pariseotarren zitalkeria.*
(Mt. 12, 24-30. Mk. 3, 22-27)

Jerusalem'dik etorritako pariseotar eta idazlariak, au entzunik, esan eben: "Beelzebul (2) dauka onek, eta Beelzebul txerren-nagusiak lagun egin ezik, ez dauz onek txerrenak jaurten".

Baiña Jesus'ek, arein asmakeriak igarririk, beregana dei egin eta ipuiñetan esan eutsen: "Satanas'ek zelan jaurti daike Satanaz? Alkarren aurka bananduta dagoan erreñua, ezin da zutik egon: ondatua izango da; ta bere buruaren aurka zatituta dagoan uri naiz etxeak, ez dau iraungo. Eta Satanaz'ek Satanaz jaurten ba'dau, bere bu-

(1) Aren senide batzuek ez eben oraindik Jesus'egan sinisten eta bere etxera biurtu zedilla nai eben.

(2) Beelzebul: satsaren (simaurraren) jauna, txerren guztien burutzat eben.

* Iztun: que hablaba.

* Ikustun: que veía.

ruaren aurka burrukan diardu. Beraz, zelan iraungo dau zutik aren erreñuak? Ezin zutik egon daiteke, ta arenak egin dau. Eta Nik txerrenak Beelzebul'en indarrez jaurten ba'dodaz, zuen semeak noren laguntzaz jaurten dabez? Onela ba, eurak izango dira zuen epaikariak. Baiña, Nik txerrenak Jaungoikoaren indarrez jaurten ba'dodaz, Jaungoikoaren erreñua zuen artera etorri dala agiri da.

Edo-ta bestela, esan egidazue: Zelan gizon indartsuaren etxean iñor bere sartu ta ango gauzak ostu daikeoz, indartsua lenengo lotu izan ezik? Lotu ezkerro, bai, etxea beretzat ustuko dau.

Nire alde ez dagoana, nire aurka diardu; eta Nigaz batzen ez dauana, sakabanatzen diardu".

99. *Goteunaren (Espiritu Santuaren) aurkako pekatua.*

(Mt. 12, 31-32. Mk. 3, 28-30)

"Beraz, benetan dirautsuet: pekatu ta birao guztiak gizonai parkatuko yakez: Goteunaren aurkako biraoa, barriz, ez yake azketsiko (parkatuko) (1).

(1) Espiritu Santuaren aurkako pekatua, zer da? Jaungoikoak egindako mirariak, gaiztakeriz txerrenari ezartea, deabruak egin dauzala esatea. Onelako pekatariak arimaren begiak itsuturik daukez-ta, ezin daike sinismeña artu, ta, beraz, ez dabe parkamenik, eta euren pekatuan ilten dira (Jaungoikoak mirariren bat egin ezik).

Eta Gizasemearen aurka norbaitek itz ba'dagi, parkatuko yako; baiña Espiritu Santuaren aurka birao dagianari, ez bizitza onetan ez gerokoan ez yako iñoiz parkatuko, ta betiko pekatuaren errudun izango da”.

“Txerrena dauka” esaten eben-eta.

100. *Pariseotarrak, euren egintza gaiztoen errudun.*

(Mt. 12, 33-37)

“Edo zugatz eta arnaria, biak batera onartu; edo zugatz eta arnaria, biak batera ezetsi*^z; zugatza zer dan, arnaritik ezagutzen da-ta (1).

Sugekumeok!, gaiztoak izan ezkerro, zelan iz onik egin daikezue? Biotzari gaiñez dariona, agoak diño-ta. Gizon onak bere biotzeko altxor^z onetik gauza onak ateraten dauz; ta gaiztoak, bere barru okerretik, gaiztakeria ateraten dau. Baiña ba-dirautsuet: gizonak alperrik esandako itz bakoitzaz epeikunde-egunean erantzun bear izango dau. Zure itzakaitik zintzotzat autetsia (*aukeratua, gaizkatua*), ta zure itzakaitik galdua izango zara-ta”.

(1) Jesus'en egintzak onak ziran, eta iñok ez eban ukatu onak ziranik. Beraz, Jesus bera be onartu bear eben, eta ez txerrenaren laguntzat artu. Bestalde, areik eurak ziran gaiztoak, eta, beraz, ezin egintza onik egin.

* Ezetsi: despreciar, rechazar.

* Altxor: tesoro.

101. *Jesus'en Ama ta senideak.*

(Mt. 12, 46-50. Mk. 3, 31-35. Lk. 8, 19-21)

Jesus'ek oraindik gizataldeari itz egiten ziar-duala, Aren Ama ta senideak itz egitera etorri yakozan; eta gizataldeagaitik Aregana ezin urreratuaz, etxe-aurrean gelditu ziran, eta Berari deika ziarduela iragarri eutsoen. Eta gizatalde aundia Aren inguruan egoala, norbaitek dirautso: “Ara! Zure Ama ta senideak or kanpoan Zu ikusi naiez dozuz”.

Baiña Arek (*Jesus'ek*) zirautsanari esan eutsoan: “Nor dot Nik Ama ta nortzuk dodaz senide?”.

Eta Aren ondoan jezarrita egozan ikasleak-nuntz eskua zabaldurik eta ingurura begiratuaz, esan eban: “Ona emen nire ama ta senideak. Izan bere, zeruko Aitaren naia bete dagiana, Jaungoikoaren itza entzun eta egitez bete dagiana, axe dot nire anai, arreba ta ama”.

102. *Ereillea.*

(Mt. 13, 1-9. Mk. 4, 1-9. Lk. 8, 4-8)

Egun aretan, Jesus etxetik urtenda, itxasertzean jezarrri zan; eta an barrero irakasten asi zan. Eta urietatik etorritako gizatalde aundiak batu yakozan-eta, txalupan sartu ta bertan jezarrri zan, itxaso-gaiñean. Gizataldea, barriz, ur-ondoan ondartzan egoan: eta gai asko ipuñen bidez irakasten eutsezan, eta bere irakastaldian zirautsen: “Entzun egizue: ereille bat ereitera ur-

ten zan. Eta ercitean, azi batzuk bide-ondoan jausi ziran, eta zapalduak izan ziran, eta egaztiak etorri ta jan egin ebezan. Beste batzuk, lurra ugari ez zan arri-artean jausita, laster erne ziran, lurrak sakonik ez eban-eta; baiña eguzkia urten zanean, erre egin ziran, eta zusterrik eta euririk ez eben -eta, igartu egin ziran. Beste batzuk, arantzartean jausi ziran; eta arekaz batera aundi egin ziran arantzak, ito ebezan, eta areik ez eben arnaririk emon. Bestcak, barriz, lur onean jausi ziran; eta igo ta aundi egiñik, arnaria emon eben, batzuek ogetamar, beste batzuek irurogei, ta beste batzuek eun”.

Au esanda, deadarrez zirautsen: “Entzuteko entzumenik ^{batzuek} dagianak, entzun begi”.

103. *Zegaitik itz dagitse Jesus'ek ipuiñen bidez?*

(Mt. 13; 10-17. Mk. 4, 10-12. Lk. 8, 9-10)

Eta bakarrik gelditu zanean, amabiak Aregana urreraturik, itandu eutsoen esanez: “Zer dala-ta ipuiñen bidez irakasten dautsezu? Ipuin orrek, zer adierazoten dau?”.

Jesus'ek, erantzunik, esan eutsen: “Jaungoikoaren erriko ezkutuak ezagutzeko aukeratuak zaree; besteai, ostera, dana ipuiñetan adierazten yake. Euki dagianari emongo yako-ta, oso ugariitsu emon bere; euki ez daianari, barriz, euki dagiana bere kenduko yako. Onegaitik, ipuiñetan irakasten dautset: ikusirik, ikusi ez dagien,

eta entzun arren, ulertu ez dagien. Eta areikan beteten da Isaias igarleak iñoana: “Zuen entzumenaz artu, ta ez dozue ulertuko; ta ikusmenaz begiratuta, ez dozue ikusiko. Erri onen biotza gogortu egin da-ta; belarri gorra eta begi itxiak dauz, belarriz ez entzuteko, ta begiz ez ikusteko, ta biotzaz ez ulertzeko, Nigana biurtuaz osasuna emon ez dagiodan bildurrez” (1).

Zorionsuak, ostera, zuen begiok, dakuselako (*ikusten dabelako*), ta zuen belarriok, dantzuelako (*entzuten dabelako*). Benetan dirautsuet: zuek dakutsuena, igarle ta zintzo askok ikusi naita, ez eben ikusi; zuek dantzuzuena entzun naita, ez eben entzun”.

104. *Jesus'ek ereillearen ipuiña azaltzen dau.*

(Mt. 13, 18-23. Mk. 4, 13-20. Lk. 8, 11-15)

Eta esan eutsen: “Ipuin au ez dozue ulertzen? Eta beste ipuin guztiak zelan ulertuko dozuez, bada? Beraz, ereillearen ipuiña entzun egizue.

Azia, Jaungoikoaren itza da. Jaungoikoaren Erreiñuko Barri Ona entzunda, ulertu ez dagianari, txerrenak, etorrita, aren biotzean ereindakoa kentzen dautso, sinistu ezkerro gaizkatu (*salbau*) ez daiten. Orixe da bide-ondoan ereindakoa.

(1) Is. 6, 9-10.—Ezin eikeen bat-batean argi guztia artu. Apurka-apurka emon bear yaken. Ipuñen bidez artzen eben Mesias'en izatea ta eginbearra, Mesias'i buruz erriaren uste ta asmoak bestetarikoak ziran-eta, zuzenak eta benetarikoak izan bearrean.

Arriartean ereindakoa, itza entzun eta bereala pozik artzen dauan entzulea da; baiña zusterrik ez dauko-ta, zirikaldi (*edo tentaziño*) aldian atzeruntz egiten dau. Arantza-artean jausitakoa, entzun dauan aditzailea da; baiña bizitzako ardu-
ra, aberastasun eta atsegiñak itoten dabe, ta bein bere ez dau ezer emoten. Azkenez, lur onean ereindakoa, biotz zintzo ta oneko entzulea da, itza entzunda gordeten dauana; eta onek eroape-
nez arnaria dakar: naiz ogetamarna, naiz irurogeiña ta eunbana”.

105. *Jaunaren esakun batzuk.*

(Mk. 4, 21-25. Lk. 8, 16-18)

Eta ba-zirautsen: “Iñok ez dau kruselua* biztu ondoren lakaripean* estaltzen, edo ogepean ipinten, argi-mutil gaiñean baiño, etxeko guztiai argi-egin dagioen. Ixilpekorik ezer bere ez dago-ta, agertuko ez danik; ezta ezkutuan ezer bere, ezautu ta argitaratuko ez danik. Entzuteko entzumenik dagianak, entzun begi”.

Ta zirautsen: “Aditu dantzuzueña (*entzuten dozuena*): Neurtu dagizuen negurriaz beraz negurtuko yatzue, ta gaiñezka, barriz, emongo yatzue. Ba-daukanari, emongo yako-ta; ez daukanari, barriz, ba-eukala uste ebana bere, kenduko yako”.

* Kruselu: candil.

* Lakari: celemín.

106. *Berez erneten dan aziaren ipuiña.*

(Mk. 4, 26-29)

Eta iñoan: “Jaungoikoaren erreñua, gizonak soloan ereindako aziaren antzeko da (1). Gizona gauzez edo egunez, lo naiz jagita dabillela, azia erne ta azten doa, ta arek ez daki. Lurrak berez, lenen gari-bedarra dakar-ta; gero, galburua; ta, azkenez, galburuan garau betea. Ta arnaria elduta-takoan, gizonak bereala igitai* ezarten dautso, igitaldia (*ebagiteko sasoi*) dalako”.

107. *Zoragariaren ipuiña.*

(Mt. 13, 24-30)

Beste ipuin bat ekarri eutsen, esanaz: “Zeruko erreñua, bere soloan azi ona erein eban gizonaren antzekoa da. Baiña morroiak lotan ziar-duela, aren arerioa etorri ta gari-artean zoragaria* erein, eta joan zan. Garia azi ta burutu zanean, zoragaria bere agertu zan. Orduan, morroiak ugazabagana joan eta esan eutsoen: “Jau-na, ez zehan (*zenduan*) zure soloan azi ona erein? Zoragaria nundik sortu yako, bada?”.

Arek erantzun eutsen: “Nire arerioen batek egin dau ori”.

(1) Ipuin au, Markos Deunak bakarrik dakar, eta Jaungoikoaren Erreiñuaren —Elizaren— bizitasuna adierazoten dau. Eliza, bere barruko indarrez azi ta zabalduko da, gizaldiz-gizaldi.

* Igitai: hoz.

* Zoragari: cizaña.

Morroiak dirautsoe: "Zoragaria batzera joan gaitazan, nai dozu?".

Ta ugazabak erantzun eutsen: "Ez!, zoragaria batzean, garia bere batera atera ez dagizuen. Itzi biak igitaldiragiño azten; eta orduan igitariak* esango dautset: "Batu egizue lenen zoragaria, ta lotu eskutetan, erretako; garia, barriz, nire aletegian gorde".

108. *Zerba*-aziaren ipuiña.*

(Mt. 13, 31-32. Mk. 4, 30-32)

Beste ipuin bat be ekarri eutsen, esanaz: "Zerez bardinduko dogu Jaungoikoaren Erreiñua? Edo-ta zein ipuiñez ezagutuko dogu? Zeruko erreñua, gizon batek eskuan artu ta bere soloan erein eban zerba-aziaren antzeko da. Azirik txikiena da berau; baiña azi ta gorantz egin ondoren, beste barazki* guztiak baiño landara aundiagoa egiten da, ta zugatz egiten da, ta zeruko txoriak jatsi ta aren adarpetan jarten dira".

109. *Legamiñaren* ipuiña.*

(Mt. 13, 33)

Beste ipuin bat ekarri eutsen, esanaz: "Zeruko erreñua, emakume batek artu ta ora* guztia jagi arte, iru negurri-urunetan (1) sartu eban legamiñaren antzeko da".

(1) Negurri orrek 30 litro artzen ebazan.

* Igitari: segador.

* Zerba: mostaza.

* Barazki: ortu-aria: hortaliza.

* Legamin: fermento, levadura.

* Ora, ore: masa (de pan...).

110. *Jesus'ek gizataldeari ipuiñetan irakasten dautso.*

(Mt. 13, 34-35. Mk. 4, 30-32)

Barri Ona erriari onelako ipuin (*edo bardintza*) askoren irudipean azaltzen eutsan, entzuleak ulertu egien; eta ipuin baga ez eutsen itz egiten. Igarleak esandakoa bete zedin: "Nire agoa ipuiñetan zabalduko dot; eta lurra lur danetik ezkuan dagozanak agertuko dodaz (1).

111. *Zoragariaren ipuiña azaltzen dau.*

(Mt. 13, 36-43)

Orduan, gizataldea bialduta, etxera joan zan. Eta ikasleak urreratu yakozan, esanaz: "Azaldu eiguzu soloko zoragariaren ipuiña".

Arek (*Jesus'ek*) erantzun eutsen: "Azi ona ereiten dauana, Gizasemea da; soloa, lurbira (*mundua*); azi ona, Erreiñuko semeak dira; ta zoragaria, Gaiztoaren semeak. Zoragaria erein eban arerioa, txerrena da. Igitaldia, barriz, gizaldien amaia; ta igitariak, aingeruak.

Beraz, zoragaria batu ta erreten danez (*dan legez*), gizaldien amaian, bere, orrelaxe izango da. Gizasemeak bere aingeruak bialduko dauz: ta bere Erreiñuan diran gaizpide (2) ta gaizkille guztiak batu, ta su-labara jaurtiko dabez; an

(1) Ps. 77, 2.

(2) Gaizpide: gaizpide-emoille.

izango da negarra ta agin-karraskada! Orduan, zintzoak euren Aitaren Erreiñuan, eguzkiak legez argi egingo dabe. Entzuteko entzumenik da-gianak, entzun begi”.

112. *Altxor ezkutua ta bitxia.*

(Mt. 13, 44-46)

“Zeruko erreñua, landan ezkutututako altxorra* lakoxea da. Gizon batek aurkitu ta gorde eban; eta pozez beterik ba-doa, daukan guztia saltzen dau, ta landa a erosten dau. Eta berebat, zeruko erreñua, bitxi* on billa dabillen merkataria-aren antzeko da. Bitxi eder bat idorota, joan zan, eta eukan guztia saldurik, bitxia erosi eban”.

113. *Sarearen ipuiña.*

(Mt. 13, 47-50)

“Berebat, zeru-erreñua, itxasora botata, edo-tariko arraiñak batzen dauzan sare aundia lakoxea da. Beterik dagoanean, ateraten dabe, ta lur-ertzean jezarririk, onak otzararako aukeratzen dabez, ta txarrak kanpora jaurti. Arelaxe jazoko da gizaldiaren azkenean: Aingeruak urtenda, gaiztoak zintzoen artetik banandu, ta su-labara jaurtiko dabez. Ango negarra ta agin karraskada!”.

* Altxor: tesoro.

* Bitxi: perla.

114. *Ipuñen amaia: idazlari jakintsua.*

(Mt. 13, 51-52)

“Guzti oneik ulertu dozuez?”.

“Bai, Jauna”, dirautsoe.

“Beraz, —dirautse— zeruko erreñuari buruz jakintsu dan idazlaria, bere altxorretik (*ogasunetatik*) gauza zaarrak eta barriak ateraten dauzan etxeko jaunaren antzekoa da”.

III. GERASA'RA JOANALDI ARIÑA

115. *Ekaitza baretuta.*

(Mt. 8, 23-37. Mk. 4, 35-41. Lk. 8, 22-25)

Egun aretan bertan, arrats-apalean, Jesus'ek dirautse: “Goazan aintziraren* beste aldera”.

Ta gizataldea itzirik, ontzian egoanez daroe; ta beste ontzi batzuek, bere, jarraitsen eutsoen. Eta bere ikasleakaz ontzian sartuta gero, itxasoratu ziran. Eta ba-joiazala, bat-baten izugarrizko aize-ekaitza ur-gaiñean sortu zan; uñak (*olatua*k) ontziaren gaiñera jausten ziran, ontzia urez bete ta urez estaltzeragiño, ta ontzia ondatzeko arriskuan eukan.

Jesus, harriz, ontziaren atzeko aldean egoan, bururdi* baten gaiñean lo. Ta ikasleak Aregana joan eta iratzartu eban, esanaz: “Irakasle!, gal-

* Aintzira: lago.

* Bururdi: cabezal.

duak gara, Jauna!, gaizkatu (*salbau*) gagizuz. Ez dautsu ardura galdu gaitazan?”

Jesus'ek dirautse: “Zeren bildur zaree, siniste otzeko gizonok?”

Gero, jagirik, aize ta itxasoari agindu eutsen, esanaz: “Ixo!, isilik ago!”. Ta aizea gelditu ta barealdi ederra egin zan. Eta esan eutsen: “Zegaitik zaree orren bildurti? Nun dozue zuen sinismena? Oraindagiño, here, ez dozue sinisten?”

Eta gizon areik, guztiz arrituta, alkarri zirautsen: “Nor ete-da au, aize ta itxasoak be menperatzen yakoz-ta?”

116. *Gerasa'ko txerrendun bi.*

(Mt. 8, 28-34. Mk. 5, 1-20. Lk. 8, 26-39)

Itxasoa igarota, Gerasa'rren aldera eldu ziran, Galilea'ren aurrez-aurre. Ta ontzitik urten eta legorrean oiñak jarri ordukoxe, txerrendun bi, illobietatik urtenda, aurkeztu yakozan: ankerrak be ankerrak biak, bide aretatik igaroteko iñok ez eban adorerik-eta. Aspaldian txerren zikiñak artuta, soiñeko ta etxerik baga, illobietan bizi oi ziran, eta iñok ez zeikezan kataiz bere lotuta euki. Sarritan estuntzez* ta kataiz lotuta egonarren, guztiak ausi, ta iñok ez zeikezan ezi*. Baiña lo-karriak ausita, txerrenen eragitez, illobi ta basoëtarra iges egiten eben, ta gau ta egun ululuka ta alkar arriz jotzen ziarduen.

* Estuntza: grillo (lotzeko-tresna).

* Ezi: sujetar.

Eta urrundik Jesus ikusi ebenean, ariñeketan urreratu yakozan, eta auzpezturik, gurtu eben, eta deadarrez esan eutsoen: “Jesus, Jaungoikoaren Seme: guri ta Zuri zer? (1). Oiñazea ekartera zatorkiguz bear baiño len? Ez gagizuz, Jaungoikoarren, oiñazetu”.

“Urten zaiteze gizon orreikandik, txerren luzunok”, Jesus'ek zirautsen-eta.

Eta itandu eutsen: “Zelan dozue izena?”

Ta areik: *Talde** izena dogu, asko gara-ta”. Izan bere, areikan txerren asko sartu ziran. Eta bazterralde aretatik ez jaurteko ta amiltegira ez bialtzeko, arrenez eskatzen eutsoen.

Andik-urreean txarri-talde aundi bat larrean egoan. Eta txerrenak eskatzen eutsoen, esanaz: “Emendik jaurti ba'gaizuz, txarri-talde orregana bialdu gagizuz, euretan sartu gaitazan”. Eta bai-mena emon eutsen, esanaz: “Zoaze”.

Orduan txerrenak, gizonakandik urten eta txarrietan sartu ziran, eta txarri-talde guztia alda-pa-beera itxasora amildu ta ito egin zan. Txarri-zaiñak, barriz, jazorikoa ikusirik, iges egin eben, eta uri bazterretan dana azaldu eben, txerrendu-nena bere bai.

Eta uriko guztiak Jesus'egana etorri ziran, jaoza zer zan ikustera; ta ikusi ebeneko, euren mu-

(1) Esacera oneaz, txerrenak Jesus'eganako men-petasuna erakusten dau, baita Jesus'en aginpideari dautsan bildurra bere.

* Talde: legión (askotza).

getatik alde egiteko arrenez eskatu eutsoen. Are-ganaiño urreratu ziranean, barriz, txerrendun izanak idoro ebezan, Jesus'en oiñetan jezarrita, jantzita ta euren senera biurtuta; ta bildurtu egin ziran.

Jazoa ikusi ebenak, barriz, txerrendunena ta txarriena azaldu eutseen. Eta euren mugetatik alde-egiteko Gerasa aldeko guztiak Jesus'i eskatu eutsoen, bildur aundiz egozan-eta. Orduan, Jesus ontzira igonik, biurtu zan. Eta ontzira igotzeran, txerrendun izaniko batek, Jesus'i lagun egitea eskatu eutsan; baiña Jesus'ek ez eban onartu, ta bialdu eban, esanaz: "Zoaz etxera, zuretarrakana, ta Jaunak egin dautsun guztia ta erakutsi dautsun errukia azaldu egiezu" (1).

Joan zan, bada, ta Jesus'ek egin izan eutsan guztia uri guztian eta Dekapoli'n zabaltzen asi zan. Eta guztiak arritzen ziran.

IV. BARRIRO BERE, GALILEA'N

117. *Jairo'ren alaba.*

(Mt. 9, 18-19. Mk. 5, 21-24. Lk. 8, 40-42)

Ontzian Jesus beste aldera barriro igaro zanean, gizatalde aundia Aregana etorri zan, guztiak zain egozan-eta. Jesus itxasondoan egoan.

(1) Osatuak, bere eskarrona agerturik, Jesus'i jarraitzea nai izan eban; baiña beste arazotarako bialdu eban. Bakoitzari bere bizibidea dagokio.

Eta ba-dator Jairo eritzan gizon bat, sinagogako nagusietarikoa, ta Jesus ikusirik, oiñetara auzpeztu yakon, eta gurturik, bere etxean sartzeko eskatzen eutsan, amabiren bat urteko alabatxo bakarra il-zorian eukala-ta. Ta arrenez dirautso: "Jauna, nire alabatxoa azkenetan dot; baiña zatoz, ta eskua gainean ezarri egiozu, osatu ta bizi dadin".

Eta Jesus, jagirik, aregaz joan zan; eta ikasleak, bere, jarraitu eutsoen.

118. *Odol-jariodunaren osakuntza.*

(Mt. 9, 20-22. Mk. 5, 24-34. Lk. 8, 42-48)

Eta joiala, gizatalde aundia erraion (*jarraitzen eutsan*), alde guztietatik A (*Jesus*) estutuz. Eta amabi urte areitan odol-jarioz geisorik egoan emakume bat, osalari (*osagille*) askoakandik aibat jasan, eta ebazanak eralgi ondoren, iñogandik osasuna jaristeke, obe bearrean okerrago ebillena, Jesus'en barri entzunda, Aregana atzetik gizataldearen erditik urreraturik, soiñeko-ertza ikutu eutsan (1). "Soiñekoa bakarrik ikutu ba dagiot, osatuko naz", berekautan iñoan-eta.

Eta bertantxe odol-jarioa legortu yakon, eta gaitzetik osatu zala igarri eban bere gorputzean.

Bere barrutik indarra urten yakola Jesus'ek

(1) Emakume onen geisoca, legearen aurrean or-bana zan. Beraz, agirian ez eutsan eskatu Jesus'i osasuna, ixillean baiño.

berealaxe ezautu eban, eta gizataldeagana biurturik, iñoan: "Soiñekoa nok ikutu daust?".

Eta guztiak ukaturik, ikasleak, Pedro'k eta onen lagunak zirautsoen: "Irakasle, estututa ta ito-bearrez zaukazan gizataldea ba-dakutsu (*ikus-ten dozu*), ta "nok ikutu nau" diñoazu?".

Ta Jesus'ek esan eban: "Norbaitek ikutu nau, Nigandik indarra urteten ezagutu dot-eta".

Eta ori egin ebana ikusteko, inguruan begira ziarduan. Emakumea, barriz, ezkutatzerik ez egoala oarturik eta beragan jazoa ezaguturik, bildur-ikaraz etorri ta auzpeztu yakon, egia oso-osorik autortzen eutsala. Ta erri guztiaren aurrean esaten ziarduan zegaitik ikutu eban, eta zelan beingoan osatu zan azalduz.

Eta Jesus'ek esan eutsan: "Uste osoa izan, alaba; zure sinismenak osatu zaitu; zoaz bakean, ta osatua izan zaitetz zure gaitzetik".

Eta ordutixek emakumea osatua aurkitu zan.

119. *Jairo'ren alabaren berbizkundera.*

(Mt. 9, 23-26. Mk. 5, 35-43. Lk. 8, 49-56)

Oraindik itz egiten ziarduala, sinagogako nagusiaren etxetik datorkioz, oni esaten: "Zure alaba il da. Zetarako nekatuko dozu geiago Irakaslea?".

Baiña Jesus'ek, iñoena entzun ebanean, neskatoaren aita zan sinagogako nagusiari dirautso: "Ez bildur izan; sinistu bakarrik, eta osatuko da".

Eta iñor ez eban laguntzat artu nai izan, Pe-

dro ta Santiago, ta Jon, Santiago'ren anaia, baiño.

Sinagogako nagusiaren etxera eldurik, guztiak an negar ta samíñez egozan; eta illetariak* eta an batu ziranen zarata ikusi ebanean, barrura sarturik, esan eutsen: "Zetarako orren zarata ta negarrok? Alde egizue, ez egin negarrik: neskatua ez dago ilda, lo baiño" (1).

Eta irri-egioen, il zala ba-ekien-eta.

Baiña Bera, guztiai alde eraginda, neskatoaren aita-amak eta bere lagunak Pedro, Jakob (*Santiago*) eta Jon arturik, neskatua egoan tokira sartzen da. Ta neskatuari eskutik eldurik, dirautso: "Talitha kum", edo bardin dana: "Neskato!, zeuri dirautsut: jagi zaitetz".

Eta arnasa barriro etorri yakon, eta berealaxe jagi zan, eta ibiltzen asi zan, amabi urte ebazan-eta.

Neskatoaren gurasoak arrituta egozan, eta beste guztiak bere ikaratuta gelditu ziran. Jesus'ek, barriz, iñori ez esateko ta iñok ez egiala jakin gogor agindu eutsen. Eta neskatoari jaten emeteko esan eutsen.

Baiña jazotakoaren barria, bazterraldi guzti aretan zabaldu zan.

(1) Berez ilda egoan arren, Jesus'entzat lo bailitzan. Onegaitik arein irri-barre isekaria.

* Illetariak: plañideras.

120. *Itsu bien osatzea.*

(Mt. 9, 27-31)

Andik Jesus urten zanean, itsu bik jarraitu eutsoen, deadarrez zirautsoela: "Erruki zakiguz, Dabid'en Seme ori!".

Eta etxera eldu ondoren, itsuak urreratu yakozan. Jesus'ek dirautse: "Ori zuei egiteko gei nazala, sinisten dozue?".

"Bai, Jauna!", —dirautsoe.

Orduan begiak ikutu eutsezan, esanaz: "Sinisten dozuenez jazo bekizue".

Eta arein begiak argitu ziran; eta Jesus'ek agindu eutsen: "Entzun, gero: ñok bere ez beki".

Baiña areik, urtenda, Aren (*Jesus'en*) ospea lurralde guzti aretan zabaldu eben.

121. *Jesus'ek, txerrendun mutua osatzen dau.*

(Mt. 9, 32-34)

Areik urten ondoren, gizon mutu txerrendun bat ekarri eutsoen. Eta txerrena jaurtia izanda, mutuak itz egin eban. Eta gizataldeak, arrituta, iñoen: "Ez da egundo Israel'en orrelakorik ikusi izan".

Pariseotarrak, ostera, iñoen: "Txerrenburu dalako jaurten dauz txerrenak".

122. *Jesus Nazaret'en. Irakasten diardu, ta ez dabe onartzen.*

(Mt. 13, 53-58. Mk. 6, 1-6. Lk. 4, 16-30)

Andik urtenda, Nazaret bere errira joan zan,

Bera azi izan zan tokira (1); ta ikasleak erraiozan (*jarraitzen eutsoen*). Eta bere errira elduta, larunbatean sinagogan —oi ebanez— sarturik, irakasten asi zan; eta irakurtera jagi zan. Isaias igarlearen idaztia emon eutsoen. Eta zabaldurik, idatzitako une au aurkitu eban: "Jaunaren Arnasa (*Espiritua*) nire gaiñean; Berak onetsi ta bialdu nau-ta beartsuai Barri Ona ekartera, biotz-garbiak osatzera, lotuai erospena* iragartera, itsuai ikusmena, zapalduai askatasuna lortzera, ta Jaunaren eskar-urtea ta bidezko saria iragartera" (2).

Eta idaztia batu ta arduradunai biurturik, jazarri zan. Eta sinagogako guztiak Ari begira egozan. Asi zan, bada, arei esaten: "Gaur bete da Idazkun au zuen belarrietan".

Eta iñoana, guztiak ontzat artzen eutsoen, eta Aren agotik sortzen ziran itz ederretaz arrituta egozan; eta entzule askok, Aren irakatsiaz arrituta, iñoen: "Nondik datorkio orri guzti ori? Zer da orri emondako jakintza? Ta zer dira orren eskuz egindako mirariok? Ez ete-da au arotza, arotzaren semea, Maria'ren semea, Jakob, Jose, Juda ta Simon'en anaia (3). Onen arreba guztiak,

(1) Jesus Betlem'en jaio zan, baiña Nazaret'en azi; orregeaitik deritxo Nazaret'i **bere errira**.

(2) Is. 61, 1-2.

(3) Senide ta senitarteko esateko, **anai** itzaz azalzen eben. Emen izentatzen diranak, Jesus'en lengusulengusiniak ziran.

* Erospen: remisión, redención.

bere, ez ete-dira emen gugaz? Nondik dator kio, bada, guzti ori?”.

Ta gizon gaiztotzat artzen eben (*gaizpide yaken*).

Jesus'ek zirautsen: “Esakun zaar au esango daustazue, urrean: “Osalari*, zeure gaitza osatu egizu”; Kaparnaum'en egin ei'dozuzan guztiak, emen bere, zeure errian egizuz”.

Ta geitu eban: “Benetan dirautsuet: ez da igarlerik onartua izan bere errian, etxean eta sende-artean. Benetan dirautsuet: emakume asko ziran Israel'en Elias'en egunetan, iru urte ta sei illebetez zerua itxirik egoala, gosete gorria lurralde osoan izan zanean. Baiña Elias areitako iñogana bere ez zan bialdua izan, Sidon'go Sarepta urira baiño, alargun batekana. Baita Eliseo'ren egunetan bere, ba-ziran legenardunak Israel'en: baiña areitako iñor ez zan garbitua izan, Naaman Siria'rra izan ezik” (1).

Itzok entzunda, guztiak sinagogan asarrez bete ziran; eta jagirik, uritik kanpora jaurti, ta uria dagoan mendi-tontorreragiño eroan eben, andik amildu naiean. Bera, barriz, arein artetik igaririk, joan joian.

Eta arein sinisgogorraitik, an miraririk ez eban egin (2); geiso gutxi batzuk orraitioño, eskuak ezaririk osatu ebazan. Eta arein sinisgogo-

(1) 2 Reg. 5, 14.

(2) Ez miraririk egiteko almenik ez ebalako, mirarien duin ez ziralako baiño.

* Osalari, osagille: médico.

rraz arrituta egoan. Eta inguruko alderri guztietan irakasten ziarduan.

123. *Jesus'en irakastea ta apostoluen egikizuna.*

(Mt. 9, 35-38; 10, 1. Mk. 6, 6-7. Lk. 9, 1-2)

Jesus uri ta erri guztietan ebillen, arein sinagogetan irakasten eta Zeru-erreñuaren Barri Ona zabaltzen, eta gaitz eta geiso guztiak osatzen. Eta gizataldeak ikusirik, biotza mindu yakon, ardiak artzain bagarik baizen nekatuak egozalako. Orduan, bere ikasleai dirautse: “Uzta (1) (*solo-aria*), ugaritsu da; langilleak, ostera, gutxi. Beraz, otoi egiozue uzta-jabeari (*solo-ariaren jabeari*) langilleak bere uztera bialtzeko”.

Eta bere amabi ikasleai dei egiñik, txerren guztiai buruzko indar ta eskubidea emon eutsen, areik jaurti ta geiso ta min guztiak osatzeko. Ta biñaka bialdu ebazan Jaungoikoaren erreñua iragartera ta geisoak osatzera.

124. *Amabientzako irakaspentak.*

(Mt. 10, 5-15. Mk. 6, 7-11. Lk. 9, 3-5)

Amabiok Jesus'ek bialdu ebazan, agindu ta esaten eutsela: “Atzerriruntz ez joan, eta samaritarren urietan ez sartu (2). Zoaze, barriz, Israel’

(1) Uzta: soloa batu bear dana: garitza, zitu (ce-real); solo-aria; erderaz, mies.

(2) Jesus bizi dala, lenengo Bere erritarrai, judarra, irakatsi nai dautse Barri Ona, osasuna areikandik etorri bearra zan-eta.

en etxeko ardi galduakana. Ta joan zaitezenean, irakatsi egizue, esanaz: "Zeruko erreinua urrean dago". Geisoak osatu egizuez; utsean artua, utsean emon egizue. Ez artu urrerik zuen gerrikoetan, ez zidarrik, ez txanponik. Ez egizue ezer eroan, ez biderako zorrerik, ez ogirik, ez soñieko bi, ez oiñetakorik: abarkak eta makilla baiño, nai izan ezkeror: langilleari bere janaria zor yako-ta".

Ta zirautsen: "Edozein uritan, naiz erritan sartu zaitezenean, itandu egizue an aukerako nor leitekanean: eta zagoze arenean urten arte. Ta etxean sartzean, angoai agur egiezue, esanaz: "Bakea etxe onentzat"; eta etxe aukerako ba'dadi, zuen bakea gaiñera betorkio; baiña aukerako ez ba'dadi, zuen bakea zeuekana biurtuko da. Eta ausaz* norbaitek onartu ez ba'zaiez, ta zuen itzak entzun nai ez ba'dagiz, etxe edo uri aretatik urtean, zuen oiñetako autsa bere, astindu egizue, arein aurkako agerbidetzat. Benetan dirautsuet: epaikunde-egunean jasangarriago izango da Sodoma ta Gomorra'ren zoria, arelako uriarena baiño".

125. *Lanerako beste irakaspen batzuk.*

(Mt. 10, 10-23)

"Orra, Nik, ardiak otso-artera lege, bialtzen zaituet: sugeak baizen zur izan zaiteze, beraz, ta uxoak baizen tolesgabe. Gizonai buruz, zagoze

* Ausaz: por ventura, tal vez.

zur: batzarretan salatu ta euren sinagoetan zigorkadaz astinduko zaitue-ta; eta nagusi ta erregekana eroanak izango zaree, arei ta atzerritarrai nitzaz autortzeko. Salatu zaiezenean, barriz, ez asi asmatzen zelan eta zer esango dozuen: orduantxe emongo yatzue zer esan-eta: itz dagiana, ez zaree izango zuek-eta, Aitaren Gogoa (*Espiritu*) baiño, zuekan itz dagiana.

Anaia anaiak eriotzarako salatuko dau, ta aitatak semea; ta semeak gurasoen aurka jagiko dira, ta il bere egingo dabez. Eta nire Izenagaitik guztiak gorroto izango dautsue: baiña azkeneragiño iraun dagiana, orixe gaizkatuko (*salbauko*) da. Eta uri onetan jazartu* zaiezenean, beste batera iges egizue; benetan dirautsuet: ez dozuez Israel'go uri guztiak *biurtzen* amaituko, Gizasemea etorri baiño len" (1).

126. *Edonoizerako irakaspen geiago.*

(Mt. 10, 24-42)

"Ez da ikaslea irakaslea baiño geiago; ezta morroia be nagusia baiño geiago; ikasleak naiko dau bere irakaslea lakoa izatea, ta morroiak bere nagusia lakoa. Etxeko jaunari Beelzebul (*txerren*) gaitzizena ezarri ba'dautse, zenbat areago Aren etxeokoai?

Ez izan, bada, arein bildur: ezer bere ez da-

(1) Au da: Izango dozuez uriak gordeteko ta irakasteko. Jesu-Kristo'ren etorrera, Jerusalem'en ondamentia dala dirudi, 70'gn. urtean jazoa.

* Jazartu, jazarri: perseguir.

go gordeta, agiri izango ez danik-eta; ezta ezkuririk bere, jakingo ez danik. Illunetan dirautsuedana, argitan esan egizue; ta agotik belarrira dantzuzuea (*entzuten dozuea*), etxegaiñetik deadarrez esan egizue. Gorputza ilten dabela, gogoa (*arima*) ezin il dabenen bildur ez izan; arima ta gorputza su-barrendira jaurti daikezanaren bildurrago izan zaiteze. Kurloi pareta ez al da lauko baten saltzen? (1). Eta orraitino, areitako bat bere ez da lurrera jausiko zuen Aitak nai izan ezik.

Eta zuei buruz, zuen buruko ule guztiak, bere, zenbatuta (*kontautu*) dagoz. Beraz, ez bildur izan: kurloi pilloa baiño obe zaree zuek. Gizonen aurrean autortu nagiana, Neuk be autortuko dot zeruko nire Aitaren aurrean. Gizonen aurrean ukatu nagiana, barriz, Neuk be ukatuko dot zeruko Aitaren aurrean.

Ez uste izan lurrera bakea ekartera etorri nazala (2): bakea ez, ezpata baiño. Semea aitagandik, eta alaba amagandik, eta errena amagiñarrebagandik banantzera etorri naz-ta. Eta gizonaren arerioak, bere etxeokak. Aita, naiz ama, Ni baiño mateago dauanak, ez da Niretzako lain. Semea, naiz alaba, Ni baiño maiteago dauana, ez da Niretzako lain. Eta bere gurutza artuta ez darrai-

(1) Laukoa: burdingorritzko (kobrezko) dirua: bost eunen edo zentimo.

(2) Jesus ta bere aldekoak, ezetsiak eta jazartuak izango dira lur onetan. Orrexegaitik diño ez zala lurrera bakea ekartera etorri.

dana (*jarraitu ez daistana*), ez da Niretzako lain. Bere burua idoro dagianak, galduko dau; ta bere burua Nigaitik galdu dagianak, idoroko dau. Zuek artzen zaituenak, Neu artzen nau; ta Ni artzen nauanak, bialdu nauana artzen dau. Igarlea igarletzat artu dagianak, igarlea-saria artuko dau; ta zintzoa zintzotzat artu dagianak, zintzo-saria artuko dau. Ta edontzi ur otx txikitxo oneitako bati, ikasle antzean emon dagionak, benetan dirautsuet: ez dau bere saria galduko.

127. *Jesus ta apostoluak irakastera doaz.*

(Mt. 11, 1. Mk. 6, 12-13. Lk. 9, 6)

Aginduok bere ikasleai emonda gero, Jesus Barri Ona ango urietan irakatsi ta zabaltzera joan zan andik. Baita ikasleak bere, urtenda, erririk erri ebiltzan, Barri Ona zabaltzen, garbaia (*dama*) iragarten. Eta txerren asko edonun jaurten ebezan, eta geiso asko orioz igurtzi ta osatzen ebezan (1).

128. *Jesus'en ospea Erodes'eganaiño.*

(Mt. 14, 1-2. Mk. 6, 14-16. Lk. 8, 7-9)

Aldi aretan Jesus'en ospea Erodes erregek entzun eban, Arek (*Jesus'ek*) egiten eban guztiaren ospea, Jesus'en izena entzutetsu egin zan-eta. Erodes, barriz, bere morroiai zirautsen: "Jon Batea-

(1) Eguzki-sortzaldean erabillen osagarrietariko bat orioa zan. Baiña Apostoluak ez eben erabilli osalari legez, mirarigille legez baiño.

tzaillea da ori; illen artetik berbiztu da, ta orregaitik orrenbeste mirari egiten diardu”.

Beste batzuek, iñoen: “Elias da”. Ta beste batzuek: “Igarle da, antxiñako beste igarleren bat lege”. Baiña Erodesek, au entzunik, iñoan: “Au, Jon Bateatzaillea da; sama ebagi neutsan Jon berbera da, illen artetik berbiztuta”. Baita au bere esan eban: “Jon’i sama neuk ebagi neutsan; orrelakoak egiten diarduala entzuten dodan ori, barriz, nor da?”.

Ta nondik A (*Jesus*) ikusiko ebillen.

129. *Jon Bateatzaillearen eriotza.*

(Mt. 14, 3-12. Mk. 6, 17-29)

Izan bere, Erodesek berak Jon lotu ta giltzapean sartu eban, bere anai Filipino’ren emazte Erodias beretzat artua eukalako, ta onen ederragaitik. “Anaiaren emaztea eukitea ez yatzu zillegi*”, Jon’ek esaten eutsan-eta. Aregaitik Erodias azpitik ebilkion, bizitza kentzeko: baiña ezin. Erodesek Jon gizon zintzo ta jatortzat eban-eta, bildur eutsan: eta a il nairik, erriaren bildur zan, igarletzat ebelako; ta bere babesean eukan, aren burubidez gauza asko egiñik, eta arek zirautsana gogo onez entzuten eban.

Baiña egun egokia eldu zan, eta Erodesek bere jaiotegunean Galilea’ko nagusi, aurrenengo ta aundikiak oturuntza* bat emon eutsen. Erodias’en alaba an sartu ta erdian dantzan egiñez, Erodesek

* Zillegi izan: ser lícito.

* Oturuntza: banquetes.

eta maikideak atsegiñez ikusirik, neskari erregek esan eutsan: “Eskatu egidazu nai dagizuna, ta emongo dautsut”. Eta zin egin eutsan: “Eskatu daistazuna emongo dautsut, naiz-ta nire erreñu-erdia izan”.

Neskak, andik urtenda, amari esan eutsan: “Zer eskatuko dautsat?”.

Eta amak esan eutsan: “Jon Bateatzaillearen burua”.

Ta erregeagana bizkor joanik, eskari au egin eutsan: “Jon’en burua azpil (*pratel*) baten orain-txe emon dagidazun nai dot” (1).

Errege, itun jarri zan; baiña egindako ziñagaitik eta mai-lagunakaitik, ez eban neska a atsekabetu nai izan: eta morroi bat bialduaz, aren burua azpil baten ekarteko agindu eutsan. Morroiak joanda, espetxean Jon’i sama ebagi eutsan, eta burua azpillean ekarririk, neskari emon eutsan, eta neskak amari. Au jakiñik, Jon’en ikasleak etorri ta aren gorpua illobira eroan eben. Eta barria Jesus’i emotera joan ziran.

130. *Jesus apostoluakaz Betsaida-ondoko baso-alde batera baztartzan da.*

(Mt. 14, 13. Mk. 6, 30-32. Lk. 9, 10. Jon 6, 1)

Barri oneik entzuteaz batera, Apostoluak biurtu yakozan, eta eura egin eta irakatsi ebena azaldu eutsoen. Eta Jesus’ek dirautse: “Zatoze zeuek

(1) Itxuraz, maiko azpil edo *pratel* bat artu ta burua antxe ekarri egiola eskatu eutsan.

soilik (*bakarrik*) baso-aldera, atsedean apur bat artu dagizuen”.

Joan-etorri ebizanak asko ziran-eta, jateko atirik bere ez eben. Eta txalupan sarturik, Betsaida-ondoko baso-alde ezkutu batera baztertu ziran, Tiberiades edo Galilea-itxasoko beste aldera.

V. BETSAIDA'KO BASAMORTURA

131. *Lenengo ogi-banatzte ugaritsua.*

(Mt. 14, 13-23. Mk. 6, 33-46. Lk. 9, 11-17. Joan 6, 2-15)

Eta askok joaten ikusi ebezan, eta nora joiazan jakin eben. Orduan, uri guztietatik oiñez araxe joanik, Jesus baiño len eldu ziran. Eta gizatelde aundiak erraion (*jarraitzen eutsan*), geisoakan egiten ebazan mirariak ikusirik. Txalupatik urtenda mendira igo zan, eta an bere ikasleakaz jazarri zan. Judarren Pazko-jaia laster zan. Jesus'ek begiak jaso ta arenbesteko lagun-taldeak jarraitu eutsala ikusirik, biotza bigundu yakon, artzain bagako ardiak legez ebiltzalako; ta Berak abegi onez artu ebazan. Eta ikaskizun asko azaltzen asi yakon, eta zeru-erreñuaz itz egiten; eta osasun-bearrean egozanak osatu egiten ebazan.

Onetan, eguna illuntzen asi zan; eta berandu zala-ta, ikasleak urreratu yakozan, esanaz: “Basoartea da toki au, ta berandu da; onezkero bialdu egizuz, inguruko erritxo ta baserrietara joanda, eurentzat jateko apur bat erosi dagien”.

Jesus'ek dirautse: “Ez dabe joan-bearrik; jaten zeuek emon egiezue”.

Arcik dirautsoe: “Goazan geu berreun denario (1) ogi eroatera, onei jaten emoteko”.

Jesus'ek Felipe'ri dirautso: “Ogiak non erosi-ko doguz oneik jan dagien?”.

Ori, zirikatzeke zirauntsan, ba-ekian Berak egiteke zana-ta.

Felipe'k erantzun eutsan: “Berreun denario-ren ogiak bere, ez dira naiko, bakoitzak ogi apur bana artzeko”.

Eta Jesus'ek dirautso: “Zenbat ogi daukazuez? Zoaze ta ikusi egizue”.

Ikusita, ikasletariko batek, Ander'ek, Simon Pedro'ren anaiak, dirautso: “Bost tremes-ogi (2) ta arrain bi daukazan mutil bat ba-dago emen; baiña, orrenbestentzat zer dira oneik?”.

Arek esan eutsen: “Ekarri egidazuez ona”. Eta gero: “Jazarri daitezala agindu egiezue”.

Toki a bedartsua zan (3), eta bost millaren bat gizon jazarri ziran, cun eta berrogetamarnaka.

Artu ebazan, bada, Jesus'ek bost ogiak eta arrain biak, eta zerurantz begiak jasorik, onetsi (*bedeinkatu*) ebazan. Eta eskerrak emon ondoren, ogiak ebagi ta bere ikasleai emon eutsezan,

(1) Denario: peseta batek baiño apur bat gutxiago balio eban; berreun denariok, 180 peseta inguru.

(2) Txiroen eguneroko ogia tremes-ogia zan, gargar-ogia.

(3) Udabarria zan.

eta ikasleak gizataldeari, ta jezarritakoen artean banatu ebezan: eta beste arenbeste egin eban arraiñakaz bere, bakoitzari nai aña emonez. Eta guztiak jan eben eta bete ziran.

Eta bete ziranean, bere ikasleai esan eutsen: "Batu egizuez gelditu diran apurrak, ezer galdu ez dadin".

Batu ebezan, bada, ta orrenbeste lagun ase ondoren, bost tremes-ogi ta arrain biren ondakiñez, amabi otzara bete ebezan. Jaten batutakoak, barriz, bost milla gizon izan ziran, emakume ta umeak zenbatzeke (*kontau barik*).

Gizon areik, Jesus'ek egindako miraria ikusirik, alkarri zirautsen: "Auxe da, benetan, lurre-ra etorteko dan igarlea" (1).

Baiña Jesus'ek, Errege egin nai ebela igarri ebanean, bereala ikasleak txalupan sarrerazo ebezan, eta beste aldera, Betsaida'runtz, Bera baiño len joan zedizala agindu eutsen, Berak gizataldea bialtzen eban artean.

Gizataldea bialdu ebanean, barriz, bakar-bakarrik barriro mendira iges egin eban, otoi-egite-ra. Eta illundu zanean, Jesus bakar-bakarrik egoan an.

(1) Deuteronomio deritzan idaztarian iragarritako "Igarlea"; Igarle au zan erriak Mesias'tzat ebana. Jesus'ek ez dauz nai erri-goraltzak, eta iges egiten dau.

VI. BARRIRO GALILEA'RA

132. *Jesus itxaso-gaiñean ibilli dabil. Bigarre-nez ekaitza baretuta.*

(Mt. 14, 24-33. Mk. 6, 47-52. Jon 6, 16-21)

Arratsaldean, ikasleak itxasora jatsi ta ontzian sarturik, itxasoaren beste aldera joiazan, Kaparnaum'eruntz. Eta illuna etorri zan; baiña Jesus ez zan areikana etorri. Berandu zala, ontzia itxas-erdian zan, eta Jesus bakarrik legorrean. Eta itxaso-a, aize aundiz putzituta, arrotzen joian. Ontzia, barriz, olatuak itxas-erdian danbadaka erabillan. Eta aizea aurretik etorkiela, ta Jesus'ek ontzi-koak arraunka nekaturik ikustean, laugarren gau-aldian edo (1), oiñez ur-gaiñean etorri yaken, eta atzean iztekoa egin eutsen. Ogetabost edo ogetamarren bat estadio (2) arraunka aurreratu ziranean, Jesus dakuse (*ikusten dabe*) ur-gaiñean oiñez ta ontzira urreratzen. Areik, barriz, ur-gaiñean ibilliz ikusi ebanean, mamua zala uste izan eben, eta iñoen: "Mamua da".

Ta deadarka asi ziran: guztiak ikusirik, bilduru egin ziran-eta. Bereala Jesus'ek, itz egiñez, dirautse: "Uste on izan! Neu nozue; ez ikaratu".

Orduan Pedro'k crantzun eta esan eutsan: "Jauna, Zeu ba'zara, Zugana ur-gaiñez joateko agindu egidazu".

(1) Lau alditan banantzen eben len gaua; laugarren gau-aldia goizeko irurak inguruan asten zan.

(2) Estadio: 185 metroko bide-negurria.

Jesus'ek esan eutsan: "Zatoz!".

Ta Pedro, ontzitik jatsita, urgaiñez joian Jesus'egana eltzeko. Baiña aize zakarra ikusirik, bildurtu egin zan, eta murgiltzen* asi zala, dei egin eutsan, esanaz: "Jauna!, gaizkatu (*salbatu*) nagizu".

Eta berchalaxe Jesus'ek, eskua luzaturik, oratu ta esan eutsan: "Zegaitik ezpaitan asi zara, siniste otzeko ori?".

Beraz, ontzian artu nai eben; eta ontzira igo zanean, aizea gelditu egin zan. Eta ontzian egozarak, Aregana urreraturik, gurtu eben, esanaz: "Jaungoikoaren Semea zara benetan".

Eta orduan arrituago ziran, ogien miraria ez eben ulertu-ta (1): arein biotzak itsututa egozan.

Eta laster, joiazan hurraltera ontzia eldu zan.

133. *Genesaret'en: ainbat mirari.*

(Mt. 14, 34-36. Mk. 6, 53-56)

Legorrera igarota, Genesaret'era eldu, ta an gelditu ziran. Ontzitik urtenda, angoak berchala ezagutu eben, eta barria bazterralde guzti areitara zabaldu eben, eta inguruetako geisoak zerraldoietan (*ogetxoetan*) ekarten asi yakozan Bera egoan tokira. Eta erritxo, uri, naiz landetxeren batera joianeko, geisoak kaleetara ekarten eutsuezan, besterik ezean Aren soñeko-ertza iku-

(1) Naiz-ta ogien miraria ta beste batzuk ikusi, ez eben Jesus ulertzen.

* Murgildu: sumergirse.

tzeko erreguz; ta ikutzen eben guztiak osatzen ziran.

134. *Gizataldea Jesus'en billa Kaparnaum'era biurtzen da.*

(Jon 6, 22-25)

Biaramoncan, beste itxasertzeko gizataldea ontzi bat baiño an ez zala oartu zan, eta Jesus ez zala bere ikasleakaz sartu; ikasleak soilik (*bakarrik*) joan zirala baiño. Baiña beste ontzi batzuk Tiberiades'tik eldu ziran, Jaunak eskerrak eginda ogia jan eben tokira.

Beraz, Jesus an ez zala, ezta Aren ikasleak bere, gizataldeak ikusi ebanean, ontzietara igo ta Kaparnaum'era jo eben, Jesus'en billa.

135. *Jaungoikoaren ogia.*

(Jon 6, 25-33)

Itxosoaren beste aldean idoro ebanean, esan eutsen: "Irakasle, noiz eldu zara ona?".

Jesus'ek erantzun eta esan eutsen: "Bene-benetan dirautsuet: ogiak jan eta bete zintzazalako zabilzte nire billa, baiña ez mirariak ikusi zenezualako (1). Lan egizue, ez alperrik galtzen dan janariagaitik, Gizasemeak emongo dautsuenagaitik baiño: auxe da Jaungoiko Aitak bere ezaugarritz izentatua-ta" (2).

(1) Ogiek banaketa ugaritsua dala-ta, Jesus'ek Eukaristi-Ogia iragarten dau.

(2) Mirarien ezaugarritz ta Jordan'eko zeruko abotsez berezi edo izentatua izan zan.

Esan eutsoen, beraz: "Jaungoikoaren eginbidea egiteko, zer egingo dogu?"

Jesus'ek erantzun eta esan eutsen: "Auxe da Jaungoikoaren eginbidea: Berak bialdu ebana sinistu dagizuela".

Eta areik esan eutsoen: "Baiña ze mirari eginen dozu zuk, ikusi ta sinistu dagigun? Zer dagizu? Gure asabak basamortuan mana jan eben, idatzita dagoanez: "Zerutik jatsitako ogia emon eutsen jateko" (1).

Jesus'ek esan eutsen: "Bene-benetan dirautsuet: zerutik jatsitako ogia ez eutsuen Moises'ek emon; zerutik datorren benetako ogia, nire Aitak damotsue: zerutik jatsi ta gizakiari bizitza damotsana, auxe da Jaungoikoaren ogia-ta".

136. *Jesus Bera da Jaungoikoaren Ogia.*

(Jon 6, 34-47)

Orduan, esan eutsoen: "Jauna, ogi ori beti emon eiguzu".

Eta Jesus'ek esan eutsen: "Bizitza-ogia Neu naz: Nigana etorri daitena, ez da gose izango; ta sinistedun dakidana, ez da bein bere egarri izango. Baiña esan dautsuet: ikusi nozue, ta ez dozue sinisten. Aitak emon daustan guztia, Neugana etorriko da, ta Nigana etorri daitena, ez dot bazterrera jaurtiko, ez naz zerutik nire gogoa egiteko jatsi-ta, bialdu nauanarena egiteko baiño. Ta auxe da bialdu nauan Aitaren gogoa: emon

(1) Ps. 77, 24.

eustan guztitik, Nik ezertxo bere ez dagidala galdu, azken-egunean berbiztu dagidala baiño. Nire Aitaren asmoa auxe da-ta: Semea ikusita Onen sinistea dagianak, betiko bizitza izan dagiala, ta Neuk berbiztu dagidala azken-egunean".

Judarrak, osteraz, Aretzaz mar-marka ziar-duen, "Neu naz zerutik jatsitako ogia" esan ebalako. Eta iñoen: "Ez ete-da au Jesus, Jose'ren semea, ta onen aita ta ama ez ete-doguz ezagutzen? Zelan diño, bada: "Zerutik jatsi naz?".

Baiña Jesus'ek erantzun eta esan eutsen: "Ez egin mar-mar alkarregaz. Ezin etorri daiteke iñor Nigana, bialdu nauan Aitak ekarri ez ba' dagi: eta Neuk berbiztuko dot azken-egunean. Igarlectan idatzita dago: "Jaungoikoaren ikasle izango dira guztiak" (1). Aitari entzunda, Aren irakaspenak onartu dagizanak, Neugana dator. Aita ez dau iñok ikusi, ez: Jaungoikoagandik sortuak baiño: Onek, bai, Aita ikusi dau. Bene-benetan dirautsuet: Nigan sinistu dagianak, betiko bizitza dau".

137. *Eukaristiaren agintza agiria.*

(Jon 6, 48-59)

"Bizitza-ogia Neu naz. Zuen asabak (*aurreti-koak*) mana basamortuan jan eben, eta il ziran: auxe da zerutik jatsitako ogia, jan dagiana il ez dadin. Neu naz zerutik jatsitako ogi bizia: ogi onetatik jan dagiana, betiko biziko da: eta Nik

(1) Is. 54, 13. Jer. 31, 33-34.

emongo dodan ogia, munduaren bizirako Nire aragia da”.

Judarrak alkarregaz eztabaidan asi ziran, esanaz: “Onek zelan emon daikegu Bere aragia jateko?”.

Jesus'ek, barriz, esan eutsen: “Gizasemearen aragia jan eta Aren odola edan ez ba'dagizue, ez dozue zuekan bizitzarik izango. Nire aragia jan eta nire odola edan dagianak, betiko bizitza dau: ta Neuk berbiztuko dot azken-egunean. Nire aragia benetan janaria, ta Nire odola benetan edaria da-ta. Nire aragia jan eta Nire odola edan dagiana, Nigan dago, ta Ni beragan (1). Ni bialdu nauan Aita bizi danez, ta Ni Aitagaitik bizi nazanez, Ni jan nagiana be, Neugandik biziko da. Auxe da zerutik jatsiriko ogia: ez zuen asabak basamortuan jan eben mana lakoia, ta il ziran: ogi au jan dagiana, betiko biziko da”.

138. *Itzaldiaren ondorekoak.*

(Jon 6, 60-72)

Itz oneik Kaparnaum'en esan ebazan, sinagogan irakasten ziarduala. Bere ikasletariko askok, itz oneik entzunda, esan eben: “Diñoana gogorra da: ta nok entzun daike?”.

Baiña Jesus'ek, bere ikasleak onetzaz marka ziarduela berekautan ezagaturik, esan eutsen: “Onetzaz gaizpidea artzen dozue? Eta Gi-

(1) Ogi au jaten dauana, Kristo'gaz bat-bat egi ten da, Aregandik jaungoikozko bizitza arturik.

zasemea len egoan tokira igoten ikusi ba'zengie? Bizia, gogoak (*espirituak*) emoten dau: aragia ezetako ez da. Nik esan dautsuedazan itzak, gogo ta bizitza dira. Baiña ba-dira zuen artean sinisten ez daben batzuk”.

Jesus'ek asieratik ba-ekian sinisten ez ebenak nortzuk ziran, baita Bera salduko ebana be nor zan. Eta iñoan: “Auxegaitik esan dautsuet: Ezin etorri daiteke iñor Nigana, bialdu nauan Aitak ekarri ez ba'dagi”.

Onez gero (1), ikasle asko atzeratu yakozan; eta gero Aregaz ez ebiltzan.

Orduan, Jesus'ek amabiai esan eutsen: “Zuek be alde egin nai dozue?”.

Eta Simon Pedro'k'erantzun eutsan: “Jauna!, nogana joango gara? Zuk, betiko bizitzarako itzak dozuz: eta guk sinistu ta ezagutu dogu, Jaungoikoaren Seme, Kristo'a, zarala Zu”.

Jesus'ek erantzun eutsan: “Ez zaituet amabi aukeratu? Ta alan bere, zuetariko bat txerren da”.

Simon'en seme Judas Iskariotes'egaitik iñoan: Jesus salduko eban amabietariko bat zan a-ta.

IRUGARREN URTEA

139. *Idazlari ta pariseotarrakaz eztabaidan.*

(Mt. 15, 1-9. Mk. 7, 1-13. Jon 7, 1)

Arrezkero, Jesus Galilea-zear ebillen; juda-

(1) Onez gero: auxegaitik eta une onetatik bertotik.

rrak A (*Jesus*) ilteko asmotan ziarduelako, ez eban Judea'ra joan nai-ta.

Orduan, pariseotarrak eta Jerusalem'dik etorritako idazlari batzuk, guztiak batera etorri yakozan. Eta Aren ikasletariko batzuek eskuak garbitzeke ogia jaten ebela ikusirik, arpegira jaurti outsoen. Pariseotarrak eta beste judatar guztiak, asaben ekanduari eutsirik, ez dabe jaten, eskuak urez sarritan garbitzeke; ta enparantzatik etorritakoan bere, ez dabe jaten, lenengo euren burua urez garbitzeke. Onelako beste eginbear asko, bere, egiten dabez ekanduz: edontziak, pitxarrak, topiñak eta aulkien garbiketak.

Beraz, pariseotarrak eta idazlariak itandu outsoen, esanaz: "Zure ikasleak zer dala-ta asaben ekanduak austen dabez? Ogia jaterakoan, ez dabe eskurik garbitzen-eta?" (1).

Baiña Jesus'ek, erantzunik, esan eutsen: "Zuek, barriz, Jaungoikoaren agindua zuen ekanduakaitik zegaitik austen dozue? Azalutok!, zuetaz ederto iragarri eban Isaias igarleak, idatzita dagoanez: "Erri onek ezpaneaz goresten nau, baiña bere biotza nigandik urrin dago; alperrik goresten nabe, gizonen agindu ta irakatsiak irakasten diardue-ta" (2).

(1) Eskuak garbitzeke jatea, judutarrentzat pekatu aundia zan; baiña lege ori ez eban Jaungoikoak egin, eurak asmatutakoa zan. Beraz, ikasleak ez eben legea austen. Beste orrenbeste ontzien eta janarien garbiketari dagokionez.

(2) Is. 39, 13.

Jaungoikoaren agindua alde batera itzita, gizonen aginduari eusten dautsazue; pitxarrak eta edontziak garbitu, ta onelako beste gauza asko egiten dozue".

Eta zirautsen: "Jaungoikoaren agindua austen dozue, zeuen ekanduai eusteko. Esan eban Jaungoikoak Moises'en bidez: "Zure aita ta ama goretzi egizuz"; eta gaiñera: "Bere aitari naiz amari biraoa esan dagiona, erioitez il bedi" (1). Zuek, barriz diñozue: "Norbaitek bere aitari naiz amari esan ba'dagio: Nigandik izan bear zenduken laguntza-bide guztia, *Korban* da (Jaungoikoari eskeiñita dago), ez dau besterik zor, ez dau bere aita naiz ama geiago goretzi bearrik (2); eta ez dautsazue izten bere aitari edo amari besterik egin dagion. Eta orrela Jaungoikoaren itza zuen ekanduz austen dozue. Eta beste gauza asko bere, orrelaxe egiten dozue".

140. *Garbia, ta garbia ez dana.*

(Mt. 15, 10-20. Mk. 7, 14-23)

Eta Beragana gizataldeari dei egiñik, zirautsen: "Entzun guztiok eta ulertu: Agotik sartzen danak, iñor ez dau zikintzen; agotik urteten danak baiño: onek bai, gizona zikintzen dau. Entzu-

(1) Ex. 20, 12. Ta Ex. 21, 17.

(2) Gurasoai biziteko bear ebena ukatu ta Jaungoikoari eskeinteza, ez zan bide zuzena. Idazlariak opari onek balio ebala, iñoen; baiña eurak bere ez eben beteten.

teko entzumenik (*belarririk*) dagianak, entzun begi" (1).

Eta gizataldea itzi ta etxean sartu zanean, Aren ikasleak urreratu ta esan eutsoen: "Zure itzok entzunda, pariscotarrak samindu egin dirala ba-dakizu?".

Baiña Arek erantzun eutsen: "Zeruko nire Aitak sartu ez dauan edozein landara, zusterretik aterako da. Itzi egizuez: itsuak dira ta itsu-mutillak*. Eta itsu batek beste itsu bat zuzendu ba'dagi, biak zulora jausi bear".

Orduan, Pedro'k itz egin eta esan eutsan: "Azaldu egiguzu ipuin ori".

Eta Jesus'ek erantzun eutsan: "Zuek be orain-dagiño adimen-bageak zaree? Ez dozue ulertzen agotik sartu daitenak, gizona ezin zikindu daike-la? Ez da biotzean sartzen-eta; sabelera jatsi ta gero sastegira jaurti baiño. Janari guztiak orrelaxe garbitzen dira".

Ta iñoan: "Agotik urteten diranak, barriz, biotzetik urteten dira; ta onexeik, bai, gizona zikintzen dabe: gogapen (*pentzamentu*) gaiztoak, ezkontza-loitzeak*, aragikeriak, gizon-iltteak, lapurretak, guzurrezko autorrak (*testiguntzak*), zekenkeriak, gaiztakeriak, maltzurkeriak, lizunkeriak, bekaizkeriak, biraoak, arrokeria ta zorakeria, gizonaren biotzetik urteten dira-ta.

(1) Ta ulertu begi.

* Itsumutil: itsuari laguntzen daušana: lazarillo.

* Ezkontza-loitze: adulterio.

Gaitz guzti oneik barrutik urteten dira, ta one-xeik zikintzen dabe gizona. Baiña eskuak garbitzeke jateak, ez dau gizona zikintzen".

I. FENIZIA, DEKAPOLI TA ZESAREA'RA JOANALDIA

141. *Jesus'ek kanaandar emakumearen
alaba osatzen dau.*

(Mt. 15, 21-28. Mk. 7, 24-30)

Andik urtenda, Tiro ta Sidon'go bazterretara alde egin eban. Etxe baten sartu zan, eta ez eban nai Bera non egoan iñok jakin egian. Baiña ezin gorde zeitekean.

Alaba txerren zikiñez eukan kanaandar emakume batek, Aren barri entzun ebanean, alde areitatik urten eta deadarrez zirautsan: "Jauna, Dabid'en Seme ori!, erruki zakidaz; nire alaba txerrenak oiñazez darabil".

Jesus'ek ez eutsan itzik erantzun. Eta Aren ikasleak urreraturik, eskatzen eutsoen, esanaz: "Bialdu egizu emakume ori, oiuka ondotik datorkigu-ta".

Jesus'ek erantzun eutsen: "Israel-etxeko ardi galduakana bakarrik bialdua naz".

Baiña emakumea —atzerritarra zan bera, Si-rofeniziarra— joan yakon eta Aren oiñetara auzpezturik, gurtu eban, esanaz: "Jauna!, lagun zakidaz".

Ta bere alabagandik txerrena jaurteko eska-

tzen eutsan. Jesus'ek erantzun eta dirautso: "Itzi lenengo semeak bete daitezana; ez da on umeai ogia kendu ta txakurtxoai emotea-ta" (1).

Emakumeak erantzun eutsan: "Bai, Jauna, bai; baiña txakurkumak, bere, maipean etxeko jaunen eta umeen ondakiñak jaten dabez".

Orduan Jesus'ek esan eutsan: "Emakume!, andia da zure sinismena; nai dozuna bete beki-zu. Zoaz; zure alabagandik txerrena urten da".

Ta orduantxe alaba osatu zan. Etxera joanda, neskak ogean etzunda idoro eban; txerrena, barriz, urtenda.

142. *Jesus'ek gizon gor-mutua osatzen dau.*

(Mk. 7, 31-37)

Gero, Tiro'ko bazteraldetik urtenda, Sidon-zear Galilea'ko itxasoruntz jo eban, Dekapoli-mugetatik (2). Eta gizon gorra ta mutua ekarri eutsoen, aren gainean eskuak ezarteko Jesus'i eskatzen eutsoela. Onek, gizona artu ta gizataldeagandik alde-eginiñik, mutuaren belarrietan atzamarrak sartu ta miñean txistu (*txu*) egin eutsan; gero zeruruntz begiraturik eta antzi (*zizpuru*) egiñez, dirautso: "*Ephphata*, au da, "zabaldu zadiz".

(1) Jaungoikoaren etxeko umeak: judarrak. Txakurak, barriz, atzeritarrak. Eta emakume ori, atzeritarrak zan. Elduko zan oneintzat be osatzeko ta gaizkatzeko aldia.

(2) Dekapolis: amar urik (errik) egiten eban.

Ta beingoan aren belarriak zabaldu ta min-lokarria askaturik, garbi itz egiten asi zan. Eta iñori ez esateko agindu eutsen; baiña Jesus'ek gogorrago agindu, ta besteak barria geiago zabaltzen eban. Arriturik egozan, eta iñoen: "Dana ondo egin dau; gorrai entzutea ta mutuai itz egitea emon dautse".

143. *Beste geiso asko osatzen dauz.*

(Mt. 15, 29-31)

Jesus, mendi batera igorik, antxe jazarri zan. Eta gizatalde andiak urreratu yakozan, mutu, itsu, erren, elbarri ta beste geiso asko eurek azekazela, ta Aren oiñetara jarri ebezana: eta Jesus'ek osatu egin ebazan. Gizataldeak, barriz, arriturik egozan, mutu areik itz egiten, errenak bizkor ibiltzen, ta itsu areik ikusten ikusirik; eta Israel'en Jaungoikoa goren eban.

144. *Ogi ta arraiñen bigarren ugariketa.*

(Mt. 15, 32-38. Mk. 8, 1-8)

Gizatalde andia egoan barrero, bere, egun aretan, eta jatekorik ez eban. Eta Jesus'ek, bere ikasleai dei egiñik, esan eutsen: "Gizatalde oni erruki nakio; iru egunotan Nigaz dabilta eta jatekorik ez dabe. Ez dodaz baraurik etxera bialdu nai, bidean ondezik jarri ez dadizan, orreita-ko batzuk urrindik etorri dira-ta".

Ikasleak erantzun eutsoen: "Nondik atarako dogu basamortu onetan, gizatalde andi ori asezteko beste ogi?".

Jesus'ek itandu eutsen: "Zenbat ogi dauka-zue?".

Areik erantzun eutsen: "Zazpi, ta arraintxo batzuk".

Eta gizataldeari lurgaiñean jezarteko agindu eutsan. Gero zazpi ogiak eta arraiñak artu ta eskerrak egiñik, zatitu ta bere ikasleai emon eutsesan, eta ikasleak gizataldeari. Guztiak jan eben eta bete ziran; eta gelditu ziran ondakiñez, zazpi otzara hete jaso ebezan. Jan ebenak lau milla gizon-edo ziran, umeak eta emakumeak zenbatzeke. Eta bialdu ebazan.

145. *Pariseotarrak ezaugarri-eske.*

(Mt. 15, 39; 16, 1-4. Mk. 8, 10-13)

Eta gizataldea bialdurik, bereala bere ikasleak aztu ziran baten sartu ta Dalmanuta edo Magadan aldera joan zan.

Eta pariseotarrak eta sadukeotarrak Jesus' egana zirika urreraturik, Aregaz eztabaidan asi ziran, zeru-mirari bat azpikeriz eskatzen eutsela.

Jesus'ek erantzun eta esan eutsen: "Arratsaldea etorri, ta diñozue: Eguraldi ona izango da, ortzea (*zerua*) gorri-gorri da-ta. Goizean, barriz: Gaur ekaitza dogu, ortzea gorri-goibel da-ta (1).

(1) Euskeraz: "arrats gorri, biar ozkarbi; goiz gorri, arrats-euri". Goi-Naparroa'n: "Arrats gorri, eguraldi; goiz gorri, eurilari". (Azkue, Eusk. Yak., III'gn. Idaz., 113 orr.).

Beraz, ortzearen (*zeruaren*) arpegia ezagutzen badakizue, ta aldien ezaugarriak, barriz, ezin igarri daitezue?".

Eta bere barruan antzi (*zizpuru*) egiñez, esan eban: "Gizaldi au, zegaitik dabil mirari-eske? Benetan dirautsuet: gizaldi gaizto ta zantar oni Jonas igarlearen ezaugarria baiño ez yako emongo".

Eta areikandik aldendurik, barrero ontzira igo ta beste itxas-ertzeruntz joan zan.

146. *Pariseotarren legamiña.*

(Mt. 16, 5-12. Mk. 8, 14-21)

Ikasleak ontzian sartu ziranean, ogiak artzeaz aztu ziran, eta ogi bat baiño ontzian ez euken. Eta Jesus'ek aolkuz zirautsen: "Begira: zur egon zaitezte pariseotar eta sadukeotarren legamiñari buruz ta Erodese'n legamiñari buruz".

Areik, barriz, euren artean iñoen: "Ez dogu ogirik ekarri ta..."

Jesus'ek, igarrita, esan eutsen: "Zetan diarduzue alkarregaz, siniste otzekook, ogirik ez dozuela-ta? Oraindaño ez dozue igarri ta ulertu? (1). Orrenitsu dozue oraindik biotza? Begiak izanda, ez dakutsue (*ez dozue ikusten*)?, belarriak izanda, ez dozue entzuten? Eta ez dozue gogora-

(1) Ikasleak lurreko gauzakaz pentzetan ziarduen, eta ez ziran konturatzen Mesias'en goi-indarrak; ogiak artzeaz aztu ziran, eta zelan eta zer jango ete-eben, larri ta estu ziarduen.

tzen bost milla gizonentzako bost ogi zatitu nebazanean, zenbat otzara ondakiñez beterik jaso zenduezanik?”.

“Amabi”, —dirautsoe.

“Ta zazpi milla gizonentzako zazpi ogiak zatitu nebazanean, zenbat otzara ondakiñez beterik jaso zenduezan?”.

“Zazpi”, —diñotsoe.

Ta zirautsen: “Zelan ez dozue ulertzen oraindik, “zur egon pariseotarren eta sadukeotarren legamiñari buruz” esatean, ez neutsuela ogiaz itz egin?”.

Orduan ezagutu eben ez eutsela ogi-legamiñatik alde egiteko esan, pariseotar eta sadukeotarren ikasbidetik baiño.

147. *Betsaida'ko itsua.*

(Mk. 8, 22-26)

Eta Betsaida'ra datoz. Ta itsu bat dakarkioe, ikutu egiola eskaturik. Eta itsua eskutik artuaz, erritik kanpora atera eban; eta aren begiak txistus (*txuz*) bete ondoren, eta bere eskuak aren gaiñean ezarririk, ia ezer ekusan (*ikusten eban*) itandu eutsan. Arek, begira jarririk, esan eban: “Gizonak ikusten dodaz ibilten; zugatzak dirudie”.

Gero begietan barriro eskuak ezarri eutsan: orduan zuzen ikusten eban, eta osatuta, dana garbi ekusan. Eta Jesus'ek etxera bialdu

eban, esanaz: “Zoaz zure etxera; ta errira sartu ba'zadiz, iñori ez egiozu ezer esan” (1).

148. *Pedro'ren autorra. Pedro, Elizaren oiñarri ta buru.*

(Mt. 16, 13-20. Mk. 8, 27-30. Lk. 9, 18-21)

Jesus, andik urtenda, Filipino-Zesarea aldeko bazterretaruntz joan zan. Eta aruzkoan, Berak otoitzean bakarrik ziarduala, ikasleak be Aregaz egozan. Eta itandu eutsen: “Gizasemea nor dala diñoc gizonak?”.

Areik esan eutsen: “Batzuek, Jon Bateatzaillea; beste batzuek, Elias, beste batzuek, Jeremias edo igarleren bat, antxiñako igarleren bat berbiztuta”.

Jesus'ek esan eutsen: “Eta zuek, nor nazala diñozue?”.

Orduan, Pedro'k erantzun eta esan eutsan: “Zu Kristo zara, Jaungoiko biziaren Semea” (2).

Jesus'ek erantzun eutsan: “Zorionsua zara, Simon, Jonas'en seme ori: ez dautsu ez aragiak ez odolak ori agertu-ta, zeruko nire Aitak baiño. Nik, barriz, ba-dirautsut: Kepa —aitza— za-

(1) Itxuraz, itsua erritik kanpora bizi zan. Onegaitik, errian sartzeke joan zeitekean etxera.

(2) Jesus, Mesias edo Kristo ta Jaungoikoa dala, autortzen dau Pedro'k. Jaungoikoaren argiz bakarrik esan eikean ori Pedro'k. Judarrentzat barriz, gaizpide zan orrelakorik esatea. Onexegaitik gurutzeratu eben Jesus; alan bere, ez eban okertu nai izan Aitak aukeratu eutsan Gurutzerako bide ori. Elizaren buru izango dala, agintzen dautso Jesus'ek Pedro'ri.

ra zu, ta aitz orren gainean nire Eliza jasoko dot; eta inpernuko atepak ez dira aren aurka garaille* izango. Zeru-erreiñuko giltzak zeuri emongo daustudaz; eta zuk lurrean lotu dagizuna, zeruan bere lotua izango da; ta zuk lurrean askatu daizuna, zeruan bere askatua izango da”.

Eta bere ikasleai gogor agindu eutsen, Bera Kristo zala iñori bere ez esateko.

149. *Bere Nekaldi ta Berbizkundera argi ta garbi iragartzen dauz.*

(Mt. 16, 21-23. Mk. 8, 31-33. Lk. 9, 22)

Orduantxe asi zan Jesus bere ikasleai argi ta garbi esaten: “Gizasemea Jerusalem’era joan daiten bearrezko da, ta an zaar, idazlari ta abadenagusien aldetik, neke asko ta eriotza jasan bear izango dauz, ta irugarren egunean berbiztuko da”.

Orduan Pedro’k, Jesus bakarrean arturik, asarre egiten asi yakon, esanaz: “Ez orixe, Jaina!; ez yatzu orrelakorik jazoko (1).

Baiña Jesus’ek, biurtu ta bere ikasleak ikusirik, Pedro’ri agiraka egin cutsan, esanaz: “Alde zakidaz emendik, Satanas ori (2), Jaungoikoaren asmorik ez dozu-ta, gizonena baiño”.

(1) Kristo gurutzean il bearra zala, ez eben iñola sinisten judarrak, ezta Apostoluak bere, Arein eritiz, Mesias’ek gizon ospatsu ta garaillea izan bear eban. Jesus berbiztu zan arte, ez ebezan ulertu Aren nekaldia ta eriotza.

(2) **Satanas ori: arerio ori.**

* Garaille: vencedor, triunfador.

150. *Norberaren burua ukatu bearra.*

(Mt. 16, 24-28. Lk. 9, 23-27. Mk. 8, 34-39)

Orduan Jesus’ek, bere ikasleai ta gizataldeari dei egiñik, guztiai esan eutsen: “Nire ondotik iñok etorri nai ba’dagi, bere burua ukatu ta bere gurutza artu begi, ta jarraitu beist. Bere bizitza gorde nai dagianak, galduko dau; baiña Nigaitik eta Barri Onagaitik galdu dagianak, gordeko dau. Gizonari zetarako litzakio, bada, lur osoa irabaztea, bere bizitza galdu ezkeroko? (1). Edo-ta, zer emon daike biziaren ordaiñez? Gizaldi zantar ta oker onetan norbait Nitzaz ta nire itzaz lotsa ba’dadi, Gizasemea be aretzaz lotsa izango da, Bere ospez ta Aitaren aintzaz bere Aingeru deunakaz etorri daitenean. Izan bere, Gizasemea bere Aitaren aintzaz bere Aingeruakaz etorriko da; ta orduan bakoitzari bere egiñen arauz ordainduko dautso”.

Ta zirautsen: “Egiz dirautsuet: emen dagozanen artean ba-dira batzuk, Jaungoikoaren erreiñua bere indarrez ta Gizasemea bere erreiñu-aintzaz etortzen ikusi arte, eriotza ezautuko ez dabenak” (2).

(1) “Bere bizitza galdu”, emen betiko ondatzeko edo inpernura joateko adierazoten dau.

(2) Ez da Kristo’reñ azken-etorrera, lenagokoa baiño: Jesus’en Barri Onaren zabaltzea atzerritarren artean, urrean.

151. *Jesus'en irudi-aldatzea.*

(Mt. 17, 1-9. Lk. 9, 28-36. Mk. 9, 1-8)

Itz oneik esan eta sei-zortzi egun ondoren, Pedro, Jakob (*Santiago*) ta onen anai Jon bakarrean artu, ta mendi goi batera daroaz, otoi egitera. Ta otoi-egitean, arein aurrean irudiz aldatu zan. Aren (*Jesus'en*) arpegia antzaldatu ta eguzkia baizen ditziratsu biurtu zan, eta Aren jantziak edurra baizen zuri, iñongo zuritzaillek ezin zuritu leikeazan aiña. Gizon bi agertu yakezan, eta Jesus'egaz izketan ziarduen. Moises ta Elias ziran, ospe aundiz inguratuta, ta Jesus'ek Jerusalem'en izango eban urteeraz (*edo eriotzaz*) itz egiten eben.

Bitartean, Pedro ta here lagunak loak arturik egozan; eta iratzartu ziranean, Jesus'en aintza ikusi eben, baita Aregaz egozan gizon biak bere. Eta oneik Jesus'egandik alde egitean, Pedro'k Jesus'i esan eutsan: "Jauna, emen ederto gengokez; Zuk nai ezkeru, iru txabola egin dagiguzan: Zuretzat bat, Moises'entzat beste bat, eta Elias'entzat beste bat".

Zer iñoan bere ez ekian, oso ikaratuta egozan-eta. Arela oraindagiño itz egiala, odei argitsu bat etorri ta estaldu ebazan; eta odei aretan sartzean, bildurtu ziran. Baiña odeitik abots batek iñoan: "Auxé da atsegin dodan nire Seme kutuna: Berak diñoana entzun egiozue".

Eta ikasleak, abotsa entzunda, auzpez jausi ziran eta guztiz ikaratu ziran.

Orduan, Jesus urreratu yaken, ikutu ebazan eta esan eutsen: "Jagi ta ez bildurrik izan".

Areik, barriz, begiak jasorik, alde guztietara begiratu eben; baiña Jesus baiño ez eben ikusi. Gero, menditik jastean, Jesus'ek agindu au egin eutsen: "Ikusi dozuena iñori bere ez esan, Giza-semea illen artetik berbiztu arte".

Eta areik ixilik egon ziran, eta ikusitakorik ez eutsen iñori esan egun areitan.

152. *Elias'en etorkundeaz.*

(Mt. 17, 10-13. Mk. 9, 9-12)

Ta ikasleak itandu eutsoen, esanaz: "Zegaitik diño, bada, parisotarrak eta idazlariak, lenengo Elias etorri bearra dala?".

Jesus'ek, erantzunik, esan eutsen: "Bai, lenengo Elias etorriko da; ta etorri daitenean, dana zuzenduko dau. Ta zelan dago idatzita Gizasemeari buruz, neke asko jasan bear dauzala, ta gutxietsia izango dala? Baiña Nik, Elias etorri dala dirautsuet; ez dabe, ostera, ezagutu, ta nai izan eben guztia egin eutsoen, aretzaz idatzita dagoanez. Arelaxe, Gizasemeak be gorriak ikusiko dauz arein aldetik".

Orduantxe ulertu eben ikasleak, Jon Bateatzailleari buruz itz egin eutsela.

153. *Mutiko illargi-geisoa osatzen dau.*

(Mt. 17, 14-17. Mk. 9, 13-26. Lk. 9, 37-43)

Biamaronean, ikasleakana biurtu zanean, gizatalde aundia arein inguruan ikusi eban, eta idaz-

lari batzuk areikaz eztabaidan. Jesus ikusita be-
realaxe, gizataldeko guztiak ikaratu ziran, eta
Aregana arin joanik, agur egiten eutsoen. Jesus'
ek itandu eutsen: "Zer dala-ta eztabaidan diardu-
zue?"

Eta gizataldeko gizon batek, erantzunik, esan
eutsan: "Irakasle, nire semea ekarri dautsut: txe-
rren mutu batek artuta dauko; ta artzen dauan
bakoitzean, lurrera jaurten dau, ta beingoan ga-
rrazika asten da ta agotik bitsa dariola ta agin-ka-
rraska ta legortuta izten dau; nekez urteten da
aregandik lenengo astin-astin egiteke. Zure ikas-
leai ekarri ta txerrena jaurti egioen eskatu dau-
tset; baiña ezin izan dabe".

Ta belaunikoturik eta deadarrez, esan eban:
"Jauna!, nire semeaz erruki zaitetz, illargi-geisoa
ta mutua da-ta. Irakasle, begira, arren: seme ba-
karra dot-eta".

Jesus'ek, erantzunik, esan eban: "Au gizaldi
sinisgabe ta biurria! (1). Noiz arte egongo naz
zuekin? Noiz arte jasan bear zaituet? Ekarri egi-
dazue ona mutiko ori".

Ta ekarri eutsoen. Urreratzean, txerren gaiz-
toak Jesus ikusi ebaneko, mutilla lurrera jaurti
ta astintzen eta bihurtzen asi zan, bitsa zeriola. Aren
aitari Jesus'ek itandu eutsan: "Noiz ezkeru jazo-
ten yako ori?"

(1) Naigabezko esatera da, bere ikasleak be ain
sinismen otza dabela ikustean. Orraitiño, errukitu ta
osatu egiten dau txerrenduna.

"Umetatik", —erantzun eutsan—. "Sarritan ure-
tara ta sutara bere jaurti dau, il zedin. Baiña,
Zuk ezer al ba'daikezu, gutzaz erruki zaitetz ta la-
gun zakiguz".

Jesus'ek esan eutsan: "Zeuk diñozu: "Ezer al
ba'daikezu! (1). Sinistu ba'daizu, guztia bete
daiteke".

Bereala mutikoaren aitak, negarrez ta oiuka,
zirautsan: "Jauna, sinisten dot; lagun zakioz nire
siniste otzari".

Orduan Jesus'ek, gero-ta gizatalde aundiagoa
etorkiola ikusirik, txerren zikiñari agiraka agin-
du eutsan, esanaz: "Txerren gor ta mutu ori!, Neuk
agintzen dauat: urten adi orregandik, eta barrero
ez akio bein bere sartu".

Orduan, karrazika ta mutikoa astin-astin egi-
ñik, aregandik urten zan; mutikoa ilda legez gel-
ditu zan, eta askok iñoen: "Il da". Baiña Jesus'
ek, eskutik oratu ta jaso eban; eta zutitu zan; eta
aitari emon eutsan. Eta ordutixek osatuta aurkitu
zan.

154. *Otoitzaren eta barauaren indarra.*

(Mt. 17, 18-21. Mk. 9, 27-28)

Gero, Jesus etxean sartu zanean, ikasleak

(1) Mutikoaren aitak esan dauanaz: "Zuk ezer al
ba'daikezu", diardu. Itxuraz, aitak ez eban ziur-ziur si-
nisten bere semea osatuko ebanik. Eta Jesus'ek aitaren
ezpai edo zalantza kentzen dau lenengo, eta gero, ai-
taren sinismenaren indarrez, mutikoa bere osatu egiten
dau.

urreratu yakozan eta bakarrean itandu eutsoen: "Zegaitik guk txerren ori ezin jaurti izan dogu?".

Jesus'ek esan eutsen: "Zuen siniste otzagaitik. Benetan dirautsuet: zerba-azia besteko sinistea ba' zenduke, mendi orri esango zeuskioe "ortik ara oa", ta aldatuko litzake, ta ezin daitekenik zuentzat ez litzake. Eta txerren-mota ori jaurteko, barriz, otoi ta barauak baiño beste biderik ez dago".

155. *Jesus, Jerusalem'era igoten da.*

(Mk. 9, 29. Jon 7, 2-10)

Urreratzen joian judatarren jai bat, Txabola-jai (1). Ta Aren senideak esan eutsoen: "Alde egizu emendik ta zoaz Judea'ra, Zuk egiten dozu-zanak zure ikasleak ikusi dagiezan. Bere burua erakutsi nai dagianak, iñok bere ez dau ezer ezkutuan egiten-eta. Orrelakoak egiten diarduzun ezkeru, guztien aurrean agertu zaitez" (2).

Aren senideak be ez eben Aregan sinisten-eta. Beraz, Jesus'ek dirautse: "Ez da oraindagiño nire sasoiu eldu; zuen sasoiu, barriz, beti ger-tu dago. Gaiztoak ezin dautsue gorrotorik izan; Niri, osteru, bai, gorroto dauste, arein egiñak txar-rak dirala autortzen dot-eta. Zoaze zeuok jai orre-

(1) Txabola-jaiu, guztietatik alaienu ta errikoienu zan. Udazkenean ospatzen zan, solo-arnariakaitik Jau-nari eskerrak egiteko, ta etorren azarorako euriu eskatzeko. Egun oneitan, zugatz-adarrez egindako txaboletan bizi ziran.

(2) Jesus'en senideak, mirari arrigarriak egizala Jesus'ek, nai eben.

tara: Ni, barriz, ez noa jai orretara, nire garaia (*sasoiu*) oraindagiño ez da bete-ta".

Au esandu, Bera Galilea'n gelditu zan. Baiña Aren senideak igo ziranean, Bera be jaitara igo zan, ez agirian, ezkutuan baiño. Eta Galilea-zear joiazala, ez eban nai iñok jakin egian.

156. *Jesus Elizanagusienu irakasten.*

(Jon 7, 11-29)

Judarrak, barriz, Aren (*Jesus'en*) billa ebil-tzan jai-artean, esanaz: "Non dago ori?". Ta zurru-murru aundienu sortu zan Beratzaz errikoen artean. Eta batzuek iñoen: "Zintzoa da"; beste batzuek: "Ez; errienu naasten dau-ta". Alan bere, judarren bildurrez, iñok ez eban Aretzaz agirian itz egiten (1).

Jaiaren erdi aldean, Jesus Eliz-nagusienu igo ta irakasten asi zan. Eta judarrak, arrituta, iñoen: "Zelan ete dakiz onek Idaztiak, iñon ikasi ez-ta?".

Jesus'ek erantzun eta esan eutsen: "Nire irakaspenu ez da nireu, Ni bialdu nauarenu baiño. Jaungoikoaren gogoa iñok egin nai ba'dagi, nire irakaspenu Jaungoikoagandikoa ete-dan, ala nire buruz itze egiten dodan ezagutuko dau. Bere buruz itz dagianak, norberaren aintza billatzen dau; bialdu duanaren aintza billatu dagianu, barriz, egiti da, ta aregan gaiztakeririk ez dago. Ez dautsue Moises'ek Legea emon? Alan bere, zuetariko

(1) Judarren bildurrez, au da, judatar agintarienu bildurrez, onek beti Jesus'en aurka ziarduen-eta.

batek bere ez dau Legea beteten. Zegaitik il nai nozue?”.

Gizataldeak erantzun eta esan eutsan: “Txerrena dozu; nok il nai zaitu?”.

Jesus'ek erantzun eutsen: “Egintza bat egin dot (1), eta guztiok arritzen zaree. Alan bere, erdaintzuntza* Moises'ek emon eutsuen (ez Moises'ek asmatuta, barriz, asabakandik artuta baiño), ta zuek gizonaren erdaintzuntza larunbatez egiten dozue. Moises'en legea ez austeko, gizonaren erdaintzuntza larunbatez bere egin ba'daizue, larunbatez gizon osoa osatu dodalako asarre zatorkidaze? Azaletik ez ebatzi, zuzenbidez baiño” (2).

Eta Jerusalem dar batzuek iñoen: “Ez al da au il nai dabena? Or dago, bada, agirian itz egiten, eta iñok ez dautso ezer esaten. Ala, gure nagusiak ezagutu ete-dabe egiz, Mesias dala au? Baiña au nongoa dan ba-dakigu; Mesias etorri daitenean, barriz, iñok ez dau jakingo nongoa dan” (3).

Eta Jesus'ek, Eliz-nagusian irakasten ziarduala, deadarrez iñoan: “Ni ezagutzen nozue, ta nungoa nazan bere ba-dakizue (4). Baiña ni ez naz

(1) Elbarriaren osatzea.

(2) Jesus'ek larunbatez be osakuntzak egiten ebazala-ta, judarrak asarre ziran, eta Jesus'i aurpegira jaurten eutsen ori.

(3) Mesias ezkutuz etorriko zala uste eben, nondik jakiteke.

(4) Jesus'ek diño: Nire gizarte-jatorria ba-dakizue; baiña jaungoikozko beste jatorri bat dot: Ni Aitagandik nator.

* Erdaintzuntza: circuncisión.

nire buruz etorri; beste batek bialduta etorri naz, ta Bera egiti da. Zuek ez dozue A (*Jaungoiko Aita*) ezagutzen; Nik, bai, ba-dazaut (*ezagutzen dot*), Aregandik nator eta Berak bialdu nau-ta”.

157. *Judarrak Jesus arrapatzea nai dabe.*

(Jon 7, 30-36)

Orregaitik, Jesus arrapatu ta lotzeko asmoa artu eben; baiña iñok ez eutsan eskurik gaiñean ezarri, Aren sasoi ez zan oraindaiño eldu-ta. Baiña gizataldeko askok sinistu eben, eta iñoen: “Mesias etorri daitenean, Onek baiño mirari geiago egingo al dauz?”.

Erriaren esamesok pariseotarrak entzunda, agintari ta pariseotarrak marroiak bialdu ebezan, Jesus lotzeko. Eta Jesus'ek esan eutsen: “Oraindik apur baten zuekaz nago, ta gero bialdu nauarengana noa (1). Nire billa ibilliko zaree, ta ez nozue idoroko; eta ni egon naiten tokira, zuek ezin etorri zaitekeze”.

Judarrak alkarri zirautsen: “Nora joango ete da ba, au, ez dogu idoroko-ta? Atzerritarrakana joango ete-yaku, atzerritarrak irakastera? Zer da esan dauskun au: “Nire billa ibilliko zaree, ta ez nozue idoroko”; ta “Ni egon naiten tokira, zuek ezin etorri zaitekeze”?

(1) Bere eriotzaz diño. Geroago judarrak Aren billa ibilliko dira; baiña alperrik. Billa ibilliko dira, bai; baiña ez maitasunez, etsipenez baiño.

158. *Jaietako azken-eguna: Espiritu Santua agintzen dau.*

(Jon 7, 37-39)

Jaietako azken-egunean, egunik aundienean, Jesus an egoan deadarrez esaten: "Egarri dadiña, betorkit eta edan begi. Nire sinistea dagianari, Idatzitakoak diñoanez (1), barrutik ur bizizko ibaiak jariongo yakoz". Bera sinisten ebenak artu bear eben Espiritu Santuagaitik esan eban au; Jesus oraindik ez zan goretsia izan-eta, Espiritu Santua oraindik emon ez yakelako (2).

159. *Jesus dala-ta, gizataldekoen artean eztabaida sortzen da.*

(Jon 7, 40-44)

Gizataldeko batzuek, Jesus'en itzok entzunda, iñoen: "Auxe da benetan Igarlea". Beste batzuek iñoen: "Auxe da Mesias". Beste batzuek, barriz, iñoen: "Baiña Mesias Galilea'tik etorriko al da? Ez ete-diño Idazti Deunak Dabid'en jatorritik, eta Dabid egoan Betlem erritik etorriko dala Mesias?" (3).

Beraz, gizataldean eztabaida sortu zan Aretzaz. Eta areitako batzuek Jesus arrapatu ta lotu nai eben; baiña iñok bere ez eutsan eskurik gainean ezarri.

(1) Is. 44, 3; 55, 1; 58, 11. Ezek. 47, 1.

(2) Geroago emongo yaken Espiritu Santua, Jesus herbiztuta gero.

(3) 2 Reg. 7, 12. Ps. 88, 3.

160. *Jesus dala-ta, batzar nagusikoak eztabaidan.*

(Jon 7, 45-53)

Beraz, morroiak abade-nagusi ta pariseotarrakana biurtu ziran; eta oneik esan eutsen: "Zer dala-ta ez dauskuzue gizona ekarri, bada?".

Morroiak erantzun eutsen: "Iñoz ez da izan gizon onek legez itz egin dauan gizonik".

Pariseotarrak erantzun eutsen: "Zer, zuek bere Bereganatu zaitue? Agintari edo pariseotarren artean ba al dago bat, bere, sinistu dautsanik? Legea ez dakien gizataldekoak, bai; madarikatuak bediz!".

Areitako batek, Nikodemo'k, beiñola gabez Jesus'egana etorri zanak, dirautse: "Cure Legeak iñor epaitzen ete-dau, bera lenengo entzuteke, ta zer egin dauan jakiteke?".

Erantzun eta esan eutsen: "Zer, zu be Galilea'tarra al zara? Idaztiak aztertu ta ikusiko dozu: Galilea'tik ez da Igarlerik sortu (1).

Eta bakoitza norberaren etxera biurtu zan.

161. *Emazte lizunkoia.*

(Jon 8, 1-11)

Jesus, barriz, Oliamendi'ra joan, eta biaramonean, goizean-goiz, Eliza-nagusira biurtu zan. Erri guztia Aregana joian; eta Berak, jezarririk, irakatsi egiten eutsen. Ezkontza loitzen artutako

(1) Oker iñoen, Galilean be igarleak izan ziran-eta. Gaiñera, Jesus Judea'ko Betlem'en jaio zan, baita Aren aurretikoak bere.

emakume bat idazlari ta pariseotarrak Aregana ekarri ta erdian jarririk, Jesus'i dirautsoe: "Irakasle, emakume ezkondu au ezkontza loitzen* aurkitu dabe oraintxe. Onelako emakumeak arrika ilteko agindu euskun legean Moises'ek. Zer diñozu, bada, Zuk?".

Ori azpikeriz zirautsoen, salatu al izateko. Baiña Jesus, makurtuta, atzamarraz lurrean idazten asi zan. Eta areik itaunka ekin eutsoen-eta, Jesus'ek, burua jasorik, esan eutsen: "Zuen artean pekaturik бага egon dadiñak, lenengo arria jaurti begio".

Ta barriro makurtuta, lurrean idazten ziarduan. Areik, ostera, ori entzunik, banaka-banaka alde egiñez joiazan, zaarrenetatik asita; ta bakarrik gelditu zan Jesus, ta emakumea erdian zutik. Orduan Jesus'ek, burua jasorik, esan eutsan: "Emakume, non dira zure salatzaileak? Iñok bere ez zaitu gaitzetsi (*galdu*)?".

Emakumeak esan eutsan: "Iñok bere ez, Jauna".

Ta Jesus'ek esan eutsan: "Ezta Nik bere ez zaitut gaitzetsiko. Zoaz, ta ez egin pekaturik barriro" (1).

(1) Pekatua gaitzesten dau, ez pekataria. Jesus, zuzena, baiña errukiorra bere ba-da.

* Ezkontza-loitzen: beste gizon bategaz aragizko pekatu egiten.

162. *Jesus, gizargia da.*

(Jon 8, 12-20)

Barriro be Jesus'ek itz egin eutsen, esanaz: "Neu naz gizargia; jarraitu daistana, ez da illunetan ibilliko; bizi-argia beragaz izango dau, ostera".

Pariseotarrak esan eutsoen: "Zuk zeutzaz autor egiten dozu. Zure autor orrek indarrik ez dau".

Jesus'ek, erantzunik, esan eutsen: "Nik neutzaz autor egin arren, nire autor onek ba-dau indarra: nondik etorri nazan eta nora noan ba-dakit-eta; zuek, ostera, ez dakizue nondik natorren eta nora noan. Zuek aragiaren araeuz epaitzen dozue: Nik ez dot iñor epaitzen. Eta Nik epaitu arren, epai au zuzena da; ez nago Ni bakarrik-eta, bialdu nauan Aita Neugaz dago-ta. Zuen legean idatzita dago gizon biren autorra egiazkoa dala. Nik, neutzaz autor dagit, eta Ni bialdu nauan Aitak bere, Nitzaz autor dagi".

Orduan zirautsoen: "Non da zure Aita?".

Jesus'ek erantzun eutsen: "Ez Ni, ezta nire Aita bere ez gauzuez ezagutzen; ezagutu ba'nengizue, nire Aita bere ezagutuko zeukee".

Itzok, diru-toki ondoan esan ebazan Jesus'ek, Eliza-nagusian irakasten ziarduan artean; eta ez eban iñok lotu. Aren garaia (*sasoia*) oraindik ez zan etorri-ta.

163. "Ni noan tokira, zuek ezin etorri".

(Jon 8, 21-30)

Barriro, bere, Jesus'ek esan eutsen: "Ni ba-noa, ta nire billa ibilliko zaree, ta zuen pekatuetan ilgo zaree. Ni noan tokira, zuek ezin etorri zaitkeze".

Judarrak iñoen: "Onek bere burua ilgo ete-dau?, "Ni noan tokira, zuek ezin etorri zaitkeze" diño-ta?"

Jesus'ek esan eutsen: "Zuek, bekoak zaree; Ni, goikoa naz; zuek, lur onetakoak zaree; Ni ez naz lur onetakoa. Zuen pekatuetan ilgo zareela esan dautsuet; nor nazan sinistu ez ba'dagizue, zuen pekatuetan ilgo zareelako" (1).

Beraz, zirautsen: "Nor zara Zu?" (2).

Jesus'ek erantzun eutsen: "Asieratik zuei esaten diardudana. Zuei buruz, esatekorik eta erabagitekorik asko dot; baiña bialdu nauana (*Aita*), egiti da; ta Nik Ari entzun neutsana, axe irakasten dautsat gizadiari" (3).

Areik, barriz, ez eben ulertu Bere Aitari Jaungoikoa eritzala. Beraz, Jesus'ek esan eutsen: "Gizasmea gora jaso daizuenean (4), orduantxe eza-

(1) Neu nazala zuek itxaroten dozuen Salbatzailec.

(2) Lenago bere esan eutsen nor zan, eta ainbat bidar zirautsen.

(3) Asmatutako gauzak ez ziran, zuzenak baiño. Aita egiti danez, Ari entzundakoa diño bakarrik. Orain ez eban epaitzera bialdu, gaizkatzera (salbatzera) baiño.

(4) Gurutzean jaso.

gutuko dozue Ni nor nazan, eta nire buruz ez dodala ezer egiten; nire Aitak irakatsi eustana diñot, besterik ez. Eta bialdu nauana Neugaz dago; ta ez nau bakarrik itzi: Berak atsegin dauana egiten dot Nik beti-ta".

Itzok esatean, lagun askok sinistu eben Aregan.

164. *Jaungoikoaren semeak eta txerrenkumeak.*

(Jon 8, 31-47)

Sinistu eben judarrai, bada, Jesus'ek esan eutsen: "Nire esanetan iraun ba'daizue, benetan nire ikasleak izango zaree, ta egia ezagutuko dozue, ta egia askatuko zaitue".

Erantzun eutsoen: "Abraham'en jatorriko gara, ta ez gara egundo iñoren mendeko izan: zer dala-ta diñozu, bada: "askatuak izango zaree?" (1).

Jesus'ek erantzun eutsen: "Bene-benetan dirautsuet: pekatu dagian edonor, pekatuaren mendeko da. Morroia, ez da etxean betiko egoten: semea, barriz, bai, betiko egoten da. Beraz, Semeak askatu ba'zagiez, benetan aske izango zaree. Ba-dakit Abraham'en jatorriko zareela; baiña bizia kendu nai daustazue, nire itza zuekan jarten ez dalako. Nik, nire Aitagari ikusi nebana diñot;

(1) Olantxe erantzuten dabe gizatalde-arteko Jesus'en arerioak; iñoiz ez eben sinistu areik Jesus'ek iñocana.

zuek, barriz, zuen aitagan ikusi zenduena dagi-
zue (*egiten dozue*)”.

Erantzun eta esan eutsoen: “Gure aita, Abra-
ham da”.

Jesus'ek dirautse: “Abraham'en seme ba'za-
ree, Abraham'en egiñak egizue: zuek, barriz,
Jaungoikoari entzun neutsan egia esan dautsue-
dalako, orain bizia kendu nai daustazue. Ori ez
eban Abraham'ek egin. Zuek, zuen aitaren egiñak
dagizuez”.

Esan eutsoen: “Ez gara gu sasikumeak: Jaun-
goikoa baiño beste aitarik ez dogu”.

Jesus'ek esan eutsen: “Jaungoikoa zuen Aita
ba'litz, Neu be maite izango nendukezue: Jaun-
goikoagandik sortu ta etorri naz-ta. Ni ez naz, ba-
da, nire buruz etorri, Berak bialduta baiño. Ze-
gaitik ez dozue nire izkuntza ulertzen? Nire itza
ezin jasan dozuclako. Txerrena da zuen aita, ta
zuen aita orren asmoak bete nai dozuez. Ori, gi-
zoz iltzaillea zan asieratik, eta ez eban egitan
iraun, egirik aregan ez dago-ta. Guzurra esatean,
berak dauanetik diardu, guzurtia ta guzurraren
aita da-ta. Nik, barriz, egia dirautsuet, eta zuek
ez daustazue sinisten. Zuetariko nok artuko nau
pekataritzat? Egia esan ba'dagituet, zegaitik ez
daustazue sinisten? Jaungoikoagandik d a n a k,
Jaungoikoaren itza aditzen dau; zuek, barriz,
orrexegaitik ez dozue aditzen: Jaungoikoarenak
ez zareelako”.

165. “Abraham sortu izan baiño len,
ba-naz ni”.

(Jon 8, 48-59)

Orduan, judarrak erantzun eta esan eutsoen:
“Ez ete-dogu zuzen esaten, samaritarra zarala ta
txerrenak artuta zagozala?”.

Jesus'ek erantzun eutsen: “Txerrenik ez dot
Nik; Nik, nire Aita goersten (*goratzen*) dot, eta
zuek iraindu egiten nozue. Nik ez dot nire ospea
(*aintza*) billatzen; ba-da beste bat ori billatu ta
nire alde jagiko dana. Bene-benetan dirautsuet:
Nire itza gorde dagianak, ez dau eriotzarik iñoiz
ikusiko” (1).

Judarrak esan eutsoen: “Oraintxe bai, ezagutu
dogu txerrena dozula. Abraham il zan, baita igar-
leak bere: ta zuk diñozu: “Nire itza gorde dagia-
nak, ez dau eriotzarik iñoiz ikusiko”. Gure aita
Abraham baiño aundiagoa al-zara? A il zan, baita
igarleak bere il ziran. Nor zaralakoan zagoz?”.

Jesus'ek erantzun eutsen: “Nik nire burua go-
retsi ba'dagit, nire ospea ezer ez da; nire Aitak,
zuen Jaungoikoa dala diñozuen orrek goersten nau
Ni. Zuek ez dozue Aita ezagutzen; nik bai, oste-
ra, ezagutzen dot. Eta ez dodala ezagutzen esan
ba'negi, zuek baizen guzurtia nintzake; baiña bai,
nik ezagutzen dot, eta Aren itza beteten dot. Zuen
aita Abraham, nire eguna ikusi naiez, pozez be-
terik jarri zan: ikusi eban eta poztu zan”.

(1) Egintzak lagun dauzala, Kristo'gan sinistea da-
gianak, betiko bizitza izango dau.

Judarrak esan eutsoen: "Berrogetamar urte ez dozuz, ta Abraham ikusi dozula?"

Jesus'ek erantzun eutsen: "Bene-benetan diñotsuet: Abraham sortu izan baiño len, ba-naz Ni".

Orduan, areik arriak artu ebezan Ari jaurteko: baiña Jesus ezkutatu ta Eliza-nagusitik urten zan.

166. *Jaiotzez itsua.*

(Jon 9, 1-41)

Eta joan joiala, Jesus'ek jaiotzez itsua zan gizon bat ikusi eban. Eta ikasleak itandu eutsoen: "Irakasle, ori itsu jaioteko, nok pekatu egin dau orrek, ala orren gurasoak?"

Jesus'ek erantzun eutsen: "Pekaturik ez dau orrek egin, ezta orren gurasoak bere; Jaungoikoaren egintzak orregan agertu daitezen da ori. Eguna dadin artean (1) bialdu nauanaren lanak egin bear dodaz; ba-dator gaua, ta aretan iñok ezin lanik egin daike. Gizartean nagoan artean, gizargi naz".

Au esanda, txistu (*txu*) egin eban lurrera, ta txistuaz loa egiñik, loiaz itsuaren begiak igurtzi ebazan; eta esan eutsan: "Zoaz, ta Siloe'ko urtegian garbitu zaitetz" (Siloe itzak "Bialdua" adierazoten dau).

Joan zan, bada, itsua, garbitu ta ikusten eba-la biurtu zan.

Orduan, auzokoak eta gizon a len eskean ibil-

(1) Eguna: bizitza; gaua: eriotza.

ten ikusi ebenak, iñoen: "Ez al-da au jezarrita eskean ziarduana?". Batzuek iñoen: "Bai, auxeda". Beste batzuek, ostera: "Ez, aren antzeko bat baiño".

Baiña berak iñoan: "Bai, berbera naz".

Itandu eutsoen, bada: "Begiak zelan zabaldu yatzuz?"

Erantzun eutsen: "Jesus deritzan gizonak, loa eginda, begiak igurtzi ta esan daust: "Zoaz Siloe'ko urtegira, ta garbitu zaitetz". Ta ara joan, eta garbituta, ba-dakust".

Eta esan eutsoen: "Non dago bera?"

Ta dirautse: "Ez dakit".

Itsu izandakoa pariseotarrakana daroe. Jesus'ek loa eginda begiak zabaldu utsazan eguna, larunbata (*jaieguna*) zan. Barrero, bere, pariseotarrak itandu eutsoen, bada, zelan ikusi eban; eta arek esan eutsen: "Loia begi-gaiñean ezarri eustan, garbitu nintzan, eta orain ba-dakust".

Pariseotar arteko batzuek iñoen: "Gizon au Jaungoikoagandik ez dator, larunbata ez dau jai egiten-eta".

Baiña beste batzuek iñoen: "Pekatori batek onelako mirariak, zelan egin daikez?"

Eta eztabaida sortu zan arein artean. Beraz, itsuari barrero dirautsoe: "Begiak zabaldu dautsuzan orretzaz, zer diñozu zuk?"

Arek erantzun eutsen: "Igarle dala".

Baiña judarrak ez eben sinistu gizon a ikustea jadetsi eban itsua zanik, ikustun barriaren gu-

rasoai dei egin arte. Itandu eutsen, beraz: "Au al-da itsu jaio zala diñozuen zuen semea? Orain zelan dakus, bada?"

Aren gurasoak erantzun eta esan eutsen: "Au gure semea dana ta itsu jaio zana ba-dakigu. Baiña, orain zelan dakusan (*ikusten dauan*), ez dakigu, ezta begiak nok zabaldu dautsazan bere. Berari itandu egiozue; zentzuna ba-dau; berak bere buruaz itz egin begi".

Judarren bildur ziralako, esan eben ori areu gurasoak; orduko, bada, judarrak alkartuta egozan norbaitek Jesus Kristo'tzat artu ba'legi, sinagogatik jaurtia izan zedilla. Orregaitik itsuaren gurasoak esan eben: "Zentzuna ba-dau; berari itandu egiozue".

Beraz, itsu izandakoari barriro dei egin, eta esan eutsoen: "Jaungoikoari aintza emon egiozu (1). Guk ba-dakigu gizon ori pekatari dana".

Arek erantzun eutsen: "Pekadari ete-dan, nik ez dakit; auxe bakarrik dakit: len itsu nintzala, ta orain ba-dakust".

Esan eutsoen: "Zer egin eutsun? Begiak zelan garbitu eutsuzan?"

Arek erantzun eutsen: "Len bere esan neutsuen, eta entzun zenduen; zetarako barriro entzun nai dozue? Zuek be Aren ikasle izan nai dozue?"

Orduan, ari birao egiñik, esan eutsoen: "Zeu izan zaitez Aren ikasle; gu Moises'en ikasle gara.

(1) Au da: egia esan egizu.

Guk ba-dakigu Moises'i Jaungoikoak itz egin eutsala; au, barriz, ez dakigu nondik etorri dan".

Gizonak erantzun eta esan eutsen: "Auxe bai dala arrigarria! Zuek ori nongoa dan ez dakizue, ta Berak nire begiok zabaldu daustaz. Ba-dakigu pekatariak ez dautsela Jaungoikoak entzuten; Ari bildur dautsoenai ta Aren naia egiten dabenai, barri, entzuten dautsela (1). Egundo ez da entzun itsu jaiolari begiak iñok argitu dautsazanik. Bera Jaungoikoagandik ez ba'litz, ezin ezer egin leikean".

Erantzun eta esan eutsoen: "Pekatu utsetan jaio zintzazan, eta irakasten bere ba-zatorkiguz?"

Ta kanpora jaurti eben.

Gizona kanpora jaurti ebela Jesus'ek entzun eban, eta idoro ebanean, esan eutsan: "Gizascmearen sinistea ba-dozu?"

Arek erantzun eta esan eutsan: "Jauna, nor da Ori, Orregan sinistu dagidan?"

Jesus'ek esan eutsan: "Ikusi bere egin dozu zuk, eta zugaz izketan diarduana bera da".

Eta arek esan eban: "Sinisten dot, Jauna".

Ta, auzpezturik, gur egin eutsan. Orduan, Jesus'ek esan eutsan: "Epai-egitera etorri naz Ni gizarte onetara; ikusten ez dabenak, ikusi dagian; eta ikusten dabenak, itsutu daitezcan".

Aregaz egozan pariseotar batzuek, au emzunda, esan eutsoen: "Gu bere itsuak al gara?"

(1) Jaungoikoagana doan edonor, Arek abegi onez artzen dau.

Jesus'ek esan eutsen: "Itsu ba'zintzaze, pekatirik ez zenduke; orain, barriz, diñozue: "Guk ba-dakusgu (*ikusten dogu*)"; or, bada; zuen pekatuak ba-dirau".

167. Artzain Ona.

(Jon 10, 1-21)

"Bene-benetan dirausuet: arditegira atetik sartu bearrean, beste nonbaitetik sartu daitena, lapurra ta arrapatzaillea da. Atetik sartu daitena, barriz, artzaiña da. Oni artzaiñak atea edegiten dautso, ta aren deia ardiak ezagutzen dabe, ta berak bakoitzaren i enez bere ardiak deitu ta ateratzen dauz. Eta bere ardi guztiak ateratean, arein aurrean joaten da, ta ardiak ba-darraioe (*jarraitzen dautsoe*), aren abotsa ezagutzen dabe-ta. Arrotzari, barriz, ez dautsoe jarraitzen: iges egiten dautsoe, arrotzen deia ez dabe ezagutzen-eta" (1).

Jesus'ek ipuin au esan eutsen; baiña areik ez eben ulertu esan nai eutsena.

Beraz, barriro Jesus'ek esan eutsen: "Bene-benetan dirausuet: Neu naz ardi en atea. Nire aurretik etorri ziran guztiak, lapurrak eta arrapatzailleak dira, ta ardiak ez eutsen aditu. Nea naz atea. Nigandik sartu daitena, gaizkatuko (*salbatuko*) da; ta sartu-urtenak egingo dauz, ta

(1) Artalde, judar erria da. Artzain gaiztoak, guzurrezko igarleak dira, pariseotarrak; oneik artaldearen jagoleak ez ziran, euren ondasunen zaintzailleak baiño.

larrak aurkituko dauz. Lapurra ez da etorten, ostu, il eta ondatzeko baiño; Ni, barriz, *ardiai* bizia izan dagien eta ugari izan dagien etorri naz.

Artzain Ona Neu naz. Artzain onak bere bizia bere ardi en alde emoten dau. Morroiak, barriz, ardi en jabe ez danak, artzain morroiak, otsoa datorrela ikusitakoan, ardiak itzita iges egiten dau; ta otsoak artaldia arrapatu ta banatzen dau. Artzain morroiak iges egiten dau, morroia dalako, ta ardi en ardurarik ez daualako. Artzain Ona Neu naz, ta nereak ezagutzen dodaz, ta nireak ezagutzen nabe: Aitak Ni ezagutzen nauanez, ta Nik Aita ezagutzen dodanez: ta nire bizia ardi en alde emoten dot.

Artalde onetakoak ez diran beste ardi batzuk be ba-dodaz; oneik bere ekarri bear dodaz, ta nire deia entzungo dabe, ta artalde bat eta artzain bat bakarra izango da. Onexegaitik be Aitak maite nau: nire bizia emoten dodalako, naiz-ta barriro artzeko emon (1). Ez daust iñok niri *bizia* kentzen, Neuk neure gogoz emon baiño. *Bizia* emoteko (*galtzeko*) eskubidea dot, baita barriro artzeko bere. Agindu au nire Aitagandik artu dot".

Itzok zirala-ta, barriro be judarren artean eztabaida sortu zan. Areitako askok iñoen: "Txerrenak artuta dauko ta burutik eginda dago: ze-

(1) Gizonakaitik emoten dau bizitza, ta gizonaren onerako barriro artzen dau.

tarako entzuten dautsazue?”. Beste batzuek iñoen: “Itzok ez dira txerrendunarenak: itsuen begiak txerrenak argitu ete-daikez?”.

168. *Kristo'k bere Nekaldia ta Berbizkundera barriro aurretiaz iragartzen dauz.*

(Mt. 17, 21-22. Mk. 9, 30-31. Lk. 9, 44-45)

Galilea-zear ebillen artean, eta Berak eginda-koakaitik guztiak arrituta egozala, Jesus'ek bere ikasleai irakasten ziarduan, eta zirautsen: “Itzok zuen biotzetan artu egizuez: Gizasemea gizonen eskuetan itzia izango da, ta ilgo dabe; ta ilda gero, irugarren egunean, herbiztuko da”.

Baiña zirautsena, areik ez eben ulertzen, illuna zan areintzat-eta; orretzaz gaiñera, Berari itauntzeko bildur ziran. Eta biziro atsekabetu ziran.

169. *Kristo'k drakma biko txanpona ordaintzen dau.*

(Mt. 17, 23-26)

Kaparnaum'era eldu ziranean, drakma bikoa batzen ziarduenak Pedro'gana urreratu ta esan eutsoen: “Zuen irakasleak ez ete-dau drakma bikoa ordaintzen?”.

“Bai orixe”, erantzun eutsen.

Eta etxera eldu zanean, Jesus'ek aurea artu eutsen, esanaz: “Simon, zer deritzazu? Lurreko

erregeak noregandik jasoten dabez talak* eta zergak*? Euren semeakandik, ala arrotzakandik?”

Arek erantzun eutsen: “Arrotzakandik”.

Jesus'ek esan eutsan: “Beraz, semeak aske (*libre*) dira. Alan bere, gaizpiderik emon ez dadiogun, zoaz itxasora, ta amoa botata, atera daizun lenengo arraiña artu ta aren agoa zabaldu-rik, barruan estater bat idoroko dozu: artu, bada, ta Nire ta zure ordaintzat emon egiezu” (1).

170. *Zeru-erreñuan, nor da aundiena?*

(Mt. 18, 1-5. Mk. 9, 32-36. Lk. 9, 46-48)

Aldi arrean, Jesus etxean egoala, Arren ikasleak urreratu yakozan, esanaz: “Zeru-erreñuan aundiena nor da?”.

Euretatik aundiena nor ete-zan, alkarregaz eztabaida sortu zan. Baiña Jesus'ek, arein biotzetako asmakeriak igarririk, itandu eutsen: “Bidean zertzaz ziarduen (*zuek*)?”.

Areik, barriz, isildu ziran; euretatik aundiena nor ete-zan, bidean alkarregaz eztabaidan etorri ziran-eta. Jesus jezarri zan, amabiai dei-egin, eta esan eutsen: “Norbaitek lenena izan nai ba'dagi, guztien azkenengoa ta guztien mendeko izango da. Zuetan txikiena dana, orixe da aundiena-ta”.

(1) Eliza Nagusirako zerga edo tributua. Didrakma: 1,50 peseta. Estater: 3 peseta.

* Talak: censos.

* Zergak: tributos.

Gero Jesus'ek ume bati dei-egiñik, artu ta bere ondoan guztien erdian ipiñi eban; ta laztandurik, guztiai esan eutsen: "Benetan dirautsuet: umeak lakoak biurtu ta egin ez ba'zadize, ez zaree zeru-erreñuan sartuko. Beraz, umetxo au baizen txiki biurtu daitena, orixe da zeru-erreñuan aundiena. Eta onelako umetxoren bat nire izenean artu dagianak, Neu artzen nau (1). Ta Ni artu nagianak, ez nau Ni artzen, Ni bialdu nenduaña baiño".

171. *Jesus'en izenez txerrenak jaurten ebazana.*

(Mk. 9, 37-40. Lk. 9, 49-50)

Orduan, Jon'ek esan eutsen: "Irakasle, gizon bat txerrenak zure izenean jaurten ziarduala ikusi dogu, ta galerazo egin dautsagu, gugaz ez dabil-eta".

Jesus'ek esan eutsen: "Ez egiozue galerazo, nire izenez mirariak eginda bereala, Nitzaz txarto esan daikenik ez dago-ta. Zuen aurka ez dagoana, zuen alde dago. Eta nire izenez, Kristo'renak zareelako, edontxitxo bat ur edateko emon ba'dagitzu, ez dau bere saria galduko; benetan dirautsuet".

(1) Jesus'en serbitzariak, txikienak bere, Aren izenean umetxo bat artu ba'daie, aundiak dira. Beraz, ez izan ardurarik aundiagoa nor dan jakiteko, Jesus otseindu gero-ta geiago ta obeto baiño.

172. *Gaizpiderik ez emon.*

(Mt. 18, 6-9. Mk. 9, 41-47)

"Eta nire sinistea dauan txikitxo oneitako bati gaizpidea emon ba'dagio, oba litzakio astoak darabilen errotarria samatik lotuta, itxasora jaurtia izatea (1). Ludiaren (*munduaren*) zoritxarra gaizpideak dirala-ta! Gaizpideak izatea, nai-ta naiezkoa da (2); baiña gaizpidea dakarren gizonaren negargarria! Zure eskuak gaizpidea emon ba'dagitzu, ebagi ta zugandik urrun jaurti egizu: oba dozu eskumotz bizitzan (*zeruan*) sartzea, esku biak dozuzala, itzungiko (*atzamauko*) ez dan betiko sutara jaurtia izatea baiño-ta: an ez yake arra ilten-eta, ez sua atzamatzen (3).

Eta begia gaizpide ba'dagizu, atera ta zugandik urrun jaurti egizu: oba dozu Jaungoikoaren erreñuan begi-bakar sartzea, su-lezetara, begi biak dozuzala, jaurtia izatea baiño: an ez yake arra ilten-eta, ez sua itzungitzen" (4).

(1) Emen diñoan lako errotarriai, astoak eragiten eutseen.

(2) Bizitza onetan nai-ta naiezkoak dira gaizpideak.

(3) Ikus 69'garren Ataleko 2'garren oarra.

(4) Esku бага, begi бага-ta, zeruan sartzea, ezin daitekena da, jakiña: an guztia arteza ta oso-osorikoa da-ta. Baiña onetaraxe azaltzen dau Jesus'ek adierazo nai dautsena, errazago ulertu dagien.

173. *Gatzaren bardintza.*

(Mk. 9, 48-49)

Gizaki guztiak suz gazituko dira-ta, opari guztiak gaztez gazitzen diranez. Ona da gatza; baiña gatza gazatu ba'dadi, zerez gazituko dozue? Euki egizue gatza zuekan, eta bakea alkarregaz".

174. *Ardi galduaren ipuiña.*

(Mt. 18, 10-14)

Kontuz gero, txikitxo oneitako bat bere gutxiesteko*; oncin aingeruak zeruan goiko nire Aitaren aurpegia beti ikusten dabela dirautsuet-eta. Gizasemea, galdu zana gaizkatzera etorri da-ta. Zer deritzazue? Norbaitek eun ardi ba'leukez, ta areitako bat galdu: ez ete leukez larogei ta emeretziaik mendian itziko, galduaren billa joateko? Ta agian* idoro ba'legi, benetan dirautsuet: galdu ez ziran larogei ta emeretziaz baiño poz aundiagoa aretzaz artzen dau. Onelaxe, bada, zeruko zuen Aitak bere ez dau txikitxo oneitako bat bere galtzerik nai".

175. *Geideen (lagun-urkoen) pekatuak zelan zuzendu, ta otoitzaren indarra.*

(Mt. 18, 15-20)

Zure anaiak pekatu egin ba'dagitzu, zoaz aregana, ta ta biok aurrez-aurre zagozela, asarre egio-

* Gutxietsi: despreciar, menospreciar.

* Agian: tal vez.

zu. Entzun ba'zagiz, senidea irabazi dozu; entzun ez ba'zagiz, barriz, beste lagun bat edo bigaz joan zakioz, "bi edo iru ikusleren autorraz auzi guztia indartu dadin" (1). Arek bere entzun ez ba'dagiz, Elizari esan egiozu; eta Eliza bere entzun ez ba'dagi, orduan arrotz eta zergaritzat bekizu.

Benetan dirautsuet: zuek lurrean lotu dagi-zuen guztia, zeruan bere lotua izango da; ta zuek lurrean askatu daizuen guztia, zeruan bere askatua izango da.

Esan bere ba-dirautsuet: zuetariko bi edozer eskatzeko lurrean batu ba'daitez, zeruko nire Aitak emongo dautse. Bi edo iru lagun nire izenean batuta dagozan tokian, Neu bere arein erdian nago-ta".

176. *Iraiñak parkatu: morroi biotz-gogorra.*

(Mt. 18, 21-35)

Orduan Pedro'k, Aregana urreraturik, esan utsan: "Jauna, nire senideak nire aurka pekatu egin ba'dagi, zenbatetan parkatuko dautsat? Zazpitan bai?".

Jesus'ek dirautso: "Begira: zazpi aldiz bakarrik ez, baina zazpitan zazpi amar bidar bere (2). Onegaitik zeru-erreñua, bere mo-

(1) Deut. 19, 15.

(2) Au da: beti.

roieiz* artu-emonak garbitu nai izan ebazan erregea dirudi. Kontu-garbitzen asi zanean, amar milla talentu zor eutsazan morroi bat aurkeztu eutsoen (1). Ordaintzeko ez eukala-ta, nagusiak morroia ta onen emaztea ta seme-alabak eta eban guztia saldu ta ordaiña berari emoteko agindu eban. Baiña morroi arek, auzpezturik, erreguz zirautsan: "Nitzaz eroapena artu egizu, ta dana ordainduko dautsut". Nagusiak, morroi aretzaz errukiturik, askatu eban eta zorra parkatu eutsan.

Baiña morroi a urten ordukoxe, eun denario (2) zor eutsazan morroikide bat aurkitu eban; eta itobearrez ari eldurik, zirautsan: "Zor daistana ordaindu egistak". Morroikideak, auzpezturik, otoiez zirautsan: "Nitzaz eroapena artu egik, eta dana ordainduko dauat". Baiña besteak ez eban nai izan; eta joanda, giltzapean sartu eban, zorra ordaindu arte.

Jazoten zana ikusirik, aren morroikideak, atsekabez heterik, nagusiagana joan eta dana azaldu eutsoen. Orduan aren nagusiak deitu ta diñotso: "Morroi gaizto ori, zor guztia parkatu euan eskatu eustalako. Ez al euan, bada, ik bere ire morroikideaz errukitu bear, ni euaz erruki izan nintzoanez?"

Eta aren nagusia, asarreturik, morroia zigor-

(1) Amar milla talentu: 60 milloi peseta.

(2) 100 denario: 100 peseta inguru.

* Morroieiz: edo morroiakaz: con sus criados.

tzailleen eskuetan itzi eban, zor guztia ordaindu arte.

Beste ainbeste egingo dautsue zeruko nire Aitak bere, alkarri biotz-biotzez parkatu ez badagiozue".

II. JERUSALEM'ERUNTZ.

177. *Samariarrak Jesus txarto artzen dabe.*

(Lk. 9, 51-56)

Lurretik zeruratzeko egunak aurreatuaz joaikiotan-eta, Jesus'ek Jerusalem'eruntz joatea erabagi eban; eta geznariak* aurretik bialdu ebazan. Oneik joan eta Samaria'rren erritxo batera sartu ziran, Arentzat ostatua gertatzeko. Baiña angoak ez eutsoen ostatua emon, Jerusalem-alderako bidea eroalako.

Aren ikasle Jakob (*Santiago*) eta Jon'ek ori ikusirik, esan eutsoen: "Jauna, nai dozu zerutik sua jatsi ta orreik kiskaltzeko esan daginez?"

Baiña Jesus'ek, arekana biurturik, agiraka egin eutsen, esanaz: "Ez dakizue ze gogoren umeak zaren: Gizasemea ez da etorri arimak galtzera, gaizkatzera baiña-ta".

Gero, beste erritxo batera joan ziran.

178. *Iru jarraitzalle barri.*

(Mt. 8, 18-22. Lk. 9, 57-62)

Eta bidean joiazala, idazlari bat urreratu ya-

* Geznariak: mensajeros.

kon eta esan eutsan: "Irakasle, joan zaitezan edo-
nora jarraituko dautsut" (1).

Eta Jesus'ek erantzun eutsan: "Azeriak euren
zuloak daukez, ta zeruko egaztiak euren abiak;
Gizasemeak, barriz, ez dau nun burua ezarri".

Beste bati esan eutsan: "Jarraitu egidazu".

Arck erantzun eutsan: "Jauna, nire aita lur-
peratzera joateko baimena emon egidazu le-
nengo".

Baiña Jesus'ek esan eutsan: "Illen lurpera-
tzea, illai itzi egiezue (2); zu, barriz, zoaz ta
Jaungoikoaren erreiñua iragarri egizu".

Beste batek bere esan eutsan: "Jauna, jarrai-
tuko dautsut; baiña nire etxekoai azken-agurra
egitea onartu egidazu lenengo".

Jesus'ek erantzun eutsan: "Goldeari eskua
ezarrita gero, atzeruntz begira jarri daitena, ez
da Jaungoikoaren erreiñurako gai".

179. *Perea'n: irurogei ta amabi ikasle.*

(Lk. 10, 1-12)

Onen ondoren, Jaunak beste irurogei ta amabi
ikasle aukeratu ta biñaka bere aurretik bialdu eba-
zan, Berak joan bear eban uri ta alde guztietara.

(1) Gertasun adoretua idazlari onena! Jesus'en
ikasleak edo jarraitzaileak, ezereen jabe ez izateko bere
gertu egon bear dau; ta geiago nai bear dau Jesu-Kris-
to'ren arazoetan jardutea, munduarenetan aldia alpe-
rriik galtzea baiño.

(2) Jaungoikoaren arazoetan diarduenak, oneik itzi-
ta narrazetara ez dabe jatsi bear.

Eta zirautsen: "Uzta (*solo-aria*) ugaritsua da; lan-
gilleak, barriz, gutxi. Uztaren jabeari erregu
egiozue, bada, langilleak bere uztara bialdu da-
gizan. Zoaze: bildotsak otso-artera legez bial-
tzen zaituet. Ez egizue zorrerik, ez zakutorik, ez
oiñetakorik eroan; eta bidean iñori agurrik ez
egin (1). Sartu zaitezten etxean, barriz, lenengo
esan "Bakea etxe onentzat"; eta an bake-sume-
rik ba'dadi, zuen bakea aren gaiñera jatsiko da;
bestela, zuekana biurtuko da (2). Etxe aretan
bertan egon zaitezte, emon dagitzuena jaten eta
edaten: langilleari bere saria zor yako-ta. Ez al-
datu etxe hatetik bestera. Ta sartu zaitezten edo-
zein uritan ondo artu ba'zagieze, aurkeztu da-
gitzuena jan egizue, ta ango geisoak osatu egi-
zuez, ta esan egiezue: "Jaungoikoaren erreiñua
urreetan dozue". Eta sartu zaitezten edozein uritan
ondo artu ez ba'zagieze, ango enparantzetara ur-
tenik, esan egizue: "Gure oiñai uri onetan iraa-
tsi* yaken autsa bere, zeuentzat astintzen dogu:
jakin egizue, orraitaiño, Jaungoikoaren erreiñua
urreetan dala". Benetan dirautsuet: egun aretan (3)
Sodoma'ri bigunago egingo yako uri ari baiño".

(1) Judarrak alkar ikusten ebenean, alkarri agur
luzeak egiten eutsoezan, aldia alperrik galdurik. Agur-
ketan luzaro ez jarduteko adierazten dau.

(2) "Bake-sume": bake-zale ta bakearen gei edo
duin dana.

(3) "Egun aretan": Azken-epai egunean.

* Iraatsi: adherir, pegar.

180. *Korazain, Betsaida ta Kaparnaum
madarikatzen.*

(Mt. 11, 20-24. Lk. 10, 13-15)

Orduan, mirari geien egin ebazaneke erriai
agiraka egiten asi zan, garbai izan ez ziralako:
Zoritxarrekoa zu, Korazain! Zoritxarrekoa zu,
Betsaida! Zuenean egindako mirariak Tiro'n eia
Sidon'en egin ba'litzaz, aspaldian zakuz ta suta-
kõ autsez estalduta ta lurrean jezarrita, garbai
izango ziran-eta. Baiña ba-dirautsuet: epai-egu-
nean, Tiro ta Sidon'i zuei baiño zigorrada bigu-
nagoa emongo yake (1).

Eta zu, Kaparnaum, zeruragiño ez ete-zara
goratu? Sulezeragiño ondatuko zara. Zurean
egindako mirariak Sodoma'n egin ba'litzaz, urrean
gaur arte iraungo eban. Baiña ba-dirautsut: epai-
egunean, Sodoma aldekoen zigorrada, zuena bai-
ño bigunagoa izango da" (2).

181. *"Zuek entzun zaiezanak, Neu entzuten nau".*
(Lk. 10, 16)

"Zuek entzun zaiezanak, Neu entzuten nau:

(1) "Zakuz ta autsez": lengoak, euren biotzeko mi-
ña ta garbaia agertzeko, zakuz edo soiñeko latzaz jaz-
ten ziran, euren buruak sutako autsez estaldurik.

(2) Tiro, Sidon eta Sodoma, antxiñako uri gaitzo
ta ustelak ziran; Sodoma zeruko suaz ondatua izan zan.
Korozaïm, Betsaida ta Kaparnaum urien gaitakeria be-
re, aundia dala diñotse Jesus'ek: ainbeste mirari ta
arrigarri arein aurrean egin arren, Mesias'tzat artu ez
ebelako. Gaur, iru errion orma-ondarrak baiño ez da
bestarik ikusten an, Jesus'ek iragarritako zigorkada
adierazoten.

eta ezetsi* zagiezanak, Neu ezesten nau; Ni ezes-
ten nagianak, barriz, bialdu nauana ezesten dau".

182. *Irurogei ta amabi ikasleen biurtzea.*
(Lk. 10, 17-20)

Irurogei ta amabiak pozez beterik biurtu zi-
ran, esanaz: "Jauna, zure izenean txerrenak eurak
be azpiratzen yakuz".

Eta Arek esan eutsen: "Satanas, tximista le-
gez, zerutik jausten ikusi dot. Begira: suge ta
arrubien* gaiñean ibilteko eskubidea, ta arerioa-
ren indar guztia zapaltzeko al izatea emon dau-
tsuet, eta ez dautsue ezek kalterik egingo. Alan
berc, txerrenak zuen menpean dagozala-ta, ez
zaiteze poztu; bai, ostera, zuen izenak zeruan
idatzita dagozalako".

183. *Jesus'en esker-itzak.*

(Mt. 11, 25-30; 13, 16-17. Lk. 10, 21-24)

Une areitan, Jesus'ek, Espiritu Denuagan po-
zez beterik, esan eban: "Gorutzen zaudaz, ene Aita;
zeru-lurren Jauna, gauza oneik jakintsu ta zurrai
estaldu, ta txikiak erakutsi dautsezuzalako (1).
Bai, Aita, orrelaxe atsegin izan dozu-ta. Nire Ai-
tak dana itzi dau nire eskuetan; eta Semea nor
dan iñok ez daki, Aitak baiño; ezta Aita nor dan

(1) Arruak eta lurkoiak ez dabez Jaungoikoaren
jakingarriak ikusten; otzan eta apalai, barriz, Jaungoi-
koak biozperaz agertzen dautsez.

* Ezetsi: despreciar.

* Arrubi: escorpión.

bere, inok ez daki, Semeak eta Semeak erakutsi nai dautsanak izan ezik. Zatoze Nigana nekatu ta atsekabeturik zagozan guztiok, eta Neuk bizkortuko zaituet. Nire buztarria zuen gainean artu ta ikasi egizue Neugandik, gozo ta biotzez apala nazan ezkerro; ta zuen arimentzako bakea idoroko dozue: Nire buztarria, biguna ta nire zama* ariña da-ta”.

Gero ikasleakana biurturik, esan eutsen: “Zoriontsuak zuek dakutsuena (*ikusten dozuena*) dakusen begiak. Ba-dirautsuet, bada: Igarle ta errege askok zuek dakutsuena ikusi nai izan eben, eta ez eben ikusi; zuek dantzuzuena (*entzuten dozuena*) entzun nai, ta ez eben entzun”.

184. *Jeriko-ondoan: Samariar zintzoaren ipuiña.*

(Lk. 10. 25-37)

Onetan, legegizon bat jagi zan, eta azpikeriz esan eutsan: “Irakasle, zer egin bear dot betiko bitzta irabazteko?”.

Jesus'ek esan eutsan: “Zer dago Legean idatzita? Zelan irakurten dozu?”.

Legegizonak, erantzunik, esan eutsan: “Zure Jaungoiko Jauna biotz-biotzez, gogo-gogoz, al-egin guztiaz ta adimen osoz maite egizu; ta zure lagun-urkoa zeure burua aiña” (1).

(1) Deut. 6, 5. Lev. 19, 18.

* Zama: carga.

Jesus'ek esan eutsan: “Ederto erantzun dozu: “Ori egizu ta biziko zara” (1).

Orduan arek, burua zuritu naiez, Jesus'i esan eutsan: “Ta, nor da nire lagun-urkoa?”.

Eta Jesus'ek erantzun eta esan eutsan: “Gizon bat, Jerusalem'dik Jeriko'ra joiala, lapurren eskuetan jausi zan; eta areik, a erantzi ta zauriz bete ondoren, erdi illik itzirik, joan ziran. Bide aretatik abade bat igarotea jazo zan; eta gizona ikusiarren, aurrera igaro zan. Erabat, Lebitar bat bere, toki aren ondotik joiala a (*zauritua*) ikusiarren, aurrera igaro zan.

Samariar bat, ostera, andik igarotean, urreratu yakon, eta ikusi ebaneko, biotza bigundu yakon. Eta aregana elduta, zauriak lotu eutsazan, orioz ta ardoz igurtzirik; eta beraren asto-gaiñean jarririk, ostatura eroan eta bere ardurapean artu eban. Eta biaramonean, denario bi aterata, ostalariari emon eutsazan, esanez: “Onen ardura artu egizu, ta diru geiago bear izatekotan, onuzkoan ordainduko dautsut”. Irurotariko nor uste dozu lapurren eskuetan jausitakoaren lagun-urko izan zala?”.

Arek erantzun eutsan: “Aretzaz erruki izan zana” (2).

Eta Jesus'ek esan eutsan: “Zoaz, bada, ta zuk bere orrelaxe egizu”.

(1) Lev. 18, 5.

(2) Jesus'ek agiriz ez esanarren, ondotxo ulertu eban legegizonak lagun urkoa nor zan.

185. *Betania'n: Marta ta Mari.*

(Lk. 10, 38-42)

Bidean joiazala, Jesus erritxo baten sartu zan (1), eta Marta izeneko emakume batek bere etxean artu eban. Onek, Mari eritzan aizta bat eban; eta au, Jaunaren oiñetara jezarrita, Aren itzak entzuten ziarduan; Marta, barriz, ardura aundiz etxeko arazo guztietan. Eta Jesus'egana etorririk, esan eutsan: "Jauna, nire aiztak arazo guztietan bakarrik itzi nau, ta zuri ardurarik ez? Esan egiozu, bada, lagun dakidala".

Baiña Jaunak, erantzunik, esan eutsan: "Marta, Marta: arduraz ta larri gauza askotan diarduzu; baiña bat bakarrik da bearrezkoa. Arlorik onena Mari'k aukeratu dau, ta ez yako kendo" (2).

186. *Oliamendi'n: otoikera ta otoiaren indarra.*

(Lk. 11, 1-13)

Eta otoitz egiten ziarduala, amaitu ebanean, ikasletariko batek esan eutsan: "Jauna, otoi egiten irakatsi egiguzu, Jon'ek be bere ikasleai irakatsi eutsenez".

Jesus'ek esan eutsan: "Otoi egitean, esan egi-

(1) Erritxo ori, Jerusalem'dik kilometru bi ta erdira egoan Betania zan.

(2) Marta'k aukerako aldia eban orduan Jesus'ek iñoana entzuteko; ta Jesus'ek, une ori alperrik ez galtzeko adierazten dautso. Mari'k barriz, arazo obea artu dau, Jesus'en irakaspenak entzuten diardu-ta.

zue: Aita, donetsia bedi zure izena; betor zure erreñua; emon egiguzu gaur gure eguneroko ogia; parkatu egiguzuz gure pekatuak, geuk bere geure zordunai parkatzen dautseguzanez; ta ez gagizuz zirikal dian sartu".

Gero, esan eutsen: "Zuetariko batek adiskide bat dau, ta aregana gaber dian doa, ta dirautso: adiskide, emon egidazak ordezko iru ogi: nire adiskide bat, bidez doala, etxera etorri yatak-eta, ari zer eskeiñi ez yaukat". Baiña besteak barrukaldetik erantzuten dautso: "Ez akit gogaikarri; atea itxita dak, eta nire semeak ogean nire ondoan dozak: ezin jagi naitekek iri ogiak emoteko".

Baiña arek atea joten ekin ba'dagio, ba-dirautsuet: adiskidetzat eskatutakoa emoteko jagi ez ba'dadi bere, nekegarri ez dakion beintzat, jagiko da, ta bear dagizan ogi guztiak emongo dautsaz. Nik bere, ba-dirautsuet: Eskatu egizue, ta emongo yatzue; zabiltze billa, ta idoroko dozue; atea jo egizue, ta edegiko dautsue: eskatzen dauanak, artzen dau-ta; billa dabillenak idoroten dau, ta ate-jotzailleari edegiko yako-ta. Zuetariko batek bere aitari ogia eskatu ba'dagio, onek arri bat emongo ete-dautso? Edo-ta arraiña eskatu ba'dagio, arraiñaren ordez suge bat emongo ete-dautso? Edo arrautza bat eskatu ba'dagio, arrubi* bat emongo ete-dautso?

* Arrubi: escorpión.

Beraz, zuek, gaiztoak izanarren, zuen umeai bezuza (*emari*) onak emon ba'daiezuez, areago zeruko zuen Aitak Gogo ona emongo dautse eska-tu dagienai”.

187. *Jerusalem'en: Eliz-eskeinte jai.*
“Aita ta Ni bat gara”.

(Jon 10, 22-42)

Eskeinte-jaiak egiten ziran garaia (*sasoi*) zan (1). Negua. Jesus Eliza-nagusian ibilli ebillen, Salomon-aterpean. Judarrak inguratu ta esan eutsen: “Noiz arte izango gaituzu ezpaitan? Zu Mesias ba'zara, esan egiguzu argi ta garbi”.

Jesus'ek erantzun eutsen: “Esan dautsuet, eta ez dozue sinisten. Nire Aitaren izenez egiten dodazan egintzak Nitzaz autor dagie. Zuek, barriz, ez dozue sinisten, nire ardietakoak ez zareelako (2). Nire ardiak nire deia ba-dantze (*entzuten dabe*), ta Nik ezagutzen dodaz, ta ba-darraide (*jarraitzen dauste*). Betiko bizia emoten dautset; eta ez dira betiko galduko, ta iñok ez dauz nire eskutik kenduko. Emon eustan Aita, danik aundiena da, ta iñok ezin kendu daike

(1) Eskeinte-jai: judarrak urtero egiten eben jai bat zan. Beiñola, Antioko Epifanes gaiztoak, Jerusalem'go elizan sarturik, loitu ta zikindu egin eban. Judas Makabeo'k barriz, bere arerioak Jerusalem'dik jaurti ondoren, garbitu ta barriro bedeinkatu eban. Gertari onen gomutaz egiten eben judarrak urteroko jai au.

(2) Judarrak, nai ez dabelako ez dabe sinisten.

ezer nire Aitaren eskutik. Aita ta Ni bat gara” (1).

Orduan, judarrak arriak artu ebazan, Ari arrika egiteko. Jesus'ek esan eutsen: “Egintza on asko egin dodaz zuen aurrean nire Aitaren indarrez; egintza oneitako zeingaitik arrika egiten dautsazue?”.

Judarrak erantzun eutsen: “Ez dautsugu egintza onakaitik arrika egiten, biraoagaitik baiño: gizona izanik, zure burua Jaungoiko egiten dozu-ta”.

Jesus'ek esan eutsen: “Ez ete-dago zuen legean idatzita: “*Neuk esan dot: Jaungoiko zaree*”? (2). Beraz, Jaungoikoaren itza adierazo yaken arci, Jaungoiko izena ezarri ba'eutsen, —eta Liburu Deunak ezin utsik egin daike—, Jaungoikoak donetsi ta gizartera bialdu dauanari zuek “birao dagizu” dirautsazue, “Jaungoikoaren Seme naz” esan daualako? Nire Aitaren egintzak egin ez ba'dagidaz, ez Nigan sinistu; baiña egin ba'daidaz, ta Nigan sinistu nai ez dozuen ezkerro, egiñai sinistu egiezue: Aita Nigan dagoala ta Ni Aitagan nagoala ezagutu ta sinistu dagizuen”.

Orduan bere, atzitu (*arrapatu*) nai izan eben; baiña arein esku artetik iges egin eban (3).

(1) Izatez, bat; nortasunez, bi.

(2) Ps. 81, 6.

(3) Oraindik ez yakon eldu arerioen eskuetan jar-teko ordua.

Eta barrero Jordan igarota, len Jon bateatzen ziarduan tokietara biurtu, ta an gelditu zan. Lagun asko etorri yakozan, eta iñoen: "Jon'ek ez eban miraririk bat bere egin; baiña Jon'ek Oñezaz esan eban guztia, egia zan".

Eta asko Aren (*Jesus'en*) sinistera etorri ziran,

188. *Jesus'ek txerren mutu bat jaurten dau.*

(Lk. 11, 14-23)

Eta *Jesus'ek* txerren mutu bat jaurten ziarduan. Eta txerrena jaurti ebanean, mutuak itz egin eban: eta gizataldeak arritu ziran. Baiña areitariko batzuek iñoen: "Beelzebul txerren-buruaren indarrez jaurten dauz txerrenak".

Jesus'ek, arein gogapenak igarririk, esan eutsen: "Bere aurka bananduta egon daiten erreinua, ondatuko da, ta etxea etxearen gainera jausiko da. Beraz, Satanask'ek bere buruaren aurka jardun ba'dagi, zelan iraugo dau zutik aren erreinua?, Beelzebul'en indarrez jaurten dodazala txerrenak diñozue-ta? Nik txerrenak Beelzebul'en indarrez jaurten ba'dodaz, barriz, zuen semeak noren indarrez jaurten dabez? Orregaitik, areik zuen epaille izango dira. Baiña txerrenak Jaungoikoaren atzamarraz jaurten ba'dodaz, Jaungoikoaren arreiña benetan eldu yatzue.

Bere etxearen atadia gizon azkar ta izkilludun batek zaindu dagianean, daukazan guztiak ondo gordeta dagoz. Baiña gizon a baiño gogo-

ragoren batek, etorrita, azpiratu ba'dagi, izkilluak kenduko dautsaz —izkilluetan eban arek bere uste osoa—, ta aren ondasunak sakabanatuko dauz. Nigaz ez dagona, nire aurka dago; ta Nigaz batzen ez dauanak, sakabanatzen diardu".

189. *Azken-aldia lenengoa baiño txarragoa.*

(Mt. 12, 43-45. Lk. 11, 24-26)

"Txerren zikiña gizonagandik urteten danean, toki legorretan zear ibiltan da atsedan-billa, ta ez dau idoroten. Orduan, ba-diño: "Urten nintzan nire etxera biurtuko naz". Ta ara elduta, utsik, garbi ta apainduta aurkitzen dau. Orduan, ba-doa, ta beste zazpi txerren bera baiño gaiztoagoak beragaz artzen dauz, ta etxean sarturik, bertan gelditzen dira (1); ta gizon aren azken-aldia, lenengoa baiño txarragoa da. Orixe jazoko yako gizaldi gaizto oni bere".

190. *Zoriontsua Jesus'en Ama!*

(Lk. 11, 27-28)

Eta Jesus'ek orrela itz egitan ziardua, gizataldeko emakume batek, deadarka esan eutsan: "Zoriontsua ekarri zenduzan sabela, ta artu zendaruan bularra!".

Baiña Arek (*Jesus'ek*) erantzun eban: "Zoriontsuagoak nonbait, Jaungoikoaren itza aditu ta betetan dabenak!".

(1) Txerrenaren egikera, bidetako lapurraren antzekoa da: lapurra toki ezkutuan ixil-ixillik egoten da, ostuteko aukera etorri arte.

191. *Jonas igarlearen ezaugarria.*

(Mt. 12, 38-42. Lk. 11, 16; 29-32)

Orduan, idazlari ta pariseotar batzuek, zirika-tu nairik, esan eutsen: "Irakasle, Zuk egindako ezaugarri bat ikusi nai geuke".

Jesus'ek, gizataldea inguratu yakola ikusirik, esan eutsen: "Gizaldi au, gizaldi gaizto ta doil-lorra da; mirari bat eskatzen dau, baiña ez yako ezaugarriarik emongo, Jonas igarlearena baiño. Ninibe'tarrentzat Jonas ezaugarri izan zanez, Gizasemea be gizaldi onentzat orrelaxe izango da. Izan bere, Jonas arraiñaren sabelean iru egun eta iru gauetz egon zanez, Gizasemea be iru egun eta iru gauetz lurraren biotzean egongo da. Ninibe'tarrak auzi-egunean gizaldi onen aurka jagiko dira, ta gaiztetsiko dabe: Jonas'ek damu-deia iragarri eutsencan, garbai izan ziran-eta; ona emen, barriz, Jonas baiño geiago dana".

192. *Begia da gorputzaren argi-zuzia.*

(Lk. 11, 33-36)

Iñok ez dau kruselua iziotu ondoren, toki ez-kutuan edo lakaripean ipinten, argimutil-gaiñean baiño, sartu daitezenak argia ikusi dagien. Zure begia da zure gorputzaren argi-zuzia. Zure begia garbi izan ezkeru, zure gorputz guztia argitsu izango da; gaiztoa izan ezkeru, barriz, zure gorputza be illunpetan egongo da. Begira, bada, zukan dagoan argia ez dadilla gero itzungi (*atzamau*). Beraz, zure gorputz guztia argitan

eta illun-alderdirik бага egon ba'dadi, guzti-guztia argitsu izango da, ta argi-zuzi batek bere diz-tiz argitzen dauanez argituko zaitu".

193. *Pariseotar baten etxean: pariseotarren azalkeria.*

(Lk. 11, 37-54)

Jesus'ek itz egiten ziarduala, pariseotar batek here etxean bazkaltzera joateko esan eutsan. Etxean sartuta, maian jarri zan. Baiña Jesus jan-aurrean garbitu ez zala-ta, pariseotarra arrituta gelditu zan. Eta Jaunak esan eutsan: "Zuok, pariseotarrok, edontziaren eta azpillaren kanpokal-dea garbitzen dozue; zuen barrua, barriz, lapurkeriz ta gaiztakeriz beteta dago. Zorook! Azalekoa egin ebanak, barrukoa bere ez eban egin? Orraitiño, bear ez dozuenetik limosna emon egizue, ta orrela guztia garbi izango yatzue (1).

Baiña, zoritxarreko zuok, pariseotarrok!, aizpatan*, boskoitz* ta bedar guztien amarrenak emonaz, zuzenbide ta Jaungoikoaren maitasuna alde batera izten dozuonok! Oneik egin bear ziran; beste areik, barriz, ez itzi.

Zoritxarreko zuok, pariseotarrok!, sinagoge-tan lenengo jarlekuak billatu, ta enparantzan

(1) Atabaka barrukotik limosna egin dagiela dirautse, maitasun-egintzak egiteko: arela, barruz garbi izango zirala-ta.

* Aizpatan: hierba-buena.

* Boskoitz: ruda.

agur egin dagitzuen nai dozenok! Zoritzarreko zuok, agiri ez diran illobiak dirudizuenok, eta gizonak, ezer jakiteke, illobi arein gainean ibiltan dira-ta!”.

Orduan, lege-irakasle batek dirautso: “Irakasle, orrela itz egin, guri be irain egiten daukuzu”.

Jesus'ek erantzun eutsan: “Zoritzarreko zuok bere, lege-irakasleok!, ezin-jasanezko sortak gizonen gainean jarten dozuez-ta; zuek, barriz, atzamar batz be ez dozuez sorta orreik ikutzen (1).”

Zoritzarreko zuok!, zuen asabak ildako igar-leentzako illobiak egiten dozuezanok! Orrela, zuen asaben egintzak autortu ta onartzen dozuez: areik igarleak il, eta zuek onei illobiak egiten dautsazuez-ta. Orrexegaitik esan eban Jaungoikoaren Jakintzak: “Igarleak eta Iragarleak (*Apostoluak*) bialduko dautsedaz; ta oneitako batzuk areik il eta beste batzuk jazartu egingo dabez: gizaldi onek lurraren asieratik isuri dauan igarle guztien odolaz erantzun dagian: Abel'en odoletik asi, ta opari-altara ta elizaren artean ildako Zakarias'en odolera”. Bai, ba-dirautsuet: odol orren erantzuna gizaldi oni eskatuko yako.

Zoritzarreko zuok, lege-irakasleok!, jakite

(1) Ikasi daigun Jesus'egandik gure artekoen utsegiñak zuzentzen, eta bear daitenean, asarre egiten bere, gizonen lotsarik eta bildurrik izateke.

-giltza artu dozenok: zeuek ez zaree sartu, ta sartzen ziranai galerazo egin zeutsen” (1).

Jesus'ek gauza oneik esatean, pariseotarrak eta lege-irakasleak Ari (*Jesus'i*) gogor egiten asi yakozan, eta gai askotaz itaunak egiten, zirika Aren agotik urtendako itzen bat artu naiez, Bera salatzeke.

194. *Pariseotar azalutsen legamiña.*

(Lk. 12, 1-12)

Onetan, gizatalde aundiak batu ziran, alkar zapaltzeko beste; ta bere ikasleai esaten asi zan: “Pariseotarren legamiñaz zur egon, azaluskeria (*ixurakeria*) da-ta. Ez dago estaldutako ezer bere, agertuko ez danik; ezta ixilpean bere, jakingo ez danik. Illunetan esan dozuena, argitan esango da; eta belarrira gelan esandakoa, etxe-gaiñetik deadarka esango da. Zuoi, barriz, nire adiskideoi, dirautsuet: gorputza il baiño besterik ezin egin daikeren gizonen bildur ez izan. Noren bildur izan bear dozen, ostera, erakutsiko dautsuet: gorputza il ondoren, su-lezera (*inpernura*) jaurti daikenaren bildur izan zaitzeze. Bai, ba-dirautsuet: orren bildur izan zaitzeze.

Ez ete-dira bost kurloi xemaiko bitan saltzen? Alan bere, areitako batz bere ez dago Jaungoikoa aztuta. Zuen buruko ule guztiak bere zenbatuta dagoz. Ez bildurrik izan, bada: kurloi askok baiño geiago halio dozue zuek. Baita esan

(1) Benetako Jakintza, Jesus zan.

bere ba-dirautsuet: gizonen aurrean autortu nagiana, Jaungoikoaren aurrean Gizasemeak bere autortuko dau; gizonen aurrean ukatu nagiana, barriz, Jaungoikoaren aurrean ukatua izango da. Ta Gizasmearen aurka itz dagianari, parkatuko yako; baiña Goteunaren (*Espiritu Deunaren*) aurka birao dagianari, ez yako parkatuko. Sina. gogetara, ta agintari ta nagusien aurrera eroan zagiezenean, barriz, ez larritu zelan eta zer erantzun edo zer ezango dozuen; esan bear dagizue-na, une aretan bertan Espiritu Santuak erakutsi-ko dautsue-ta”.

195. *Ondasun-goserik ez izan. Aberats burubagearen ipuina.*

(Lk. 12, 13-21)

Gizataldeko batek esan eutsan: “Irakasle, esan egiozu nire anaiari, bere ogasuna* nigaz erdibatanu dagiala”.

Baiña Jesus'ek esan eutsan: “Gizon, nok jarri nau Ni zuen arteko epaille edo banatzaille?”.

Ta guztiai esan eutsen: “Zur egon eta edozein ondasun-gosetik zuen burua arduraz zaindu; norbaitek gainezka euki arren, gizonaren bizita ez dago ondasun asko izatean-eta”.

Eta ipuin au esan eutsen: “Gizon aberats baten soloak, arnari* ugari ekarri eutsazan. Eta berekautan inoan: “Zer egingo dot, nire arnariak

* Ogasuna: herencia, hacienda, bienes.

* Arnari: fruto.

batzeko tokirik ez dot-eta? Auxe egingo dot —esan eban—: nire aletegiak* lurrera bota ta aundiagoak egingo dodaz, ta areitan nire arnari ta ondasun guztiak batuko dodaz. Gero, nire gogari esango dautsat: “Ene arima, urte askotarako ogasunak batuta daukazuz: atsedean artu, jan, edan, oparo bizi”.

Baiña Jaungoikoak esan eutsan: “Zoro ori, gaur gabeon bertan eskatuko (*kenduko*) daue bizia: ta batu doana, norena izango dok?”.

Orixe jazoten yako Jaungoikoarentzat aberats izan bearrean, norberarentzako ondasunak baten dauzanari” (1).

196. *Lurreko ondasunen ardurarik ez izan.*

(Lk. 12, 22-34)

Ta bere ikasleai esan eutsen: “Auxegaitik dirautsuet: ez ibilli arduratan zer jango dozuen biziteko, ezta gorputza zeaz jantziko ete-dozuen bere. Janariak baiño geiago balio dau biziak, eta jantziak baiño geiago gorputzak. Ara or belak: ez dabe ereiten, ez batzen; ez dabe janaritegirik, ezta arnagarik (*alategirik*) bere: ta Jaungoikoak azten dauz. Ez ete-dozue zuek areik baiño askozaz geiago balio? Nor da zuen artean, bere asmo guztiaz ukondo bete azi daiteke.

(1) Aberats aren gaiztakeria, ondasunak beretzat bakarrik batzea zan, ez Jaungoikoaz, ez beartsuaz gomatatzeke.

* Aletegi: arnariak gordeteko tokia.

nik? (1). Beraz, gauza txikiena be ezin do-
 zuben ezkerro, osterantzekoetan zegaitik arduratsu
 ibilli? Orra zelaietako liliak (*lirioak*): begira ze-
 lan aundi egiten diran. Ez dabe lanik egiten, ez
 goruetan. Alan bere, ba-dirautsuet: Salomon be,
 bere ospe aundienean be, ez zan orreitako bat le-
 gez jantzi. Beraz, gaur zelaian bizi ta biar labara
 jaurten dan bedarra Jaungoikoak orrela jantzi ba-
 dagi, zenbat arduratsuago jantziko zaitue zuok,
 siniste otzeko gizonok? Beraz, ez ibilli jateko-
 ren eta edatekoaren billa; ta ez larritu; guzti
 orrein billa siniste, bagakoak dabiltz-eta: zuen
 Aitak, barriz, ba-daki guzti orrein bearrean za-
 gozena. Beraz, billatu egizue lenengo Jaungoi-
 koaren Erreñua, ta beste guzti orreik geigarritz
 emongo yatzuez. Ez bildur izan, ene artaldetxo,
 Aitak atsegiñez emongo dautsue erreñua-ta.
 Zuen ogasunak saldu ta egizue limosna: egizue
 zerurako zaartzen ez diran zorroak eta galtzen
 ez diran ondasunak; an (*zeruan*) ez da lapurrik,
 ezta ondatzeko sitsik bere. Zuen ogasuna dagi-
 zuen tokian, biotza bere an izango dozue-ta”.

197. *Morroí ernaien ipuiña.*

(Lk. 12, 35-40)

“Begoz zuen gerriak loturik eta kruseluak
 zuen eskuetan izioturik; eta zuek, nagusia ezte-
 guetatik noiz biurtuko dan zain gizonak dagoza-

(1) Bizitzaz be beste orrenbeste jazoten da: eriotza
 etortean, nok luzatu bizitza egun bete bere?

nez*; etorri ta atea joala, berari edegiteko. Zo-
 riontsuak benetan, nagusiak, etortean, zain idoro
 dagizan morroi areik! Egiz dirautsuet: gerria lo-
 turik, maian jarri-arazoko dauz ta banan-banan
 jaten emongo dautse. Ta bigarren gau-aldian,
 naiz irugarrenean etorri ba’dadi, ta arela aurkitu
 ba’dagiz, zoriontsuak morroi areik! (1).

Eta auxe jakin egizue: zein ordutan lapurra
 etorkion etxeko jaunak ba’leki, zain egongo li-
 tzake, ta ez leuke bere etxea zulatzen itxiko.
 Zuek, bere, zagoze gertu; gutxien uste dagizuen
 orduan, Gizasemea etorriko da-ta”.

198. *Etzezain zintzoaren eta morroi
 gaiztoaren ipuiña.*

(Lk. 12, 41-48)

Orduan, Pedro’k esan eutsan: “Jauna, ipuin
 ori guretzat, ala beste guztientzat bere ba-di-
 ñozu?” (2).

Jaunak esan eban: “Nor dala uste dozue etxe-
 zain zintzo ta zurra, nagusiak morroi buru ja-
 rria, etxekoai bear dan aldia jatekoa banatze-
 ko? Zoriontsua, nagusiak (*ugazabak*), etxeran-
 tzean, lan aretan idoro dagian morroi a! Bene-
 tan dirautsuet: bere ondasun guztien zaintzaille
 jarriko dau.

(1) Antxiñakoak, gaua lau zatitan bereizten eben,
 eta zati bakoitza iruna orduko.

(2) Ipuin au guztiai dagokienez erantzuten dau
 Jesus’ek.

* Dagozanez: dagozan legez.

Baiña morroi arek bere biotzean esan ba'dagi: "Nire ugazaba oraindik ez dator", ta morroi-neskameak astintzen, eta jan-edanetan eta moskortzen asi ba'dadi, berak uste ez dagian egunean eta jakin ez dagian orduan bere nagusia etorriko da, ta erdibituko dau; ta gaiztoai zor yaken zoria emongo dautso. Bere nagusiaren gogoia jakinda bere, gertu egon bearrean, aren naia egin ez eban morroi arek, zigorkada asko artu bear izango dauz. Baiña nagusiaren gogorik jakiteke, astingarriren bat egin dagianak, zigorrada gutxi artuko dauz. Asko emon yakonari, asko eskatuko yako; ta gordeteko asko itzi yakonari, geiago eskatuko dautsoe".

199. *Esaera batzuk. Aldien ezaugarriak.*

(Lk. 12, 49-59)

"Lurrari sua emotera etorri naz: ta zer nai dot geiago, erre dadin baiño? (1). Bateoaz bateatu bear naz: ta bete dadin arte, nire ezin egona! (2).

Lurrera bakea ekartera etorri nazala uste dozue? Ez orixe, banakuntza baiño (3). Oraindanik, etxe baten bost lagun egongo dira banan-

(1) Su ori, Espiritu Santuaren sua da, ta lurbira osoa erre dagian nai dau.

(2) Jesus'ek gogo sutsuz artu nai dauan beteo ori, bere nekaldia ta eriotza dira.

(3) Burruka ta banakuntza ori, Kristo'ren jarraitzaileen eta Aren arerioen artekoa da.

duta: iru biren aurka, ta bi iruren aurka. Aita semearen aurka bananduko da, ta semea aitaren aurka; ama alabaren aurka, ta alaba amaren aurka; amagiñarreba erraiñaren aurka, ta erraiña amagiñarrebaren aurka".

Gero gizataldeari esan eutsan: "Eguzki-sartzaldetik odei bat sortzen ikusita, beingoan diñozue: "Eurijasa dator", ta alaxe jazoten da; ta egoaizea dabilela somatzean, diñozue: "Sargori egingo dau". Azalutsok! Zeru-lurren arpegia ezagutzen ba-dakizue: oraingo aldi au, barriz, zelan ez dozue ezagutzen? (1). Zegaitik ez dozue zuek zeuenez zuzena dana ezagutzen? Zure aurkakoagaz agintariagana zoazala, bidean aregandik askatzeko alegiñak egizuz; epaillearen eskuetan jarri ez zadizan, eta epailleak txiñelarenetan, eta txiñelak giltzapean sartu ez zadizan. Benetan dirautsuet: Ez zara andik urtengo, azken-eunena (*azken-zentimua*) ordaindu arte".

200. *Perea'n: damu izan bearra.*

Pikondo agorra.*

(Lk. 13, 1-9)

Aldi aretantxe norbaitzuk etorri ziran, eta Jesus'i jakinerazo entsoen Pilatos'ek Galilear batzun odola isuri ebalá, areik euren opariak es-

(1) Ainbat ezaugarri ikusi ebezan Mesias'en aldía ezagutzeko. Baiño ez ebezan ezagutu nai, gaiztakeriz. zentzunbagekeriz.

* Agorra: estéril.

keinten ziarduen bitartean (1). Eta erantzunik esan eutsen: "Galilear orreik beste Galilearrak baiño gaiztoagoak zirala uste dozue, orrelako ez bearra izan dabelako? Ezetz dirautsuet Nik: garbai ez ba'zadize, barriz, guztiok orrelaxe galduko zaree. Silo'en torrea jausi ta il ebazan amazortzi areik bere, Jerusalem'go beste bizilagunak baiño errudunago (*pekatariago*) zirala uste dozue? (2). Ezetz dirautsuet Nik: eta garbai ez ba'zadize, barriz, guztiok orrelaxe galduko zaree".

Gero, ipuin au be esan eutsen: "Batek bere mastian pikondo bat sartuta eukan; eta aren arnari billa etorrita, ez eban bat bere idoro. Orduan, mastizaiñari esan eutsan: "Iru urteotan pikondo onetara arnari billa etorri naz, ta ez dot bat bere idoro. Ebagi egizu, bada. Zetarako lurrean alperrik egon?". Baiña arek (*mastizaiñak*), erantzunik, dirautso: "Jauna, aurtan bere itzi egizu; ta, bitartean, ingurua atxurtu ta satsa jarriko dautsat: orrela, bearbada arnaria ekarriko dau; ta bestela, geroago ebagiko dozu".

(1) Judarrak Erromarren azpian egozan, ta jaiña, gogo-txarrez egon bere. Noizean-bein, matxinadak eta astrapalak bere ba-ziran. Onelakoren bat egin eben Jerusalem'en, itxuraz, Jaungoikoaari opariak eskeintzera joan ziranean; eta Erromar agintariak, Pilatos'ek, bere gudariak bialdu, ta il egin ebezaz.

(2) Jerusalem'go torre aundia jausi, ta amazortzi lagun artu ebazan azpian.

201. *Emakume geiso bat larunbatez osatzen dau.*
(Lk. 13, 10-17)

Larunbata zala, Jesus arein sinagoga bateri irakasten ziarduan. Eta amazortzi urte areitan txerrenak geisorik eukan emakume bat zan an; makur-makur eginda egoan, eta ezin eban iñola be burua jaso. Geisoa Jesus'ek ikusirik, dei egin eta esan eutsan: "Emakume, zure gaitz orretatik askatuta zagoz".

Ta eskuak ezarririk, emakumea beingoan zuzendu ta Jaungoikoa goresten asi zan.

Jesus'ek larunbatez osatu ebala-ta asarreturik, sinagoga-buruak gizataldeari zirautsan: "Badiara sei egun lan egiteko; egun areitan etorri, bada, osatu zaitezen, ta ez larunbatez".

Baiña Jaunak erantzun eta esan eutsan: Azalutsok!, ez al dau zuetariko edonok bere idia edo astoa larunbatez askatik askatzen ta edatera eroaten? Eta Satanas'ek amazortzi urteotan lotuta eukan Abraham'en alaba oni, lokarria larunbatez askatzea, ez zala egoki?".

Onela itz egiola, Aren (*Jesus'en*) arerio guztiak lotsez egozan; erri guztia, barriz, Arek egin eban mirari goragarriakaitik pozez heterik egoan.

202. *Zerba*-aziaren eta legamiñaren ipuiña.*
(Lk. 13, 18-21)

Beste ipuin bat ekarri eutsen. Eta iñoan: "Zer

* Zerba: mostaza.

dirudi Jaungoikoaren erreinua? Eta zeren antzeko dala esango dot? Gizon batek artu ta bere baratzean ereindako zerba-aziaren antzeko da; azi ta zugatz aundi egin zan, eta aren adarretan zeruko egaztiak jarten dira”.

Barrero bere esan eutsen: “Zeraz bardinduko dot Jaungoikoaren erreinua? Emakume batek artu ta, ora guztia jagi arte, iru negurri-urunetan sartu eban legamiñaren antzeko da”.

203. Zenbat dira zerurako aukeratuak?

(Lk. 13, 22-35)

Eta Jerusalem'eruntz joiala, uri ta erritxoe-tan irakasten ziarduan. Eta norbaitek itandu eutsan: “Jauna, gutxi dira zerua jaristen dabenak?”.

Jesus'ek erantzun eutsan: “Ate estutik sartzeko alegiñak egizuez; ba-dirautsuet: sartu nai ta ezin sartuka asko ibilliko dira-ta. Etxeko ugazaba sartu ta atea itxi ondoren, kanpoan gelditu ba'zadize, naiz-ta “Jauna, edegi eiguzu” esanaz ate-joka asi, arek erantzungo dautsue: “Ez dakit nongoak zareen”. Orduan, zuek esango dozue: “Zure aurrean jan eta edan genduan, eta gure enparantzetan irakatsi zenduan”. Eta esango dautsue: “Nik ez dakit nongoak zareen: alde Nigandik gaizkille guztiok!”. An izango da negar ta agin-karraskada, Abraham, Isaak, Jakob eta igarle guztiak Jaungoikoaren erreinuan ikusi dagizucezanean, eta zuek, barriz, andik kanpora jaurtiak izan zaitezenean. Eta Eguzki-Sortzalde-

tik. Sartzaldetik, Iparraldetik eta Egoaldetik etorriko dira, ta Jaungoikoaren erreinuan maikide jarriko dira. Ta azkenengo diranak, lenengo izango dira; ta lenengo diranak, azkenengo izango dira”.

204. Judea-ondoan: Erodes'en zemaik*.

Jerusalem, Jerusalem!

(Lk. 13, 31-35)

Egun aretan bertan, pariseotar batzuk urrera-tu yakozan, esanez: “Zoaz ta alde egizu emendik, Erodes'ek il egin nai zaitu-ta” (1).

Baiña Arek (*Jesus'ek*) erantzun eutsen: “Zoa-ze ta azeri orri esan egiozue: Begira, Nik gaur ta biar txerrenak jaurten eta geisoak osatzen diardut; eta etzi amaituko dot. Baiña gaur ta biar ta etzi aurrera egin bear dot, Jerusalem'dik kanpora iltea igarleri ez dagokio-ta. Jerusalem, igarleak il eta zugana bialdutakoai arika egiten dautsezun ori! Amaika bidar zure semeak batu nai izan dodaz, oilloak bere txitak egapean legez; ta zuk ez dozu nai izan! Begira: bertan bera itzirik geldituko da zure etxea (2). Ta ba-dirautsuet: ez nozue barrero iku-

(1) Bildurra sartzearren asmau eutsen kontu ori. Baiña Jesus ez da ikaratzen, ta bere bideari jarraituko dautso: Aitak erabagitako orduan ilgo da Jerusalem'en.

(2) Eliza Nagusia ondatuta geldituko dala, iragarten dau; eta orrezaz, eurak be bertan bera itziak, bide onera biurtu daitezcan arte.

* Zemaik: amenazas.

siko "gora Jaunaren izenean datorrena" zuek esateko eguna eldu arte".

205. *Gizon ur-geiso bat osatzen dau.*
(Lk. 14, 1-6)

Larunbatez Jesus bazkalizera pariseotar nagusi baten etxean sartu zala, zaintzen egokiozan. Eta ara!, gizon ur-geiso bat Aren aurrean egoan. Jesus'ek, bada, lege-irakasle ta pariseotarrakana bihurturik, itz egin eta esan eutsen: "Zillegi* da larunbatez osatzea, ala ez?".

Baiña areik, isilik. Jesus'ek, barriz, geiso ari eskutik oraturik, osatu ta bialdu eban. Eta areikana bihurturik, esan eutsen: "Zuetariko bati asto-na izan idia zulora jausi ba'dakio, ez dau berealaxe atarako andik, naiz-ta larunbata izan?".

Eta ezin eutsoen onetzaz ezer bere erantzun.

206. *Apaltasun eta maitasunerako aolkua**.
(Lk. 14, 7-14)

Maikideak lenengo jarlekuen billa ebiltzala ikusirik, ipuin au ekarri eutsen: "Ezteguetara deitua izan zaitezanean, ez zaitez lenengo tokian jarri: ba-daiteke zu baiño nausiagoren bat deitua izatea-ta; orduan bioi dei egin dautsuena etorri ta esan daiketzu: "Toki au orrentzat itzi egizu": orduan, lotsez azken-tokia artu bear izango zueke-ta. Deia artu dagizunean, barriz, zoaz ta azken-tokian jesarri zaite, deitzaillea etorri daite-

* Zillegi izan: ser lícito.

* Aolkua: consejo.

nean esan dagitzun: "Adiskide, igo zaite gorago". Orduan, maikideen aurrean ospe aundia izango dozu. Goratu daitena, beeratua, ta beeratu daitena, goratua izango-ta".

Bazkal-deia egin eutsanari, barriz, esan eutsan: "Bazkari naiz aparti bat egin dagizunean, ez dei egin zure adiskideai, ez zure anaiai, ez senideai, ezta zure auzoko aberatsai bere; bestela, areik zuri atzera dei egiñik, olantxe ordainduko dautsue-ta. Oturuntza (1) egin dagizunean, ostera, beartsu, esku-igardun, erren eta itsuai dei egin: eta ordainbiderik oneik ez dabelako, zoriontsua izango zara, zintzoen herbizkundean saria artuko dozu-ta".

207. *Apari aundiaren ipuiña.*
(Lk. 14, 15-24)

Maikidetariko batek au entzunik, esan eutsan: "Zoriontsua Jaungoikoaren erreiñuan maikide izan daitena".

Jesus'ek esan eutsan: "Gizon batek aparti aundi bat gertatu eban, eta bertara lagun askoi dei egin eutsen. Apalorduan, deitua bere morroia bialdu eutsen etorteko esatera, aparti ger-tua egoala-ta. Baiña guztiak aitzekiak ateraten asi ziran. Lenengoak esan eutsan: "Basetxe bat erosi dot, eta ikustera joan bear dot; arren, ontzat artu egizu, bada, nire aitzeki au". Beste batek esan eutsan: "Bost buztardi erosi dodaz, ta arek

(1) Oturuntza: bazkari eder bat.

aztertzer a noa; arren, ontzat artu egidazu, bada, nire aitzeki au". Ta beste batek esan eutsan: "Ez. kondu egin naz, ta ezin joan naiteke".

Morroia etxera biurtu zan, eta bere nagusiarri dana azaldu eutsan. Orduan, etxeko ugazabak, asarretuta, morroiari esan eutsan: "Zoaz aguro uriko enparantza ta kalektara, ta beartsu, ta esku-igardun, ta itsu ta errenak ona sarrerazo egizuz".

Eta morroiak esan eutsan: "Jauna, zure agin-dua bete dot, eta oraindik tokia dago".

Eta ugazabak morroiari esan eutsan: "Bide ta esietara zoaz, ta, gogorrean izanda bere, guztiak sarrerazo egizuz, etxea bete dakidan. Ba-dirautsuet, bada: deitutako gizon areitariko batek bere, ez dau nire aparia txastatuko".

208. *Jesus'i zelan jarraitu? Torrearen eta erregearen ipuiñak.*

(Lk. 14, 25-33)

Gizatalde aundia joian Aregaz; ta areikana biurturik, esan eutsen: "Nigana norbait etorri ba'dadi, ta bere aita, ama, emazte, seme-alabak, eta anai-arrebak, baita bere burua bere, iguin-
du ba'dagiz (1), ezin izan daiteke nire ikasle. Ta gurutzea sorbaldan artuta, nire ondoren etorri ez daitena, ezin izan daiteke nire ikasle. Zuetariko batek torre bat egin nai izan ezkeru,

(1) Ni baiño gutxiago maite ez ba'dagiz. (Lk 126^o gn. Atala).

ez al dau aurretiaz eralgi bear dauana astiro ateraten, bere lana amaitzeko naiko daukan ala ez? Oinarrriak ezarrita gero ezin amaitu ba'dagi, ikusle guztiak asi ez daitezcan isekaz* esaten: gizon au etxea egiten asi zan, baiña ezin amaitu izan dau.

Edo errege batek beste errege baten aurka gudu egin nai izan ezkeru, ez al dau aurretiaz astiro asmatzen amar milla gizonagaz gogor egin leuskion ogei milla gizonagaz gaiñera datorkiona? Bestela, a oraindik urrun dagoala, geznariak bialdu ta bakea eskatzen dautso. Orrela, bada: zuetariko iñor ezin izan daiteke nire ikasle, dauzan guztiak ukatu ez ba'dagiz".

209. *Gatzaren ipuiña.*

(Lk. 14, 34-35)

Gatza ona da; baiña gatza gazatu ba'dadi, zerez gazituko da? Ez lurrerako, ezta sastegirako bere ez da gai; ta kanpora jaurten dabe. Entzuteko belarririk dagianak, entzun begi".

210. *Ardi galdua. Drakma galdua.*

(Lk. 15, 1-10)

Zergari ta pekatariak urreratzen yakozan, Ari entzutera. Pariseotar ta idazlariak, berriz, mar-mar asi ziran, esanaz: "Orrek, pekatariak onartzen dauz ta eurakaz jaten dau".

Orduan, Jesus'ek ipuin au esan eutsen: "Zue-

* Iseka: burla.

tarike batez eun ardi izan, eta bat galdu ezke-
ro, ez da, larogeta emeretziak basamortuan
itzita, galdu dauanaren billa joaten, idoro arte?
Eta idorotakoan, bere lepoan pozik artzen dau;
ta etxera eldurik, adiskide ta auzokoak batzen
dauz, esanaz: "Poztu zaiteze nigaz, galdu yatan ar-
dia idoro dot-eta". Ba-dirautsuet: orrelaxe zeruan
be poz aundiagoa izango da damutu ta ontzen
dan pekatari bategaitik, garbai izanenik ez daben
larogeta emeretzi zintzoakaitik baiño.

Edo-ta, zein emakumek amar drakma izan eta
bat galdu ba'dagi, ez dau kruselua iziotzen eta
etxea garbitzen eta arduraz billatzen, drakma
idoro arte? Eta idorotakoan, adiskide ta auzo-
koak batzen dau, ta dirautse: "Poztu zaiteze ni-
gaz, galdu neban drakma idoro dot-eta". Ba-di-
rautsuet: orrelaxe poz aundia izaten da Jaungoi-
koaren Aingeruen artean garbai dan pekatari ba-
tegaitik".

211. *Seme galdua.*

(Lk. 15, 11-32)

Eta esan eutsen: "Gizon batek seme bi eba-
zan. Eta areitariko gazteenak bere aitari esan
eutsan: "Aita, emon egidazu ondasunetatik niri
dagokidan zatia". Ta aitak ogasunak banandu
egin eutsezan. Egun batzuen barruan, seme gaz-
teena, guztia baturik, urriñeko lurraldeetara joan
zan, eta an, nasaikerian bizirik, bere ogasun guz-
tiak ondatu ebazan. Baiña guztia galdu ebanean,

gosete ikaragarria sortu zan bazterraldi areitan,
eta bear gorrian aurkitu zan. Joan zan, bada, ta
alderdi aretako erritar baten morroi jarri zan;
onek, bere larretara bialdu eban txarrizain. Txa-
rriak jaten ebazan lekaz sabela bete nai eban,
baiña iñok ez eutsazan emoten.

Eta bere senera bihurturik, esan eban: "Amai-
ka morroik nire aitaren etxean ogia ba-dauke uga-
ri; ni, barriz, emen goseak ilten nago! Jagi ta
nire aitagana joango naz, ta esango dautsat: "Aita,
zeruaren eta zure aurka pekatu egin neban; ez
naz arrezkero zure seme-izena eroateko duin; zu-
re morroietariko bat legez artu nagizu, arren".

Beraz, jagi ta aitagana joan zan. Bera orain-
dik urrun egoala, bere aitak ikusi eban, eta erru-
kiz beterik, semeagana urten zan arin, ta be-
sarkaturik, laztandu egin eban. Semeak esan eu-
tsan: "Aita, zeruaren eta zure aurka oben (*pe-
katu*) egin neban; ez naz aurrerantzean zure se-
me-izena eroateko duin".

Baiña aitak bere morroia esan eutsan: "Eka-
rri egizue bizkor soiñekorik onena, ta jantzi egio-
zue; erestuna eskuan eta oiñetakoak oiñetan ipi-
ñi egiozue; zekor gizendua ekarrita, il egizue;
jan eta jai aundi bat pozik egin daigun: nire
seme au ilda egoan eta barrero biztu, galduta
egoan ta aurkitua izan da-ta". Eta jai-oturretza
asi zan.

Bitartean, seme nagusia soloan zan; eta etxe-
rakoan etxe-ondora urreratu zanean, soiñu ta

dantzak enizun ebazan; eta morroietariko bai dei egiñik, guzti a zer zan itandu eutsan. Arek erantzun eutsan: "Zure anaia etorri da, ta zure aitak zekor gizenatu il dau, semea barriro onik eta osasunez etxeratu yakolako".

Orduan, asarreturik, ez eban sartu nai; bere aitak, barriz, urtenik, erreguka asi yakon. Baiña aitari erantzun eta esan eutsan: "Ainbeste ur tetan zure morroi naz; egundo zure agindurik ez dot ausi; alan bere, arkume bat bere ez daustazu iñoiz emon, nire adiskideakaz janaldi bai egiteko. Ta emakume galduakaz ogasunak iruntzi dautsuzan seme orrentzat, etorri danekoxe, zekor gizendua il dozu".

Baiña aitak esan eutsan: "Seme, zu beti neugaz zagoz, ta nire gauza guztiak zeureak dira. Egoki zan, orraitño, oraingo poza ta jaia, zure anai au, ilda egonda, barriro biztu da-ta, eta galdua izanik, aurkitua izan da-ta".

212. *Etkezain gaiztoa.*

(Lk. 16, 1-13)

Eta bere ikasleai zirautsen: "Gizon aberats batek etkezain bat eban; eta ogasunak ondatu eutsazala-ta, ugazabari salatu egin eutsoen. Eta beragana deiturik, esan eutsan: "Zer da zutzaz dirausten ori? Etkezaintza-kontua erakutsi egidazu; onezkero nire etkezain ezin izan zaitezkezt-a".

Orduan, etkezaiñak berekautan esan eban: "Zer egingo dot, nire ugazabak etkezaintza kentzen daustan ezkeru? Atxurran? Ezin daiket. Es-

kean ibilli? Lotsatu egiten naz. Ba-dakit zer egin, etkezaintza kendu daistenean, beste batzuek euren etxectan artu nagien".

Beraz, banan-banan bere ugazabaren zordunai dei egiñik, lenengoari esan eutsan: "Zenbat zor dautsazu nire nagusiari?".

Arek erantzun eutsan: "Eun upa orio" (1). Ta etkezaiñak esan eutsan: "Artu zure ordain-agiria, jazarri arin ta idatzi: berrogei ta amar".

Gero, beste bati itandu eutsan: "Eta zuk zenbat zor dozu?".

Arek erantzun eutsan: "Eun anega gari" (2). Ta etkezaiñak esan eutsan: "Artu zure zor-agiria, ta idatzi: "laroegi".

Eta ugazabak etkezain maltzur a goratu egin eban, zur jokatu ebalako (3); gizaldi onetako semeak, euren alkar artu-emonetan, argiaren semeak baiño zurragoak dira-ta. Ba-dirautsuet: ondasun txarren bidez adiskideak geitu egizuez, il zaitezenean, betiko aterpean artu zagiezen.

Gauza txikietan zintzoa dana, aundietan bere zintzoa da; ta gauza txikietan maltzurra dana.

(1) Onetariko upa bakoitzak, 40 litro inguru artzen ebazan. Beraz, 4.000 litro orio ziran guztiz.

(2) Negurri bakoitzak, 400 killo. Beraz, 40.000 killo gari guztiz.

(3) Ugazabak (Jesus'ek ez) etkezain aren zurtasuna goratzen dau, baiña ez eban egin bidegabekeririk edo lapurretarik. Olantxe erabilli bear dira ondasunak zerua irabazteko: bide okerrez egiñak, jabeari atzera emonda, ta erruki-egintzak eginda. Zakeo'ren antzera.

aundietan bere maltzurra da. Beraz, ondasun txarretan zintzoak izan ez ba'zadize, zuzen jadetsirikoak nok itziko dauz zuen gain? Ta besterenaz zintzoak ez ba'zadize, zeuena nok emongo dau-tseu?

Ugazaba biren morroi, iñor ezin izan daiteke: edo batari gorroto izango dautso ta bestea maite izango dau-ta; edo bati adikor ta besteari jaramonik ez dautso egingo. Jaungoikoaren eta aberaskeriaren morroi ezin izan zaitekeze.

213. *Pariseotarren zekenkeria.*

(Lk. 16, 14-18)

Pariseotar diruzaleak guzti ori entzuten eben, eta Jesus'i barre egiten eutsoen. Baiña Arek esan eutsen: "Zuek gizonen aurrean zuzen-antzekoak zareela erakusten dozue; baiña zuen biotzak Jaungoikoak ezagutzen dauz; gizonai goragarri deritzena, Jaungoikoarentzat iguingarri da-ta. Legea ta Igarleen aldia Jon'engan amaitzen da: arrezkero, Jaungoiko-erreñuaren Barri Ona iragarten da, ta indar egiten dabenak sartzen dira an (1). Baiña zerua ta lurra igarotea errazago da, legearen izpitxo bat ber jaustea baiño.

Bere emaztea itzi ta beste bat artu dagianak, ezkontza loitzen dau; ta senarrak itzitakoa artu dagianak, ezkontza loitzen dau".

(1) **Indar eginda**, au da: Jaungoikoaren otoitzaren bidez indar eginda, edo-ta norbere burua ukatuta.

214. *Aberats jatuna ta Lazaro eskekoa.* (Lk. 16, 19-31)

"Gizon aberats bat zan, purpura ta liñu guriz jantzi ta egunero jan-edanaldi ederrak egiten ebazana. Eta Lazaro izeneko eskeko bat bere ha-zan, aberats aren ate-aurrean zauriz beterik etzunda egoten zana. Aberatsaren mai-ganetik jausten ziran ogi-apurrez ase (*bete*) nai eban, eta iñok ez eutsazan emoten; baiña txakurrak etorkiozan eta zauriak miazkatzen eutsezan (1).

Eskekoa il zan, eta aingeruak Abraham'en altzora eroan eben. Aberatsa bere il zan, eta su-lezera obiratu eben. An oiñazetan egoala, begiak jasota, urruncan Abraham ikusi eban, eta Lazaro aren altzoan. Eta deadarrez esan eutsan: "Aita Abraham!, erruki zakidaz, ta Lazaro bialdu egidazu, bere atzamar-muturra uretan bustita, nire miña oztu dagian, sugar oneitan kiskaltzen nago-ta".

Baiña Abraham'ek erantzun eutsan: "Seme, gogoratu egizu zure bizitzan ondasunak artu zenuzuala; Lazaro'k, barriz, atsekabeak. Orain, ostera, bera atsegiñetan dago, ta zu oiñazetan. Gaiñera, gure ta zuen bitartean, leze aundi bat dago; ta nai izan ezkero bere, iñor emendik zuekana ezin joan daiteke, ezta ortik ona igaro bere".

Eta besteak esan eutsan: "Arren, aita!; Lazaro ori beñik-bein nire aitaren etxera bialdu egi-

(1) Judarren artean, txakurrak miazkatzea zoritxarrik andienetarikoa zan.

zu, bost anai dodaz-ta: emengoa esan dagien, eura-
rak be oiñaze-toki onetara etorri ez daitezan”.

Abraham'ek erantzun eutsan: “Moises ta Igar-
leak ba-dabez: entzun begiez”.

Arek esan eutsan: “Ez, aita Abraham; ildako-
ren bat areikana joan ba'dadi, garbai izango di-
ra-ta”.

Abraham'ek erantzun eutsan: “Moises ta Igar-
leak entzun ez ba'dagiez, norbait illen artetik
biztu ba'ledi bere, ez leukee sinistuko”.

215. *Lazaro'ren eriotza.*

(Jon 11, 1-16)

Lazaro izeneko Betaniar bat, Mari ta bere
aizta Marta'ren errikoa, geisorik egoan. Mari,
barriz, Jauna usaingarriz igurtzi ta bere adatsaz*
Aren oiñak ezeindu (*legortu*) utsazana zan; onen
neba Lazaro orain geisorik egoan. Eta aren aiz-
tak Jesus'i barri au bialdu eutsoen: “Jauna, zuk
maite dozuna, geisorik dago”.

Jesus'ek, au entzunik, esan eutsen: “Ez da
eriotzarako geisoa, Jaungoikoaren aintzarako
baiño, orren bidez Jaungoikoaren Semea goretzia
izan dadin”.

Jesus'ek Marta ta onen aizta Mari ta Lazaro
maite ebazan. Eta au geisorik egoala entzun eba-
nean, oraindaiño toki aretan egun bitan gelditu
zan. Gero, bere ikasleai esan eutsen: “Goazan
barriri Judea'ra”.

* Adats: cabellera.

Ikasleak dirautsoe: “Irakasle, judarrak orain-
tsu arrika egin nai eutsuen, ta barriro ara zoaz?”.

Jesus'ek erantzun eutsen: “Egunaren orduak
amabi ez al dira? Egunez dabilena, itsumustuka
ez dabil, lur onetako argia ikusten dau-ta; gaez
dabilena, barriz, itsumustuka dabil, argirik aren-
tzat ez dago-ta”.

Onela itz egin ondoren, esan eutsen: “Lazaro,
gure adiskidea, loak artu dau; baiña lotatik ira-
tzartzera noakio”.

Ikasleak esan eutsoen: “Jauna, lo ba'dago, osa-
tuko da”.

Jesus'ek aren eriotzaz iñoan; baiña areik loak
-artzeaz ziarduala uste izan eben. Orduan, Jesus'
ek argi ta garbi esan eutsen: “Lazaro il da; ta poz-
ten naz zuekaitik, an ez nintzalako, sinistu dagi-
zuen. Goazen, bada, aregana”.

Didimo izenordeko Tomas'ek ikaskideai esan
eutsen: “Goazen geu bere, Orregaz batera il gai-
tezan”.

216. *Marta ta Mari'ren negarra.*

(Jon 11, 17-37)

Ara elduta, Jesus'ek Lazaro lau egun ezker-
o illobian egoala aurkitu eban. Betania Jerusalem'
dik urrean egoan, amabosten bat estadiko bi-
dean (1). Judar asko Marta ta Mari'gana etorri
ziran, nebagaitiko samiña arei arintzeko. Marta,
Jesus etorrela entzunda bereala, bidera joan ya-

(1) Amabost estadi: iru kilometru baiño gutxiago.

kon; Mari, barriz, etxean gelditu zan. Eta Marta'k Jesus'i esan eutsan: "Jauna, emen izan ba'zintzaz, nire neba ez zan ilgo. Orain bere ba-dakit orraitño, Jaungoikoari eskatu dagiozun guztia Jaungoikoak emongo dautsula".

Jesus'ek dirautso: "Zure neba berbiztuko da".

Marta'k dirautso: "Ba-dakit azken-egunean berbiztuko dana".

Jesus'ek dirautso: "Berbizkundera ta bizitza Neu naz: Nigan sinistu dagiana, il ezkeru here, biziko da; ta Nigan sinistuaz bizi dadiña, ez da egundo ilgo. Au sinisten dozu?".

Erantzun eutsan: "Bai, Jauna; Zu Mesias, lur onetara etorritako Jaungoiko biziaren Semea zara, sinisten dot".

Au esanda, joan zan, eta bere aizta Mari'ri ixilpean dei egiñik, esan eutsan: "Irakaslea dago or, ta Aregana joateko".

Mari, au entzun ordukoxe, jagi ta arin joan yakon. Jesus ez zan oraindik erritxora eldu, ta Marta'k aurkitu eban tokian egoan. Beingo baten Mari jagi ta urten zala ikusirik, etxean ari samiañ arintzen ziarden judarrak jarraitu eutsoen, illobira negar egitera joialakoan.

Mari, bada, Jesus egoan tokira eldu zanean, ikusi ebaneko, oiñetara auzpeztu yakon, esanaz: "Jauna, emen izan ba'zintzaz, nire neba ez zan ilgo".

Mari negarrez, ta onegaz etorritako judarrak be negarrez ikustean, Jesus'en barrua dardaraz ja-

rri zan; eta biotza erdibiturik, itandu eutsen: "Non jarri dozue?".

Esan eutsoen: "Jauna, zatoz ta ikusi egizu".

Jesus'ek negar egin eban. Eta judarrak iñoen: "Benetan maite eban gero!".

Beste batzuek, barriz, iñoen: "Itsuaeren begiak argitu ebazan Onek, orren iltea ez zeikean gale-razo?".

217. *Lazaro'ren berbizkundera.*

(Jon 11, 38-46)

Beraz, Jesus, barriro bere barruan dardaraka jarriarik, illobira urreratu zan. Illobi au artzulo bat zan, gaiñean arri bat ebal. Jesus'ek diño: "Kendu egizue arri ori".

Ildakoaren arreba Marta'k dirautso: "Jauna. onezkero atsa dario, lau egun ba-dira il zala-ta".

Jesus'ek dirautso: "Ez dautsut esan, bada, sinistu ba'dagizu, Jaungoikoaren aintza ikusiko dozula?".

Beraz, arria kendu eben. Jesus'ek, begiak zeruruntz zuzendurik, esan eban: "Aita, eskerrak dagaitsudaz entzun nozulako. Ba-nekian, bai, beti entzuten nozula; baiña inguruan dagozanokaitik esan dot, Zuk bialdu nozula sinistu dagien".

Au esanda, deadar gogorrez esan eban: "Lazaro, urten ortik!".

Eta bereala ildakoa urten zan, oin-eskuak lotuta, ta bere arpegia izaraz estalduta. Jesus'ek esan eban: "Askatu egizue ta doala".

Arrezkero, Mari'gana etorritako judar askok, Jesus'ek egin ebana ikusita, Aregan sinistu eben. Areitako batzuk, ostera, pariseotarrakana joan, eta Jesus'ek egin ebana azaldu eutsen.

218. *Judarren nagusiak Jesus il nai.*

(Jon 11, 47-53)

Orduan, Abade-nagusi ta pariseotarrak batzarez batu ziran, eta iñoen: "Zetan diardugu? Gizon orrek mirari asko egiten dauz-ta? Onela itzi ba'daigu, guztiak Aregan sinistuko dabe, ta erromarrek etorri ta eliza ta erria ondatuko dauskue".

Baiña areitako batek, urte aretan abadenagusi zan Kaipas'ek, esan eutsen: "Zuek ezer ez daki-zue; ta ez dozue gogoratzen gizon bat bakarrik erriagaitik il daiten oba dozuela erri osoa galtzea baiño".

Baiña au ez eban arek berez esan: urte aretako abadenagusia zan-eta, erri osoaren alde Jesus il bearra zala, aurretiaz iragarri eban; eta erriaren alde bakarrik ez, baita Jaungoikoaren ume banandutakoak batu egizan bere. Beraz, egun aretatik A (*Jesus*) iltea erabagi eben.

219. *Jesus Efren'era baztertzen da.*

(Jon 11, 54-56)

Beraz, arrezkero Jesus ez zan judarren artean agirian ibiltzen; eta andik basamortu ondoko alde-ra, Arefren deritzan urira alde egin eban, eta bere ikasleak ez egon zan an.

Judarren Pazko-jaiaren urtean zan, eta alderdi aretako lagun asko Pazko-aurrean Jerusalem'era euren garbiketarako egiteko igo ziran. Eta Jesus'en billa ebiltzan eliza-nagusian alkarri zirautsela: "Zer deritzazue? Jaitara ez da etorri-ta?".

Abade-nagusi ta pariseotarrak agindu au emon eben: Jesus non egoan iñok ba'leki, agertu egiala, atzitu* egien.

220. *Gaizpiderik ez emon. Iraiñak parkatu.*

(Lk. 17, 1-4)

Eta bere ikasleak esan eutsen: "Eziña da gaizpiderik ez izatea; baiña, gaizpidea sorrerazo dagianaren zoritxarra! Oba litzakio errotarria samatik lotuta, itxasora jaurtia izatea, txikitxo oneitako bati gaizpidea emon baiño. Zeuen ardura izan egizue. Zure anaiak pekatu egin ba'dagi, asarre egiozu; ta garbai ba'dagi, parkatu egiozu. Eta egunean zazpitan zure aurka pekatu egin ba'dagi, ta zazpitan zugana biurtu ba'dadi, "damuz natorkizu" esanaz, parkatu egizu".

221. *Sinistearen indarra. "Morroi txatxarrak gara".*

(Lk. 17, 5-10)

Eta Apostoluak Jaunari esan eutsen: "Sinismena geitu egiguzu".

Jaunak erantzun eutsen: "Zerba-azia besteko sinismena ba'zeukee, masustondo* orri "zusterretik

* Atzitu: apresar, prender.

urten eta itxasora alde adi" zuek esan ezkeru, esa-
na egingo leuskizue.

Morroia nekazaritzan edo artzaintzan izanda,
solotik etxera biurtu daitenean, zuetariko nok di-
rautso: "Ara, ator ona, maian jezarri adi"?, ala
ez dirautso, ostera: "aparia gertatu egidak, gerri-
koa lotu ta jan-edanak ekarri egidazak; eta gero
ik jan eta edango dok"? (1). Morroiari eskerrik
zor al dautso, agindu yakona bete daualako? Nik
ez dot uste. Orrelaxe zuek bere, agindu yatzuen
guztia egin ondoren, esan egizue: "Morroi txatxa-
rrak gara: gure eginbearra baiño ez dogu egin".

III. JESUS JERUSALEM'ERA AZKEN-ALDIZ

222. *Amar legenardunak.*

(Lk. 17, 11-19)

Eta Jerusalem'erunzkoan, Jesus Samaria ta Ga-
lilea-zear joian. Eta erritxo baten sartzean, amar
gizon legenardun bidera urten yakozan; eta urrun
geldituta, deadar egin eutsoen, esanaz: "Jesus,
Irakasle, erruki zakiguz".

Ikusi ebazanean, esan eutsen: "Zoaze, ta aba-
deakana aurkeztu zaitze".

Ta, ara!, bidean joiazala, garbi egin ziran.
Areitako batek osatu zala ikusi ebanean, atzeruntz
egin eban, Jaungoikoa deadarrez goratzen. Eta Je-

(1) Jesus'ek orduko gizarteko oituraz itz dagi; bai-
ña onartzeke.

sus'en oiñetara auzpezturik, eskerrak egin eutsa-
zan. Gizon a Samariarra zan.

Orduan, Jesus'ek itz egin eta esan eban: "Ez
al dira amarrak garbituak izan? Non dira, bada,
beste bederatzia? Arrotz au baiño ez da izan
Jaungoikoa goresteko biurtu danik?".

Eta esan eutsan: "Jagi zaitetz ta zoaz; zeure si-
nisteak osatu zaitu".

223. *Jaungoikoaren Erreñuaren etorrera.*

(Lk. 17, 20-37)

Pariseotar batzuek itandu eutsoen: "Jaungoi-
koaren Erreñua noiz dator?".

Arek erantzun eta esan eutsen: "Jaungoikoaren
Erreñua agirian ez dator; "Ona emen", edo "Ara
an", bere, ez dabe esango; begira: Jaungoikoaren
Erreñua zeuen barruan dozue" (1).

Ta bere ikasleai esan eutsen: "Gizasemearen
egun bat beñik-bein ikusi izango dozuen garaia
(sasoia) etorriko da; ta *egun ori* ez dozue ikusi-
ko. Ta esango dautsue: "Emen dago; ara an".
Zuek ez ara joan, aren billa ez ibilli. Tximistak
diz-diz egitean, ortze (*zeru*) osoa alde batetik
bestera bere argiz igaroten dauanez, bere egunean

(1) Jaungoikoaren Erreñua, lenengo etorreran, ez
da zarataz agertzen; gure barruan dago, gure ariman.
Bigarren etorrera, barriz, azken egunean, zarataz ta
agiriz etorriko da. Baiña orduan be, Noe'ren eta Lot'en
egunetan legez bizi izaten idoroko dauz Jesu-Kristo'k
gizonak.

Gizasemea be arelaxe agertuko da. Baiña lenen-
go neke asko jasan bear dauz (*Gizasemeak, Jesus'ek*), ta gizaldi onek gaitzetsi* bear dau. Ta Noe ren egunetan jazo zana jazoko da Gizasemearen egunetan bere: jan, eta edaten, ezkontzen eta ezteguetan bizi ziran, Noe kutxan sartu zan egunearte: orduan uriola etorri zan eta guztiak iruntzi ebazan. Auxe berau jazo zan Lot'en egunetan bere: Jan, edan, saldu, erosi, landatu*, ta etxeak egiten bizi ziran; baiña Lot Sodoma'tik urten zan egunear, su ta arlarua (*azufrea*) zerutik jatsi zan eta guztiak galdu ebazan. Auxe berau jazoko da Gizasemea agertu daiten egunear bere.

Egun aretan, etxe-gaiñean egon daitena, ez bedi etxe-barruan dagizanak ateratera jatsi; zelaian egon daitena, ez bedi atzera etorri. Lot'en emazteaz gomuta zaiteze. Bere bizia gorde nai dagianak, galduko dau; ta galdu dagianak, gordeko dau. Ba-dirautsuet: gau aretan lagun bi egongo dira oge batean: bata artu ta bestea itzia izango da; emakume bi errotan alkarregaz eioten izango dira: bata artu ta bestea itzia izango da; lagun bi soloan izango dira: bata artu ta bestea itzia izango da”.

Orduan, areik dirautsoe: “Ori nun, Jauna?”.

Ta Arek erantzun eutsen: “Gorpua non, arranoak bere an batuko dira”.

* Gaitzetsi: reprobear.

* Landatu: plantar.

224. *Epaille lotsagabea ta emakume alarguna.*

(Lk. 18, 1-8)

Otoiketari beti ta eten baga ekin bear eutsela erakustearren, ipuin bat ekarri eutsen, esanaz: “Uri baten, ez Jaungoikoari bildurrik, ez gizoni lotsarik ez eutsan epaille bat zan. Urian bertan emakume alargun bat bere ba-zan; eta epailleagana etorri, ta zirautsan: “Zuzenbidea egidazu nire aurka diarduanari buruz”.

Baiña luzaroan ez eutsan emon nai izan. Gero, ostera, berekautan esan eban: “Ez Jaungoikoari bildurrik, ez gizoni lotsarik ez dautsadarren, alargun orri, orraitio, onen gogaikarri yatan ezker, zuzenbidea egingo dautsat; beste la azkenez etorri ta, urrean, arpegian joko nau-ta”.

Jaunak esan eutsen: “Entzun epaille gaiztoak diñoana. Eta Jaungoikoak ez dautse zuzenbidea egingo, Berari gau ta egun deadarrez diarduen bere aukeratuai? Edo-ta itxaron eragingo dautse? Ba-dirautsuet: bereala zuzenbidea egingo dautse. Baiña Gizasemeak, etorri daitenean, lurrean sinisterik aurkituko ete dau?”.

225. *Pariseotarra ta zergaria.*

(Lk. 18, 9-14)

Euren buruak zintzotzat eta besteak gaiztotzat ebezan batzui, Jesus'ek auxe esan eutsen: “Gizon bi, otoi egitera, Jaunaren etxera izo ziran; bata

pariseotarra, ta bestea zergaria (1). Pariseotarrak, zutik, bere artean onela iñoan: "Ene Jaungoikoa!, eskerrak dagitsudaz beste gizonak lakoa edo orrelako zergari ori legez, lapur, oker eta ezkontzanastaille* ez nazalako. Astero birritan barau egiten dot, eta nire ogasunen amarrenak emoten dodaz".

Zergaria, barriz, an urrunean egoala, begiak zeruruntz jasoten bere ez zan ausartzen; eta bular-joka iñoan: "Ene Jaungoikoa!, erruki zakidaz, pekataria naz-ta".

Ba-dirautsuet: au bere etxera zintzotuta biurtu zan; baiña bestea ez. Goratu daitena, beeratua izango da-ta; beeratu daitena, barriz, goratua".

226. *Perea'n: Ezkontza, ausi-eziña.*

(Mt. 19, 1-12. Mk. 10, 1-12)

Guzti oneik esan ebazanean, Jesus jagi ta Galilea'tik alde egiñik, Judea'ko lurraldera joan zan, Jordan beste aldera. Barriri bere, gizatalde aundia batu yakon eta jarraitu eutsan; eta barriri bere, oi ebanez, irakatsi egiten eutsen, eta geisoak osatzen ebazan.

Orduan, pariseotar batzuk urreratu yakozan, azpikeriz zirautsoela: "Zillegi al yako senarrari edozegaitik emaztea iztea?".

(1) **Zergaria:** zergak (tributuak, kontribuziñoak) batzen ziarduen gizonak.

* Ezkontza-nastaille: adúltero.

Jesus'ek erantzun eutsen: "Moises'ek zer agindu eutsuen?".

Areik esan eben: "Izte-agiria idatzita, emaztea iztea agindu eban Moises'ek".

Baiña Jesus'ek erantzun eutsen: "Ez al dozue irakurri Egilleak asieran arra ta emea egin ebazala, ta esan ebalá: "Onegaitik, gizonak aita ta ama itzi, ta bere emazteagaz batuko da, ta biak aragiz bat izango dira"? (1). Beraz, arrezkero ez dira bi, aragi bat baiño. Beraz, Jaungoikoak bat egindakoa (*alkartutakoa*), ez begi gizonak banandu".

Areik dirautse: "Zegaitik agindu euskun, bada, Moises'ek, izte-agiria emon eta bialtzeko?".

Jesus'ek dirautse: "Zuen biotz gogorragaitik Moises'ek zuen emaztea izteko baimen ori emon eutsuen; asieran, osterá, ez zan orrela. Ba-dirautsuet: oakidetasunagaitik izan ezik (1), norbaitek bere emaztea itzi ta beste bat artu ba'dagi, ezkontza loitzen dau; ta besteak itzitakoaz ezkondu ba'dadi be, ezkontza loitzen dau".

Eta esan eutsen: "Bere emaztea itzi ta beste bat artu dagianak, lenengoaren aurka ezkontza loitzen dau; eta bere senarra itzita beste bategaz ezkondu daiten emazteak, ezkontza loitzen dau".

Ikasleak esan eutsoen: "Senar-emazteen arte-

(1) Gen. 2, 24.

(2) Au da: emaztea beste baten emaztorde biurtu ezik beintzat, norbaitek...

ko auzia orrela izan ezkerero, ezkontzak irabazirik ez dakar" (1).

Jesus'ek dirautse: "Au ez dabe guztiak uler-tzen, onetarako ulermena emon yakenak baka-rrik baiño. Ba-dira irenak* amaren sabeletik orre-la jaiioak; baita gizonak orrelakotuak bere; baita zeru-erreñuagaitik euren buruaz orrela egiñak. Ulertu al dagianak, ulertu dagiala".

227. *Jesus'ek umetxoak bedeinkatzen dauz.*

(Mt. 19, 13-15. Mk. 10, 13-16. Lk. 18, 15-17)

Orduan, umetxo batzuk ekarri eutsuezan, es-kuak arein gaiñean ezarririk, ikutu egizan eta otoi egin egian. Ikasleak, barriz, ori ikusirik, umeai ta oneik ekarten ebazanai asarre egiten eu-tsen. Jesus'ek, ori ikusirik, asarretuta esan eu-tsen: "Itzi umetxoak Nigana etortzen, eta ez egie-zuc galera: Jaungoikoaren erreñua orrelakoena da-ta. Benetan dirautsuet: Jaungoikoaren erre-ñua umetxo baten antzera artu ez dagiana, ez da bertan sartuko".

Ta areik laztandurik eta eskuak arein gaiñean ezarririk, onesten (*bedeinkatzen*) ebazan. Eta an-dik alde egin eban.

(1) Onoimenaren (birtutearen) maitasunaren ez-kontzeke gelditzea, ezkontza baiño baliotsuagoa da izan. (Ikus Paulo Deuna, I Cor., 7, 25 ta ab.).

* Irenek: eunucos.

228. *Gazte aberatsa.*

(Mt. 19, 16-22. Mk. 10, 17-22. Lk. 18, 18-23)

Eta bidera urten zanean, gazte aundiki bat ariñeketan urreratu yakon; eta Aren aurrean be-launikoturik, itandu eutsan: "Irakasle on!, zer egin bear dot betiko bizitza jaristeko?".

Jesus'ek esan eutsan: "Zegaitik itantzen daus-tazu Niri ona zer dan? Zegaitik ona diraustazu? Ona, bat bakarra da, Jaungoikoa (1). Baiña be-tiko bizitzan sartu nai ba'dozu, aginduak bete egizuz".

Arek dirautso: "Zeintzuk?".

Jesus'ek dirautso: "Aginduak ba-dakizuz: iñor ez dozu ilgo, ezkontza ez dozu loituko, ez dozu ostuko, guzurrezko autorrik ez dozu esango, bi-debagakeririk (*edo iruzurrik*) ez dozu egingo, zu-re aitari ta amari lotsa izan egiezu, ta zure gei-dea (*lagun-urkoa*) zeure burua baizen maite izan-go dozu".

Gazteak erantzun eta esan eutsan: "Irakasle, guztiok txikitatik bete dodaz; zer egin bear dot besterik?".

Ori entzunik, ari begira jarririk, maiteki esau eutsan: "Bat ez dozu, orraitño, oraindagiño: guz-tiz ona izan nai ba'dozu, zoaz, dozun guztia saldu ta beartsuai emon egiezu, ta zeruan altxorra*"

(1) Ori, apaltasunez iñoan, edo-ta bere jaungoi-kotasuna ez agertzeko.

* Altxor: tesoro.

izango dozu; gero ona etorri, ta jarraitu egidazu”.

Gazteak, itzok entzun ebazanean, aurpegi ituzenez jarririk, atsekabez alde egin eban, aberatsa ta ondasun aundien jabe zan-eta”.

229. *Aberatsak nekez zeruan sartzen dira.*

(Mt. 19, 23-30. Mk. 10, 23-31. Lk. 18, 24-30)

Arela atsekabetu zala Jesus'ek ikusirik, ingurura begiratuta bere ikasleai esan eutsen: “Benetan dirautsuet: Jaungoikoaren Erreiñuan aberatsak bai nekez sartuko dirala!”.

Itzok entzunda, ikasleak arrituta egozan. Baiña Jesus'ek, barriro itz egiñez, dirautse: “Ene semeok!, barriro bere ba-dirautsuet: Bai nekez sartuko dirala Jaungoikoaren Erreiñuan euren ustea ogasunetan dagienak! Errazago da orratzulo-tik gamelua igaro daiten, aberatsa zeruko erreñuan sartzea baiña” (1).

Ikasleak orduan arrituagorik, alkarri zirautsen: “Nor zeruratu daiteke, beraz?”.

(1) Egi bi diñoskuz emen Jesu-Kristo'k: 1) aberatsak nekez sartuko dirala zeruan; 2) ori ez dala eziña Jaungoikoarentzat. Alan bere, gaitz dana, agirian dago, ezpai bagea. Orraitiño, izen dira aberats eta santu: biotza euren ogasunetan jarri ez dabelako. Gaitz da gizonarentzat au bere, ta obe Pedro'ren bidea artzea Jesus'i dirautsanean: “Ona gu, doguzan guztiak itzita, Zeuri jarraitu dautsugu”; naiz-ta gutxi izan Pedro'k itzi ebazan ogasunak, arrantzalea ta txiroa zan-eta. Alan bere, zeruko erreñuan epaikari izango dala agintzen dautso Jesus'ek.

Jesus'ek, arcikana begiraturik, dirautse: “Gizonentzat ori eziña da; Jaungoikoarentzat, ostera, ez: Jaungoikoak guztia egin daike-ta”.

Orduan, Pedro'k, itz egiñez, esan eutsan: “Ona gu, doguzan guztiak itzita, Zeuri jarraitu dautsugu; zer izango dogu, bada, ordaintzat?”.

Jesus'ek erantzun eutsen: “Benetan dirautsuet: Niri jarraitzen etorri zareenok, berbitaldian, Gizasemea bere aintzako aulkian jezarri daitenean, zuek be amabi aulkitan jezarriko zaree, Israel'go amabi erkiak* epaitzeko. Ta etxe, naiz anai-arreba, naiz guraso, naiz emazte, naiz seme-alabak, naiz soloak nire Izenagaitik eta Barriri Onagaitik itzi dagizanak, askozaz bere geiago, bateko eun artuko dauz, bizitza onetan jazarpenen erdian etxe, anai, arreba, aita, ama, seme, alaba ta soloak; zeruan, barriz, betiko bizitza. Ta orain lenengo diran asko, azkenengo izango dira, ta azkenengoak lenengo”.

230. *Mastiko langilleak.*

(Mt. 20, 1-16)

Zeruko erreñua, goizean-goiz bere mastirako langille-billa urten zan etxejaunaren antzeko da. Eta eguneko amarreko bana agindurik, bialdu ebazan. Irugarren orduan barriro urten zanean, enparantzan alperkerian beste batzuk aurkitu ebazan; eta esan eutsen: zoaze zuek be nire mastira ta bidezkoa dana emongo dautsuet.

* Erki: tribu.

Joan ziran, bada. Seigarren eta bederatzigarren orduan urtenda, beste arenbeste egin eban. Azkenez, amaikagarren orduan urten zan, eta bana naka batzuk lan bagarik ikusirik, esan eutsen: "Zetan zagoze or egun osoan ezer egiteke?". Areik esan eutsoen: "Inok ez gaitu aukeratu-ta". Dirautse: "Zoaze zuek, bere; mastira".

Illunabarrean, ugazabak bere morroi-nagusia-ri esan eutsan: "Langilleai dei egin eta egun-saria emon egiezu, azkenengoetatik asi ta lenengoetaraino". Eldu ziran, bada, amaikagarren orduan etorriak, eta denario bana artu eben. Lenengoak be eldu ziran, zerbait geiago artuko ebelakoan; baiña areik be denario bana baiño ez eben artu. Artutakoan, barriz, ugazabaren aurka mor-mor asi ziran, esanaz: "Egun bateko nekea ta beroa jasan* dogu guk; eta ordu bete baiño lan egin ez dabenokaz bardintzen gozuz?".

Baiña arek, areitariko bati erantzunik, esan eutsan: "Adiskide, ez dautsut bidegabekeririk egiten. Ez al neutsun amarreko bat (*denario bat*) agindu? Artu egizu, bada, zeurea, ta zoaz: baiña azkenengo orri bere, zuri aiña emon nai dautsat; ala nai dodanik ezin egin daiket? Ala, ni zuzena nazalako, zure begia okerra izango ete-da?".

Eraberean, azkenengoak lenengo izango dira,

* Jasan: soportar, sufrir, aguantar.

ta lenengoak azken (1). Deituak asko dira-ta, baiña autuak (*aukeratuak*) gutxi".

231. *Judea-ondoan. Jesus'ek Bere Nekaldia irugarrenez iragarten dau.*

(Mt. 20, 17-19. Mk. 10, 32-34. Lk. 18, 31-34)

Jerusalem'erako bidea igotzean, Jesus aurrean joiakien; eta areik arriturik bildurrez beterik erraiozan (*jarraitzen eutsoen*). Eta barrero amabi ikasleak ixillean Beragana arturik, jazoko yako-zanak esaten asi yaken: "Begira: Jerusalem era goaz, ta Gizasemeatzaz Igarleak idatzi daben guztia beteko da. Abade-nagusi ta lege-irakasle ta zaarren mendean jarriko dabe, eriotzarako galduko dabe, ta atzerritarren eskuetan itziko dabe; barre ta txistua botako dautsoe, iraindu ta zigorkadaz astinduko dabe, ta astindu ondoren, gurtzean ilgo dabe; baiña irugarren egunean herbiztuko da".

Areik, barriz, ez eben ezer bere ulertu; ta izkera au areintzat estalduta egoan; eta ez eutsoen esandakoa igartzen.

232. *Zebedeo'ren emaztea ta semeak.*

(Mt. 20, 20-28. Mk. 10, 35-45)

Aretan, Zebedeo'ren semeen ama urreratu yakon, bere seme Jakob (*Santiago*) ta Jon'egaz; ta Ari gur-egiñik, zerbait eskatzekoa egin eutsan.

(1) Lenengo deituak, Israel'go agintari ta nagusiak izan ziran; baiña deia ez eben onartu.

Orduan, semeak esan eutsen: "Irakasle, guk eskatu dagitsugun guztia emon dagiguzula nai dogu".

Jesus'ek esan eutsen: "Ta zer nai dozue Nik egin daituedan?"

Areik erantzun eutsen: "Zure aintzaroan, bata zure eskumaldean eta bestea zure ezkerrekaldean jazarri gaitezala egiguzu".

Amak be orixe berori esaten eban: "Nire seme biok zure Erreñuan, bata zure eskumakaldean eta bestea zure ezkerrekaldean jazarri daitezala esan egizu".

Baiña Jesus'ek erantzun eta esan eutsen: "Ez dakizue zer eskatzen dozuen. Nik edango dodan ontzikoa zuek edan daitezue? edo Nik artu bear dodan bateoz bateatu al zaitezkeze?"

Areik dirautsoe: "Ba-daiketu".

Jesus'ek esan eutsen: "Nire ontzikoa, nonbait, edango dozue; ta Nik artu bear dodan bateoz bateatuak izango zaree; baiña nire eskumakaldean edo ezkerrekaldean jarrerazteko eskubiderik ez dot Nik; nire Aitak atondu dauzantzat izango dira toki areik".

Beste amarrak, au entzunik, Jakob (*Santiago*) ta Jon anai bien aurka asarratzen asi ziran. Baiña Jesus'ek, Beregana deiturik, esan eutsen: "Ba-dakizue, atzerriko buruzagiak erria euren mendean dabela, ta aundikiak errian nausikeria erabilten dabela. Zuen artean ez dadilla orrela izan, bestetara baiño: zuen artean andiena izan nai dagiana, zuen morroi izan bedi; ta zuen artean

buru izan nai dagiana, guztion mendeko izan bedi. Gizasemea be otseindu dagien ez zan etorri, otsein izatera ta bere bizia askoren ordain-sarizat emotera baiño".

233. *Jeriko'n: Timeo'ren seme itsua.*
Zakeo'ren etxean.

(Lk. 18, 35-43; 19, 1-10. Mk. 10, 46)

Eta Jeriko-ondora eltzean, itsu bat aurkitu eban bide-bazterrean jazarrita, eskean. Eta andik igaroten zan gizataldea entzun ebanean, zer ete-zan itandu eban. Eta Jesus Nazaretarra andik igaroten zala esan eutsen. Orduan, deadarka esan eban: "Jesus, Dabid'en Seme ori, erruki zakidaz!".

Aurretik joiazanak, isilik egoteko zirautsoen; baiña arek gero ta deadar andiangoaz, iñoan: "Dabid'en Seme ori, erruki zakidaz!".

Ta Jesus gelditu zan eta itsua bere aurrera ekarteko agindu eban. Urreratu yakonean, itandu eutsan: "Zer nai dozu egin daitzudan?"

Eta arek erantzun eutsan: "Jauna, ikusi dagidala".

Eta Jesus'ek esan eutsan: "Ikusi egizu, bada: zeure sinismenak osatu zaitu".

Ta berealaxe ikusi eban. eta Jesus'i jarraitu eutsan, Jaungoikoa goratuz. Eta erri guztiak bere, au ikusirik. Jauna goretsi eban.

Eta Jeriko'ra eldu dira. Ta ara sarturik, uria-zear joian. Eta Zakeo eritzan gizon bat zan,

zergari-buru ta aberatsa, ta Jesus nor zan ikusi nai eban; baiña ezin eban gizataldeagaitik, gorpuztez txikia zan-eta. Eta ariñeketan aurea artuaz, astigar batera igo zan, Jesus ikusteko, andik igaro bear eban-eta.

Jesus'ek, toki aretara eldu zanean, begiak jaso ta ikusi eban, eta esan eutsan: "Zakeo, jatsi arin, gaur zeure etxean gelditu bear dot-eta".

Beingo baten jatsi zan, bada, ta pozik artu eban etxean. Au ikusirik, guztiak mor-morka ziar-duen, gizon pekatari baten etxean gelditu zala-ta.

Baiña Zakeo'k, Jaunaren aurean zutik jarri-rik, esan eutsan: "Jauna, nik nire ondasunen erdia beartsuai emoten dautset; eta norbaiti zerbait bidebagez kendu ha'dagiot, lau aldiz beste arenbeste biurtzen dautsat".

Eta Jesus'ek esan eutsan: "Gaur etorri da etxe onetara osasuna, au be Abraham'en semea da-ta. Gizasemea, galdua billatzera ta osatzera etorri da-ta".

234. *Amar minak.*

(Lk. 19, 11-28)

Au entzuten ziarduenai, ipuin au esan eutsen: "Aundiki bat urruneko lurralde batera joan zan, ango lurraz jabetu ta barriro etorteko asmotan. Eta amar morroiari dei egiñik, amar mina (1) emon eutsezan, esanaz: "Jarri irabazitan, ni etorri arte".

(1) Mina bakoitza: 100 peseta urrezko inguru.

Baiña erritarrak gorroto eutsoen, eta atzetik geznariak* bialdu eutsoezan, esanez: "Ez dogu nai gizon ori jauntzat".

Arek, barriz, erriaz jabetu zanean biurtuta, dirua emon eutsen morroiari dei egin eutsen, bakoitzak zenbana irabazi eban jakiteko. Lenengoa etorri yakon eta esan eutsan: "Jauna, zure minak amar mina irabazi dauz".

Jaunak esan eutsan: "Ederto, morroi on! Gutxian zintzo izan zakidazalako, amar uriren nagusi egingo zaitut".

Bigarrena bere eldu zan, esanaz: "Jauna, zure minak bost mina irabazi dauz".

Oni bere esan eutsan: "Zu be bost uriren nagusi izan zaitekez".

Beste be etorri zan, esanaz: "Jauna, ona emen zure mina; zapi baten batuta euki dot. Bildur nintzakizun gizon zorrotza zaralako; ipiñi ez dozuna artu, ta erein ez dozuna batzen dozu-ta".

Jaunak dirautso: "Zure agoz galdu zara, morroi gaizto ori. Bazekian ni zorrotza nintzala, ipiñi ez nebana artu, ta erein ez nebana batzen dodala. Zegaitik ez dozu, bada, nire dirua irabazitan jarri, ta nik, etortean, irabaziaz jaso izango neukean?". Eta aurean egozanai esan eutsen: "Kendu egiozue mina ori, ta amar mina daukanari emon egiozue". Ta areik esan eutsoen: "Jauna, len be amar mina ba-dauz".

"Ba-dirautsuet: daukanari, emongo yako, ta

* Geznariak: mensajeros.

ugariago eukiko dau; ez daukanari, ostera, euki dagiana bere kendu egingo yako. Ta jauntzat nai izan ez naben arerioak, barriz, ona ekarri ta ni-re aurrean il egizuez”.

Itzok esanda, barrero aurrera joan zan, Jeru-salem'era igoten.

235. *Jesus'ek, Bartimeo ta beste itu bat osatzen dauz.*

(Mt. 20, 29-34. Mk. 10, 46-52. Lk. 18, 38-43)

Eta Jeriko'tik ikasleakaz urtetean, Jesus'i gizatalde aundiak jarraitu eutsan. Bartimeo, Timео'ren semea, ta beste bat, itsuak biak, bide-bazterrean jezarrita egozan, eskean. Eta Jesus Nazaretarra andik igaroten zala entzunik, deardarka asi ziran, esanaz: “Jauna, Jesus, Dabid'en Seme ori, erruki zakiguz!”.

Ta aurretik joiazanetariko askok isilik egoteko zirautsen; baiña areik, gero ta deadar aundiagoz, iñoen: “Jauna, Dabid'en Seme ori, erruki zakiguz!”.

Jesus'ek, gelditurik, esan eban: “Dei egiezue”.

Ta itsuai dei egiten dautse, esanaz: “Ea, bada!; jagi zaitzeze, dei egiten dautsuc-ta”.

Bartimeo, bere soingaiñekoa jaurtirik, beingo baten jagi ta beste itsuagaz Jesus'egana joan zan. Urreratu yakozanean, Jesus'ek, itz egiñez, itandu eutsen: “Zer nai dozue egin daitzuedan?”.

Itsuak erantzun eutsoen: “Jauna, begiok argitu ta ikusi”.

Jesus'ek, areitaz errukiturik, begiak ikutu ta esan eutsen: “Ikusi egizue; zoaze, zeuen sinismenak osatu zaitue”.

Ta berealaxe ikusi eben, ta Jesus'i jarraitu eutsoen, Jaungoikoa goratuz. Eta erri guztiak, jazo au ikusirik, Jaungoikoa goretsi eban.

236. *Betania'n: Mari'k Jesus'i oiñak garbitzen dautsaz.*

(Mt. 26, 6-13. Mk. 14, 3-9. Jon 12, 1-11)

Pazko-jaija baiño sei egun lenago, Jesus Betania'ra joan zan, Jesus'ek berbiztutako Lazaro bizi zan tokira. Ta apari bat gertatu eutsoen, Simon legenardunaren etxean (1); Marta maian mirabetzan ziarduan, eta Jesus'egaz maikidetariko bat Lazaro zan. Mari'k, bada, artzuri*-ontzi baten libra bat akara* usaingarririk onenetariko artuta, Jesus'i oiñak igurtzi ta bere adatsaz* ezeindu* eutsazan; eta artzuri-ontzia ausirik, Jesus'en buru-gaiñera isuri eban. Eta etxea usaingarriz bete zan.

Beraz, ikasletariko batek, salduko eban Judas Iskariote'k, esan eban: “Usaingarri au, ze-

(1) Simon, Jesus'ek osatutakoa zan; Mari, berbiztu eban Lazaro'ren arreba.

* Artzuri: alabastro.

* Akara: nardo.

* Adats: cabellera.

* Ezeindu: secar.

gaitik ez da irureun denariotan saldu (1), saria beartsuai emoteko?”.

Au esan eban, ez beartsuen arduraz, lapurra zalako baiño: berak eukiten eban diru-zorroa-ta, ara sartzen zana beretzan artzen eban. Onetan, beste ikasle batzuek, Mari'k egin ebana ikusirik, asarretuta iñoen: “Usaingarri au, zetarako galdu da alperrik?”. Eta Mari'ren aurka gogor asi ziran. Baiña Jesus'ek esan eutsen: “Itzi egizue. Zegaitik naigabetzen dozue emakume au? Benetan, egingta ona egin dau Nire alde. Txiroak beti dozuez zuekaz (2), ta nai daizuenean on egin daikeezue; Ni, barriz, ez nozue beti zuekaz. Al izan dauana egin dau: usaingarri au nire gorputz-gaiñera isuriz, nire gorputza illobirako aurretiaz igurtzi dau-ta. Benetan dirautsuet: ludi (*mundu*) guztian Barri On au irakatsi daiten edozein tokitan, emakume onek egin dauana, bere, zabalduko dabe, heronen gomutagarritzat”.

(1) Irureun denario: 240 urrezko peseta.

(2) Aldi aretan beintzat, txiroak, beartsuak, ba-ziran; baiña ez diño gero bere izango ziranik. Eta guk alegin guztiak egin bear doguz gutxitu daitezcan, zuzentasuna, errukia ta maitasuna ageturik. Izan bere, Elizaren lenengo aldietan, Apostolu-aldieta, kristautasuna oso-osorik eta zeatz beteten zanean, ez egoan txirorik. Auxe diño beintzat Paulo Deunak “Bidalien Egiñak” idaztitan —ta egia izan bear—: “Txirorik (landerrik, beartsurik) arein artean bat bere ez egoan; euren solo ta etxeak jabe guztiak saldurik, ordaiña ekarri ta bidalien (apostoluen) oiñetan jarten ebelako; ta andik bear aiña bakoitzari emoten yakon” (4, 34-35). Ikasbi-de ederra gure lenengo kristauak damoskuena!

Onetan, judatar askok Jesus an egoala jakiñik, ara jo eben, Jesus'egaitik bakarrik ez, illen artetik biztu eban Lazaro ikusteko be bai. Abade-nagusiak, barriz, Lazaro iltea erabagi eben, au zala-ta beredin judatar areikandik alde egin eta Jesus'egan sinisten eben-eta.

IV. ASTE GURENEAN JAZORIKOAK. ABAR-IGANDEAN.

237. *Jesus ospez beterik sartzen da Jerusalem'en.*
(Mt. 21, 1-9. Mk. 11, 1-10. Lk. 19, 29-40. Jon 12, 12-19).

Biaramonean, Jerusalem'era urreraturik, Oliamendi-aldeko Betfage'ra eldu ziranean, Jesus'ek bere ikasletariko bi bialdu ebazan, esanaz: “Zoa-ze aurreko erritxo orretara; an sartuaz batera, astoama bat idoroko dozue lotuta, ta aregaz astakume bat, gaur arte iñor gaiñean jarri ez yakona: askatu ta ekarri egidazue. Ta norbaitek itandu ba'daitzue: “Zer dagizue? Zegaitik askatzen dozuez?”, esango dautsazue: “Jaunak bear dauz; baiña berealaxe ekarriko dautsuz”.

Joan ziran, bada, bialdutako ikasleak, eta dana Jesus'ek esan eutsenez idoro eben: astakumea ateaurrean lotuta, bidiburuan. Astakumea askatzen ziarduela, an egozan jabeak esan eutsen: “Astakumea zegaitiki askatzen dozue?”.

Areik erantzun eutsen: “Jaunak bear daualako”.

Ta angoak bereala itzi eutsen eroaten.

Orduan, astoama ta astakumea Jesus'i eroan eutsoezan. Eta soiñekoak astakumeari ezarririk, gainean Jesus jezarri eben. Guzti au jazo zan, Igarleak esandakoa bete zedin: "Esan egiozue Sion'go alabari: Ez bildur izan. Or datorkizu zure errege, astoama-gaiñean, buztarpeko aberearen astakume-gaiñean jezarrita" (1).

Aren ikasleak ez eben lenengo au ulertu; baiña gero Jesus goretsia izan zancan, Aretzaz idatzita egoala ta aurak bete ebela gogoratu eben.

Eta Jesus aurrera joiala, gizatalde aundiak euren soingaiñekoak A (*Jesus*) joian bidean zabaltzen ebezan; beste batzuek zugatzetatik adarrak ebagi, ta bide -gaiñean jarten ebezan. Eta Oliamendi-barren aldera urreraturik, ikasle sailleko guztiak, eta aurretik eta atzetik joian gizataldeak, pozaren-pozez Jaungoikoa goresten asi ziran, ikusitako mirari guztiakaitik, eta deadarka inoen: "Gora Dabid'en Semea! Onetsia (*bedeinkatua*) Jaunaren izenean errege datorrena! Onetsia gure aita Dabid'en Erreiñua! Bakea zerruan, gora ta aintza goietan!".

Jaitara etorri zan gizatalde aundiak, Jesus Jerusalem'era etorrela jakin ebenean, ereiñotz-abarrrak artu ta bidera urten yakozan deadarka: "Hosanna! Gora Jaunaren izenean datorkiguna, Israel'go errege!".

Lazaro illobitik deitu ta illen artetik berbiztu ebanean Jesus'egaz egoan gizataldeak, orrela

(1) Zak. 9, 9-10.

goresten eben orain Jesus; eta aregaitik, mirari a egin ebala entzun ebelako, gizataldea bidera urten yakon.

Pariseotarrak, barriz, alkarri esan eutsen: "Ez dakusue? Ez dogu ezer lortzen. Or, bestela!, guztiak atzetik doakioz".

Eta gizatalde arteko pariseotar batzuek Jesus'i esan eutsoen: "Irakasle, zure ikasleai asarre egiezu".

Baiña Arek erantzun eutsen: "Ba-dirautsuet: oneik isildu ba'lediz, arriak deadar egingo leuke".

238. *Jesus, negarrez.*

(Lk. 19, 41-44)

Urreratu ta uria ikusi ebanean, aregaitik negar egin eban, esanaz: "Zuk bere (1) ezagutu ba' zengi, zure egun onetan beintzat, bakerako zarazana! Orain, barriz, zure begientzat estalduta dago. Zure arerioak lubakiz* inguratu, barruan artu ta alde guztietatik estutuko zaituen egunak etorriko yatzuz-ta; zu ta zugan diran zure semeak lurreragiño beeratuko zaitue, ta arririk arri-gaiñean ez dabe itziko, zure ikerraldi-eguna* ezagutu ez dozulako".

(1) **Zuk bere:** au da, goraka diarduen beste oneik legez.

* Lubaki: trinchera, foso.

* Ikerraldi: ikustaldi: visitación.

239. *Jesus urian eta Eliz-nagusian sartzen da.*
(Mt. 21, 10-17. Mk. 11, 11)

Eta Jerusalem'en sartu zanean, uri guztia dea-
darka jarri zan, esanaz: "Nor da au?".

Baiña gizataldeak iñoan: "Jesus Igarlea da
au, Galilea'ko Nazaretarra".

Ta Jesus Jaungoikoaren Etxean sartu zan. Eta
itsuak eta errenak urreratu yakozan elizan, eta
osatu egin ebazan. Baiña abade-nagusi ta idazla-
riak Arek egindako mirariak ikusirik, eta elizan
"gora Dabid'en Semea" umeak deadarka ziar-
duela entzunik, asarre ziran; eta esan eutsoen:
"Entzuten dozu orreik diñoena?".

Ta Jesus'ek dirautse: "Bai; ez al dozue egun-
do irakurri: "Umetxoen eta bularrekoen agotik
atara dozu zure gorapena"? (1).

Areik itzirik, eta inguru guztia begiratu ondo-
ren, berandu zala-ta, amabiakaz uritik Betania'
ra urten, eta an gelditu zan.

A S T E L E N A

240. *Pikondo igartua.*

(Mt. 21, 18-19. Mk. 11, 12-14)

Biaramon-goizean, Betania'tik urten eta urira
etozala, Jesus gose izan zan. Eta urrunean, bi-
de-bazterrean, pikondo orritsu bat ikusirik, ber-
tara jo eban, zerbait idoroko eutsalakoan; baiña

(1) Ps. 8, 3.

bertara eldu zanean, orriak baiño ez eutsazan
idoro, ez zan piko-sasoia-ta (1).

Eta itz egiñez, esan eutsan: "Ez bekik, iñoiz
bere, alerik sortu; aurrerantzean iñok ez dagiala
ire arnaririk jan".

Eta ikasleak entzuten eben. Eta pikondoa
beingoan igartu zan.

241. *Elizatik salerosleak* jaurten dauz.*

(Mt. 21, 12-13. Mk. 11, 15-19. Lk. 19, 45-48)

Eta Jerusalem'era eldu ziran. Ta Jaungoikoa-
ren Etxean sarturik, an sal-erosketan ziarduenak
botaten asi zan, eta diru-aldatzailleen maiak eta
uso-saltzailleen aukiak itzuli ebazan. Eta ez eban
laketzen iñok ontzirik elizan zear eroan egian.
Eta irakasten ziarduan, esanaz: "Ez al dago ida-
zitza: "Nire etxea erri guztietan otoi-etxe izango
da?" (2). Baiña zuek *lapur-zulo* egin dozue" (3)

Au entzunik, abade-buruak eta idazlariak,
erri-nagusiakaz batera, A (*Jesus*) zelan galdu as-
matzen ziarduen, Aren bildur ziran-eta; ez ekien
Aretzaz zer egin, erri guztia Aren irakaspenez
arrituta egoan-eta.

(1) Jesus'ek ez ebazan pikoak idoro nai, judar
erriaren sinisgogorkeria ikasleai agertu baiño, irudi bi-
zitat pikondoa arturik: orriak, ale edo anari baga.

(2) Is. 56, 7.

(3) Jer. 7, 11.

* Salerosleak: saltzen eta erosten diarduenak: co-
merciantes.

Egun oro, barriz, (*Jesus*) elizan irakasten ziarduan. Eta berandu zanean, uritik urten egi-ten zan.

242. *Atzerritarrak Jesus'egaz.*

(Jon 12, 20-36)

Jaitan Jaungoikoari gur egitera igo ziranen artean, atzerritar batzuk ziran. Oneik, bada, Galilea'ko Betsaida errikoa zan Felipe'gana urreraturik, erreguz zirautsoen: "Jauna, Jesus ikusi nai dogu".

Felipe etorri ta Ander'i dirautso; ta biok Jesus'i dirautsoe. Jesus'ek erantzun eutsen, esanaz: Gizasemea goratua izan dadin garai (*sasoia*) eldu da. Bene-benetan dirautsuet: galgaraua lurrera jausi ta il ez ba'dadi, bakarrik gelditzen da; il ba'dadi, barriz, ale ugari dakar. Bere bizia maitte dagianak, galduko dau; ta bere bizia lurralde onetan iguin dagianak, betiko bizitzarako gordeko dau. Norbaitek nire morroi izan nai ba'dagi, jarraitu beist; eta ni egon naiten tokian, nire morroia bere egongo da. Nire morroi izan daitena, nire Aitak goratuko dau. Orain nire arima larri dot, eta zer esango dot? Aita, une onetatik atara nagizu. Baiña onexegaitik etorri naz une onetara. Aita, goratu egizu zure izena!".

Orduan, zerutik abots au jatsi zan: "Goretsi dot, eta barriro bere goratuko dot".

An egoan gizataldeak abots au entzunik, ostots (*trumoe*) bat zala iñoan. Beste batzuek iñoen: "Aingeru batek itz egin dautso".

Jesus'ek erantzun eta esan eban: "Abots ori ez da Nigaitik etorri, zuekaitik baiño. Oraintxe da munduaren epaiketa; orain mundu onen nagusia (1) kanpora jaurtia izango da! ta Ni lurretik gora jasoa izan nadinean, guztiak Neugana erakarriko dodaz".

Zelako eriotzaz ilgo zan adierazoteko iñoan au. Gizataldeak erantzun eutsan: "Mesias betiko biziko dala ikasi dogu guk Legean; zelan diñozu, bada, zuk: "Lurretik gora jasoa (2) izan bear da Gizasemea"? Nor da Gizaseme ori?".

Jesus'ek erantzun eutsen: "Oraindik apur bateko argia zuekaz dozue. Zabize, argia izan dagi-zuen artean, illunaldiak artu ez zagiezan; illunetan dabillenak, ez daki nora doan. Argia dagi-zuen artean, argiari sinistu egiozue, argiaren seme izan zaitezen".

Au esanda, Jesus'ek alde egin eban eta areikandik ezkutatu zan.

A S T A R T E A

243. *Pikondo igartua. Sinismenaren eta otoitzaren indarra.*

(Mt. 21, 20-22. Mk. 11, 20-26)

Goizean-goiz, pikondoaren ondotik igarotean, zusterreagiño igartu zala ikusi eben. Eta ikas-

(1) "Mundu onen nagusia", emen txerrena da.

(2) Gurutzean jaso, gurutzean josi.

leak ori ikusirik, arrituta iñoen: "Orren laster igartu da!". Eta Pedro'k, gogoraturik, esan eutsan: "Irakasle, begira: Zuk madarikatu zenduan pikondoa, igartu da".

Jesus'ek erantzun eta esan eutsen: "Izan egizue Jaungoikoagan sinistea. Benetan dirautsuet; sinistea ba'dagizue ta zuen biotzetan zalantzarik* ez ba'dagizue, ez dozue pikondo orri jazo yakona bakarrik egingo, baita mendi orri "kendu adi ortik eta itxasora jausi adi" esan ba'daiozue bere, arelaxe egingo da. Ta berak esandakoa jazoko dala sinistu dagianari, alaxe egingo yako. Onexegaitik dirautsuet: zuen otoiketean eskatu dagizuen edozer, artuko dozuela sinistu egizue (1), ta jaldetsiko dozue. Ta otoitz egitean, norbaiten aurka zerbait ba'daizue, parkatu egiozue, zeruko zuen Aitak be zuen pekatuak parkatu dagitzuezan. Zuek parkatu ez ba'dagiozue, barriz, zeruko zuen Aitak be zuen pekatuak ez daustuez parkatuko".

244. *Jesus'en eskubidea.*

(Mt. 21, 23-27. Mk. 11, 27-33. Lk. 20, 1-8)

Barriri bere, Jerusalem'era datoz. Eta elizan sarturik, erriari irakasten eta Barri Ona azaltzen ziarduala, abade-nagusi, idazlari ta erriko zaa-

(1) **Artuko dozuela**; beste batzuek (gerkeraz): **artu dozuela**, ziurtasun oso-oso edo ben-benetariko baiezkoa adieraziz.

* Zalantza: duda.

rrak, alkartuta, urreratu yakoan, eta esan eutsen: "Esan egiguzu: zein eskubidez diarduzu orrela? Ta eskubide ori nok emon dautsu?".

Jesus'ek erantzun eta esan eutsen: "Neuk, bere, itaun bat egingo dautsuet; erantzun ba'daidazue, barriz, Neuk bere esango dautsuet au zein eskubidez dagidan. Jon'en bateoa, nondik zan? Zerutikoa, ala gizonakandikoa? Erantzun egidazue".

Areik alkarregaz ziarduen, esanaz: "Zer esango dautsagu? "Zerutik" dala erantzun ba'daiogu, esango dausku: "Zegaitik ez zenduen, bada, sinistu?"; "gizonakandik" zala erantzun ba'daiogu. barriz, gizataldearen bildur gara ta erri guztiak arrika egingo leuskigu, urrean: guztiak Jon igarletzat dabe-ta".

Izan bere, guztiak Jon igarle jatortzat begiratzen eben. Eta Jesus'i erantzunik, esan eutsen: "Ez dakigu nondik dan".

Orduan, Jesus'ek bere esan eutsen: "Neuk bere ez daustuet esango au zein eskubidez dagidan".

245. *Mastira bialdutako seme biak.*

(Mt. 21, 28-32)

"Eta, zer deritzazue? Aita batek seme bi eban, eta lenengoagana urreraturik, esan eutsan: "Seme, zoaz gaur nire mastira, lanera".

Arek erantzun eutsan: "Ez dot nai". Baiña gero, damaturik, joan zan.

Eta besteagana urreraturik, beste arenbeste esan eutsan. Arek, barriz, erantzun eutsan: "Banoa, Jauna". Baiña ez zan joan. Bietariko nok egin eban aitaren naia?"

"Lenengoak", dirautsoe.

Orduan, Jesus'ek esan eutsen: "Benetan dirautsuet: zergariak eta emagalduak zeruko Erreinuuan zuek baiño lenago sartuko dira. Zuzenbidea erakutsiz etorri yatzuen Jon (*Bateatzaillea*), eta zuek ez zenduen sinistu; zergari ta emagalduak, barriz, sinistu eban; zuek, ostera, ori ikusita bere, ez zintzazan garbai izan, aregan sinisteko".

246. *Mastiko langille gaiztoak.*

(Mt. 21, 33-46. Mk. 12, 1-12. Lk. 20, 9-19)

Eta erriari ipuin au esaten asi zan: "Entzun egizue beste ipuin bat. Etxagun batek masti bat landu eban, esparruz inguratu, dolare* bat egin eta torre bat jaso eban. Gero nekazari batzui akuran* itzi eutsen, eta urrunera joan zan luzaroko.

Matsaroa* eldu zanean, nekazariakana morroi bat bialdu eban bere matsaren irabazia jasotera. Baiña nekazariak, morroiari eldurik, astindu ta esku-utsik bialdu eban.

Orduan, beste morroi bat bialdu eutsen. Au

* Dolare: lagar.

* Akuran: errentan.

* Matsaroa: mats-sasoia.

bere, astindu, buruan jo ta iraiñez bete ondoren, esku-utsik bialdu eban.

Irugarren morroi bat bere, bialdu eutsen. Au bere, zauritu eban, eta kanpora jaurtirik, il egin eban.

Barriro bere, beste morroi batzuk bialdu eutsesan, lengoak baiño geiago. Baiña guztiai bardin egin eutsen: au zauritu, ori il, besteari arrika egin.

Ugazabak ba-eban beste bat oraindik: bere seme kutuna; azkenez, axe bera bialdu eutsen, esanaz: "Zer egingo dot? Nire seme kutuna bialduko dautset; au ikusita, lotsa izango dautsoe, urrean". Eta alantxe egin eban.

Baiña nekazariak, semea ikusirik, alkarri zirautesen: "Auxe da oiñordekoa; zatoze, il dagi-gun eta orren ogasuna* geuretzat izango da". Atxillotu eban, bada, ta mastitik jaurtirik, il egin eban.

Beraz, masti-jabea etorri daitenean, zer egingo dautse nekazari arei?"

Batzuek dirautsoe: "Gaiztoak gogor galduko dauz, ta bere mastiaren irabazia sasoiz ordaindu dagioen beste nekazari batzui akuran (*errentan*) emongo dautse". Beste batzuek, au entzunik, esan eban: "Ez bedi orrelakorik egundo jazo!"

Baiña Jesus'ek begiratu ta esan eutsen: "Bai, bada: olantxe jazoko da. Ez al dozue bein bere Idaztietan irakurri: "Etxegilleak baztartutako

* Ogasuna: herencia, hacienda, bienes.

arria bera zoko-arri egin da? Jaunak egindakoa da ori, ta arrigarri da gure begietan”? (1). Orre-xegaitik dirautsuet: Jaungoikoaren Erreñua zuei kendu ta bere arnaria (*frutua*) ekarri daian erriari emongo yako. Ta arri onen gaiñera jausi daiten edonor, zatituko da; ta arri au gaiñera jausi dakiona, austuta geldituko da”.

Abade-nagusiak, pariseotarrak eta idazlariak aren ipuiñok entzunik, eurentzat esan ebazala igarri eben. Eta une aretan A (*Jesus*) atxillotu nai izan arren, erriaren bildur ziran, Igarletzat begiratzen bait-eben. Eta A itzirik, alde egin eben (2).

247. *Errege-etzeguak.*

(Mt. 22, 1-14)

Eta Jesus'ek, itz egiñez, barriro ipuiñen bidez ekin eutsen, esanaz: “Zeruko Erreñua, bere semearen etzeguak egin ebazan erregearen antzekoa da. Arek bere morroiak bialdu ebazan, etzegu-lagunai dei egitera; baiña oneik ez eben etorri nai izan. Barriro beste morroi batzuk bialdu ebazan, esanaz: “Eztegu-lagunai esan egiezue: Bazkaria gertu dago, idi ta abere gizenduak

(1) Ps. 117, 22-23.

(2) Ipuin onetan dago labur-labur Israel erriak Jaungoikoa'z izan ebazan artu-emonak. Ondotxo ulertu eben entzuleak Jesus'ek esan nai eutsena. Moises'en curka basamortuan, Igarleak il, eta Mesias, Jaungoikoaren Semea bere, il egin nai dabe. Beraz, Israel'en etorkizuna be, pikondoaren lakoa izango da.

ilda daukadaz, ta guztia gertu dago; zatoze ezteguetara”. Baiña areik ez eutsen erantzun; eta bata bere solora, bestea sal-erosketara joan ziran. Besteak, barriz, aren (*erregearen*) morroiak lotu, iraiñez bete, ta il egin ebezan. Au jakitean, erregea asarretu zan; eta bere gudaroztea bialdurik, odolzale areik ondatu ebazan, eta aren erria erre egin eban. Orduan, bere morroiak esan eutsen: “Ezteguak gertu dagoz; baiña deituak ez ziran gei (1). Zoaze, bada, bide-gurutzetara, ta idoro daizuezan guztiai ezteguetara dei egiezue”.

Morroiak, bideetara urtenda, idoro ebezan guztiak, on eta gaizto, batu ebezan (2); eta eztegu-maia maikidez bete zan. Maikideak ikustera erregea sarturik, eztegu-jantzirik ez ekarren gizon bat ikusi eban; eta esan eutsen: “Adiskide, eztegu-jantzi bagarik, zelan sartu zara emen?”. Arek, barriz, itzik bere ez. Orduan, erregeak bere laguntzailleai esan eutsen: “Esku-oiñak loturik, jaurti egizue kanpoko illunpetara; an izango da negarra ta agin-kirriskada!”. Deituak, asko; aukeratuak, barriz, gitxi dira-ta” (3).

(1) Euren erruz gei (duin) izan ez ziralako, ezetsiak izan ziran.

(2) Guztirakoak dagoz: onak eta gaiztoak; gaiztoak, bide zintzora biurtu bear dabe, ezetsiak ez izateko.

(3) Deituak asko: judar guztiak izan ziran; baiña areitatik, gutxi izan ziran aukeratuak.

248. *Kaisar'entzako zerga-ordainketa.*

(Mt. 22, 15-22. Mk. 12, 13-17. Lk. 20, 2-26)

Orduan, pariseotarrak joan eta alkarregaz itundu ziran Jesus izketan arrapatu ondoren, agintarien eta jaurlarien eskuetan jarteko. Onetarako, zelatan* jarririk, euren ikasle batzuk Erodestarrakaz bialdu eutsuezan, itzen bat zintzo-azalez jaso egioen. Eta itandu eutsoen: "Irakasle, ba-dakigu egizale zarana ta Jaungoikoaren bidea egiz irakasten dozuna, ta inoren ardurarik ez dozuna, ez dozu nor nor dan begiratzen-eta. Esan egiguzu, zer deritzazu? Kaisar'i zerga* emotea zillegi (*bidezko*) da, ala ez?"

Baiña Jesus'ek, arein gaiztakeria ta maltzurkeria ezaguturik, esan eutsen: "Zer dala-ta zirikatzen nozue, azalutsok? Ekarri egidazue txanpon bat, ikusteko" (1).

Ta denario bat erakutsi eutsoen. Eta Jesus'ek dirautse: "Irudi ta irakurgaiok norenak dira?" (2).

"Kaisar'enak", dirautsoe.

Orduan, Jesus'ek erantzun eta esan eutsen:

(1) Txanpona eskatzen dau, erantzuna aregan indartzeko. Arrisku aundiko erantzuna: baiiezkoa esan ezkerro, judar erri osoa aurka jarriko litzakeo; ezezkoa esan ba'dagi, barriz, erromatar agintariak eskua ezarriko dautsoe... Orrela ifioen pariseotar areik.

(2) Dirua erabiltea, mesede bat zan; eta eroian irudiak, esker ori egin eban agintaria adierazoten eban.

* Zelatan: en acecho.

* Zerga: tributo, contribución.

"Beraz, emon egiozue Kaisar'i Kaisar'ena, ta Jaungoikoari Jaungoikoarena" (1).

Ta ez eben itz baten bere arrapatu al izan erriaren aurrean, eta Aren erantzunaz arriturik, isildu ziran. Eta Jesus an itzirik, alde egin eben.

249. *Sadukeotarrak eta berbizkundera.*

(Mt. 22, 23-33. Mk. 12, 18-27. Lk. 20, 27-40)

Eta egun aretan bertan, berbizkunderik ez dala uste dabean sadukeotar batzuk urreraturik, itandu eutsoen, esanaz: "Irakasle, Moises'ek auxe itzi euskun idatzita: "Semerik bagako anai ezkondua norbaiti il ba'dakio, aren anaiak beretzat alarguna artu ta anai zanari ondorengoa sortu begio" (2). Ba-ziran, bada, gure artean zazpi anai; lenengoa ezkondu zan, baiña semerik bago il zan; eta bere emaztea bere anaiari itzi eutsan. Alargunagaz ezkondu, ta bigarrena, bere, semerik bago il zan. Arelaxe, zazpirak ez eben ondorengorik itzi. Azkenez, alarguna bera bere il zan. Beraz, barriro biztu daitezenean, zazpirak emaztetzat izan eben ezkerro, areitako norena izango da emazte?"

(1) Erantzun oneaz, erri-agintaritzak eta Elizaren agintaritzak, bakoitzak bere eskubideak dauzala iragarten dau Jesus'ek. "Erri-agintariei ta aberriari diogun zorrak edo eginbearrak, Yainkoarekiko ditugun betebear estuak ez dizkigu kentzen ez gutxitzen, ez eta Aren aginduak gutxiesteko eskubiderik ematen ere" (Olabide, "Idazteuna", 2.138 orr.).

(2) Deut. 25, 5-6.

Jesus'ek esan eutsen: "Oker zabiltze, Idaztiak eta Jaungoikoaren indarra ezagutzen ez dozuezelako. Mende* onetako gizakumeak, emaztea batzuk, eta besteak senarra artzen dabez; baiña beste mendea ta illen berbizkundera jaristeko gai izan daitezena, ez dabe emazterik ez senarririk artuko, ezin il izango dira-ta: Jaungoikoaren aingeru legez izango dira zeruan-eta; berbizkunde-semeak izanik, Jaungoikoaren seme dira-ta. Illak barriro bizten dirala, barriz, Moises'ek berak adierazoten dausku, "Sasia" deritzan alde aretan Jaungoikoari, "Abraham'en Jaungoikoa ta Jakob'en Jaungoikoa" deritzanean. Ez dozue irakurri Jaungoikoak an esan eutsana: "Abraham'en Jaungoikoa, Israel'en Jaungoikoa, ta Jakob'en Jaungoikoa naz Ni"? (1). Ez da, barriz, illen Jaungoikoa, biziena baiño, Arentzat guztiak bizi dira-ta. Beraz, oso oker zabize".

Gizataldea, au entzunik, Aren irakaspenez arrituta egoan. Orduan, idazlari batzuek itz egin eta esan eutsen: "Irakasle, ederto itz egin dozu".

250. *Legearen agindurik nagusiena.*

(Mt. 22, 34-40. Mk. 12, 28-34)

Pariseotarrak, Sadukeotarrak isillerazo ebazla jakiñik, batzarra izan eben. Eta arein arteko lege-irakasle bat, Jesus'ek sadukeotarrak izan eban eztabaida entzun eban bat urreratu yakon.

(1) Ex. 3, 6.

* Mende: siglo.

eta arei ondo erantzun eutsela ikusirik, azpikeriz itandu eutsan: "Irakasle, zein da Legean agindurik nagusiena ta lenena?".

Jesus'ek erantzun eutsan: "Guztietatik agindurik nagusiena auxe da: *Entzun, Israel; Jauna, zure Jaungoikoa, Jaungoiko bakarra da*"; ta "zure Jaungoiko Jauna biotz-biotzez, gogo-gogoz, adimen guztiz ta adore-adorez maite izango dozu" (1). Auxe da agindurik nagusiena ta lenengo. Bigarrena, barriz, onen antzekoa da: "*Zure geidea (lagun-urkoa) zeure burua baizen maite izango dozu*" (2). Oneik baiño agindu aundiagorik ez dago. Agindu bi oneitan batzen da Lege guztia, baita Igarleak bere" (3).

Lege-irakasleak esan eutsan: "Ederto, Irakasle; benetan esan dozu "Jaungoiko bat bakarra dala, ta A baiño ez dagoala; ta biotz-biotzez, gogo-gogoz, adimen guztiz ta adore-adorez Bera maite izatea, ta lagun-urkoa norbere burua legez, erre-opari* ta beste opari guztiak baiño obeda".

Jesus'ek, arek zuzen erantzun ebala ikusirik, esan eutsan: "Jaungoikoaren Erreiñutik urrun ez zagoz".

Ta arrezkero iñok ez eban Ari itantzeko aurpegirik.

(1) Deut. 6, 4-5.

(2) Lev. 19, 18.

(3) **Igarleak bere:** au da, Igarleak idatzirikoa bere.

* Erre-opari: holocaustos.

251. *Kristo, Dabid'en seme ta jauna.*

(Mt. 22, 41-46. Mk. 12, 35-37. Lk. 20, 41-44)

Eta pariseotarrak alkarregaz batuta egozala, Jesus'ek itandu eutsen, elizan irakasten ziarduala, esanaz: "Kristo nor dala deritzazue? Noren semea ete-da?"

Dirautsue: "Dabid'ena".

Arek dirautse: "Zelan, bada, Dabid'ek berak Espiritu Santuaren argiz, *Jauna* deritzo "Eresi-Idaztian", onela: "Jaunak nire Jaunari esan eutsan: Nire eskumaldean jazarri zaite, zure arerio guztiak oinperatu daitzudazan arte"? (1). Beraz, Dabid'ek *Jauna* ba'deritzo, zelan izan daiteke Dabid'en seme?"

Eta inok itzik ezin eutsan erantzun; arrezkerro, inor ez yakon ausartzen itaun barririk egiten. Eta gizatalde aundia pozik egoan Aren (*Jesus'en*) itzak entzuten.

252. "*Gorde gero Lege-irakasle ta pariseotarrakandik!*".

(Mt. 23, 1-36. Mk. 12, 38-40. Lk. 20, 45-47)

Orduan, Jesus'ek gizataldeari ta bere ikasleai itz egin eutsen, esanaz: "Moises'en irakastokian idazlari ta pariseotarrak jazarri dira. Esan dagizuen guztia egizue ta bete egizue, bada; baiña egiten dabeni ez egin: esan bai, ta egin ez, egiten dabe-ta. Zama (*sorta*) astun eta ezin-jasan

(1) Ps. 109, 1.

alakoak lotu ta besteen bizkarrean jarten dabez-ta; eurak, barriz, atzamar bataz bere ez dautse zirkiñik eragin nai. Egiten dabeni guztia, gizonak ikusi dagien egiten dabe: bekokian narru-zerrenda* zabalak eta soñekoan mendel* aundiak daroez-ta. Oturuntzetan* eta sinagoetan lenengo aulkiak nai dabez; enparantzetan agurtu dagiezan, eta gizonak Irakasle-izena emon daioen nai dabe.

Zuek, ostera, ez artu Irakasle izenik, bat bakarra da zuen Irakaslea-ta; zuek, barriz, anai zaree guztiok. Eta ez dei egin lurrean inori aita, bat bakarra da zuen Aita-ta: zerukoa. Irakasle izenik bere ez artu, bat bakarra da zuen Irakaslea-ta: Kristo. Zuetariko nagusiena, morroi beki-zue; goratu daitena, beeratua izango da-ta; beeratu daitena, barriz, goratua.

Zoritzarreko zuok, idazlari ta pariseotar azalutsok!, Gizasemeari zeruko erreinua itsi egiten dautsazue-ta: zeuok ez zaree sartzan, eta sartu nai dabena galera egiten dautsazue. Zoritzarreko zuok, idazlari ta pariseotar azalutsok!, emakume alargunen etxeak, itxuraz otoi luzeak egin-ñez, iruntziten dozue-ta; orregaitik epai zorrotzagoa izango dozue.

Zoritzarreko zuok, idazlari ta pariseotar azalutsok!, jarraitzaille bat irabazteko, itxasoa ta legorra inguratzen dozue-ta; irabazitakoan, barriz,

* Narru-zerrendak: franjas de cuero.

* Mendel: flecos.

* Oturuntza: banquete.

zuek baiño bitan su-lezerako gaiago (*duiñago*) biurtzen dozue.

Zoritxarreko zuok, bide-erakusle itsuok!, “eli-zagaitik egindako ziña* ezer ez da” diñozue-ta: “baiña elizako urreagaitik zin ba’dagi, bete bear dau”. Zoro ta itsuok! Zer da aundiago, bada; urrea, ala urre ori donesten (*santifikatzen*) dauan eliza? “Elizagaitik egindako ziña ezer ez da; baiña altare-gaiñean dagoan opariagaitik zin ba’dagi, bete bear dau”, diñozue gaiñera. Itsuok! Zer da aundiago, bada: oparia, ala oparia donesten dauan opari-maia? Beraz, altareagaitik zin dagianak, aregaitik eta aren gaiñeko guztiakaitik zin dagi; ta elizagaitik zin ba’dagi, aregaitik eta aretan dagoanagaitik zin dagi; ta zeruagaitik zin dagianak, Jaungoikoaren aulkiagaitik eta aulkian jazarrita dagoanaz zin dagi.

Zoritxarreko zuok, idazlari ta pariseotar azalutsok!, aizpatan, aneta ta txarpoillaren* amarrenak ordaindurik, Legean nagusi diran zuzentzanok, erruki ta sinismena alde batera izten dozuezanok! Oneik egitekoak ziran; areik, barriz, ez iztekoak. Bide-erakusle itsuok!, eltxoa irazi ta gamelua iruntziten dozuonok!

Zoritxarreko zuok, idazlari ta pariseotar azalutsok!, edontzi ta azpillaren* kanpokaldea garbi-

- * Ziña: juramento.
- * Aneta: anís.
- * Txarpoilla: camino.
- * Azpilla: plato.

izen dozue-ta; barrukaldetik, barriz, lapurkeriz ta lizunkeriz zagoze. Pariseotar itsu orrek: garbitu egizu lenengo edontziaren eta azpillaren barrukaldea, gero kanpokaldea be garbia gelditu dadin.

Zoritxarreko zuok, idazlari ta pariseotar azalutsok!, illobi zurituak dirudizue-ta: illobi orreik azaletik eder emoten dabe; barrukaldetik, barriz, illen azur ta edozelako loikeriz beterik dagoz. Orrelaxe zuek bere: azaletik zuzen itxuraz gizonai agertzen zakieze; ta barrukaldetik saldukeriz ta gaiztakeriz zagoze.

Zoritxarreko zuok, idazlari ta pariseotar azalutsok!, igarleen illobiak egin ta zintzo ziranen oroigailuak* apaintzen dozue-ta, esanaz: “Gure asaben* aldian bizi izan ba’gintzaz, ez gendukean areikaz bat egingo Igarleen odola isurteko”. Orrela, Igarleak il ebezenen seme zarela zeuok autortzen dozue. Bete egizue, bada, zuen asaben neurria! Sugetzar ta larrasugekumok! Inpernuko suari zelan iges egingo dautsazue?

Orregaitik, begira: Igarle, ikastun eta jakitunak bialtzen dautsuedaz Nik (1); zuek, barriz, areitako batzuk il eta gurutzean josiko dozue, ta beste batzuk zuen sinagogetan zigorkadaz astindu ta uriz-uri jazarriko* dozue: lurraren gai-

- (1) Orreik, Jesus'en ikasleak ziran.
- * Oroigalluak: monumentos.
- * Asabak: antepasados.
- * Jazarri, jazaritu: aurrean erabili: perseguir.

ñean isuritako odol zintzo guztia zuen gainera jausi dadin, Abel zintzoaren odoletik asi ta elizatik opari-mairako artean il zenduen Barakias' en seme zan Zakarias' en odolera gaino. Benetan dirautsuet: gizaldi oni guztiok gainera etorriko yako^z”.

253. *Jerusalem' en ondamedia iragarten dau.*

(Mt. 23, 37-39)

“Jerusalem, Jerusalem! Igarleak il eta zugana bialdutakoai arrika egiten dautsezun ori! Amaika bidar batu nai nabazan zure semeak, oilloak bere txitak egapean batzen dauzanez: ta zuk ez dozu nai izan. Orra, bada; etxea utsik geldiko yatzue. Ba-dirautsuet: ez nozue barriro ikusiko, “gora Jaunaren izenean datorrena” esan dagizuen arte (1).

254. *Emakume alargunaren limosnatxoa.*

(Mk. 12, 41-44. Lk. 21, 1-4)

Eta diru-kutzaren aurrean jezarririk (2), atabakan txanponak izten ebazanai begira egoan. Aberats askok dirua ugari izten eben; eta emakume alargun txiro bat etorririk, lauziriko aña

(1) Ps. 117, 26. — Ospatze orraz, judar erriaren geroko biurtzea adierazoten dau.

(2) Jerusalem' go Eliza Nagusian diru-kutxa bat zan, emakumeen atadian, amairu atabaka ebazula. An izten eben dirua, Jaunaren etxeko bearrizanetarako izaten zan.

diran zipatxo* bi atabakara bota ebazan. Eta Jesus'ek, bere ikasleai dei egiñik, esan eutsen: “Benetan dirautsuet: emakume alargun txiro orrek, beste guztiak baiño geiago atabakara bota dau. Jaungoikoaren oparietarako beste guztiak gainezka dabenetik bota dabe-ta; onek, barriz, bere apurtxotik biziteko eukan guztia bota dau”.

255. *Judarren sinisgogorkeria.*

(Jon 12, 37-50)

Arenbesteko mirariak Arek arein aurrean egin ebazanarren, ez eben Aregan sinisten, Isaias igarlearen itza bete zedin, esan ebancan: “Jauna!, guk esandakoa nok sinistu dau? ta Jaunaren besoa nori agertu yako?” (1).

Orregaitik, ezin sinistu eben, geiago bere esan eban Isaias'ek-eta: “Arein begiak itsutu dauz ta arein biotzak gogortu, arein begiez ikusi ez dagian, ezta biotzaz ulertu bere, bide onera biurtu ez dadizan, eta Nik osatu ez dagidazan” (2). Isaias'ek, Aren aintza ikusi ta Aretzaz itz egin ebanean, esan eban au.

Alan bere, nagusietariko askok Aregan sinistu eben; baiña pariseotarra eutsen bildurragaitik ez eben agirian autortzen, sinagogatik bota ez

(1) Is. 53, 1.

(2) Is. 6, 9-10.—Jaungoikoak ez dau gizona itsu biurtzen, “itsutzen itzi” egiten dautso bakarrik; gizonak bere naiez itsutzen dau bere burua.

* Zipatxo: cornadillo, balio gutxiko dirua.

egiezan: Jaungoikoaren aintza baiño gizonena naiago eben-eta.

Jesus'ek, barriz, deadar egin eta esan eban: "Nigan sinisten dauanak, ez daust Niri sinisten, bialdu nauanari baiño. Ta nakusanak (*ikusten nauanak*) bialdu nauana dakus. Ni lurrera argi-antzera etorri naz: Nigan sinistu dagianik bat bere illunetan ibilli ez dadin. Eta nire itzak entzun ondoren, gorde ez ba'dagiz, Nik ez dot epaituko, Ni ez naz etorri lurrera epaitzera-ta; ba-dau bere epaillea: Nik esandako itzak eurak, azken-egunean epaituko dabe. Neure buruz ez dot itz egin-eta; bialdu nauan Aitak ber-berak agindu daust esan eta azaldu bear dodana. Ta ba-dakit Aren agindua betiko bizitza dana. Beraz, Nik diñodana, Aitak agindu daustanez diñot".

256. *Jerusalem'go Eliza-nagusiaren ondamen-dia: Jesus'en iragarkiak eta apostoluen itaunak.*

(Mt. 24, 1-3. Mk. 13, 1-4. Lk. 21, 5-7)

Eliza-nagusitik urteterakoan, eliza arri ederezz ta opariz apainduta egoala iñoen batzuek. Eta Jesus'egana urreratuaz, bere ikasletariko bategen dirautso: "Irakasle, begira eliza orrek daukazan arriak eta lan ederrak!".

Jesus'ek erantzun eta esan eutsen: "Ormatzar guztiok ikusten dozue? Benetan dirautsuet: ez da or arri bat bestearen gainean geldituko, lurjo arte".

Eta Oliamendi'ra eldurik eta elizaren aurrez

aurre jezarrita egoala, Pedro'k agopekoz itandu eutsan: "Irakasle, esan egiguzu: noiz jazoko da ori? Eta guzti ori bete daiteneko ezaupidea, zein izango da? Ta zein zure etorreraren eta azken-egunaren ezaugarria?".

257. *Jerusalem'go eliza ta uriaren ondamendi ezaupideak.*

(Mt. 24, 4-14. Mk. 13, 5-13. Lk. 21, 8-19)

Eta Jesus'ek, erantzunik, esan eutsen: "Begira, gero: iñok ez zagiezala okerbidera eroan. Etorriko dira, bada, asko nire izena artuta "neu naz Kristoa; aldia etorri da" esanez; ta amaika lilluratuko* dabez. Ez joan, beraz, arein atzetik. Gudu*, gudaketa ta matxinada-otsak entzun dagizueztanean, ez ikaratu. Guzti orreik jazo bearrak dira; baiña ez dator oraindik azken-eguna".

Ta zirautsen: "Enda* bat bestearen aurka, ta erri bat bestearen aurka jagiko da; lur-ikara aundiak, izurriak* eta goseteak nonai izango dira, ta gertaketa bildurgarriak eta ezaupide aundiak ortzean (*zeruan*). Guzti orreik, barriz, miñen asiera dira.

Orduan, zuen buruok gorde egizuez. Baiña guztiok baiño len, atxillotu* ta jazartuak* izango

* Lilluratu: fascinar, seducir.

* Gudu, guda: guerra.

* Enda: raza.

* Izurriak: epidemias.

* Atxillotu: prender.

* Jazartu: perseguir.

zaree: epaitegi ta sinagogetara eroanak, espetxee. tan sartuak eta zigorkadaz astinduak: eta errege ta agintarien aurrera eroango zaeze nire Izenagaitik. Guztiok, barriz, arein aurrean autor egin daizuen jazoko yatzuez.

Atxillotuta auzitegira eroan zagiezenean, barriz, ez larritu aurretiaz gogoratzen zer esan eta erantzun bear izango douzen; une aretan burura etorri dakizuea, orixe esan bear izango dozue; zuen arerio guztiak ezin jarki* ta erantzun dartzuen itza ta sena emongo dautsuet Nik orduan-eta. Ez zaree izango zuek itz dagizuenak-eta, Espiritu Santua baiño.

Guraso ta anai, senide ta adiskideak izango dozuez salatzaile ta jazarle; ta zuetariko asko il egingo dabez; ta nire Izenagaitik guztien gorrotagarri izango zaree: orraitio, zuen buruko ule bat bere ez da galduko.

Orduan, askok okerbidera joko dabe, alkar salatu ta batek besteari gorroto izango dautso: anaiak anaia eriotzarako salatuko dau, ta aitak semea; ta gurasoen aurka semeak jagita, il egingo dabez. Ta sasi-igarle asko agertuko dira, ta lagun asko okerbidera eroango dabez. Ta gaiztakeria ugarituko danez, maitasuna oztuko da. Baiña azkeneragiño iraun dagiana, axe gaizkatuko da. Zuen arimak eroapenez gaizkatuko (*salbauko*) dozuez.

Baiña lenengo, Barri On au erri guztiai azaldu

* Jarki: resistir.

bear yake; ta Erreiñuaren Barri On au lurbira osoan zabalduko da, erri guztien agiritzat. Eta orduantxe etorriko da amaia”.

258. *Jerusalem'go elizaren eta uriaren ondormendia iragarten dau.*

(Mt. 24, 15-22. Mk. 13, 14-20. Lk. 21, 20-24)

“Jerusalem gudari-taldez inguratuta ikusi dagizuenean, aren ondormendia urrean dagoala ekizue. Ta Daniel igarleak aitaturiko ondormendi nardagarria toki donean —egon bear ez leukean tokian— ikusi dagizuenean, (irakurleak ulertu begi), orduan Judea'n dagozanak, iges begie mendietara, ta uri-barrukoak, kanpora urten bediz; ta sabaian dagoana, ez bedi jatsi etxera barrutik zerbait artzera; ta soloan egon daitena, ez bedi biurtu soiñeko-billa: asperkunde-egunak* dira areik-eta, idatzitako guztia bete daiten. Zorritxarra, egun areitan seiña egiteko ta seiña azten dagozanentzat! Otoitz egizue zuen igesa neguz edo larunbatez jazo ez daiten: izan bere, larrialdi aundia izango da; a lakorik, Jaungoikoak mundua sortu ebanetik gaur arte, ez da izan-eta, ezta izango bere.

Lur osoan larrialdi gogorra ta erri onen aurka asarrea izango da-ta. Batzuk ezpata-agoz ilgo dira; beste batzuk atzerri guztietara joputzarako* eroanak izango dira. Ta egun areik Jaunak la-

* Asperkunde: venganza.

* Joputzarako: joputza: esclavitud.

burtu ez ba'legiz, ez litzakean inor bizirik geldi-
tuko; baiña Berak aukeratu ebazanakaitik, la-
burtuko dauz Jaunak egun areik”.

259. *Gizasemearen bigarren etorreraren
ezaugarriak.*

(Mt. 24, 23-28. Mk. 13, 21-25. Lk. 21, 25-26)

“Norbaitek “ona emen edo ara an Kristo” esan
ba'daitzue, ez sinistu. Kristo aizunak (*guzurrez-
koak*) eta sasi-igarleak jagi, ta al ba'litz, auke-
ratuak curak be okertzeragiñoko ezaugarri ta mi-
rariak egingo dabez-ta. Gogoratu egizue, bada,
Neuk iragarri dautsuet dana. Beraz, esan ba'da-
gitzue: “Begira, basamortuan dago”, ez urten.
“Ara an etxe barruan”, ez sinistu. Tximista eguz.
ki-sortzaldetik urtenda saltzalderagiño agiri da-
nez, Gizasemearen etorrera here alantxe izango
da-ta (1). Gorpua egon dadin tokian, an egongo
dira arranoak here.

Egun areitako larrialdia igaro daitenean, bar-
riz, eguzki, illargi ta izarretan ezaugarriak ager-
tuko dira: eguzkia illunduko da, illargiak ez dau
argirik emongo, izarrak ortzetik(*zerutik*) jausi-
ko dira. Ta lurrean guztiak larri ta estu ibilliko
dira itxasoko orro ta uñakaitik (*olatuakaitik*); ta
lur guztiari jazo bear yakozanai begira, bildurrez
ta zalantzaz gizakumeak igartuta geldituko dira;
zeruko indarrak (2) kili-koloka asiko dira-ta”.

(1) Kristo'ren bigarren etorrera, guztick ezagutu-
ko dabe, inok esateke.

(2) **Zeruko indarra:** izarrak.

260. *Kristo'ren bigarren etorrera.*

(Mt. 24, 30-31. Mk. 13, 26-27. Lk. 21, 27)

“Eta orduan, Gizasemearen ezaugarria zeruan
agertuko da (1), ta lurreko erri guztiak bular-joka
asiko dira, ta Gizasemea odeietan etorten ikusiko
dabe, indartsu ta ospe aundiz. Eta bere Ainge-
ruak turuta-otsez bialduko dauz, ta Aren auke-
ratuak lau aldeetatik batuko dauz, zeru-mugatik
mugaragiño” (2).

261. *Jerusalem'go ondamedia, noiz?*

(Mt. 24, 32-35. Mk. 13, 28-31. Lk. 21, 28-33)

“Guzti oneik jazoten asi daitezenean, jagi ta
burua jaso egizue, zuen askatasuna urrean da-
go-ta”.

Eta ipuin au esan eutsen: “Ikasi egizue pikon-
do ta beste zugatzetatik. Pikondoari adarrak zil-
du (*samurtu*) ta orriak sortu dakiozanean, baita
zugatzak be euren arnariak ekarri dagiezanean,
uda urrean dagoala ezagutzen dozue.

Zuek here orrelaxe: guzti oneik ikusi dagizue-
zanean, jakin egizue Jaungoikoaren Erreiñua at-
aurrean urrean dagoala. Benetan dirautsuet: ez
da gizaldi au igaroko, guzti oneik bete arte (3).
Zeru-lurra igaroko dira; baiña nire itzak ez di-
ra igaroko”.

(1) Jesu-Kristo'ren ezaugarri ori, Gurutzea da.

(2) Jerusalem'en eta munduaren ondamedia-gaiak,
emen nastauta dagoz.

(3) Alantxe bete zan Jerusalem uriaren ondamen-
dia, ordutik 40 urtera jazo bere, 70'garren urtean.

262. *Kristo'ren bigarren etorrera, noiz?*

(Mt. 24, 36-41. Mk. 13, 32)

“Egun eta ordu aretzaz inok ezer ez daki, ez zeruko Aingeruak, ez Semeak, Aitak bakarrik baiño (1). Noe'ren egunetan legez jazoko da Gizasemearen etorreran bere. Uriol-aurreko egunetan, guztiak jan-edanetan, eta ezkontzen eta ezkonerazoten ziarduen, Noe kutxan sartu zan egunerarte; ta uriolak etorri ta guztiak eroan arte, ez ziran konturatu: orrelaxe izango da Gizasemearen etorreran bere.

Orduan soloan lagun bi egongo dira: bata artu ta bestea itzia izango da; emakume bik errotan eioten jardungo dabe: bata artu ta bestea itzia izango da”.

263. *“Ernai egon!”. Sarearen eta lapurraren ipuiñak.*

(Mt. 24, 42-44. Mk. 13, 33. Lk. 21, 34-36)

“Zuen ardura izan egizue, jan-edan eta mozkerkerietan eta bizitza onetako arazoetan biotza astundu ez dakizuen, eta egun a bat-batean etorri ez dakizuen; sarea legez lurbira osoan bizi diran guztiak etorriko yake-ta. Begira, bada: ernai egon eta otoitz egin, ez dakizue zuen Jauna zein ordutan etorriko dan-eta.

Ta ekizue: lapurra zein ordutan etorriko litzakean etxeko jaunak ba'leki, ernai egongo li-

(1) Jesus'ek ez daki **besteci esateko**, ori ez da esatekoa-ta.

tzake, aurki, ta ez leuke bere etxea zulatzen itziko. Zuek bere gertu egon, bada, uste ez dagizuen garaian (*sasoian*) Gizasemea etorriko yatzue-ta.

Beraz, ernai egon zaiteze beti, otoiketari, etorkizun guztioi iges egin dagiezuen eta Gizasemearen aurrean agertzeko gai izan zaitezen”.

264. *Iratzarririk dagozan morroiak; morroi zintzoa ta morroi gaiztoa.*

(Mt. 24, 45-51. Mk. 13, 34-37)

“Urrunera joateko bere etxetik alde egin eban egizon batek legez, eskubide osoa bere morroiari emon, eta bakoitzari eginbearra adierazorik, atezaiñari ernai egoteko agindu eutsan. Ernai egon, bada, illunabarrean ala gauerdian, oillarretan* ala goizaldean, etxeko jauna noiz datorren ez dakizue-ta; bat-batean etorririk, lotan idoro ez zageizan. Eta zuoi dirautsuedana, guztiak dirautset: Ernai egon!

Nor ete-da morroi zintzo ta zurra, bere jaunak etxeko morroi guztien buru jarri dauana, bear dan aldian jatekoa emon dagien? Zorionsua benetan, nagusiak etortean, orrela egiten idoro dagiana! Benetan dirautsuet: bere ondasun guztien buru jarriko dau.

Baiña alako beste morroi gaiztoak, bere barruan esan ba'dagi: “Nire ugazaba oraindik ez dator”, ta morroi-neskameak astintzen eta moz-

* Oillarretan: goizaldian oillarrak kantetan dauaneko aldia.

kortiakaz jan-edanetan asi ba'dadi, berak uste ez dagian egunean eta jakin ez dagian orduan morroiaren nagusia etorriko da, ta erdibituko dau, ta azalutsai zor yaken zoria emongo dautso: an izango da negarra ta agin-karraskada!"

265. *Neska burugabeak eta zurrak.*

(Mt. 25, 1-13)

"Orduan zeruko erreinua, euren kruseluak artuta senar-emaztegeiakana bidera urten ziran amar nesken antzeko izango da. Areitako bost, zoroak (*burugabeak*) ziran, eta beste bostak zurrak. Bost zoroak, euren kruseluak artuta, ez eben oriorik eurakaz artu; zurrak, ostera, orioa be euren ontzietan artu eben.

Onetan, senargeiak etortea luzatzen ebala-ta, guztiak lo-zorian eta lo-zorroan gelditu ziran. Baiña gauerdian deadar bat entzun zan: "Orra, senargeia ba-dator: urten zakioze bidera".

Neska guztiak, orduan, jagita, kruseluak atondu ebezan. Eta zoroak zurrari esan eutsen: "Emon eiguzue zuen oriotik gure kruseluak itzungitzen (*atzametan*) doaz-ta".

Zurrak erantzun eutsen: "Onenean guretzat eta zuentzat ez da naiko izango-ta, obe dozue saltzailleagana joan eta erosi dagiozuen".

Baiña areik erosten joiatzala, senargeia etorri zan, eta gertu egozanak aregaz ezteguetara sartu ziran, eta atea itxita gelditu zan. Geroago beste neskak bere etorri ziran, esanaz: "Jauna, Jauna, edegi eiguzu!".

Baiña arek erantzun eutsen: "Benetan dirausuet: ez zaituet ezagutzen".

Ernai egon, bada, eguna ta aldia ez-ezagunak dira-ta".

266. *Talentuen ipuiña.*

(Mt. 25, 14-30)

"Gizon batek, urrunera joaterakoan, bere morroiari dei egiñik, bere ondasunak itzi eutsezan. Bati bost talentu (1) emon eutsazan; beste bati, bi; beste bati, bat bakarrik, bakoitzari bere trebetasunari dagokionez, ta joan zan bereala.

Bost talentu artu ebazanak, irabazitan jarririk, beste bost irabazi ebazan. Talentu bi artu ebazanak bere, beste bi irabazi ebazan. Talentu bat artu ebanak, barriz, joanda, nagusiaren dirua atxurraz lurpean gorde eban.

Andik luzarora, morroi arein nagusia etorri eta kontuak garbitzen asi yaken. Eta bost talentu artu ebazanak aregana urreraturik, beste bost talentu ekarri eutsazan, esanaz: "Jauna, bost talentu itzi zeustazan: ona emen neuk irabazitako beste bost". Jaunak esan eutsan: "Aupa!, morroi on eta zintzo: gutxian zintzo izan zakidazalako,

(1) Talentua: balio aundiko dirua zan; talentu bakoitzak, 60 mina; ta mina bakoitzak, 100 peseta urrezko.

askoren gain jarriko zaitut: sartu zaitez zure nagusiaren pozetan”.

Eta talentu bi artu ebazanak bere, urreratuta esan eutsan: “Jauna, talentu bi itzi zeutazan: ona neuk irabazitako beste bi”. Nagusiak esan eutsan: “Aupa, morroi on eta zintzo!: gutxian zintzo izan zakidazalako, askoren gain jarriko zaitut: sartu zaite zure nagusiaren pozetan”.

Baiña talentu bat artu ebanak, urreraturik, esan eutsan: “Jauna, ba-dakit gizon gogorra zarena, erein ez zenduan tokian artzen dozula, ta zabaldu ez zenduan tokian batzen dozula. Beraz, bildurrez joan nintzan eta lurpean zure talentua gorde neban; emen dozu zurca”.

Aren nagusiak, erantzunik, esan eutsan: “Morroi gaizto ta alper orrek, ba-zekian nik erein ez dodan tokian artu, ta zabaldu ez neban tokian batzen dodana? Orrexegaitik nire dirua irabazitan jarri, ta, etortean, irabaziaz jaso izango neukean. Kendu egiozue, bada, talentu ori, ta amar talentu daukazanari emon egiozue. Euki dagianari, emongo yako, ta ugariago eukiko dau-ta; cuki ez dagianari, barriz, cuki daukala dirudiena bere, kendu egingo yako. Ta morroi alper ori kanpoko illunpetara jaurti egizue: an izango da negarra ta agin-karraskada!”.

267. *Azken-epaia.*

(Mt. 25, 31-46)

“Gizasemea bere ospetan Aingeru guztien erdian etorri daitenean, bere aulki ospetsuan jeza-

rriko da, ta erri guztiak Aren aurrean batuko dira, ta alkarregandik bananduko dauz, ardiak akerrakandik artzainak banantzen dauzanez. Ta ardiak bere eskumaldean, eta akerrak bere ezkerrekaldean jarriko dauz. Orduan, Erregek bere eskumaldekoai esango dautse: “Zatoze, nire Aitak onetsiok!; munduaren asieratik zeuentzat gertu dagoan erreñuaz jabetu zadize: gose izan nintzan, eta jaten emon zeusten-eta; egarri izan nintzan, eta edaten emon zeusten-eta; arrotz nintzan, eta etxean artu nenduzuen; billosik nengoan, eta jantzi nenduzuen; geisorik, eta ikustera etorri zintzakidazen; espetxean nengoan, eta Nigana etorri zintzazen”.

Orduan, zintzoak erantzungo dautsoe, esanaz: “Jauna!, noiz ikusi zenduguzan gosez, ta jaten emon geutsun; edo egarri, ta edaten emon geutsun? Noiz arrotz, ta etxean artu zenduguzan; edo billosik, eta jantzi zenduguzan? Edo noiz geisorik naiz espetxean Zu ikusita, Zugana joan gintzazan?”.

Eta Erregeak, erantzunik, esango dautse: “Benetan dirautsuet: “nire anai oneitariko txikienari egin zeutsena, neuri egin zeusten”.

Orduan, ezkerrekaldekoai bere esango dautse: Alde Nigandik, madarikatuok!, txerrenarentzat eta aren aingeruentzat gertatua dagoan betiko sutara. Gose nintzan, eta ez zeusten jatekorik emon-eta; egarri nintzan, eta ez zeusten edatekorik emon-eta; arrotz nintzan, eta ez nenduzuen etxean

artu; billosik nengoan, eta ez nenduzuen jantzi, geisorik eta espetxean, eta ez zeusten ikustaldi-rik egin". Orduan, areik bere erantzungo dautsoe, esanaz: "Jauna, noiz ikusi zenduguzan gosez, egarriz, arrotz, billosik, geisorik edo espetxean, eta ez gintzakizun lagun joan?".

Eta Arek erantzungo dautse, esanaz: "Bene-tan dirautsuet: oneitariko txikitxo bati egin ez zeutsena, Niri bere ez zeusten egin".

Eta oneik betiko oiñazetara joango dira; zintzoak, barriz, betiko bizitzara".

268. *Jesus'en arazoak azken-egunetan.*

(Lk. 21, 37-38)

Eta egunez elizan irakasten ziarduan; gabez, barriz, alde egin eta Oliamendi'n gelditzen zan. Eta goizean-goiz erri guztia elizan batzen zan Ari entzutera.

EGUAZTEN GUREN

269. *Batzarre nagusiaren erabagia.*

Judas'en saldukeria.

(Mt. 26, 1-5. Mk. 14, 1-2; 10-11. Lk. 22, 1-6)

Egun bi barru Pazko deritzan Otil-jaieguna ospatzen zan. Jesus'ek itzaldi guzti oneik amaitu ebazanean, bere ikasleai esan eutsen: "Badakizue Pazko-eguna etzidamu dana, ta Gizasemea arerioen eskuetan jarriko dabe, gurutzean josteko".

Orduan, abade-nagusi ta idazlari ta erriko zaarrak, Kaipas eritzan abade-nagusiaren etxe atadian batu ziran, eta Jesus maltzurkeriz atxilotu ta iltea erabagi eben. "Jaiegunean ez, baiña", iñoen; erriaren bildur ziran-eta, matxinadaren bat sortu ez zedin.

Baiña amabietariko bategan, Judas'egan —Iskariotes izenordez—, Satanas sartu zan; eta abade-nagusi ta ertzain-nagusiakana joan zan, Jesus arei saltzeko asmetan. Eta esan eutsen: "Zer emongo daustazue, ta neuk eskuratuko dautsuet?".

Areik, au entzunda, poztu egin ziran, eta ogetamar zidar-diru eskeiñi eutsoezan. Eta arek baiezkoa emon eutsen. Arrezkero, gizataldean isillean Jesus arei emoteko aukera billa ziarduan.

EGUEN GUREN

270. *Azken-aparitarako gertaerak.*

(Mt. 26, 17-19. Mk. 14, 12-16. Lk. 22, 7-13)

Pazko-Bildotsa ilteko Otil-eguna eldu zanean, ikasleak Jesus'egana urreratu ta esan eutsoen: "Non nai dozu Pazko-aparia atondu dagitzugun?".

Eta bere ikasletariko bi, Pedro ta Jon bialdu ebazan, eta esan eutsen: "Zoaze urira, ta bertara sartzean, gizon bat urtengo yatzue bidera, ur-edarra bat daroala; jarraitu egiozue sartu daiten etxeragiño, ta bertako ugazabari esan egiozue: "Irakasleak diño: nire aldia urrean dago: non dago nire jatokia, nire ikasleakaz Pazkoakoa jan

dagidan?”. Eta jan-gela aundi ta apaindu bat erakutsiko dautsue; ta antxe atondu egizue beardana”.

Ikasleak joan ziran, eta urira eldurik, dana esan eutsenez idoro eben; eta Jesus'ek agindu eutsenez egin eben, eta gertu eben Pazkoa.

271. *Pazko-apariaren asiera.*

(Mt. 26, 20. Mk. 14, 17. Lk. 22, 14-18)

Illunabarrean, amabiakaz eltzen da; ta apari-tarakoan, maian jezarrri zan, eta amabi apostoluak Aregaz. Ta esan eutsen: “Gogo biziz nengoa Nekaldia (*Pasiñoa*) baiño len Pazko au jateko. Ba-dirautsuet: ez dot beste bein jango. Jaungoikoaren Erreiñuan bete arte”.

Ta ardo-ontzia arturik, eskerrak eginda, esan eban: “Artu ta zuen artean banandu egizue; ba-dirautsuet: ez dot matsardorik edango Jaungoikoaren Erreiñua etorri arte”.

272. *Apostoluen eztabaida.*

(Lk. 22, 24-30)

Eztabaida sortu zan arein artean, euren artean andiena nor ete zeitekean (1). Baiña Jesus'ek esan eutsen: “Errien erregeak jabe agertzen yake, ta arein gain aginpidea dabenai, Ongille izena emoten yake. Baiña zuen artean ez bedi orrela izan,

(1) Eztabaida ori, maian jarrita berealaxe izan zan, itxuraz. Ziztrinkeri orreik, Espiritu Santuaren etorreraz zeatz ebagi ziran.

bestetara baiño: zuetariko aundiena, txikiena legez egin bedi, ta nagusia morroi legez. Nor da, bada, aundiena? aparitan dagoana, ala mai-morroia? Ez ete da maian jezarrita dagoana? Alan bere, Ni zuen artean morroi legez nago; ta zuek nire naigabe-aldietan Neugaz egon zaree; ta Nik Erreiñua gertu dautsuet, Niri Aitak atondu eustanez, Nire Erreiñuan Nire maian jan eta edan dagizuen, eta Israel'go amabi erkiak* epaitzeko auzi-aulkietan jezarrri zaitezen”.

273. *Jesus'ek bere ikasleen oiñak garbitzen.*

(Jon 13, 1-17)

Pazko-jai aurrean, Jesus'ek, gizarte onetatiik Aitagana biurtzeko aldia etorkiola jakiñik, lurrean egozan bereak maite izanik, azken-azkene-ragiño maite izan ebazan. Eta apaltzen asi ziran. Orduko, txerrenak Simon Iskariotes'en seme Judas'en biotzean Jesus saltzeko asmoa sartu eutsan. Jesus'ek ba-ekian Aitak gauza guztiak eskuetan ipiñi eutsazala, ta Jaungoikoagandik sortu zala, ta barriri Jaungoikoagana joiala; eta apari-maitik jagi, bere soiñekoa erantzi (1), ta esku-zapi bat arturik, gerrian lotu eban. Gero ontzi batera ura hotata, ikasleen oiñak garbitzen asi zan, eta gerrian eukan zapiaz ezeintzen (*legortzen*) (2).

(1) Au da: gaiñeko soiñekoa edo soingaiñekoa.

(2) Ugazabari oiñak garbitzea, morroien lana zan.

* Erki: tribu.

Simon Pedro'gana eldu zanean, onek dirautso: "Jauna, Zuk niri oiñak garbitu?".

Jesus'ek erantzun eta esan eutsan: "Nik dagi dana, orain zuk ez dakizu; gero jakingo dozu".

Pedro'k dirautso: "Ez daustazuz egundo oiño'k garbituko".

Jesus'ek erantzun eutsan: "Garbitu ez ba'zaidaz, ez dozu Nigaz artu-emonik izango".

Simon Pedro'k dirautso: "Jauna!, oiñak ba-karrik ez, baita eskuak eta burua bere".

Jesus'ek dirautso: "Garbituta dagoanak, oiñak garbitzea baiño ez dau bear, beste guztia garbi dago-ta. Ta zuok garbi zagoze, baiña ez guztiok".

Ba-ekian nok salduko eban-eta, aregaitik esan eban "ez zagoze guztiok garbi".

Oiñak garbitu eutsezanean, barriro bere soi-ñekoak jantzi ebazan, eta maian barriro jezarri-rik, esan eutsen: "Ba-dakizue zer egin dautsue-dan? "Irakasle" ta "Jauna" deitzen nozue, ta zu-zen deitu bere, izan bere ba-naz-ta. Baiña Nik, zuen Irakasle ta Jaun nazan onek, oiñak garbitu ba'dautsuedaz, zeuok bere alkarri garbitu bear dautsazuez. Ikasbidea emon dautsuet, bada, Nik zuoi egin dautsuedanez, zuek bere egin daizuen. Bene-benetan diñotsuet: morroia ez da bere nagusia baiño aundiago, ezta bialdua be bialdu dauana baiño. Au ulertu ta egin ba'daizue, zo-riontsu izango zaree".

274. *Jesus'ek Judas'en azpikeria agertzen dau.*
(Mt. 26, 21-25. Mk. 14, 18-21. Lk. 22, 21-23.)

Jon 13, 18-30)

Ez diñot au guztiakaitik; ba-dakit nortzuk au-keratu nebazan; baiña Idazkian dakarren au be-te bear zan: "Nire ogia Nigaz jan daiana, bere orpoa nire aurka jaso dau" (1). Oraindexek dirau-tsuet, jazo baiño len; gero, jazo dadiñean, ori Neu nazala sinistu daizuen. Bene-benetan dirau-tsuet: Nik bialdu dagiana onartu daianak, Neu onartzen nau; ta Ni onartu naianak, bialdu nau-na onartzen dau".

Au esanda, Jesus bere barruan larri baten ja-ri zan, eta argi ta garbi esan eban: "Bene-be-netan dirautsuet: Nigaz jaten diarduan zuetariko batek, arerioen eskuetan itziko nau: nire saltza-il-learen eskua, Nigaz maian dago".

Ta oso naigabeturik, bakoitza bata bestearen ondoren, esaten asi zan: "Ni ete-naz, Jauna?".

Arek, erantzunik, esan eutsen: "Amabietari-ko batek, Nigaz batera azpillean* eskua sartzen dauanak, orrexek salduko nau. Gizasemea ba-doa, Aretzaz erabagita ta idatzita dagoanez; baiña Gi-zaseme salduko dauanaren errukarria! Obe litz-a-kio jaio ez ba'litz".

Ikasleak, bada, alkarri begira asi ziran, no-gaitik iñoan ez ekiela; ta alkarri itaunka asi zi-ran, nor litzaken arelakorik egin zeikena.

(91) Ps. 40, 10.

* Azpil: plato.

Ta ikasletariko batek, Jesus'ek maite ebanak, bere burua Jesus'en bular gaiñean etzunda eukan. Pedro'k kiñu egiñik, dirautso: "Nogaitik diño ori?".

Orduan arek, Jesus'en bular-gaiñean etzanik, dirautso: "Jauna, nor da?".

Jesus'ek erantzun eutsan: "Nik ogia bustita emongo dautsadana, axe da" (1).

Eta ogia bustirik, Simon Iskariotes'en seme Judas'i emon eutsan. Eta agokada ondoren, txerrena sartu yakon. Eta Judas'ek, saltzailleak, itandu ta esan eutsan: "Irakasle, ni ete-naz?".

Ta Jesus'ek ari: "Zeuk esan dozu" (2). Ta Jesus'ek esan eutsan: "Egitekoa, egizu arin" (3).

Maikidetariko batek bere ez eban ulertu, au zetarako esan eutsan. Diru-zaiña Judas izanik, batzuek uste eben Jesus'ek auxe zirautsala: "Erosi egizu jai-egunerako bear doguna", edo beste la txiroai (*beartsuai*) zerbait emoteko.

Beraz, Judas'ek, agokada artu ondoren, berea-laxe alde egin eban. Eta gaua zan.

(1) Egitada samurra be samurra Jesus'ek Judas'i egin dautsana: ogi zati bat saldatan busti, ta emon. Judas'ek nai ba'leu, Jesus'en adiskidetasunean iraungo leuke.

(2) **Zeuk esan dozu:** au da, orrelaxe da, zeuk esan dozunez. Baiña ori Jesus'ek isillean erantzun eutsan, eta ez eben entzun beste ikasleak.

(3) Jesus eriotzarako gertu dago.

275. *Eukaristi deuna.*

(Mt. 26, 26-29. Mk. 14, 22-25. Lk. 22, 19-20.
I Kor. 11, 23-26)

Eta aparitan ziarduela, saltzen eben gabean, Jesus'ek ogia artu, onetsi ta eskerrak egiñik, zaitu ta bere ikasleai emon eutsen, esanaz: "Artu ta jan, au Nire Gorputza da, zuekaitik emoten dana. Egizue au Nire gomutaz".

Eta era berean, edontzia arturik, apal-ostean, eta eskerrak egiñik, emon eutsen, esanaz: "Edu egizue onetatik guztiok: au Nire Odola da-ta. Itua Barri-odola, pekatuen parkamenerako zuentzat eta askorentzat isuriko dana. Au edan daizuen ba-koitzean, nire gomutaz egizue".

Ta guztiak aretatik edan eben.

APARITAKO ITZALDIA ASIERA

276. *Jesus, goretsia. Agindu barria.* *Alkar maite.*

(Jon 13, 31-35)

Judas'ek alde egin ebanean, bada, Jesus'ek esan eban: "Gizasemea oraintxe goretsia izan da, ta Jaungoikoa Aregan goretsia izan da. Jaungoikoa Aregan goratua izan ba'da, Jaungoikoak be Beragan goratuko dau: ta laster ospatuko dau.

Semetxook, apur bateko naz zuekaz. Billatuko nozue; ta judatarrai esan neutsena, orain zuei

bere dirautsuet: "Ni joan nadin tokira, zuek ezin etorri zaitkeze (1). Agindu barri bat damotsuet: **ALKAR MAITE EGIZUE** (2). Nik maite izan zaituedanez, zuek bere alkar maite dagizuela. Onetan ezagutuko dabe guztiak Nire ikasle za-reela: zuek alkar maite izatean".

277. *Pedro'ren ukatzeak aurretiaz iragarten dauz.*

(Mt. 26, 31-35. Mk. 14, 27-31. Lk. 22, 31-38.
Jon 13, 36-38)

Simon Pedro'k dirautso: "Jauna, nora zoaz?"

Jesus'ek erantzun eutsan: "Ni noan tokira, zuk orain ezin jarraitu daikedazu: geroago jarraituko daustazu".

Pedro'k dirautso: "Jauna, zegaitik orain ezin jarraitu daikezut? Nire bizia emongo dot Zugaitik".

Jesus'ek erantzun eutsan: "Zure bizia Nigaitik emongo dozula? Bene-benetan dirautsuet: gau onetan guztiontzat gaizpidegarri izango naz; idatzita dago-ta: "Artzaiña joko dot, eta artaldeko ardiak sakabanatuko dira (3). Baiña

(1) Jon 7, 33; 8, 21.

(2) Agindu au ba-zan, baiña aurrerantzean indar aundiagoa izango dau: gizon guztiak artuko dauz: bearezko ba'litz, eriotza emon arteragiñoko maitasuna izan bear da, Jesus'ek egin eban antzera; ta au, Jaungoikoa-ganako maitasunarren.

(3) Zak. 13, 17.

berbiztu naitenean, Galilea'ra joateko aurrea artuko dautsuet".

Pedro'k erantzunik, esan eutsan: "Zutzaz guztiak lotsatu ba'daitez bere, ni ez naz lotsatuko".

Jesus'ek esan eutsan: "Benetan dirautsut, Pedro: gaur gabean, oillarrak bitan jo baiño len, iru bidar ukatuko nozu. Simon, Simon, begira: zuek garia legez baetzeko eskubidea eskatu dan txerrenak; baiña Nik zure alde otoi egin dot, zure sinistea eten ez dadin (1); zuk, barriz, noiz-bait zuzpertuta* gero, zure anaiak indartuz egi-zuz".

Baiña arek (*Pedro'k*) gero ta geiago eragoion*, esanaz: Jauna, Zugaz espetxera ta erio-tzara joateko bere, gertu nago. Zugaz batera il bear ezker bere, ez zaitut ukatuko".

Beste ikasleak bere, beste onenbeste iñoen.

Gero esan eutsen: "Zakuto, hide-zorro ta oski (*zapata*) bagarik bialdu zenduedazanean, zerbaiten bearrik izan al zenduen?"

Areik erantzun eutsoen: "Ezerenik bere ez".

Ta Arek esan eutsen: "Orain, barriz, zakutoa euki dagianak, artu begi; ta bardin bide-zorroa bere; ta ezpatarik euki ez dagianak, bere soingai-

(1) Guztien alde otoi dagi, baiña Apostoluen Buru danaren alde batez bere. Pedro'ren ukatzeak eta damua iragarten dauz.

* Zuzpertuta: reanimado.

* Eragoion: le insistía.

ñekoa saldu ta ezpata ori erosi dagiala (1). Egia esan, Nigan bete bear da idatzitako au: Gaizki-lletzat artua izan da" (2). Izan bere, Nitzaz idatzitakoa, laster bete bear da".

Areik esan cutsoen: "Jauna, ona emen ezpata bi".

Ta Arek esan cutsen: "Naiko da!".

278. *Pozkarri-itzak: Zerua agintzen dautse.*

(Jon 14, 1-4)

"Ez bekizue biotza larritu; Jaungoikoa sinisten dozue? Sinistu nagizue Neu bere. Nire Aitarenen Etxean egoteko asko dira: ezezkoan, esango neuskezuen; zuentzako tokia gertatzera noa. Joan ba'nadi ta tokia atondu ba'daitzuet, barriri etorri ta Neugaz artuko zaituet, Ni egon naiten tokian zeuek bere egon zaitezzen. Ni nora noan, barriz, ba-dakizue, ta arako bidea bere ba-dakizue".

279. *Tomas'en eta Felipe'ren itaunak.*

(Jon 14, 5-12)

Tomas'ek dirautso: "Jauna, nora zoazan ez daki, ta bidea zelan jakin daikegu?".

Jesus'ek dirautso: "Neu naz bidea, ta egia, ta bizitza. Aitagana iñor ezin etorri daiteke, nire

(1) Jesus areikaz bizi zan artean, ez eben ezeren bearrrik; baiña orain Jesus ba-doa, ta jazarpenerako gerturik egon bear dabe. Orraitiño, geroago —berbiztu ondoren—, Jesus'ek bere laguntasuna beti izango ebela agindu eutsen.

(2) Is. 53, 12.

bitartez baiño. Ni ezagutu ba'nenduzue, nire Aita bere ezagutuko zeunkeen; ta onez gero (*aurre-rantzean*) ezagutuko dozue; ta ikusi bere egin dozue".

Felipe'k dirautso: "Jauna, erakutsi eiguzu Aita, ta naiko dogu".

Jesus'ek diñotso: "Onen luzaro zuekaz egon, eta ez nozue ezagutu? Felipe, Ni ikusten nauanak, Aita bere ikusten dau. Zelan diñozu "erakutsi eiguzu Aita"? Ez dozue sinisten Ni Aitagan eta Aita Nigan dagoala? Itz egin daitzuedana, ez dautsuet Neronez itz egin: Nigan dagoan Aitak. Berak egin dauz nire lanak. Ez dozue sinisten Ni Aitagan eta Aita Nigan dagoala? Osterantzean, barriz, egiñai sinistu".

280. *Sinismenaren indarra.*

(Jon 14, 12-14)

"Bene-benetan dirautsuet: Ni sinisten nagianak, Nik egindakoak eta aundiagoak bere egingo dauz, Ni Aitagana noa-ta. Nire Izenean Aitari eskatu daiozuen edozer, orixe emongo dautsuet, Aita Semeagan goretsi daiten. Eta nire Izenean zer-bait eskatu ba'daistazue, emongo dautsuet".

281. *Beste pozkille bat.*

(Jon 14, 15-17)

"Maite ba'nozue, nire aginduak bete egizuez: ta Neuk eskatuko dautsat Aitari ta beste Pozkille bat bialduko dautsue, beti zuekaz egon dadin:

Egi-Gogoa, lurkoiak artu ez daikeena, ez dabe ikusten, ez ezagutzen-eta (1); baiña zuek ezagutuko dozue, zuenean eta zuekan egongo da-ta”.

282. “Ez zaituet umezurtz itziko”.

(Jon 14, 18-24)

“Ez zaituet umezurtz itziko: etorriko nakizue. Oraindik apur bat, eta ez nau gizadiak ikusiko; zuek, barriz, ba-nakutsue (*ikusten nozue*), Ni bi-zi naz-ta; zuek bere biziko zaree. Egun aretan ezagutuko dozue Ni Aitagan nagoala, ta zuek Ni-gan eta Ni zuekan. Nire aginduak artu ta gorde daizanak, arexek maite nau: maite naianak, barriz, nire Aita maite izango dau; ta Neuk, bere, maite izango dot, eta agertuko nakio”.

Judas’ek —Iskariote’k ez— dirautso: “Jauna, zer dala-ta guri agertu ta beste gizakumeai ez?”.

Jesus’ek erantzun eta esan eutsan: “Norbaitek maite ba’nau, nire itza gordeko dau, ta nire Aitak maite izango dau; ta etorriko gakioz, ta aregan egotez egongo gara. Maite ez nauanak, barriz, ez dauz nire itzak gordeten. Eta entzun daustazuezan itzok, ez dira Nireak, bialdu nauan Aitarenak baiño”.

283. *Barriro be Poz-emoillea agintzen dautse.*

(Mt. 26, 30. Mk. 14, 26. Lk. 22, 39. Jon 14, 25-31)

Itz oneik, zuekaz nagoala esan dautsuedaz. Baiña nire Izenean Aitak bialduko dauan Gogo (*Espiritu*) Deun Poz-emoilleak irakatsiko dautsue

(1) Lurkoiak, gogozko begiak ez dabezalako.

guztia, ta Nik zuei esandako guztia gogorazoko dautsue. Bakea izten dautsuet, nire bakea damo-tsuet, ez munduarena. Ez bekizue larritu biotza, ezta kukuldu bere. Esaten entzun nenduzuen: “Ba-noa, ta ba-natorkizue”. Maite ba’nenduzue, poz-tuko zintzakeze ziur Ni Aitagana joateaz, Aita Ni baiño aundiago da-ta (1). Eta orain, jazo aurretik esan dautsuet, jazo daitenean sinistu dagizuen. Onezkero ez dautsuet askorik esango, ba-dator, bada, mundu onetako nagusia (2), ta Nigan ikustekorik ez dau. Baiña Aita maite dodala ta Aitak agindu eustanez egiten dodala, munduak jakin bear dau (3). Jagi zaitezte, ta goazan emendik”.

Eta ereserkia esanda (4), Oliamendi’runtz urten ziran; eta ikasleak be Aregaz joan ziran.

284. *Oliamendi’runtz. Matsondoa ta aienak.*

(Jon 15, 1-10)

Orduan Jesus’ek dirautse (5): “Ni egiazko matsondoa naz, ta nire Aita mastizaiña. Nigan matsik ekarri ez dagian aiena, ebagi egingo dau;

(1) Semea, Aita baiño txikiago da **gizona denez.**

(2) Txerrena, bere jarraitzaileak otsein biurtzen dauz-ta. Baiña Jesus’i ezin ezer egin daikeo, pekatu bagea da-ta, Jaungoikoa gaiñera.

(3) Aitari dautsan maitasunarren doa eriotzara.

(4) Apalondocan, judarrak esker-ereserki batzuk esaten ebezan.

(5) Emendik aurrerako itzaldi-zatia, Getsemani’rako bidean esan eban Jesus’ek.

ta matsa ekarri daiana, barriz, iñausi, mats ugarriago ekarri dagian. Onezkero, zuek garbi zaree, esan dautsuedan itzaz. Zagoze beti Nigan, eta Ni zuekan. Matsondoan egon ezik, aienak berez arnaririk* ezin ekarri dauanez, ezta zuek bere Nigan iraun ezik. Matsondoa Neu naz; aienak, zuok. Nigan iraun dagianak, eta Nik aregan, ale ugari dakar! Ni бага, ezertxo bere ezin egin dozue-ta. Norbait Nigan egon ez ba'dadi, aiena legez, kanpora jaurtiko dabe, igartuko da, ta batu ta sutara botako dabe ta erreko da. Nigan egon ba'zadize, ta Nire itzak zuekan, nai dagizuena eskatu egizue, ta emongo yatzue. Zuek arnari ugari ekarri ezkerro, ta nire ikasle izan, nire Aita goratua da. Aitak maite izan nauanez maite izan zaituet Nik bere. Nire aginduak gorde ba'daizue, nire maitakuntzan iraungo dozue: Nik be nire Aitaren aginduak bete ta Aren maitakuntzan diraudanez (*irautea dodanez*). Guzti au, nire poza zuekan izan dadin esan dautsuet, eta zuen poza bete-betea izan dadin" (1).

285. *Lagun-urkoaganako agindua.*

(Jon 15, 12-17)

"Nire agindua auxe da: **ALKAR MAITE DAGIZUELA**, Nik maite izan zaituedanez. Bere adiskideakaitik bere bizia emoten dauanak baiño maitasun aundiagorik iñok ez dau. Zuek nire adis-

(7) Poza, maitasunaren ekarria da.

* Arnari: fruto.

kide zaree, nire aginduak gorde ba'dagizue. Arrerantzean, ez dautsuet morroi izenez dei egingo, morroiak ez daki ugazabak dagiana-ta. Baiña zuei adiskide esan dautsuet, nire Aitari entzun neutsan guztia jakinerazo dautsuet-eta. Ez nozue zuek aukeratu, Neuk zuek baiño: joan eta arnaria ekarri dagizuen, eta zuen arnaria iraunkor izan dadin aukeratu zaituet; eta nire Izenean Aitari eskatu dagiozuen edozer, emongo dautsue. Auxe agintzen dautsuet: **ALKAR MAITE EGI-ZUE!**".

286. *Lurkoiien gorrotoa.*

(Jon 15, 18-27; 16, 1-4)

Lurkoiak gorroto ba'dagitue, ekizue zuei baiño len gorroto izan daustela. Lurkoi ba'zintzaze, lurkoiak eurena maite izango leuke; baiña ez zaree lurkoi, Nik lurkoiien artetik aukeratu zaituet-eta: orrexegaitik gorroto dautsue lurkoiak.

Gogoan artu esan neutsuena: "morroia ez da nagusia baiño geiago". Ni jazartu ba'nabe, zuek bere jazartuko zaitue; nire itza artu ba'dabe, zuena bere artuko dabe. Baiña guzti au nire Izenagaitik egingo dautsue, bialdu nauana ez dabe ezagutzen-eta. Ni etorri izan ez ba'nitz, eta itzik egin izan ez ba'neutse, pekatuak ez leukeen; orain, barriz, ez dabe euren pekatuaren aitzakigarrik. Niri gorroto daistanak, nire Aitari gorroto dautso. Beste iñok egin ez dauzan egin-

tzak arein artean egin ez ba'neuz, pekaturik ez leukeen; orain, barriz, nire egintzak ikusi dabez, ta Aitari ta bioi gorroto dauskue. Bete bearra zan, urrean, arein legean idatzita dagoan au: "Zio* бага gorroto izan eusten" (1).

Baiña Aitagandik dan Egi-arnasa (2), Aitagandik bialdu dagitzuedanean, Berak egingo dau Nitzaz sinispide (3). Baita zuek be autor egingo dozue, asieratik Nigaz zabiltze-ta. Gauza oneik, gaizpiderik artu ez dagizuen esan dautsuedaz. Si-nagogetatik jaurtiko zaitue; ta aldia be etorriko da, il zaiezan edonok, orretan Jaungoikoa gurtzen diarduala uste izango dauana. Ta ori, ez nire Aita ez Ni ezagutzen ez gabezalako egingo dabe. Baiña gauza oneik, sasoi etorri dakienean, Nik iragarri neutsuezala gogoratu dagizuen, esaten dautsuedaz. Ez neutsuezan, barriz, asieratik esan, Ni zuekaz nengoa-eta".

287. *Espiritu Santuaren ekintza.*

(Jon 16, 5-15)

"Eta orain, bialdu nenduanagana noa, ta iñok bere ez daustazue itantzen: "Nora zoaz?". Baiña itzok esan dautsuedazalako, biotza naigabez bete yatze. Baiña egia dirautsuet: ondo datorkizue

(1) Ps. 34, 19; 68, 5.

(2) Egi-arnasa: Pozkillea, Espiritu Santua.

(3) Aita ta Semegandik datorren Espiritu Santuak beteko dau gure arimetan gure donekuntzaren egintza.

* Zio: motivo.

Ni joatea; Ni joan ez ba'nendi, Pozkillea ez litzakezue etorriko-ta; joan ba'nadi, barriz, Neuk bialduko dautsuet. Eta etorri daitenean, Berak salatuko dauz munduan pekatua, zuzena ta epaia. Pekatua, sinistu ez nabelako; zuzena, Aitagana noala-ta, aurrerantzean ikusiko ez nozelako. Epaia, mundu onetako nagusia onezkero epaituta dagoalako. Beste gauza asko dodaz oraindagiño zuoi esateko; baiña orain ezin ulertu daikezue. Baiña Egi-arnasa (*Espiritu Santua*) etorri daitenean, Berak erakutsiko dautsuez egi guztiak; bere buruz ez dau itz egingo-ta; baiña entzun dagian guztia esango dautsue, ta etorkizun guztia iragarriko dautsue. Arek goratuko nau, Niretik artuta adierazoko dautsue-ta. Aitak dauan guztia, Neurea da: onexegaitik esan dautsuet: Niretik artuta adierazoko dautsue".

288. *"Barriro ikusiko nozue".*

(Jon 16, 16-24)

"Oraindik apur bat, eta ez nozue ikusiko; ta barriro beste apur bat, eta ikusiko nozue, Aitagana nota-ta" (1).

Aren ikasletariko batzuek alkarri zirautsen: "Zer esan nai ete-dausku itz orreikaz: "laster ez nozue ikusiko, ta barriro apur bat eta ikusiko nozue, Aitagana noa-ta"?"

(1) Apur bat gerotxoago, ez dabe ikusiko, erioztara doa-ta; gerotxoago barriz, barriro ikusiko dabe, berbirtuko da-ta.

Areik iñoen, bada: "Zer ete-da "apur bat" ori? Ez dakigu zer diñoan".

Jesus'ek, zerbait itandu nai eutsoela igarririk, esan eutsen: "Oraindik apur bat, eta ez nozue ikusiko; ta barriro beste apur bat, eta ikusiko nozue" esan dautsuedalako, alkarri itaunka diarduzue. Bene-benetan dirautsuet: negarrez ta miñez ibilliko zaree, ta lurkoiak poztuko dira; zuek atsekabetuko zaree, baiña zuen atsekabea, poz biurtuko da. Emakumea, seiña egiteko dagoanean, larri egoten da, aldia eldu yako-ta; baiña seiña (*aurra*) egin ondoren, larritasun aretzaz ez da gomutatzen, umea bizitzara jaió dalako pozez dago-ta. Orrela zuek bere, orain goibel zagoze; baiña barriro ikusiko zaituet, eta biotza poztuko yatzue; ta zuen poz ori ez dautsue iñok kenduko. Egun aretan ezer ez daustazue itanduko. Bene-benetan dirautsuet: Aitari nire Izenean zerbait eskatu ba'daiozue, emongo dautsue. Orain arte ez dozue ezer eskatu nire Izenean: eskatu egizue, ta artuko dozue, zuen poza bete-betea izan dadin".

289. *Itzaldiaren azken-zatia.*

(Jon 16, 25-33)

"Gauza oneik ipuiñetan esan dautsuedaz: aldia ba-dator, ta aurrerantzean ez dautsuet ipuiñen bidez itz egingo; argi ta garbi emongo dautsuet Aitaren barri. Egun aretan nire Izenean eskatuko dozue: ta ez dautsuet esaten Nik Aitari zuen alde

otoi egingo dautsadanik; Aitak berak maite zaitue-ta, zuek Ni maite izan nozuelako ta Jaungoikoagandik etorri nazala sinistu dozuelako. Aita-gandik urten eta gizartera etorri naz: barriro gizardia itzi, ta Aitagana noa".

Ikasleak dirautsoe: "Orain argi itz dagizu, ta ipuiñik ez diñozu. Orain ba-dakigu dana dakizula, ta iñok Zuri itandu dagitzun bearrik ez dagoala. Orrexegaitik sinisten dogu Jaungoikoagandik sortua zarala".

Jesus'ek erantzun eutsen: "Orain sinisten dozue? Begira: Ni bakarrik itzita, bakoitza bere aldera banantzeko aldia ba-dator —eta etorri da—. Baiña bakarrik ez nago, Aita Nigaz dago-ta. Gauza oneik, Nigan bakea izan dagizuen esan dautsuedaz. Gizartean esturak izango dozuez; baiña izan ustea!, giza-indarra Neuk azpiratu dot".

JESUS'EN ABADE-OTOITZA

290. *Bere buruaren alde.*

(Jon 17, 1-5)

Gauza oneik esan ondoren, Jesus'ek begiak zeruruntz jasorik, esan ehan (1): Aita, ordua eldu da: goretzi egizu Semea, Semeak goratu zadizan;

(1) Ona emen Jon Deunaren Barri Onaren laburpena: Batasuna, maitasuna, egia, argia, ezagutza, bizitza. Kristo'k lurrekoai dagien Barria. Benetako Jaungoikoa denez, munduari agertu dajiola, eskatzen dauso Jesus'ek Aitari; ta ori, erietza, berbizkundera ta igokundearen bidez.

eta gizaki guztien gaineko jaubetza emon zeutsan ezkerro, Aren ardurapean jarri dozuzan guztiai betiko bizitza emon dagien. Eta betiko bizitza, auxe da: egiazko Jaungoiko bakarra zaran ori, ta Zuk bialdutako Jesu-Kristo ezagutzea. Lur-rean Nik goretsi zaitut; emon zeustan egitekoa, bete dot. Orain, bada, Aita, goretsi nagizu Zugan, lurra asi baiño len Zugan neban aintzaz”.

291. *Bere ikasleen alde.*

(Jon 17, 6-19)

“Gizartetik emon daustazuzan gizonai, Zure izena erakutsi dautset: Zeureak ziran eta Neureztat emou daustazuz; ta Zure Itza onartu dabe. Emon daustazuzan guztia Zeugandik datorrela, orain ezagutu dabe; Zuk emondako itzak emon dautsedaz-ta: eta onartu dabez; ta Zeugandik sortu nazala benetan ezagutu dabe, ta Zuk bialdu nozula sinistu. Arein alde otoi egiten dot. Lurkoiaren alde ez dot otoi egiten, emon daustazuzan alde baiño, Zeureak dira-ta; —nire guztiak, Zeureak dira, ta Zureak, neureak—; eta areikan goretsia izan naz. Onez gero ez nago gizartean; oneik, barriz gizartean dagoz, ta Ni Zeugana noa.

Aita deuna, emon daustazuzanak zaindu egizuz, Gu legez bat izan dadizan. Oneikaz nintzag artean, emon zeustazanok zure izenean zaintzen nebazan: ha-neban Nik onein ardura, ta euretariko bat bere ez da galdu, ondapen-semea baiño:

Idatzitakoa bete zedin. Orain barriz, Zeugana noa: ta gauza oneik, oraindik gizartean nagoala esaten dodaz, nire poza eurekan bete-beteagan dagien. Zure itza emon dautset; eta lurkoiak gorroto izan dautse, lur onetakoa ez dira-ta, Ni be lur onetakoa ez nazanez. Ez dautsut eskatzen gizartetik aterateko, Gaiztoa-gandik zaintzeko baiño. Ez dira munduarenak, ni be lurtarra ez nazanez. Donetsi egizuz egitan: Zure Itza Egia da-ta. Gizartera bialdu nozunez, Nik be gizartera bialdu dodaz. Eta oneikaitik nire burua donesten dot, oneik be egitan donetsiak izan dadizan” (1).

292. *Geroko Elizaren alde.*

(Jon 17, 20-26)

“Baiña ez dot onein alde bakarrik otoi egiten; onein itzaren bidez Nigan sinistuko dabenen alde bere erregutzen dautsut. Guztiak bat izan daitezala, Zu, Aita, Nigan eta Ni Zugan bat garanez; olantxe bat izan bediz, Zeuk bialdu nozula munduak sinistu dagian. Eta Zuk emondako aintza emon dautset arei, Geu bat garanez, areik be bat izan dadizan. Ni areikan et Zu Nigan oso bat izan daitezaz, gizaki guztiak ezagutu dagien Zuk bialdu nozula, ta Zuk Ni legez oneik maite izan dozuzala. Aita, Zuk Niri emondakoak, Nigaz batera ni nagoan tokian egon daitezala nai

(1) Jesus'ek bere burua oparizat eskeiñi ta donesten dau, Bereak be santutu daitezaz.

dot, Zuk emon zeustan aintza ikusi dagien, lur au sortu baiño len maite nozu-ta.

Aita zuzen ori!, lurkoiak ez zaitue ezagutu, nik, barriz, ezagutu zaitut, eta oneik bere ezagutu dabe Zuk bialdu nozula. Zure izena erakutsi dautset, eta barrero be erakutsiko dautset: maite izan nozun maitakuntza oneikan izan dadin, et Ni be oneikan izan nadin”.

IRUGARREN ZATIA

NEKALDI DEUNA

1.—GETSEMANI BARATZAKO OTOITZA.

293. *Baratzera eltzen da.*

(Mt. 26, 30-36. Mk. 14, 26-32. Lk. 22, 39-40.
Jon 18, 1-2)

Itz oneik esanda, Jesus bere ikasleakaz Kedron erreka-
ren beste aldera igaro, ta, oi ebanez, Oliamendi’ra joan zan. Eta Getsemani eritzan baratz-
te batera elduta, bertako esparruan sartu zan ikasleakaz. Judas saltzailleak bere ba-
ekian toki a, Jesus bere ikasleakaz an askotan batzen zan eta. Ara eldurik, bada, bere ikasleai esan eutsen: “Jezarri emen, Ni aruntzago otoi egitera noan bitartean. Otoitz egizue zuek bere, zirikal-
dian ez sartzeko”.

294. *Otoitza.*

(Mt. 26, 37-44. Mk. 14, 33-30. Lk. 22, 41-43)

Eta Pedro, ta Zebedeo’re-
n seme biak Jakob (Santiago) ta Jon beragaz arturik, ikaratzen eta

larritzen asi zan (1). Orduan dirautse: "Ilteko zorian larri dot biotza: itxaron emen eta egon ernai nigaz".

Eta zerbait aurreratuta, arrikada baten-edo barruan, eta belaunikoturik, lurrean auzpeztuta otoi egiten ziarduan, esanaz: "Abba, Aita!, Zuk dana daikezu; beraz, al ba-da, Zeuk nai ba'do-zu, ontzi au Nigandik alde eragizu; alan bere, ez bedi nire naia egin, Zurea baiño".

Eta ikasleakana bihurturik, lotan aurkitu eban, eta Pedro'ri dirautso: "Simon, lo zagoz? Ordu bete ezin egon izan zaree Nigaz ernai? Zagoze ernai ta egizue otoiitz, zirikaldian sartu ez zaitez. Gogo gertu dago, baiña aragia makal".

Eta barrero alde egiñik, bigarrenez otoiitz egin eban, itz bardiñak esanaz: "Ene Aita!, ontziko au Nik edateke ezin igaro ba'da, egin bedi zure naia". Ta bihurturik, barrero be lotan aurkitu ebazan, arein begiak astunduta egozan-eta; ez ekien, ostera, erantzuten.

Eta areik itzirik, barrero bere joan zan, eta irugarrenez otoiitz egin eban, itz berberak esanez. Orduan, zerutik Aingeru bat agertu yakon, Bera adoretuaz. Ta larri gorritan jarrita, otoi egiten gogorrago ziarduan, izardia lurreragiño, odol-tantaka eriola.

(1) Jesus'en irudi-aldatzean bere, iru Apostolu oneik egon ziran.

295. *Judas'i itxaroten.*

(Mt. 26, 45-46. Mk. 14, 41-42. Lk. 22, 45-46)

Eta otoiitzetik jagita ikasleakana iragurrenez etorririk, itunez lotan aurkitu ebazan. Eta esan eutsen: "Onezkero lo egizue ta atsedean artu... Lotan zagoze? Naiko da: ordua eldu da, ta Gizasemea pekatarien eskuetan jarria izango da. Jagi zaiteze, goazan; begira, urrean dago nire saltzaillea".

296. *Jesus atxillotuta.*

(Mt. 26, 47-48. Mk. 14, 43-44. Lk. 22, 47. Joan 18, 3)

Jesus'ek oraindik izketan ziarduala, Judas Iskariote, amabietariko bat, eldu zan. Aregaz batera, gudarozte-sail bat etorren, abade-nagusi ta pariseotarrakandik morroiak arturik: gizatalde aundia zan, kruselu ta argizuziz, ezpata ta makillaz, abade-buru, idazlari ta erriko zaarrak bialduta. Guztien buru, Judas.

Saltzailleak, barriz, ezaupide au emon eutsen, esanaz: "Nik laztandu dagidan gizona, axe izango da: lotu ta arduraz eroan egizue".

297. *Saltzaillearen laztana.*

(Mt. 26, 49-50. Mk. 14, 45. Lk. 22, 47-48)

Eta Judas bereala etorririk, Jesus'egana urreratu zan, esanaz: "Agur, Rabi" (*Irakasle*). Ta mosu emon eutsan. Jesus'ek erantzun eutsan: "Adiskide, zetara etorri zara? Judas!, laztanaz saltzen dozu Gizasemea?".

298. *Jesus'en almena.*

(Jon 18, 4-9)

Jesus'ek, bada, gaiñera etorkion guztia jaki-
ñik, aurreratuta esan eutsen: "Noren billa za-
biltze?".

Erantzun eutsoen: "Jesus Nazaretarraren bi-
lla".

Jesus'ek dirautse: "Neu naz".

Judas, saldu ebana bere, areikaz zan. "Neu
naz" Jesus'ek esan eutsenean, guztiak atzeraka
lurra jo eben. Barriro bere itandu eutsen: "No-
ren billa zabiltze?".

Ta areik erantzun eben: "Jesus Nazaretarra-
ren billa".

Jesus'ek erantzun eutsen: "Esan dautsuet Neu
nazala. Nire billa ba'zatoze, itzi onei alde egi-
ten" (1).

Len esan ebana bete zedin: "Zuk niri emon-
dako bat bere ez dot galdu".

299. *Pedro'ren gizonkeria.*

(Mt. 26, 50-54. Mk. 14,47. Lk. 22, 50-51. Jon 18, 10-11)

Orduan, batzuek urreraturik, eskuak ezarritz,
lotu egin eben.

Aregaz ziranak, jazotakoa ikusirik, esan eu-
tsoen: "Jauna, ezpataz joko doguz?".

Orduan, Simon Pedro'k, eskua luzaturik, ez-

(1) Emen Jesus'ek bere ikasleai dautsen ardura
ta maitasun aundia erakusten daukuz.

pata atera eban, eta abade-nagusiaren morroi bat
zauriturik, eskumako belarria ebagi eutsan. Mo-
rroiaren izena, Malko zan. Baiña Jesus'ek, itz
egiñez, esan eban: "Geldi orain; naiko da!".

Eta morroiaren belarria ikuturik, osatu eban.
Orduan Jesus'ek Pedro'ri esan eutsan: "Sartu ez-
pata ori zorroan; ezpata darabillen guztiak, ez-
pataz ilgo dira-ta. Uste al dozu, bada, nire Aita-
ri eskatu ezkeru, ez leuskedazala beingo baten
amabi aingeru-talde baiño geiago bialduko? Ai-
tak emon daustan ontzikoia ez dot edango, ala? Ta
onela jazo bear dala idatzita dagoan au, zelan be-
teko litzake, bestela?".

300. *Gizatalde ari Jesus'ek dirautsana.*

(Mt. 26, 55-56. Mk. 14, 48-50. Lk. 22, 52-53)

Gero, Jesus'ek, billa etorkiozan abade-buru,
elizako gudari-buru ta zaarrai esan eutsen: "La-
pur-billa legez urten zaree ezpataz ta makillaz Ni
atxillotzera. Zuekaz egunero elizan jezarri nin-
tzan irakasten, eta ez zeusten oratu. Baiña guzti
au, Igarleak idatzitakoa bete dadin, jazo da.
Auxe da, baiña, zuen aldia, ta illunaldiaren in-
darra".

301. *Jesus'en lotzea.*

(Mt. 26, 57. Mk. 14, 51-53. Lk. 22, 54. Joan 18, 12-13)

Orduan, gudasaillekoak, sailburuak eta juda-
tarren morroiak, Jesus'i oratu ta lotu egin eben.

Eta bere ikasle guztiak, a (*Jesus*) itzita, iges egin eben.

Orraitño, mutil batek erraion (*jarraitzen eutsan*) jantziteke, gaiña izaraz bakarrik estaldurik, eta oratu eutsoen. Arek, barriz, izara erantzirik, billosik iges egin eutsen (1).

3.—JESUS AUZITEGIAN.

302. *Jesus, Anas abade-nagusiaren aurrean.* (Jon 18, 12-14; 19-24)

Anas, urte aretako abade-nagusi Kaipas'en aitagiñarreba zan-eta, Jesus aregana eroan eben lenengo. Kaipas, barriz, judarrai aolku (*kontseju*) au emon eutsena zan: "Erri osoaren orde zizon bat bakarrik il dadin obe da". Beraz, abade-nagusiak Jesus'i Bere ikasle ta irakaspideari buruz itandu eutsan. Jesus'ek erantzun eutsan: "Nik guztiai agirian itz egin dautset; judar guztiak batzen diran sinagogan eta elizan irakatsi dot Nik beti, ta ixillean ez dot ezer esan. Zetarako niri itandu? Itandu egiezu entzun nauenai, zer esan neutsen: Nik esan dodana orreik ba-dakie".

Ori esan ondoren, ango morroi batek matrailako bat emon eutsan Jesus'i, esanaz: "Abade-nagusiari orrela erantzuten dautsazu?".

(1) Ba-daiteke gazte au Markos Deuna izatea, Markos Ebanjelaria; lauretatik beronek bakarrik azalzen dau jazo au-ta.

Jesus'ek erantzun eutsan: "Oker itz egin ba' dot, okerra azaldu egizu; zuzen itz egin ba'dot, barriz, zegaitik joten nozu?".

Eta Anas'ek, Jesus Kaipas abade-nagusiana bialdu eban, lotuta.

303. *Jesus, Kaipas'en aurrean.*

(Mt. 26, 57-66. Mk. 14, 53-64)

Eta Jesus abade-nagusi Kaipas'en etxera eroan eben, abade guztiak, idazlari ta zaarrak antxe baturik egozala (1).

Abade-buruak eta batzarre osoa Jesus'en aurka guzur-billa ziarduen, eriotzara eroateko asmoz. Baiña guzurrezko ziñaldari (*testigu*) asko etorri arren, ez eben ezer idoro, arein esanak ez etozan batera-ta. Azkenez, beste bi etorri ziran, esanaz: "Onek esan eban: "Jaungoikoaren eliza lurrera eratsi daiket, eta iru egun barru barriro jaso". Geuk entzun dogu esaten: "Eskuz eginda-ko eliza au, Neuk lurrera eratsiko dot, eta iru egunen barruan eskuz egindako ez dan beste bat eregiko dot".

Baiña alan bere, arein esanak ez etozan batera.

Beraz, abade-nagusiak, jagi ta erdiruntz aurreraturik, Jesus'i itaun au egin eutsan: Ez

(1) Kaipas, Batzarre Nagusiko buru zan. Gabez egiten dabe batzarrea, legeaz kontra. Beste goizerako auzi guztia gertu eukitea nai eben.

dautsazu ezer erantzuten oneik zure aurka diñoenari?”.

Baiña Jesus isillik egoan, eta ez eban ezer erantzun.

Barrero bere, abade-nagusiak itandu ta esan eutsan: “Jaungoiko biziaren izenean agintzen dautsut: esan egiguzu Kristo Jaungoiko bedeinkatua- ren Semea zaran”.

Jesus'ek dirautso: “Zeuk esan dozu: Neu naz; ta auxe bere badirautsuet: laster ikusiko dozue Gizasemea Jaungoiko Indartsuaren eskumaldean jezarrita ta odei-gaiñean etorten”.

Orduan, abade-nagusiak bere soñekoak urra- tu, ta esan eban: “Birao egin dau: Zetarako ziñaldaririk onezkero? Zeuok entzun dozue biraoa: zer deritzazue?”.

Eta guztiak, erantzunik, esan eben: “Ilteko errudun da”.

304. *Irañak.*

(Mt. 26, 67-68. Mk. 14, 65. Lk. 22, 63-65)

Orduan, batzuek arpegira txistua botaten, ikubilka ta matraillakoak emoten asi yako- zan. Eta Ari (*Jesus'i*) zapiaz arpegia estaldurik, matrai- llakoak emon eta irri ta barrez zirautsoen: “Iga- rri egiguzu, Kristo, nok jo zaituan”.

Eta beste gaiztakeri ta birao asko zirautsoe- zan.

305. *Pedro'ren lenengo ukatzea.*

(Mt. 26, 58 ta 69-70. Mk. 14, 15 ta 66-68. Lk. 22, 54-57. Jon 18, 15-18)

Simon Pedro'k Jesus'i urrunetik erraion (*ja- rraitzen eutsan*) abade-nagusiaren etxe-atadiragi- ño, baita beste ikasle batek bere. Ikasle au, aba- de-nagusiaren ezaguna zan eta Jesus'egaz batera Abade-nagusiaren atadian sartu zan. Pedro, bar- rriz, ate-aurrean gelditu zan. Baiña Abade-nagu- siaren ezagun zan ikasleak, urtenda, neskame atezaiñari itz egin eutsan, eta sarrerazo eban Pe- dro. Ta neskame atezaiñak Pedro'ri dirautso: “Ez zara zu be gizon orren ikasleatarikoa?”.

Arek dirautso: “Ez naz”.

Otz egoan-eta, otsein eta morroiak atadi-er- dian sua iziotu eben, eta inguruan jarririk, be- rotzen ziarduen, eta areikaz Pedro bere, berotu naiez. Orduan, aurreratu zan neskame atezaiña, ta Pedro sutondoan jezarrita ikusirik eta ari be- gira-begira jarririk, esan eban: “Zu, be, Jesus Nazaretarragaz zebizan”.

Eta an egozanai esan eutsen: “Au be Aregaz ebillen”.

Baiña Pedro'k guztien aurrean ukatu eban, esanaz: Emakume, ez dakit, ez dautsut igarten zer diñozun bere: ez dot gizon ori ezagutzen”.

Eta ataurrera urten zan, eta oillarrak jo eban.

306. *Bigarren ukatzea.*

(Mt. 26, 71-72. Mk. 14, 69-70. Lk. 22, 58. Jon 18, 18)

An ateaurrean, gerotxoago beste neskame batek ikusi ta an egozanai esan eutsen: "Au be Jesus Nazaretarragaz ebillen".

Neskame atezaiñak, a ikusirik, barriro an egozanai esaten asi zan: "Au be orreitarikoa da".

Baiña Pedro'k barriro bere ukatu. Eta barriro atadian sartu zan, eta an zutik, berotzen ziarduan. Esan eutsoen, bada: "Zu bere ez al zara orren ikasleatarikoa?".

Barriro bere, Kepa'k, zin eginda, ukatu eban, ta esan eban: "Ez naz, ezta ezagutu bere ez dot egiten gizon ori".

Beste batek, batez bere, a ikusita, esan eban: "Zu be areitarikoa zara".

Baiña Pedro'k esan eban: Ez, gizona, ez".

307. *Irugarren ukatzea.*

(Mt. 26, 73-75. Mk. 14, 70-72. Lk. 22, 59-62. Jon 18, 26-27)

Eta ordubetera-edo, an egozanak urreraturik, Pedro'ri esan eutsoen: "Egiz, zu be areitarikoa zara, Galilearra zara-ta; zeure izkerak be salatzen zaitu".

Orduan, biraoka ta zin egiten asi zan, esanaz: "Ez dot ezagutzen zuek esaten dozuen gizon ori".

Abade-nagusiaren morroietariko batek, Pedro'k belarria ebagitu eutsanaren senide zanak, di-

rautso: "Ez al zaitut, bada, baratzean Aregaz ikusi?".

Pedro'k, barriro bere ukatu. Ta berealaxe, Pedro oraindik itz egiten ziarduala, oillarrak bigarrenez jo eban. Eta Jaunak, Pedro'gana bihurturik, begiratu eban. Eta Pedro'k, Jaunak esan eutsazan itzok gogoratu ebazan: "Oillarrak bitan jo baiño len, iru bidar ukatuko nozu".

Eta negarrez asi zan, eta andik urtenda, atsekabez negar egin eban.

308. *Jesus bigarrenez batzarre nagusian.*

(Mt. 27, 1-2. Mk. 15, 1. Lk. 22, 66-71; 23-1)

Ta gero, goizean, erriko zaarrak, abadeburuak eta idazlariak batzarrean, baturik, Jesus eriotzara eroateko erabagia artu eben. Eta euren batzarrera eroanik, esan eutsoen: "Esan egiguzu Zu Kristo zaran".

Esan eutsen: "Esan ba'dagitzuet, ez nozue sinistuko; ta zerbait itantzen ba'daitzuet, ez daustazue erantzungo, ez nozue askatuko bere. Baiña, aurrerantzean, Gizasemea jazarrita egongo da Jaungoiko Altsuaren eskumakaldean".

Orduan, guztiak esan eben: "Beraz, Zu Jaungoikoaren Semea zara?".

Arek esan eutsen: "Zeuok diñozue: Neu naz".

Areik esan eben: "Zetarako beste autorrik onezkero? Bere agotik entzun dautsagu".

Eta batzarreko guzti areik jagita, Jesus lotu-

rik, Pontzio Pilatos erriburuagana croan eta ari emon eutsoen (1).

309. *Judas'en amaia.*

(Mt. 27, 3-6)

Orduan Judas'ek, saldu ebanak, Jesus'i erio-tzarako epaia emon eutsoela ikustean, damutu-rik, ogetamar zidar-diruak abade-nagusi ta zaa-rrai biurtu eutsezan, esanaz: "Pekatu egin dot, zuzen baten odola salduaz".

Baiña areik esan eutsoen: "Eta guri zer? Zeuk ikusiko dozu".

Eta zidar-diruak elizan jaurtirik, andik alde egin eta joan zan, eta lokarriaz bere burua urka-tu eban.

Abade-nagusiak, diruak arturik, esan eben: "Ez da bidezko diruok Elizako atabakan sartzea, odol-sari dira-ta" (2).

310. *Odol-zelaia.*

(Mt. 27, 7-10)

Eta alkar-arturik, *diru* areikaz ontzigin (*buz-tinlari*) baten zelaia erostea erabagi eben, arro-tzen illobitzat. Orregaitik, gaur arte landa ari Hakeldama edo odol-zelaia deritzoe. Orduantxe

(1) Erriburuaren baimen bagarik, Batzarre Nagusiak emondako eriotz-epaiak ez eban indarririk, ez eban balio.

(2) Bide txarrez batutako diruak, ez ziran eliza-rako gordeten.

bete zan Jeremias igarleak esandakoa: "Ogetamar zidarrezko diru artu dabez, salduaren salneurria, Israel'go semeak ontzat emondako negurria. Ta ontzigin baten zelai-saritzat emon dabez, Jaun-goikoak agindu daustanez" (1).

311. *Jesus, Pilatos'enean.*

(Jon 18, 28-32)

Jesus Kaipas'enetik auzitegira daroe. Egun-sentia zan. Areik ez ziran auzitegian sartu, loitu ez zedizan, gero Pazkoakoa jateko. Beraz, Pila-tos'ek, areikana urtenik, esan eutsen: "Zer daka-zue gizon onen aurka?".

Erantzun eta esan eutsoen: "Gaizto ez ba'litz, ez geuskizu ekarriko".

Pilatos'ek esan eutsen: "Zeuok artu, ta zeuen legearen arauz epaitu egizue".

Judatarrak erantzun eutsoen: "Guk ez dogu iñor ilteko eskubiderik".

Onela bete bear zan Jesus'ek esan ebana; zein eriotzaz ilgo zan adierazorik.

312. *Salakuntzak.*

(Lk. 23, 2)

Eta salatzen asi yakozan, esanaz: "Erria nas-ten artu dogu au, Kaiser'entzako zergak emotea galerezoten eta bera Kristo Errege dala esaten".

(1) Jer. 32, 6-9. Zak. 11, 13.

313. *Isilleko itaunketa.*

(Mt. 27, 11. Mk. 15, 2. Lk. 23, 3. Jon 18, 33-38)

Orduan, Pilatos'ek, barriro auzitegian sartuta, Jesus'i dei egin eutsan. Eta Jesus erriburuaren aurrean agertu zan, eta onek itandu eutsan, esanaz: "Judarren Errege zara zu?".

Jesus'ek erantzun eutsan: "Ori zeure buruz diñozu, ala beste batzuek Nitzaz esan dautsuelako?".

Pilatos'ek erantzun eutsan: "Judarra al naz, bada, ni? Zure erritarrak eta abade-buruak nire eskuetan jarri zaitue. Zer egin dozu?".

Jesus'ek erantzun eutsan: "Nire Erreiñua ez da lur onetakoa. Nire Erreiñua lur onetakoa baltiz, nire menpekoak burrukan egin izango leu-keen, judarren eskuetan jausi ez nendin. Baiña nire Erreiñua ez da emengoa".

Orduan, Pilatos'ek esan eutsan: "Beraz, Errege zaitugu?".

Jesus'ek erantzun eutsan: "Zeuk diñozu: Errege naz. Onetarakoxe jaio, ta onetarakoxe etorri naz gizartera: egiaren alde autor egiteko. Egizale dan edonok, nire itza ba-dantzuz (*entzuten dau*)".

Pilatos'ek dirautso: "Zer da egia?".

314. *Salakuntza barriak.*

(Mt. 27, 12-14. Mk. 15, 3-5. Lk. 23, 4-7. Jon 18, 38)

Eta au esanda, barriro judarrakana urten eta

abade-nagusi ta gizataldeai dirautse: "Ez dot nik gizon onegan auzigairik idoroten".

Eta abade-nagusi ta zaarrak salatzen ebea arren, Jesus'ek ez eutsen itzik bere erantzuten. Pilatos'ek barriro bere itandu eutsan, esanaz: "Ez dozu ezer erantzuten? Ikusi zenbatetan salatzen zaituen".

Baiña Jesus'ek ez eutsan geiago ezer bere erantzun, Pilatos guztiz arrituta gelditzeragiño. Areik, ostera, gogorrako ziarduen, esanaz: "Erria nasten diardu, Galilea'tik asi ta onagiño, Judean zear irakasten".

Pilatos'ek, Galilea izena entzunik, gizon a Galilearra ete zan itandu eban. Eta Erodes'en menpekoa zala jakinda, Erodes'egana bialdu eban, au be egun areitan Jerusalem'en zan-eta.

315. *Jesus, Erodes'en aurrean.*

(Lk. 23, 8-12)

Jesus ikusirik, Erodes poz-pozez jarri zan; aspaldian a (*Jesus*) ikusi naiez egoan-eta, Aretzaz gauza aundiak entzun ebazan ezkerro, ta mirariren bat egiten ikusiko ebala uste eban. Eta ainbat itaun egin eutsazan. Baiña Jesus'ek ez eutsan ezer erantzun. An ziarduen abade-buru ta idazlariak Aren aurka salakuntzez. Eta Erodes'ek bere gudariakaz, ezetzi ta irri egiñik, soingaiñeko zuri bat Ari jantzierazo, ta barriro Pilatos'i bialdu eutsan. Egun aretan Erodes ta Pilatos adiskidetu ziran, len alkarren arerio ziran-eta.

316. *Barrero be Pilatos'en aurrean.*

(Lk. 23, 13-16)

Pilatos'ek, abade-buru, agintari ta erria baturik, esan eutsen: "Gizon au, erri-nastaille dala-ta, ekarri daustazue. Baiña zeuon aurrean itandurik, gizon onen aurka diñozuezan salakuntza guztietan, ez dot auzigairik idoroten. Ezta Erodes'ek bere: aregana bialdu zaituet, bada, ta ez yako eriotzarakorik ezer idoro. Beraz, astinduta gero askatuko dot".

317. *Jesus, ala Barrabas?*

(Mt. 27, 15-18)

Pazko-jaietan erriburuak giltzapeko bat askatu oi eban, erriak nai ebana. Aldi aretan, ba-eukan espetxean Barrabas eritzan ots aundiko gaizkin bat: lapurra zan, eta uriko matxinadan norbait il ebala-ta, beste matxiñarrakaz espetxean egoan. Beraz, errikoak, Pilatos'egana etorririk, beti oi ebana eskatzen asi yakozan. Batu ziranean, bada, Pilatos'ek itandu eutsen: "Oitura dozue Pazko-egunez nik espetxeko bat askatzea. Nai dozue judarren Erregea askatu dagizuedan?".

Bekaizkeriz* saldu ebela ba-ekian-eta.

* Bekaizkeri: envidia.

318. *Pilatos'en emaztea.*

(Mt. 27, 19)

Eta epai-tokian jezarrita egoala, bere emazteak gaztigu* au bialdu eutsan, esanaz: "Ez nastu zintzo orren arazoetan; gaur amesetan, ori dala-ta, atsekabe aundiak izan dodaz-ta (1).

319. *Jesus baiña Barrabas naiago.*

(Mt. 27, 20-21. Mk. 15, 11. Lk. 23, 18-19. Jon 18, 40)

Baiña abade-buru ta zaarrak, erria berotu eben, Barrabas eskatu ta Jesus galdu egien. Eta erriburuak erantzunik, esan eutsen: "Biotatik, nor nai dozue askatu dagitzuedan: Barrabas, ala Jesus, Kristo deritzana?".

Eta guztiak batera, deadarka esan eben: "Kendu ori!, ta Barrabas askatu eiguzu".

320. *"Zer egingo dautsat, bada, Jesus'i?"*

(Mt. 27, 22-23. Mk. 15, 12-14. Lk. 23, 20-23)

Pilatos'ek, Jesus askatu naiez, barrero bere esan eutsen: "Zer egingo dautsat, bada, Jesus'i, judarren Erregeri?".

Barrero guzti areik deadar egin eben: "Gurutzera ori, gurutzera!".

Pilatos'ek irugarrenez dirautse: "Ze gaiztakeri egin dau, bada? Nik ez dautsat ilteko errurik idoroten: beraz, zigortu ondoren, askatuko dot".

(1) Jazoera onek, Jesus errubaga zala autortzen dau, baita saltzailleen gaiztakeria bere.

* Gaztigu: misiva, recado.

Baiña areik, deadar aundiagoz, esaten ziar-
duen: "Gurutzera eroan egizu!".

Ta arein deadarrak gero ta indar aundiagoa
artu eben.

321. *Lapurra, askatuta.*

(Mt. 27, 26. Mk. 15, 15. Lk. 23, 24-25)

Pilatos'ek, erria atsegindu nairik, arein eska-
ria egitea erabagi eban. Eta nastaille ta gizerar-
lletzat espetxean itxitako a, askatu egin eban.

322. *Arantzazko burestun edo koroia.*

(Mt. 27, 26-30. Mk. 15, 15-18. Jon 19, 1-3)

Orduan, Pilatos'ek Jesus artu ta zigorkadaz
astindu eban. Eta erriburuaren gudariak, Jesus
arturik, jauregi-barrura edo gudaletxera eroan
eban, eta gudari-talde osoa batu eben Aren ingu-
ruan. Eta Jesus'i jantziak erantzirik, soiñeko go-
rri bat jantzi eutsoen. Eta arantzazko koroia bat
eginda, buruan ezarri eutsoen, eta kaitzabera bat
eskumako eskuan.

Gero, Aregana etori ta aurrean belaunikotu-
rik, agurka makurtu ta irri egiten eutsoen, esa-
naz: "Agur, judarren errege ori". Ta matrailla-
koak emoten eutsuezan, eta txistu (*txu*) egin; eta
kaitzabera arturik, buruan jotzen eben.

323. *"Ona emen Gizona!"*.

(Jon 19, 4-7)

Pilatos'ek, barriro kanpora urtenda, dirau-

tse: "Emen dakartsuet kanpora, errurik idoroten
ez dautsadala jakin dagizuen".

Jesus, bada, arantzazko burestuna ta soiñeko
gorria gainean eroanez, urten zan. Eta Pilatos'ek
dirautse: "Ona emen Gizona!".

Ikusi ebenean, abade-nagusiak eta morroiak
oiuka iñoen: "Gurutzera ori, gurutzean josi egi-
zu".

Pilatos'ek dirautse: "Zeuk artu ta gurutzera-
tu egizue, nik ez dausat errurik idoroten-eta".

Judarrak erantzun eutsoen: "Guk ba-dogu le-
gea, ta gure legez, eriotza bear dau, bere burua
Jaungoikoaren Seme egin dau-ta".

324. *Jaungoikoaren Seme?*

(Jon 19, 8-11)

Itzok entzunik, Pilatos geiago bildurtu zan.
Eta barriro auzitegian sarturik, Jesus'i dirautso:
"Nongoa zara?".

Jesus'ek ez cutsan erantzunik biurtu. Beraz,
Pilatos'ek dirautso: "Niretzat itzik ez? Ez da-
kizu Zu gurutzerako naiz askatzeko eskubidea do-
dala?".

Jesus'ek erantzun eutsan: "Ez zeuke eskubi-
derik Nire aurka, goitik emonda ez ba'zen-
du (1). Orregaitik, zure eskuetan jarri nuanak,
pekatu aundiagoa dau".

(1) Agintaritza Jaungoikoagandik dator erriaga-
na, ta erriagandik gizonagana; ta artez ta zuzen jokatu
ez dagianak, kontu gogorra emon bear izango dautso
Jaungoikoari.

325. *Pilatos'en azken-alegiñak Jesus askatzeko.*

(Jon 19, 12-15)

Ordura-etzkerok, Pilatos'ek Jesus askatu naiez ziarduan. Baiña judarrak deadarrez zirautsoen: "Ori askatu ba'daizu, ez zara Kaisar'en adiskide, bere burua errege egiten dauan edonok, Kaisar'en aurka diardu-ta".

Itzok entzunik, Pilatos'ek Jesus kanpora atera eban, eta epai-aulkian jezarri zan, Litostrotok edo eberkeraz Gabbata deritzan tokian.

Pazko-aurreguna zan; eta seirak aldean judarrai dirautse: "Ona emen zuen Errege!".

Areik, barriz, oiur egin eutsen: "Ken ortik! Alde ortik! Josi egizu gurutzean!".

Pilatos'ek dirautse: "Zuen Bakalduna (*Erregea*) nik gurutzeratu?".

Abade-buruak erantzun eutsen: "Kaisar baiño Erregerik ez dogu".

326. *Gurutzerako epaia.*

(Mt. 27, 24-26. Mk. 15, 15. Lk. 23, 24-25. Jon 19, 16)

Pilatos'ek, bada, ezer jaristen ez ebalatzen, ta gero ta zalaparta aundiagoa sortzen zala ikusirik, ura erakarrita, erriaren aurrean eskuak garbitu ebazan, esanaz: "Nik ikustekorik ez dot zintzo onen odolaz: zeuok ikusi".

Ta erri guztiak, erantzunik, esan eban: "Beter orren odola geure gain eta geure semeen gain".

Orduan, Pilatos'ek, erria atsegindu nairik,

arein eskaria egitea erabagi eban. Eta arein naitara emon eutsen, gurutzeratu egien.

GURUTZALDIA

327. *Zirene'ko Simon.*

Mt. 27, 31-32. Mk. 15, 20-21. Lk. 23, 26. Jon 19, 17)

Eta gudariak, irri egin ondoren, soingaiñeko gorria erantzi ta bere jantziak jarri eutsen, eta gurutzean josteko atera eban.

Eta gurutzeari sorbaldan eroiala, Buruazurtegi edo eberkeraz Golgota deritzan tokiruntz urten zan.

Uritik urteeran, solotik etorren Zirene'ko gizon bat aurkitu eban, *une aretan* bertatik joiala: Simon eritzan, Alexander'en eta Errupu'ren aita, eta Gurutzeari Jesus'en atzetik eroateko beartu eban.

328. *Jerusalem'go alabak.*

(Lk. 23, 27-32)

Erriko gizatalde aundiak erraion (*jarraitzen eutsan*), baita emakumeak be negarrez ta alakaz (*zuzpiruz*). Eta Jesus'ek, areikana bihurturik, esan eutsen: "Jerusalem'go alabok: Nigaitik ez negarrik egin, zeuokaitik eta zeun semeakaitik baiño. Begira: etorriko dira egunak, eta orduan esango dabe: "Zorionekoak agorrak*", eta seiñik

* Agorrak: umerik izan ez dabezan emakumeak: estériles.

(aurrik) sortu ez daben sabelak, eta esnerik emon ez daben bularrak!". Orduan mendiai esaten asi-ko dira "Zatorkiguzue gaiñera", ta mendi-bizkarrai: "Estaldu gagizuez". Egur ezean* au egin ba'dagie, igarrean zer izango ete-da?".

Ba-eroiezan beste bi be Aregaz batera, gaiz-killleak areik, eriotzara.

329. *Jesus, gurutzean.*

Mt. 27, 33-34, 38. Mk. 15, 22-23, 27-28. Lk. 23, 33-34.
Jon 19, 7-18)

Eta Golgota, au da, Buruazurtegi deritzan to-kira eldu ziran. Eta beartzunez nastautako ar-
doa (1) emon eutsoen edaritzat: baiña txastatuta, ez eban edan nai izan.

Josi eben, bada, gurutzean, eta Aregaz batera lapur biak, bata eskumakaldean, bestea eskerre-
kaldean, eta erdian, Jesus. Irugarren ordua zan gurutzatu ebenean. Orrela bete zan idatzita egoan au: "Eta gaizkiñakaz bardindu eben" (2).

Jesus'ek iñoan: Aita, parkatu egiezu, zer diarduen ez dakie-ta".

(1) Markos Deunak "mirraz nastauta" diño. Bai-ña bardin da: Mateo Deunak itz zabalagoa (genericum) darabil; Markos Deunak, barriz, itz bereki ta motakia (proprium et specificum).

(2) Is. 53, 12.

* Eze: verde.

330. *Gurutzeko idazkuna.*

(Mt. 27, 37. Mk. 15, 26. Lk. 23, 38. Jon 19, 19-22)

Pilatos'ek iragarri bat be idatzi eban, Jesus' en epai-agiria adierazorik, ta Gurutze-gaiñeau ipiñi eben, Aren burua baiño gorago. Ta auxe zan idazkuna: "Auxe da Jesus Nazaretarra, Ju-darren Errege". Agiri au judar askok irakurri eben, Jesus gurutzatutako tokia uri-ondoan zan -eta. Agiria, barriz, eberkeraz, gerkeraz ta lati-ñez idatzita zan.

Orduan, judarren abade-buruak Pilatos'i zi-rautsoen: "Ez idatzi "Judarren Errege", arek "Ju-darren Errege naz" esan ebala baiño".

Pilatos'ek erantzun eutsen: "Idatzitakoa, ida-tzita bego".

331. *Soiñekoak, zotzetara.*

(Mt. 27, 35-36. Mk. 15, 24. Lk. 23-34. Jon 19, 23-24)

Gudariak, barriz, Jesus gurutzatu ebenean, Aren jantziak artu ta lau sailletan banandu ebe-zen, bakoitzarentzako bana; ta zotz-egin eben, nok zer eroango. Soingaiñekoa bere artu eben. Soingaiñeko au, barriz, josturabagea zan, goitik beeragiño dana eunduta. Alkarri esan eutsen, ba-da: "Ez dagigun urratu, zotz-egin baiño, noren-tzat izango dan".

Igarleak esandako au bete zedin: "Nire soi-ñekoak euren artean banandu dabez, ta nire soin-gaiñekoa zotzetara egin dabe" (1).

(1) Ps. 21, 9.

Gudariak, bada, auxe egin eben. Eta jezarririk, Jesus zaintzen ziarduen.

332. *Jesus'i irri-egiten.*

(Mt. 27, 39-44. Mk. 15, 29-32. Lk. 23, 35-37, 39)

Erri guztia begira ziarduan. Eta aurretik igeroten ziranak, buruari eragin eta birao egiten eutsoen, eta zirautsoen: "Jaungoikoaren etxea lurrrera eratsi ta iru egunean barriro zutuntzen dozun orrek: zeure burua askatu egizu. Jaungoikoaren Semea ha'zara, jatsi gurutzetik".

Bardin iñoen abade-nagusi, agintari ta erriko zaarrak bere, irrika alkarri zirautsela: "Besteak jarein (*askatu*) dauz, ta bere burua ezin askatu. Kristo, Israel'go Errege, Jaungoikoaren aukeratu jatsi bedi orain gurutzetik, ikusi ta sinistu dagigun. Jaungoikoa here alde uste eban: Jaungoikoak lagun dagiola orain, maite ba'dagi; "Jaungoikoaren Seme naz", iñoan-eta".

Gudariak be irri egiten eutsoen, urreratu ta opziña eskiñiz, ta zirautsoela: "Judarren Errege ba'zara, zeure burua gaizkatu egizu".

Ta Aregaz batera gurutzean eskegita egozan lapurretarike batek bere, irri egiten eutsan, esanaz: "Kristo ba'zara, zeure burua ta gureak bere gaizkatu egizuz".

333. *"Gaur Nigaz zeruan izango zara".*

(Lk. 23, 40-43)

Baiña beste *lapurrak*, erantzun eta asarre egin eutsan, esanaz: "Zu here, orren oiñazetan ego-

nik, ez zara bildur? Guri, egiz, oiñazeok artez yagokuz (*dagokiguz*), gure egiñen bidezko ordaiña artzen dogu-ta: onek, barriz, ez dau ezer oker egin".

Eta Jesus'i zirautsan: "Jauna, gomuta zadiz nitzaz, zure Erreiñura eldu zadizanean".

Eta Jesus'ek dirautso: "Benetan dirautsut: gaur Nigaz zeruan izango zara".

334. *Jesus'en Ama ta gure Ama.*

(Jon 19, 25-27)

Jesus'en gurutze-ondoan, Ama *Maria*, ta onen aizta *Maria Kleofa'rena*, ta *Mari Madalen* egozan. Jesus'ek, bere Ama ta ikasle maitea an ikusirik, bere Amari dirautso: "Andrea, orra or zure semea".

Gero ikasleari dirautso: "Orra or zure ama". Ta arrezkero, ikasleak here etxean artu eban.

335. *Azken-itzak.*

(Mt. 27, 45-49. Mk. 15, 33-36. Lk. 23, 44-45.)

(Jon 19, 28-29)

Seiretatik bederatzia arte (1) lur osoa illunetan gelditu zan; eta eguzkia illundu zan. Eta bederatzia aldean (2), Jesus'ek, deadar aundiz, esan eban: "Eli, Eli, lamma sabachtani": au da, "Ene Jaungoikoa, ene Jaungoikoa!, zegaitik itzi nozu?" (3).

(1) Eguerdiko irurak arte.

(2) Gure irurak

(3) Ps. 21, 2.

Itzok entzunda, an egozan batzuek iñoen: "Elias'i deika diardu".

Gero Jesus'ek, guztia bete zala jakiñik, Idazitakoa bete zedin, esan eban: "Egarri naz".

Ba-zan an ontzi bat ozpiñez beterik. Eta eurentariko batek, arin joanda, belaki* bat artu eban, eta ozpiñetan busti, kaiñabera baten erpiñean ezarri, ta agora luzaturik, edaten emon eutsan.

Besteak zirautsoen: "Itzi, ikusi daigun askatzera Elias ete-datorkion".

Arek, barriz, iñoan: "Itxaron: ikusi dagigun jatsitera Elias ete-datorkion".

336. "Amaitu da".

(Mt. 27, 50. Mk. 17, 37. Lk. 23, 46. Jon 19, 30)

Eta Jesus'ek, ozpiña artu ebanean, esan eban: "Guztia bete da" (1).

Ta barriro deadar aundi bat eginda, esan eban: "Aita, zeure eskuetan izten dot nire arnasa" (*gogoa, arima*).

Au esanda, ta burua makurturik, azken arnasa emon eban.

(1) Bere egikizun guztia, Aitak esandako eginbear guztia, bete ebala, amaitu ebala, adierazo eban Jesus'ek. Baita Mesias'i buruz Igarleak idatziriko guztia bere, egíñez bete ebala.

* Belaki: esponja.

337. *Izadia naigabez.*

(Mt. 27, 51-53. Mk. 15,38. Lk. 23, 45)

Orduan, eliza-nagusiko oiala goitik beera zati bitan urratu zan. Eta lurra ikaraz asi zan. arriak zatitu ziran, illobiak zabaldu, ta ildako zintzoen gorpu asko, lurperatuta egozanak, herbiztu ziran (1); eta Jesus herbiztu zanean, illobietatik urtenik, uri deunera etorri ta askori agertu yakezan.

338. *Gurutze-ondokoak, damuz beterik.*

(Mt. 27, 54. Mk. 15, 39. Lk. 23, 47-48)

Eunburua* ta aregaz Jesus zaintzen ziarduenak, lur-ikarak, eta jazotako areik eta Jesus arela deadar eginda il zala ikusirik, oso ikaratu ziran, eta Jaungoikoa goratuaz, iñoen: "Egiz, gizon au zintzoa zan, Jaungoikoaren Semea zan".

Eta ikuspen onetara batu ziran guztiak, jazoa ikusita, bular-joka biurtzen ziran.

339. *Jesus'en adiskideak.*

(Mt. 27, 55-56. Mk. 15, 40-41. Lk. 23, 23-49)

An egozan, urrundik begira, Aren ezagun guztiak eta Jesus Galilean zanean, neskame-lanetan

(1) Mateo Ebanjelariak aurretiaz diño ildako zintzo onein berbikundea: Jesus herbiztu ondoren jazo zan mirari arrigarri ori, ta Jesus'ek eriotzaren curka irabazi eban gurendaren (garaitzaren) ezaupidea da.

* Eunburu: eun gudarien buru edo nagusi zana: centurión.

lagun egiñez jarraitzen eutsoenak: arein artean, Mari Madalen, eta Mari, Jakob (*Santiago*) gaztearen eta Jose'ren ama, ta Salome, Zebedeo'ren semeen ama aurkitzen ziran; baita beste emakume asko bere, Aregaz (*Jesus'egaz*) Jerusalem'era igo ziranak.

340. *Jesus'i, saietsa zulatu.*

(Jon 19, 31-37)

Paraskebe-eguna zan (1); eta gorpuk larunbatez gurutzean gelditu ez zedizan, —larunbat a egun andia zan-eta—, Pilatos'i eskatu eutsoen, arein belaunak ausi, ta gorpuk kendu egizala. Etorri ziran, bada, gudariak; eta lenengoari belau-azurrak ausi eutsoczan, baita aregaz gurtzeratua izan zan besteari bere.

Jesus'egana eldu ziranean, barriz, il zala ikusirik, ez eutsoczan belaunak ausi; baiña gudari batek aztamakillaz saietsa zulatu eutsan, eta bereala odola ta ura urten ziran. Eta ikusi ebanak autortu dau, ta aren autorra (*sinispidea*) egiazkoa da: ta arek ba-daki egia diñoala, zuek bere sinistu dagizuen. Guzti oneik, idatzitakoa bete zedin egin ziran: "Azurrik ez dauzazue ausiko" (2). Ta beste Idatz-lerro batek diño: "Zulatu ebena ikusi dabe" (3).

(1) **Paraskebe-eguna:** atontze-eguna, barikua; judatarrentzat larunbata jai-eguna zanez, barikuan atontu edo gertatzen eben larunbaterko bear eben guztia.

(2) Ex. 12, 46. Num. 9, 12.

(3) Zak. 12, 10.

341. *Gurutzetik jatsiten dabe.*

(Mt. 27, 57-59. Mk. 15, 42-46. Lk. 23, 50-53. Jon 19, 38-40)

Illunabarrean, Paraskebe edo larunbat-aurreko eguna zala-ta, Jose izeneko gizon aberats bat etorri zan: Batzarre Nagusiko gizon zintzo ta ona, Judea'ko Arimatea errikoa zan, eta Jaungoikoaren Erreinuaren zain egoan; Jesus'en ikasle be ba-zan, naiz-ta judarren bildurrez ikasle ixilleko izan; orraitioño, arein (*beste judarren*) erabagi ta egiñak ez ebazan onartu.

Onek, bada, Pilatos'egana aurkezturik, Jesus'en gorpua eskatu eutsan. Pilatos'ek, Jesus ain laster il zala-ta arrituta, eunburuari dei egiñik, il ete-zan itandu eutsan. Eta, baietz jakiñik, Pilatos'ek Jesus'en gorpua Jose'ri emon eutsan. Etorri zan, bada, ta artu eban Jesus'en gorpua.

Nikodemo be etorri zan, bein Jesus'egana gabez etorri zana, eunen bat libra mirra ta zumin-tza (*áloe*) naste bat ekarririk.

Eta Jesus'en gorpua gurutzetik eratsita, zapiz lotu eben; eta usaingarriz igurtzirik (*gantzuturik*) (1), Jose'k crositako izara garbiaz batu eben, judarrak illobiratzetan egin oi dabenez.

342. *Illobia.*

(Mt. 27, 60. Mk. 15, 46. Lk. 23, 53-54. Jon 19, 41-42)

Gurutzatu izan zan tokian, baratze bat zan, eta baratzean, *Jose'k berak* arri bizian egindako illo-

(1) Judarren oitura zan gorputzak illobiratzean, usaingarriz ta miritzez igurtzea edo gantzutzea, ta oia-lez batzea.

bi bat egoan; iñor ez zan oraindagiño aretan illobiratu. Beraz, judarren Paraskebe (1) zala-ta, antxe eortzi (*illobiratu*) eben Jesus, illobia urrean egoan-eta. Eta illobi-sarreran arritzar bat jarririk, joan zan. Larunbateko argi-urratzea zan.

343. *Emakumeak, usaingarriak gertatzen.*

(Mt. 27, 61. Mk. 15, 47. Lk. 23, 55-56)

Galilea'tik Aregaz (*Jesus'egaz*) etorritako emakumeak, Jesus illobiratu ebenai lagun egin eutseen. Mari Madalen, barriz, ta beste Mari a, illobi-aurrean jezarrita, gorpua nun eta zelan ipiñi ta gelditzen zan begira egozan. Eta etxera biurturik, usaingarri ta miritzak* gertatu ebezan (2); baiña larunbatean, legezko atsedena artu eben (3).

344. *Judarrak Jesus'en illobia zaintzen.*

(Mt. 27, 62-66)

Biaramongean, Paraskebe (*edo gertatze-egunaren* urrengoan), abade-nagusi ta pariseotarrak Pilatos'egana batera joan ziran, esanaz: "Jauna, gogoan dogu, guzurti arek, oraindik bizi zala,

(1) Atontze edo gertatze-eguna, Pazko-aurreguna.

(2) Larunbata (jai-eguna) igaro ondoren, barriro illobira joan eta usaingarri ta miritzez Jesus obeto igurtziteko asmoz.

(3) Lege-arauz iñok ez eban jai-egunez, larunbatez, lenik egiten.

* Miritza: unguento.

auxe esan ebala: "Iru egun barru, berbiztuko naz". Agindu egizu, bada, illobia zaindu egiela irugarren egunerarte; bestela, bear-bada Aren ikasleak etorri, gorpua ostu ta erriari esango dautsoe: "illen artetik berbiztu da"; ta azken-maltzurkeri au, lenengoa baiño kaltegarriagoa izango litzake".

Pilatos'ek erantzun eutsen: "Txiñelak ba-dozue: zoaze, ta zaindu egizue, dakizuenez".

Joan ziran, bada, ta illobi-arriari ikurratzak (*seilloak*) ezarririk, illobia jagoleen zainpean jarrri eben.

LAUGARREN ZATIA

JESUS'EN AINTZALDIA

345. *Emakumeak illobira doaz.*

(Mt. 28, 1-4. Mk. 16, 1-4. Lk. 24, 1-2. Jon 20, 1-2)

Eta larunbata igaro zanean, Mari Madalen'ek eta Jakob'en Mari'k eta Salome'k miritzak erosi ebezan Jesus igurtzitera joateko. Ta astearen lenengo eguna urratzean, goizean-goiz, argitu baiño len, illobira joan ziran, gertutako usaingarriak eroezala. Ta alkarri zirautsen: "Nok kenduko dauku arria illobi-atetik?".

Onetan, lur-ikara aundia sortu zan ⁽¹⁾; Jaunaren aingerua zerutik jatsi zan, eta illobira eldurik, arria itzuli eban, eta aren gaiñean jazarri zan.

Aren aurpegiak tximista zirudian, eta aren soiñekoa edurra baizen zuria zan. Eta aren bildurrez, jagoleak ikaratuta ta ilda legez gelditu ziran.

Bitartean, emakumeak illobira eltzen dira, eguzkia urtenda gero. Ta begiak jasorik, arria

(1) Lur-ikara ori, emakumeak illobira eldu curretik izan zan.

illobitik kenduta egoala ikusi eben, oso aundia zan-eta.

Mari Madalen'ek, arria illobitik kenduta ikusirik, Simon Pedro'gana ta Jesus'ek maite eban beste ikasleagana ariñeketan joanda, dirautse: "Jauna illobitik kendu dabe, ta ez dakigu non ipiñi daben".

346. *Aingeruak illobi-ondoan.*

(Mt. 28, 5-8. Mk. 16, 5-8. Lk. 24, 3-9)

Emakumeak, illobian sarturik, ez eben Jesus Jaunaren gorpua idoro. Au zala-ta, eurekaotan kezkatu heterik egozala, bat-batean gazte bi aurkeztu yakezan, soñeko luze, zuri ta argitsuz jantzita: ta ikaratuta gelditu ziran. Emakumeak bildurrez lurrera begira egozala, eskumatara jezarrita egoan aingeruak esan eutsen: "Ez ikaratu: ba-dakit gurutzatua izan dan Jesus Nazaretarren billa zatozena. Zegaitik billatzen dozue illen artean bizirik dagoana? Ez dago emen: berbiztu da, esan ebanez. Gogoratu egizue, oraindik Galilea'n egoala, esan eutsuena: "Gizasemea gizon gaiztoen eskuetan jarria ta gurutzeratua izango da; baiña irugarren egunean berbiztuko da".

Ta Aren itzak gogora ekarri ebezan.

"Etorri ta ikusi Jauna ipiñi eben tokia. Zoa-ze, bada, arin, ta esan egiezue ikasleai ta Pedro'ri "berbiztu dala, ta Galilea'ra aurretik joango yatzuela; antxe ikusiko dozue, esan eutsuenez". Or, bada, nik aurretiaz esanda".

347. *Emakumeak ikasleakana doaz.*

(Mt. 28, 8. Mk. 16, 8. Lk. 24, 9)

Eta areik (*emakumeak*) illobitik bereala urten eta iges egin eben, bildur-ikaraz egozan-eta. Lenengotan iñori ez eutsen ezer esan (1); baiña bildurra kenduez gero, poz aundiz ikasleai arin barri-emotera joan ziran.

348. *Pedro ta Jon illobira doaz.*

(Lk. 24, 12. Jon 20, 3-10)

Urten ziran, bada, Pedro ta beste ikaslea, ta illobira zuzendu ziran. Biak batera ariñeketan joiazan; baiña beste a, Pedro baiño ariñago ibillirik, lenago eldu zan illobira. Ta barrura makurtuaz, zapiak lurrean jausita ikusi ebazan, baita Jesus'en buru-gaiñean egondako illoiala bere: au ez egoan beste zapiakaz batera, alde baten tolostuta baiño.

Orduan, lenen eldu zan ikasle a be, illobian sartu zan: eta ikusi ta sinistu egin eban: Jesus "illen artetik berbiztu bearra zala" diñoan idatzitakoa oraindik ez eben ulertu-ta.

Gero, ikasleak etxera biurtu ziran, jazoaz arrituta.

349. *Mari Madalen'i agertzen yako.*

(Mk. 16, 9-11. Jon 20, 11-18)

Astearen lenengo egunaren goizaldean, Jesus berbiztu zala, Mari Madalen'i agertu yakon le-

(1) **Iñori ez eutsen ezer esan: bidean eta arrotzai-
ulertu bear da.**

nen, zazpi txerrengandik askatu ebanari berari.

Mari illobi-ondoan egoan negarrez, kanpotik. Eta negarrez ziarduala, makurtu ta illobi-barrura begiratu eban: eta Jesus'en Gorpua obiratua izan zan tokian, Aingeru bi soñeko zuriz jantzi-ta ikusi ebazan: bata, barru-aldean, bestea oin-aldean, jezarrita. Areik dirautsoe: "Emakume, zegaitik diarduzu negarrez?"

Arek erantzuten dautse: "Nire Jauna eroan dabe, ta ez dakit non ipiñi daben".

Au esanaz batera, atzeruntz begiraturik, Jesus zutik ikusi eban: baiña ez ekian Jesus zanik. Jesus'ek dirautso: "Emakume, zegaitik diarduzu negarrez? Noren hilla zabiltz?"

Mari'k, baratz-zaiña zalakoan, dirautso: "Jauna, zuk eroan ba'dozu, esan egidazu non ipiñi dozun: eta neuk eroango dot".

Jesus'ek diñotso: "Mari!"

Onek, biurtuta, eberkeraz dirautso: "Rabboni!, —au da, "Irakasle!"—.

Jesus'ek dirautso: "Ez nagizu ikutu: Aitagana ez naz oraindik igo-ta. Baiña zoaz nire anaiakana, ta esan egiezu: "Nire Aitagana noa ta zuen Aitagana, nire Jaungoikoagana ta zuen Jaungoikoagana".

Mari Madalen, atsekabez ta negarrez egozan ikasleakana joan zan, barri oneik emotera, esanaz: "Jauna ikusi dot, eta auxe esan daust".

Baiña areik, Jesus bizi zala ta Mari'k ikusi ebala entzunik, ez eben sinistu.

350. *Jesus, beste emakumeai agertzen yake.*

(Mt. 28, 8-10. Mk. 16, 8-11. Lk. 24, 9-11)

Mari Madalen, eta Jon eta Jakob'en (*Santiago'ren*) Mari ta oneikaz joiazanak, illobitik etozan. Onetan, Jesus'ek, bidera urtenik, dirautse: "Agur!"

Areik, urreraturik, oiñak laztandu ta gur egin eutsoen. Orduan, Jesus'ek dirautse: "Ez bildur izan: zoaze ta esan egiezue nire anaiai: "Galilea'ra joan daitezala: antxe ikusiko nabe".

Barriok, Amaikai (*Apostoluai*) ta beste ikasle guztiai emotera joan ziran. Apostoluak, barriz, arein itzak ameskeritzat artu ebezan, eta ez eutseen sinisten.

351. *Illobi-jagoleak eta abade-buruak.*

(Mt. 28, 11-15)

Emakumeak ba-joiazala, illobi-jagoletariko batzuk urira etorri ta jazorikoa abade-buruari azaldu eutseen. Oneik, barriz, zaarrakaz batu ta gaia aztertu ondoren, gudari arei diru moltzo aundia emon eutseen, esanaz: "Esan egizue: "Aren ikasleak gabez etorri ta ostu dabe, gu lo gengoan artean". Eta erriburuak ori entzun ba'dagi, geuk leunduko dogu, ta ez dautsue iñok gogait eragingo".

Ta areik, diruak jasorik, irakatsi eutseenez egin eben. Eta gaurko egunerarte murre-murre ori zabalduta dago judarren artean.

352. *Jesus, Emaus'ko ikasleakana.*

(Mk. 16, 12-13. Lk. 24, 13-35)

Onen ondoren, egun aretan bertan, Jesus'en ikasle bi, Jerusalem'dik irurogei estadiko (1) bidean dagoan Emaus izeneko erritxora joiazan. Jazo ziranai buruz alkarregaz itz egiten ziarduen. Eta jazoriko guztiak azaltzen ziarduen artean, Jesus Bera, beste antz-irudiz, urreratu ta areikaz joian. Baiña arein begiak illunduta egozan, eta ez eben ezagutu. Esan eutsen: "Zer da bidean diarduzuen izketa ori? Ta itun zagoze!".

Ta Kleopas eritzan batek, itz egiñez, esan eutsen: "Zu bakarrik zaitugu Jerusalem'en arrotz, egunotan jazo diranak ez jakiteko?".

Jesus'ek esan eutsen: "Zertzuk?".

Areik esan eutsoen: "Jesus Nazaretar orrena: Igarle zan, Jaungoikoaren eta erri guztiaren aurrean egitez ta itzez gizon altsua; baiña gure abade-buruak eta nagusiak, Arentzat eriotz-epaia lortu, ta gurutzean josi eben. Guk, ostera, Israel gaizkatuko ebana Bera zala, uste genduan; baiña gaur da irugarren eguna guztiok jazo dirana. Egia esan, gure arteko emakume batzuek arrituta itzi gaitue: goizean-goiz illobira joanda, Jesus'en gorpua idorotzeke biurtu dira, esanaz Aingeru batzuk agertuta, A bizi dala esan eutsela. Ta gutar batzuek, illobira joanda, guztia emakumeak iñoenez idoro dabe; baiña Bera ez dabe idoro".

(1) Irurogei estadi: 11 kilometru.

Orduan, Jesus'ek esan eutsen: "Bai gero zuek buru-motzak, eta igarleen itzak sinisteko biotz-motelak! Kristo'k ez al ebazan orreik jasan bear, ta gero bere atsedenean sartu?".

Ta Moises'egandik asita, igarlerik-igarle Idazti Deunetan Aretzaz idatziriko guztia azaldu eutsen. Eta joiazan erritxora eldu ziranean, aurrea joialakoa egin eban. Baiña areik arrenez (*erregu aundiz*) esan eutsoen: "Gelditu zaitetz gugaz, arrats-bera da-ta, eguna ba-doa-ta".

Ta areikaz gelditzeko sartu zan. Gero areikaz batera aparitan ziarduala, ogia artu eban, onetsi, zatitu, ta banandu egin eutsen. Orduantxe zabaldu ziran arein begiak, eta nor zan ezagutu eben. Baiña Bera arein begien aurretik ezkutatu zan. Eta alkarri zirautsen: "Ez al genduzan biotzak sutan, Idazti Doneak azalduaz bidean itz egiten euskula?".

Ta bereala jagita, Jerusalem'era biurtu ziran. An idoro ebezan Amaikak (*Apostoluak*) euren lagunakaz batuta, ta iñoela: "Egiz, Jauna berbiztu da, ta Simon'i agertu yako".

Areik bere, bidean jazo yakena azaldu eutseen, eta ogia zatitzean ezagutu ebela. Baiña bioi bere ez eutsen sinistu.

353. *Jesus, Apostoluai ta ikasleai agertzen yake.*

(Mk. 16, 14. Lk. 24, 36-45. Jon 20, 19-23)

Jardun onetan ziarduela, egun aretantxe, as-tearen lenengo egunaren illuntzian, Amaikak eta

beste ikasleak mai-ondoan egozala, ta judarren bildurrez ateak itxita eukezala, Jesus etorri ta arein erdian aurkeztu zan, esanaz: "Bakea zuoi; Neu naz, ez bildurtu".

Larri ta ikaratuta, mamuren bat ekusela (*ikusten ebela*) uste eben. Eta esan eutsen: Ze-gaitik zagoze larri, ta zer dala-ta sortzen yatzuez biotzetan orrelako asmakeriok? Begira nire esku-oiñiak. Neu naz. Ikutu ta ikusi nagizue; mamuak ez dauko aragirik ez azurrik, Niri ikusten daustazuezanen".

Ta au esanda, eskuak, oiñak eta saietsa erakutsi eutsezan; eta arein siniste otza ta biotz-gorkeriagaitik, asarre egin eutsen, Bera herbiztuta ikusi ebenai sinistu ez eutselako (1).

Baiña pozaren-pozez ikaratuta, areik oraindik ez eben sinisten-eta, esan eutsen: "Ba dozue emen jatekorik?".

Areik arrain-erre apur bat eta ezti-orraze* bat eskeiñi eutsoen. Berak artu, ta arein aurrean jan ondoren, ondarrak batu ta banandu eutsezan. Poztu ziran, bada, ikasleak Jauna ikusteaz. Ta esan eutsen: "Auxe da esan neutsuena, zuekz nengoala esaten neutsuenean: "Moises'en legean. Igarleen idaztietan eta Eresietan (*Salmoetan*) Nitzaz idatzitako guztiak bete bearrak dira".

(1) Ikusten danez, beingo-beingoan ez eben sinistu ikasleak Jesus'en berbizkundera; ta ori dala-ta, Jesus'ek asarre egiten dautse.

* Ezti-orraze, abaraska: panal de miel.

Orduan, adimena argitu eutsen, Idaztiak uler-tzoko. Ta barriro esan eutsen: Bakea zuoi. Aitak bialdu nenduanez, bialtzen zaituet Nik bere".

Ta au esanda, arnasa emon eutsen, esanaz: "Artu egizue Arnasa Deuna (*Espiritu Santua*); zuek parkatu dagiezuezan pekatuak, parkatuak izango dira; ta zuek lotu daiezuezanai, lotuta geldituko yakez".

354. *Apostoluai agerpena, Tomas aurrean dala.*

(Jon 20, 24-29)

Baiña Tomas, Amaika areitako bat, Didimo eritzana, ez egoan arekin Jauna etorri zanean. Eta beste ikasleak esan eutsoen: "Jauna ikusi dogu".

Baiña arek erantzun eutsen: "Untze-ezaugarriak Aren eskuetan ikusi ez ba'dagidaz, ta nire atzamarra untze-zuloetan sartu ez ba'dagit eta nire eskua Aren saietsean, ez dot sinistuko".

Andik zortzi egunera, ikasleak barriro barruan egozan, eta Tomas bere bai eurakaz baterra. Ta ateak itxita egozala, Jesus etorri zan eta erdian jarri yaken esanaz: "Bakea zuoi".

Gero, Tomas'i dirautso: "Sartu emen zure atzamar ori, ta ikusi nire eskuak; ekazu zure esku ori, ta sartu nire saietsean; eta ez zadiz sinisgorra izan, sinisteduna baiño".

Tomas'ek erantzun eutsan: "Ene Jaun eta Jaungoikoa!".

Jesus'ek esan eutsan: "Ikusi nozulako, Tomas, sinistu dozu! Zorionekoak, ikusteke sinisten da-benak!".

355. *Tiberiades'ko itxasertzean.*

(Jon 21, 1-14)

Arrezkero, Jesus barriri ikasleai Tiberiades itxasbaterrean agertu yaken. Eta onelaxe agertu yaken.

Simon Pedro ta Didimo eritzan Tomas ta Natanael, Galilea'ko Kanatarra, ta Zebedeo'ren semeak eta Aren ikasletariko beste bi alkarregaz egozala, Pedro'k dirautse: "Arraintzara nora".

"Geu be zeugaz goaz", dirautsoe.

Urten ziran, bada, ta ontzira igota, gau aretan ez eben ezertxo bere atera.

Goiza eldu zanean, Jesus ur-ertzean aurkeztu zan; baiña ikasleak ez eben igarri Jesus zanik. Eta Jesus'ek esan eutsen: "Mutillak!, ba-dozue jatekorik?".

Erantzun eutsoen: "Ezer bere ez".

Arek dirautse: "Bota sarea eskumakaldera, ta artuko dozue".

Bota eben, bada, ta ezin atera eben, arelako arrainketaz. Orduan, Jesus'ek maite eban ikasle arek, Pedro'ri esan eutsan: "Jauna da".

Simon Pedro'k Jauna zala aditu ebaneko, soingaiñekoa jantzi eban, —beste jantzirik ez eroian-eta—, ta itxasora zapart-egin eban. Beste ikasleak ontzian etorri ziran, sarea natarrak eka-

rrela, legorretik berreunen bat ukondo baiño urrunago ez egozan-eta.

Legorrera jatsi ziranean, txingar batzuen gainean arrain bat ikusi eben, eta ogia. Jesus'ek dirautse: "Ekarri ona arrain artu-barriok".

Simon Pedro ontzira igo zan, eta sarea legorreraiño ekarri eban, eun eta berrogei ta amairu arrain aundiz betea. Eta ainbeste izanarren, ez zan sarea urratu. Jesus'ek dirautse: "Zatoze, jan egizue".

Ta ikasletariko bat bere ez zan ausartu Ari "nor zara Zu" itantzen, ba-ekien Jauna zana-ta.

Orduan, Jaunak, urreraturik, ogia artu ta ba-damotse, baita arraiña be.

Illen artetik biztu ondoren, auxe izan zan Jesus'ek ikasleai egindako irugarren agerpena.

356. *Pedro, Elizaren buru.*

(Jon 21, 15-23)

Jan ebenean, Jesus'ek Simon Pedro'ri diñotso: "Simon, Jon'en seme: oneik baiño geiago maite nozu?" (1).

"Bai, Jauna", —dirautso—, Zuk ba-dakizu maite zaitudana".

Jesus'ek diñotso: "Zaindu egizuz nire bildotsak".

(1) Jesus'en iru itaun, eta Pedro'ren iru erantzun. Jesus'i iru maitasun-egitada egiten dautsaz, apaltasun zintzoz, iru ukatzeen orde. Ta orrela, Jesus'ek Elizaren Buru jarten dau.

Bigarrenez dirautso: "Simon, Jon'en seme: Maite nozu?".

Pedro'k diñotso: "Bai, Jauna: Zuk ba-dakizu maite zaitudana".

Jesus'ek dirautso: "Zaindu nire bildotsak".

Irugarrenez diñotso: "Simon, Jon'en seme: Maite nozu?".

"Maite nozu" iru aldiz Jesus'ek esan eutsan eta, Pedro itun jarri zan, eta esan eutsan: "Jauna, Zuk guztia dakizu; Zuk ondo dakizu maite zaitudana".

Jesus'ek dirautso: "Zaindu nire bildotsak. Bene-benetan dirautsut: gazte zintzazanean, zeuk lotzen zenduan zure gerria, ta nai zenduan tokira joaten zintzazan. Baiña zaartutakoan, zure eskuak zabalduko dozuz, ta beste norbaitek lotuko dautsu gerria, ta nai ez dagizun tokira eroango zaitu" (1).

Au esan eutsan, zetariko eriotzaz Jaungoikoa goratuko eban adierazoteko. Au esanda gero, dirautso: "Jarraitu egidazu".

Pedro'k, bihurtuta, Jesus'ek maite eban ikasle a atzetik etorrela ikusi eban, aparitan Jesus'en bular-ondoan etzunda egoala "Jauna, nok salduko zaitu?" itandu eutsana.

Pedro'k, bada, orai ikusirik, Jesus'i dirautso: "Jauna, ta ori zer?".

(1) Gurutzeko eriotzaz ilgo dabela, iragarten dautso Jesus'ek Pedro'ri.

Jesus'ek diñotso: "Ni etorri arte ori orrela egotea nai ba'dot, zuri zer? Zuk jarraitu egidazu".

Arrezkero, anaien artean surru-murrua sortu zan, "ikasle a ez zala ilgo". Baiña Jesus'ek ez eban "ez da ilgo" esan, "Ni etorri arte orrela egotea nai ba'dot, zuri zer?" baiño.

357. *Jesus, amaika apostoluai Galilea'ko mendi baten agertzen yake.*

(Mt. 28, 16-20. Mk. 16, 15-18)

Eta amaika ikasleak Galilea'ra joan ziran. Jaunak adierazo izan eutsen mendira. Ta ikusi ebenean, gur egin eutsoen; naiz-ta batzuk, le-nengotan, ezpaitan (*zalantzan*) jarri. Ta Jesus'ek, areikana urreraturik, itz egin eutsen, esanaz: "Agintaritza oso-osea emon yat Niri zeru-lurretan. Zoaze lurbira osoan zear, eta gizaki guztiai Barri Ona iragarri egiezue; erri guztiai irakatsi egiezue, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean bateatuz; ta agindu dautsuedan guztia beteten irakatsiz.

Sinisturik bateatu daitena, zeruratuko da; baiña sinistu nai ez dagiana, galduko da. Sinistu dagienai, barriz, mirari oneik jarraituko dautsee: Nire izenean txerrenak jaurtiko dabez, izkuntza barriak erabilli, sugeak eskuan artzeko lain izan; eta ilgarriren bat edan ba'dagie bere, ez dautse kalterik egingo; geisoai eskuak ezarriko dautseez, ta osatuak izango dira. Ta begira:

Neu egongo naz zuekaz egun oro gizaldi guztiak amaitu arte”.

358. *Jesus'en azken-itzak.*

(Lk. 24, 46-49)

Eta esan eutsen: “Olantxe dago idatzita, eta olantxe Kristo, nekeak jasan ondoren, irugarren egunean illen artetik biztu bearra zan. Eta onela nire izenean erri guztiai, Jerusalem'dik asita, damua ta pekatuen parkamena iragarri bear yake. Guztion autortzailleak, barriz, zeuok zaree. Begira: Neuk bialduko dautsuet nire Aitak agindu dautsuena (1). Bitartean, zagoze urian (2), Goi-indarrez jantziak izan arte”.

359. *Jauna'ren Igokundea.*

(Mk. 16, 19-20. Lk. 24, 50-53)

Jesus Jaunak, arei arela itz egin ondoren, Betania'rako bidera atera ebazan, eta eskuak jasorik, onetsi ebazan. Eta bedeinkatzen ebazala, areikandik alde egin eta zerura igo zan, eta Jaungoikoaren eskumakaldean jazarrita dago.

Areik, barriz, Ari gur-egin ondoren, Jerusalem'era pozez heterik biurtu ziran. Eta beti eliz nagusian egozan, Jaungoikoa goersten eta ospatzen ebela.

(1) Espiritu Santua.

(2) **Urian:** Jerusalem'en.

360. *Apostoluak edonun Barri Ona zabaltzen.*

(Mk. 16, 28)

Areik, barriz, joan ziran, eta alde guztietan Barri Ona zabaltzen eben, Jauna laguntzaille ebela, ta arein itzak mirariz gogortzen ebazala.

361. *Azkena.*

(Jon 20, 30-31; 21, 24-25)

Idazti onetan idatzi ez diran beste mirari asko, bere, egin ebazan Jesus'ek bere Apostoluen aurrean. Azaldutako oneik, barriz, Kristo Jaungoikoaren Seme dala sinistu dagizuen idatzi dira, ta sinistuz, Aren izenean bizitza izan dagizuen.

Auxe da idatzitakoen autor dagian (*egiten dauan*) ikaslea, baita idatzi dauzana bere; ta badakigu beronen autorra benetakoa dana.

Beste gauza asko bere egin ebazan Jesus'ek. Baiña guztiak bana-banaka idatzi ezkeru, ez dot uste ludi (*mundu*) guztian be tokirik izango litzakenik, aretarako idatzi bear litzakezan liburuak jarteko.

BILLABIDEAK

I. LITURJI-BILLABIDEA

ELIZ-URTEAREN ARO EDO ALDIA

	Atala
Elgaroko (Abenduko) Lenengo Igandea	259-261
Elgaroko (Abenduko) Bigarren Igandea	91- 92
Elgaroko (Abenduko) Irugarren Igandea	33
Elgaroko (Abenduko) Laugarren Igandea	24
Gabon-aurreko eguna	9
Gabon-eguna (Jaiokundea): Lenengo Meza	11- 12
Gabon-eguna (Jaiokundea): Bigarren Meza	13
Gabon-eguna (Jaiokundea): Irugarren Meza	2
Gabon-zortzi arteko Igandea	16- 18
Gabon-zortzi: Jaunaren Erdainkuntza	14
Jesus Izen guztiz Deuna	14
Jaunaren Erakuskundea edo Agerkundea (Erre- gen)	19
Agerkunde-ondorengo Lenengo Igandea: Sen- di Deuna	23
Agerkunde-ondorengo Bigarren Igandea	35
Agerkunde-ondorengo Irugarren Igandea	53, 89
Agerkunde-ondorengo Laugarren Igandea	115
Agerkunde-ondorengo Bosgarren Igandea	107
Agerkunde-ondorengo Seigarren Igandea	108-110
Garizuma-aurreko Lenengo Igandea (Septua- gesima)	230

Garizuma-aurreko Bigarren Igandea (Sexagesima)	102-104
Garizuma-aurreko Irugarren Igandea (Quinquagesima)	233, 235
Auts-eguna	77- 78
Garizumako Lenengo Igandea	29
Garizumako Bigarren Igandea	151
Garizumako Irugarren Igandea	188-191
Garizumako Laugarren Igandea	130-131
Nekaldiko Lenengo Igandea	164-165
Nekaldiko Bigarren Igandea (Abar edo Erre-mu)	237, 269-344
Eguen Guren	273
Bariku Guren	293-342
Larunbat Guren	345-346
Berbizkunde-Igandea	345-346
Igande Zuri (In Albis)	353-354, 361
Berbizkunde-ondorengo Bigarren Igandea	167
Berbizkunde-ondorengo Irugarren Igandea	288
Berbizkunde-ondorengo Laugarren Igandea	287
Berbizkunde-ondorengo Bosgarren Igandea	288-289
Jaunaren Igokundea	290-291
Igokunde-ondorengo Igandea	286
Pentekostes-aurreko eguna	281-282
Pentekostes-Igandea (Gogo Deunaren Etorkundea)	282-283
Irutasun guztiz Deunaren Igandea	357
Gorpuzti	137
Pentekostes-ondorengo Bigarren Igandea	207-208
Jesus'en Biotzaren eguna	340
Pentekostes-ondorengo Irugarren Igandea	210
Pentekostes-ondorengo Laugarren Igandea	47
Pentekostes-ondorengo Bosgarren Igandea	67- 68

Pentekostes-ondorengo Seigarren Igandea	53, 89
Pentekostes-ondorengo Zazpigarren Igandea	86- 87
Pentekostes-ondorengo Zortzigarren Igandea	212
Pentekostes-ondorengo Bederatzigarren Igandea	238, 241
Pentekostes-ondorengo Amargarren Igandea	225
Pentekostes-ondorengo Amaikagarren Igandea	142
Pentekostes-ondorengo Amabigarren Igandea	184
Pentekostes-ondorengo Amairugarren Igandea	222
Pentekostes-ondorengo Amalagarren Igandea	80- 81
Pentekostes-ondorengo Amabosgarren Igandea	90
Pentekostes-ondorengo Amaseigarren Igandea	205-206
Pentekostes-ondorengo Amazazpigarren Igandea	250-251
Pentekostes-ondorengo Amazortzigarren Igandea	54
Pentekostes-ondorengo Emeretzigarren Igandea	247
Pentekostes-ondorengo Ogeigarren Igandea	45
Pentekostes-ondorengo Ogetabatgarren Igandea	176
Pentekostes-ondorengo Ogetabigarren Igandea	243
Pentekostes-ondorengo Ogetairugarren Igandea	117-119
Pentekostes-ondorengo Ogetalagarren Igandea	258-261

II. ATALEN BILLABIDEA

	<u>Ori.</u>
1.—Lukas Deunaren sarrera	9
2.—Eta Itza aragi egin zan	9
3.—Jon Bateatzaillearen sorrera	13
4.—Aingeruak Maria'ri Jesus'en jaiotza iragar- ten dautso	15
5.—Maria'k Elisabet'i egin eutsan ikustaldia ...	16
6.—Andra Mari'ren abestia	17
7.—Jon Bateatzaillearen jaiotza	17
8.—Zakarias'en abestia	13
9.—Jesus'en Sorkundea	19
10.—Jesu-kristo'ren narea	21
11.—Jesu-Kristo Gure Jaunaren jaiotza	22
12.—Aingerua ta artzaiñak	23
13.—Artzaiñak Jesus gurtzera	23
14.—Jesus'en Erdainkuntza	24
15.—Jesus'en elizan sartzea	24
16.—Simeon zaarra	25
17.—Simeon'en abestia	25
18.—Ana igarlemea	26
19.—Aztien (Erregeen) gurtza	26
20.—Ejipto'ra iges	28
21.—Umetxo errubageen iltea	29
22.—Jose Nazaret'era biurtzen da	29
23.—Jesus irakasle-artean — Ixilleko bizitza ...	30

24.—Jon Bateatzaillea Jordan'en agertzen da ...	33
25.—Garbairako deia	34
26.—Maitasunaren eta zuzentasunaren ardura es- katzen dau	35
27.—Jon'ek Kristo iragarten dau	35
28.—Jesus'en bateoa	36
29.—Kristo'ren barau ta zirikaldiak	37
30.—Batzarre Nagusiaren ordezkariak Jon'egana; Jon'en autorra	38
31.—Jon'en beste autorkuntza batzuk	39
32.—Jesus'en lenengo ikasleak	40
33.—Pedro'k Jesus lenengoz ikusten dau	41
34.—Felipe ta Natanael'i deia	41
35.—Kana'ko ezteguak	42
36.—Jesus, Kaparnaum'era	44
37.—Eliza-nagusiko salerosleak	44
38.—Jesus'i buruz judar askoren sinismen otza	45
39.—Nikodemo'gaz ikustaldia	45
40.—Jesus Judea'n Barri Ona irakasten. Jon'en azken-autorra	47
41.—Jon espetxean, eta Jesus Galilea'ra biur- tzen da	49
42.—Jesus eta samaritar emakumeak	49
43.—Samaritar askok Kristo sinisten dabe	52
44.—Jesus Galilea'n	53
45.—Jesus'ek errege-etxeko baten semea osatzen dau	53
46.—Jesus Jaungoikoaren Erreñua zabaltzen as- ten da	54
47.—Lenengo ikasleak. — Arraintza (arrain-ar- tze) arrigarria	55
48.—Kaparnaum'go sinagogan irakasten. Txerren- dun bat osatzen dau	57

49.—Jesus'ek Pedro'ren amagiharreba osatzen dau	58
50.—Beste osakuntza batzuk	58
51.—Kaparnaum'dik urten eta otoi egitera baso -ezkutura doa	59
52.—Jesus Galilea-zear irakasten	59
53.—Legenarduna osatzen dau	59
54.—Kaparnaum'go elbarria osatzen dau	60
55.—Mateo'ri deia	62
56.—Baraua zala-ta	63
57.—Jesus'ek urtegiko elbarria osatzen dau	64
58.—Jesus'ek bere buruaren alde egin eban itzaldia	66
59.—Ikasleak larunbatez galburu batzuk artzen dabez	69
60.—Beste larunbat batez gizon esku-igarra osa- tzen dau	70
61.—Pariseotarrak Jesus galtzea erabagiten dabe	71
62.—Jesus Jenesarret'eko aintzira-ondoan: ainbat osakuntza	71
63.—Amabien aukeraketa	72
64.—Mendiko itzaldia: gertaera	73
65.—Zorionak eta zoritxarrak	73
66.—Gatz eta Argi	75
67.—Kristo ta Legea: Aginduak bete	75
68.—Gizergaitza ta asarrekeria	76
69.—Ezkontza-loitze ta gogapen (pentsamentu) li- zunak	77
70.—Ezkontzaustea	78
71.—Guzur-zinãltza ta ziña	78
72.—Beste ainbesteko ordain-legea	79
73.—Arerio-maitakuntza	79
74.—Limosna egikera	80

75.—Otoikera	81
76.—Aita gurea	81
77.—Barauaz	82
78.—Zeruko altxorra	82
79.—Bergia, gorputzaren argi-zuzia	83
80.—Jaungoikoa bakarrik otseindu	83
81.—Jaungoikoaren arduratasuna	83
82.—Irizkeriaz	84
83.—Otoitzaren indarra	85
84.—Alkar-maitasun-araua	86
85.—Ate biak eta bide biak	86
86.—Igarle aizun edo guzurrezkoak	86
87.—Ikasle jatorrak	87
88.—Itzaldiaren amaia: etxea aitz-gaiñean eta are-gaiñean	87
89.—Eunburuaren morrroia osatzen dau	88
90.—Naim'go alargunaren semea berbizen dau	90
91.—Jon Bateatzaillearen geznariak Jesus'egana	90
92.—Jesus, Jon goratzen	91
93.—Jesus'ek oraingo gizaldiari asarre egiten dautso	93
94.—Emakume pekatari batek Jesus'i oiñak garbitzen dautsaz	93
95.—Emakume on batzuk Jesus'i jarraitzen	95
96.—Kaparnaum'en: etxeokak, kezkaz	95
97.—Jesus'ek txerrendun itsu ta mutua osatzen dau	96
98.—Pariseotarren zitalkeria	96
99.—Goteunaren (Espiritu Santuaren) aurkako pekatua	97
100.—Pariseotarrak, euren egintza gaiztoen errudun	98
101.—Jesus'en Ama ta senideak	99

102.—Ereillea	99
103.—Zegaitik itz dagitse Jesus'ek ipuiñen bidez?	100
104.—Jesus'ek ereillearen ipuiña azaltzen dau	101
105.—Jaunaren esakun batzuk	102
106.—Berez ermeten dan aziaren ipuiña	103
107.—Zoragariaren ipuiña	103
108.—Zerba-aziaren ipuiña	104
109.—Legamiñaren ipuiña	104
110.—Jesus'ek gizataldeari ipuiñetan irakasten dautso	105
111.—Zoragariaren ipuiña azaltzen dau	105
112.—Altxor ezkutua ta bitxia	106
113.—Sarearen ipuiña	106
114.—Ipuiñen amaia: idazlari jakintsua	107
115.—Ekaitza baretuta	107
116.—Gerasa'ko txerrendun bi	108
117.—Jairo'ren alaba	110
118.—Odol-jariodunaren osakuntza	111
119.—Jairo'ren alabaren berbikundea	112
120.—Itsu bien osatzea	114
121.—Jesus'ek, txerrendun mutua osatzen dau ...	114
122.—Jesus Nazaret'en. Irakasten diardu, ta ez dabe onartzen	114
123.—Jesus'en irakasta ta apostoluen egikizuna	117
124.—Amabientzako irakaspenak	117
125.—Lanerako beste irakaspen batzuk	118
126.—Edonoizerako irakaspen geiago	119
127.—Jesus ta apostoluk irakastera doaz	121
128.—Jesus'en ospea Eroses'enganaño	121
129.—Jon Bateatzaillearen eriotza	122
130.—Jesus apostolukaz Betsaida-ondoko baso-alde batera baztartzten da	123
131.—Lenengo ogi-banatzte ugaritsua	124

132.—Jesus itxaso-gaiñean ibilli dabil. Bigarrenez ekaitza baretuta	127
133.—Genesaret'en: ainbat mirari	128
134.—Gizataldea Jesus'en billa Kaparnaum'era biurtzen da	129
135.—Jaungoikoaren ogia	129
136.—Jesus Bera da Jaungoikoaren Ogia	130
137.—Eukaristiaren agintza agiria	131
138.—Itzaldiaren ondorekoak	132
139.—Idazlari ta pariseotarrak eztabaidan	133
140.—Garbia, ta garbia ez dana	135
141.—Jesus'ek kanaanar emakumearen alaba osatzen dau	137
142.—Jesus'ek gizon gor-mutua osatzen dau	138
143.—Beste geiso asko osatzen dauz	139
144.—Ogi ta arraiñen bigarren ugariketa	139
145.—Pariseotarrak ezaugarri-eske	140
146.—Pariseotarren legamiña	141
147.—Betsaida'ko itsua	142
148.—Pedro'ren autorra. Pedro Elizaren oiñarri ta buru	143
149.—Bere Nekaldi ta Berbizkundera argi ta garbi iragarten dauz	144
150.—Norberaren burua ukatu bearra	145
151.—Jesus'en irudi-aldatzea	146
152.—Elias'en etorkundeaz	147
153.—Mutiko illargi-geisoa osatzen dau	147
154.—Otoitzaren eta barauaren indarra	149
155.—Jesus, Jerusalem'era igoten da	150
156.—Jesus Eliza-nagusian irakasten	151
157.—Judarrak Jesus arapatzea nai dabe	153
158.—Jaietako azken-eguna: Espiritu Santua agintzen dau	154

159.—Jesus dala-ta, gizataldekoen artean eztabaida sortzen da	154
160.—Jesus dala-ta, batzar nagusikoak eztabaidan	155
161.—Emazte lizunkoia	155
162.—Jesus, gizargia da	156
163.—"Ni noan tokira, zuek ezin etorri"	157
164.—Jaungoikoaren semeak eta txerrenkumeak	159
165.—"Abraham sortu izan baiño len, ba-naz ni"	161
166.—Jaietzez itsua	162
167.—Artzain Ona	166
168.—Kristo'k bere Nekaldia ta Berbizkundera barriro aurretiaz iragartzen dauz	168
169.—Kristo'k drakma biko txanpona ordaintzen dau	168
170.—Zeru-erreñuan, nor da aundiena?	169
171.—Jesus'en izenez txerrenak jaurten ebazana	170
172.—Gaizpiderik ez emon	171
173.—Gatzaren bardintza	172
174.—Ardi galduaren ipuiña	172
175.—Geideen (lagun-urkoen) pekatuak zelan zuzendu, ta otoitzaren indarra	172
176.—Irañak parkatu: morroi biotz-gogorra	173
177.—Samariarrak Jesus txarto artzen dabe	175
178.—Iru jarraitzalle barri	175
179.—Perea'n: irurogei ta amabi ikasle	176
180.—Korazain, Betsaida ta Kaparnaum madarikatzen	178
181.—"Zuek entzun zaiezanak, neu entzuten nau"	178
182.—Iruurogei ta amabi ikasleen biurtzea	179
183.—Jesus'en esker-itzak	179
184.—Jeriko-ondoan: Samariar zintzoaren ipuiña	180
185.—Betania'n: Marta ta Mari	182
186.—Oliamendi'n: otoikera ta otoiaaren indarra	182

187.—Jerusalem'en: Eliz-eskeinte jai. "Aita ta Ni bat gara"	184
188.—Jesus'ek ixerren mutu bat jaurten dau ...	186
189.—Azken-aldia lenengoa baño txarragoa ...	187
190.—Zorionsua Jesus'en Ama!	187
191.—Jonas igarlearen ezaugarria	188
192.—Begia da gorputzaren argi-zuzia	188
193.—Pariseotar baten etxean: pariseotarren azal-keria	189
194.—Pariseotar azalutsen legamiña	191
195.—Ondasun-goserik ez izan. Aberats burubagearen ipuiña	192
196.—Lurreko ondusunen ardurarik ez izan ...	193
197.—Morroi ernaien ipuiña	194
198.—Etkezain zintzoaren eta morroi gaiztoaren ipuiña	195
199.—Esaera batzuk. Aldien ezaugarriak	196
200.—Perea'n: damu izan bearra. Pikondo agorra	197
201.—Emakume geiso bat larunbatez osatzen dau	199
202.—Zerba-aziaren eta legamiñaren ipuiña	199
203.—Zenbat dira zerurako aukeratuak?	200
204.—Judea-ondoan: Erodes'en zemaik. Jerusale-lem, Jerusalem!	201
205.—Gizon ur-geiso bat osatzen dau	202
206.—Apaltasun eta maitasunerako aolkua	202
207.—Apari aundiaren ipuiña	203
208.—Jesus'i zelan jarraitu? Torrearen eta erregearen ipuiñak	204
209.—Gatzaren ipuiña	205
210.—Ardi galdua. Drakma galdua	205
211.—Seme galdua	206
212.—Etkezain gaiztoa	209
213.—Pariseotarren zekenkeria	210

214.—Aberats jatuna ta Lazaro eskekoa	211
215.—Lazaro'ren eriotza	212
216.—Marta ta Mari'ren negarra	213
217.—Lazaro'ren berbizkundera	215
218.—Judarren nagusiak Jesus il nai	216
219.—Jesus Efren'era baztertzen da	216
220.—Gaizpiderik ez emon. Iraiñak parkatu ...	217
221.—Sinistearen indarra. "Morroi txarrak gara"	217
222.—Amar legenardunak	219
223.—Jaungoikoaren Erreiñuaren etorrera	219
224.—Epaille lotsagabea ta emakume alarguna ...	221
225.—Pariseotarra ta zergaria	221
226.—Perea'n: Ezkontza, ausi-eziña	222
227.—Jesus'ek umetxoak bedeinkatzen dauz	224
228.—Gazte aberatsa	225
229.—Aberatsak nekez zeruan sartzen dira	226
230.—Mastiko langilleak	227
231.—Judea-ondoan. Jesus'ek Bere Nekaldia iru- garrenez iragarten dau	229
232.—Zebedeo'ren emaztea ta semeak	229
233.—Jeriko'n: Timeo'ren seme itsua. Zakeo'ren etxean	231
234.—Amar minak	232
235.—Jesus'ek Bartimeo ta beste itsu bat osatzen dauz	234
236.—Betania'n: Mari'k Jesus'i oiñak garbitzen dautsaz	235
237.—Jesus ospez beterik sartzen da Jerusalem'en	237
238.—Jesus, negarrez	239
240.—Pikondo igaitua	240
241.—Elizatik salerosleak jaurten dauz	241
242.—Atzerritarrak Jesus'egaz	242

243.—Pikondo igartua. Sinismenaren eta otoitzaren indarra	243
244.—Jesus'en eskubidea	244
245.—Mastira bialdutako seme biak	245
246.—Mastiko langille gaiztoak	246
247.—Errege-ezteguak	248
248.—Kaisar'entzako zerga-ordainketa	250
249.—Sadukeotarrak eta berbizkundera	251
250.—Legearen agindurik nagusia	252
251.—Kristo, Dabid'en seme ta jauna	254
252.—"Gorde gero Lege-irakasle ta pariseotarrakandik!"	254
253.—Jerusalem'en ondamedia iragarten dau ...	258
254.—Emckume alargunaren limosnatxoa	258
255.—Judarren sinisgogorkeria	259
256.—Jerusalem'go Eliza-nagusiaren ondamedia: Jesus'en iragarkiak eta apostoluen itaunak	260
257.—Jerusalem'go eliza ta uriaren ondamedia ezaupideak	261
258.—Jerusalem'go elizaren eta uriaren ondamedia iragarten dau	263
259.—Gizasemearen bigarren etorreraren ezaugarriak	264
260.—Kristo'ren bigarren etorrera	265
261.—Jerusalem'go ondamedia, noiz?	265
262.—Kristo'ren bigarren etorrera, noiz?	266
263.—"Ernai egon". Sarearen eta lapurraren ipuiñak	266
264.—Iratzarririk dagozan morroiak; morroi zintzoa ta morroi gaiztoa	267
265.—Neska burugabeak eta zurrak	268
266.—Talentuen ipuiña	269

267.—Azken-epaia	270
268.—Jesus'en arazoak azken-egunetan	272
269.—Batzarre nagusiaren erabagia. Judas'en saldukeria	272
270.—Azken-aparitarako gertaerak	273
271.—Pazko-apariaren asiera	274
272.—Apostoluen eztabaida	274
273.—Jesus'ek bere ikasleen oiñak garbitzen	275
274.—Jesus'ek Judas'en azpikeria agertzen dau ...	277
275.—Eukaristi deuna	279
276.—Jesus, goretsia. Agindu barria. Alkar maite	279
277.—Pedro'ren ukatzeak aurretiaz iragarten dauz	280
278.—Pozkarri-itzak; Zerua agintzen dautse	282
279.—Tomas'en eta Felipe'ren itaunak	282
280.—Sinismenaren indarra	283
281.—Beste pozkille bat	283
282.—"Ez zaituet umezurtz itziko"	284
283.—Barriro be Poz-emoillea agintzen dautse ...	284
284.—Oliamendi'runtz. Matsondoa ta aienak	285
285.—Lagun-urkoaganako agindua	286
286.—Lurkoiaren gorrotoa	287
287.—Espiritu Santuaren ekintza	288
288.—"Barriro ikusiko nozue"	289
289.—Itzaldiaren azken-zatia	290
290.—Bere buruaren alde	291
291.—Bere ikasleen alde	292
292.—Geroko Elizaren alde	293
293.—Baratzera eltzen da	295
294.—Otoitza	295
295.—Judas'i itxaroten	297
296.—Jesus atxillotuta	297
297.—Saltzaillearen lazтана	297
298.—Jesus'en almena	298

299.—Pedro'ren gizonkeria	298
300.—Gizatalde ari Jesus'ek dirautsana	299
301.—Jesus'en lotzea	299
302.—Jesus, Anas abade-nagusiaren aurrean	300
303.—Jesus, Kaipas'en aurrean	301
304.—Irañak	302
305.—Pedro'ren lenengo ukatzea	303
306.—Bigarren ukatzea	304
307.—Iruugarren ukatzea	304
308.—Jesus bigarrenez batzarre nagusian	305
309.—Judas'en amaia	306
310.—Odol-zelaia	306
311.—Jesus, Pilatos'enean	307
312.—Salakuntzak	307
313.—Isilleko itaunketa	308
314.—Salakuntza barriak	308
315.—Jesus, Erodes'en aurrean	309
316.—Barrero be Pilatos'en aurrean	310
317.—Jesus, ala Barrabas?	310
318.—Pilatos'en emaztea	311
319.—Jesus baiño Barrabas naiago	311
320.—"Zer egingo dautsat, bada, Jesus'i?"	311
321.—Lapurra, askatuta	312
322.—Arantzazko burestun edo koroia	312
323.—"Ona emen Gizona!"	312
324.—Jaungoikoaren Seme?	313
325.—Pilatos'en azken-alegiñak Jesus askatzeko	314
326.—Gurutzerako epaia	314
327.—Zirene'ko Simon	315
328.—Jerusalem'go alabak	315
329.—Jesus, gurutzean	316
330.—Gurutzeko idazkuna	317
331.—Soiñekoak zotzetara	317

332.—Jesus'i irri-egiten	318
333.—"Gaur Nigaz zeruan izango zara"	318
334.—Jesus'en Ama ta gure Ama	319
335.—Azken-itzak	319
336.—"Amaitu da"	320
337.—Izadia naigabez	321
338.—Gurutze-ondokoak, damuz beterik	321
339.—Jesus'en adiskideak	321
340.—Jesus'i saietsa zulatu	322
341.—Gurutzetik jatsiten dabe	323
342.—Illobia	323
343.—Emakumeak, usaingarriak gertatzen	324
344.—Judarrak Jesus'en illobia zaintzen	324
345.—Emakumeak illobira doaz	327
346.—Aingeruak illobi-ondoan	328
347.—Emakumeak ikasleakana doaz	329
348.—Pedro ta Jon illobira doaz	329
349.—Mari Madalen'i agertzen yako	329
350.—Jesus, beste emakumei agertzen yake	331
351.—Illobi-jagoleak eta abade-buruak	331
352.—Jesus, Emaus'ko ikasleakana	332
353.—Jesus, Apostolui ta ikasleai agertzen yake	333
354.—Apostolui agerpena, Tomas aurrean dala ...	335
355.—Tiberiades'ko itxasertzean	336
356.—Pedro, Elizaren buru	337
357.—Jesus, amaika apostolui Galilea'ko mendi baten agertzen yake	339
358.—Jesus'en azken-itzak	340
359.—Jauna'ren Igokundea	340
360.—Apostoluak edonun Barri Ona zabaltzen ...	341
361.—Azkena	341

1960'gko.
Garillean
amaitu zan
«Gráficas Izarra»
irarkolan
DONOSTIA

UTSAK ZUZENDU

Orri.	Lerr.	Diño	Esan bear
9	14	gaz	gan
77	4	dirautsuet	dirautsut
89	8	eutsan	eutsen
98	19	epeikunde	epaikunde
120	23	mateago	maiteago
165	8	barri,	barriz,
166	12	i enez	izenez
169	3	eutsen	eutsan
169	12	arrear	aretan
169	12	Arren	Aren
185	3	ebazan	ebezan
197	16-17	zadizan	zagizan
203	28	buztardi	idi-buztarri
205	11	na?	nari?
206	15	dau,	dauz,
213	14	ziarduala	iñoala
216	11	dauskue	dauskuez
232	15	ba'dagiot	ba'dautsat
258	13	geldiko	geldituko
262	11	dautsuet	dautsuedaz
264	15	saltzalderagiño	sartzalderagiño
275	18-19	sartu eutsan	sartuta eukan
283	11	daitzuedana	dautsuedana

T

Iza-
a.

. 25

eta-
noiz;
itza-
as)...

oak).

Sarritan erabili diran itz batzuk

- Abesti: *canto, cántico.*
 Aintza: *gloria, alabanza.*
 Altzor: *tesoro.*
 Arnari: *fruto.*
 Aurkeztu: *presentarse.*
 Aurkitu: *encontrar.*
 Autor-egin: *dar testimonio, testificar.*
 Autorle: *testigo.*
 Azaluts: *hipócrita.*
 Berbiztu: *resucitar.*
 Billatu: *buscar.*
 Espetxe: *cárcel.*
 Ezetsi: *despreciar, rechazar, menospreciar.*
 Gaizkatu: *salvar.*
 Gaizpide: *escándalo.*
 Gizatalde: *muchedumbre.*
 Goretzi, goratu: *ensalzar, exaltar, glorificar.*
 Gur-egin, gurtu: *adorar, reverenciar.*
 Idazlari: *escriba.*
 Idatzi: *escribir.*
 Idoro: *hallar.*
 Ikertu: *visitar.*
 Itz: *palabra.*
 Itz-egin: *hablar.*
 Jazartu, jazarri: *perseguir.*
 Ospe: *fama, renombre.*
 Ulertu: *entender, comprender.*
 Zerga: *tributo, contribución.*
 Zergari: *publicano.*

T

Iza-
ta.

). 25

meta-
noiz;
itza-
as)...

ak).

EGILLEAREN BESTE ZERBAIT

ORBELAK

(1958'garren urtean argitaratutako olerkiak: Izadikoak, Maitezkoak eta Biozkadak). 20 peseta.

BITARGI

(1960'garren urtean argitaratutako olerkiak). 25 peseta.

ARGITARATZEKO ASMOTAN

UDAZKEN

(Olerki eginbarriak).

EUSKALERRIA

(Itz-lauz). — Abizenen oiñetxeak; aitorsemeta-sun-agiriak (pruebas de hidalguía), non eta noiz; abizenen esanai edo biurpena; abizen bakoitzaren ikurdi edo mazmarroa (escudo de armas)... Amar milla abizen inguru.

ITUNBARRIA (osorik).

IÑAZIO DEUNAREN GOGO-JARDUNAK (Ejertzioak).